

Garapenerako lankidetzza-proiektu eraldatzaileak egiteko eskuliburua

Gaitasunen indartzearen, partaidetzaren,
genero-ekitatearen, eskubide-ikuspegiaren
eta iraunkortasun ekologikoaren bitartez



Garapenera

Garapenerako lankidetza-proiektu eraldatzaileak egiteko eskuliburua

Gaitasunen indartzearen, partaidetzaren, genero-ekitatearen,
eskubide-ikuspegiaren eta iraunkortasun
ekologikoaren bitartez



ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIAKAKO SAIALA
Gutuzen / Unidad de Guías

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
ASUNTOS SOCIALES
Departamento de Empleo y Asuntos Sociales



Edizioa: Eusko Jaurlaritza

Autoreak: Ainhoa López, Irantzu Varela

Kolaborazioak: M^o Luz Iñarra, Nekane Lavín, Gorka Mola

Èskerrak: Elisabet Padiàl, Arantzazu Santos, Gerardo Zamora

Itzulpena: Eusko Jaurlaritzako Publikazio Zerbitzua

Diseinua eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.L.

Lege zenbakia: Bi-2712-09



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Generikoa Èspania

Creative Commons-en lizentziapean dago. Aske zara lan hau kopiaitzeko, banatzeko eta publikoki hedatze-ko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar ituzula, eta ezin duzula merkataritza xedeta-rako erabili. Èzin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

Aurkibidea

I. Eskuliburuaren aurkezpena, helburuak eta eskuliburua erabiltzeko orientabideak	5
I.1. Zertarako proiektuaren zikloaren beste kudeaketa-eskuliburu bat?	7
I.2. Nori dago zuzendua?	8
I.3. Nola erabili?	8
II. Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Gakoak	9
II.1. Aurrekariak eta bilakaera	11
II.2. Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Plan Zuzentzailea	14
II.2.1. Helburuak	15
II.2.2. Sektore-arloak	16
II.2.3. Zehar-lerroak	17
III. Esparru logikoaren ikuspegiaren metodologia tresna gisa	25
III.1. Oinarrizko kontzeptuak	27
III.1.1. Zer da garapenerako lankidetzaren proiektu bat?	27
III.1.2. Zertarako balio du Esparru Logikoak?	28
III.1.3. Zehar-lerroak Esparru Logikoaren Ikuspegian	32
III.1.4. Nola egiten da garapenerako lankidetzaren proiektu bat Esparru Logikoaren Ikuspegia erabiliz?	44
III.2. Proiektuak identifikatzea: planifikatzeko aztertzea	47
III.2.1. Identifikazioaren eremua	51
III.2.2. Zehar-lerroak identifikazio-etapan sartzea	53
III.2.3. Xede-biztanleriaren profila	57
III.2.4. Arazoen zuhaitza	76
III.2.5. Helburuen zuhaitza	93
III.2.6. Estrategien azterketa	100
III.3. Egingo duguna planifikatzea: Proiektuaren plangintzako ideia nagusia	106
III.3.1. Esku-hartze logika	107

III.3.2. Adierazleak	112
III.3.3. Egiaztapen-iturriak	117
III.3.4. Hipotesiak	118
III.3.5. Zehar-lerroak proiektuaren plangintzako ideia nagusian	120
III.3.6. Zeregin, baliabide eta kostuen taula	134
III.4. Proiektuak formulatzea: plangintza dokumentu batean laburtzea	139
III.4.1. Formulazioaren oinarrizko elementuak	139
III.4.2. Zehar-lerroak formulazioan sartzea	151
III.4.3. Bideragarritasuna eta iraunkortasuna	160
III.4.4. Aurrekontuaren kalkulua	169
III.5. Proiektuak egikaritzea: ekintza zehatzak prozesuen zerbitzura	173
III.5.1. Helburuak, denborak, bitartekoak eta aurreikuspenak	175
III.5.2. Zehar-lerroak egikaritze-etapan sartzea	178
III.6. Jarraipena: berraztertu ikasteko	180
III.6.1. Eraitzen aurrerapausoa etengabe berraztertzeke jarraibideak	181
III.7. Ebaluazioa: hasitako prozesuetatik ikastea	186
III.7.1. Ekintzak balioesteko oinarrizko irizpideak	186
III.7.2. Zehar-lerroak ekintzen ebaluazioan sartzea	192
Glosarioa	195
Bibliografia	198
Eranskinak	199
A I. Proiektuaren adibide-enuntziatua	
A II. Xede-biztanleriaren profila	
A III. Arazoen zuhaitza	
A IV. Helburuen zuhaitza	
A V. Plangintzako ideia nagusia	

I. Eskuliburuaren aurkezpena,
helburuak eta eskuliburua
erabiltzeko orientabideak

1.1. Zertarako proiektuaren zikloaren beste kudeaketa-eskuliburu bat?

Argitalpen honek uko egiten dio lehenik eta behin gidatzat hartzeari (*eramaten edo gidatzen duena // argibide-liburua*¹) eta nahita eta kontzienteki *eskuliburu* gisa definitzen du bere burua, *lan baten funtsezkoa edo oinarritzkoa biltzen duen liburu bat delako*, baita *eskuekin egiten den zerbait delako ere*².

Eskuliburu hau proiektuen plangintzaren metodologia jendearen zerbitzura jartzeko helburuarekin idatzi da, lankidetzaren proiektuen kudeaketaren eremuan sortu diren tresnak beren errealitatearen eraldaketaren subjektu izan nahi duten pertsona eta herri guztiek beren gain hartu eta erabiltzeko.

Garapenerako lankidetzaren proiektuen kudeaketaren eremuan proiektuen plangintza- eta kudeaketa-metodologiaren oinarritzko alderdiak garatzen dituzten material teorikoak eta gida metodologikoak daude, baita proiektu baten bizitzaren fase bakoitzari buruzko bibliografia espezifikoak ere. Era berean, proiektuei sektore-metodologiak aplikatzeko espezifikoak sortu diren materialak daude, horiek garatzen diren lan-eremu zehatzen arabera. Material horietatik hainbat informazio hartu dugu eskuliburu honen egileok –proiektuak egiten lan egin duten ia pertsona guztiak bezala- eta horiek garatu dituztenei esker izan dira gure aurrerapauso asko. Baina metodologia lanerako eta proiektuen izaerara egokitutako tresna bat izateko, gure esfortzuak horretan kontzentratzen saiatu gara.

Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologiaren berezko printzipioetan eta kontzeptuetan oinarritzen saiatu gara, baina tailerretako lan praktikotik ateratako elementu batzuk gehituz eta bere egituraren ikuspegi malgu bat emanez. Horrela, eskuliburu honek ez du Esparru Logikoaren Ikuspegiari buruzko tratatu metodologiko edo kontzeptualizazio osoa izan nahi, baizik eta bere metodologiaren egokitzapen aske bat, modu erraz, egituratu eta planifikatu batean garapenerako lankidetzaren proiektuak egin nahi dituztenen eskura jarrita.

Horrez gain, eskuliburu honek *2008-2010 denboraldiko Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Plan Zuzentzaile Estrategikotik* ateratzen den ikuspegi politikoa eta soziala gehitzen dio proiektuak planifikatzeko metodologiari; horrenbestez, proiektuak planifikatzeko tresna metodologikoa aurrerapauso sozial zehatzak eta azken helburu gisa Giza Garapen Iraunkorrean zentratuak ezartzeko eta indartzeko baliabide gisa aurkezten da.

Eskuliburuaren amaieran, Terminoen Glosario bat dago; bertan, erabilitako kontzeptu batzuk argitzen dira eta horiek erabili direnean izan duten esanahiari buruzko oharrak idazten dira.

¹ ZENBAITEN ARTEAN, Diccionario de la Lengua Española, ESPASA (Madrid, 2006).

² ZENBAITEN ARTEAN, Diccionario de la Lengua Española, ESPASA (Madrid, 2006).

1.2. Nori dago zuzendua?

Eskuliburu hau garapenerako lankidetza-proiektuak egiteko prozesuetan inplikaturako pertsona eta kolektibo guztientzat baliagarria izateko sortu da.

Eskuliburuak biltzen duen garapen-kontzeptua eta proiektu guztietan ezinbestekotzat planteatzen diren zehar-lerroak Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Plan Zuzentzailearen arauekin bat datoz. Lan egiteko erabiltzen diren dokumentazio-ereduak eskuliburu hau egiteko ekimena bultzatu duen Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak erabiltzen dituenak dira.

Horrela, nahiz eta eskuliburua garapenerako lankidetza-proiektuak egiten lan egiten duten pertsona, kolektibo eta erakunde guztientzako erabilgarria izan daitekeen, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzan parte hartzen duten erakundeak hartzaille nagusiak dira, eta bereziki Eusko Jaurlaritzak Hegoaldeko herrialdeetan bultzatzen dituen lankidetza-proiektuetan aurkako alderdi gisa jarduten duten erakundeak.

1.3. Nola erabili?

Argitalpen hau eskuliburu gisa erabiltzeko pentsatua dago. Horrenbestez, ideia proiektuak egiterakoan laguntzeko tresna gisa erabiltzea da, eta proiektu jakin bat egiteko prozesuarekiko modu paraleloan.

Era berean, eskuliburu hau prestakuntzarako tresna gisa erabiltzea planteatzen da, materialari trebakuntza-prozesu baten oinarri gisa jarrai baitaioke, azalpenak bere aplikazio praktikoarekin konbinatuz.

Eskuliburuan planteatutako plangintza-proiektua hobeto ulertzeko –eta horrela plangintzan edo trebakuntzan ematen duen laguntza indartzeko- *La Esperanza* irudizko komunitatean oinarritutako proiektuaren fikziozko adibide bat garatu da. Horrela, eskuliburuan emandako azalpenekin batera eskuliburuaren aplikazio praktikoa dago erkidego honetarako proposatutako proiektuan.

Nahiz eta eskuliburu osoan zehar garapenerako lankidetza-proiektu bat prozesu oso gisa planteatzen den, materiala proiektu baten zikloaren faseen arabera zatituta dago; horrenbestez, horietako bakoitzarekin modu autonomoan lan egin daiteke. Horrela, agerian uzten da garapenerako lankidetza-proiektuak ziklo gisa hartzeak proiektuaren edozein fasetatik abiatuta hobetzeko elementuak satzen has gaitezkeela esan nahi duela.


II. Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Gakoak

II.1. Aurrekariak eta bilakaera

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako garapenerako lankidetzak nabarmen aldatu da azken urteotan. 1980ko hamarkadaren amaieran lankidetzak ekintzetara funtsak igortzen hasi zenetik, alde batetik aurrekontu-bolumenaren hazkunde esanguratsua gertatu da, eta beste aldetik bultzatutako lankidetzak motaren garapena, baita bere kalitatearen eta eraginkortasunaren garapena ere. Aldaketa horiek modu integralean gertatu dira, alderdi teknikoari, estrategikoari eta politikoari eraginez.

Aurrekontu-eremua

Garapenerako lankidetzara bideratutako funtsak nabarmen handitu dira, eta beraz, lankidetzaren eremu eta tresnek eraginerako eta garapen sendorako duten gaitasuna ere handitu da. Nahiz eta adierazitako hazkundea garrantzitsua izan, oraindik beharrezkoa da esfortzu bat egitea 2012. urtean guztizko aurrekontuaren % 0,7 lortzeko.



01. Irudia. Eusko Jaurlaritzaren esfortzuaren bilakaera Garapen lankidetzaren arloan (1985-2007).

Iturria: 2008-2011 denboraldiko Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaile Estrategikoa.

Eremu estrategikoa

Azkeneko urteetan, aurrerapauso adierazgarriak gertatu dira Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzaproiektu-estrategiei dagokienez:


- Funtsezko kontzeptuen ikuspegi estrategikoa sendotu da: herritartasun unibertsala, giza garapen iraunkorra, egiturazko pobrezia, lankidetzaproiektu eraldatzailea; baita barnean hartutako alderdiak ere sektorialak eta zeharkakoak.
- Planifikazioko eta kontzertazioko tresna berriak abiarazi dira; esaterako, Herrialderako Estrategiak.
- Ekintza humanitarioa lankidetzarekin lotzeari dagokionez aurrera egin da.
- Garapenerako hezkuntzaren oinarrizko ardatzak eta helburuak definitzeko prozesu bateratua sortu da.

Jardun-eremuak

Eusko Jaurlaritzak hiru eremu landu ditu sistematikoki: garapenerako lankidetzaproiektu, ekintza humanitarioa eta garapenerako hezkuntza. Ezinbesteko elementu osagarriak dira egiturazko pobrezia deuseztatzeko borrokaren estrategiaren barruan, eta horri dagokionez, Iparralde eta Hegoalde erantzukideak dira.

Sektore-banaketa

Emandako funtsen helmuga aztertuz, giza garapen iraunkorrarekin lotura naturala dagoela egiaztatu dugu. Beraz, oinarrizko gizarte-premiak eta herriko garapen ekonomikoa izan dira ildo nagusiak, baina ez dira alde batera utzi beste zenbait alderdi garrantzitsu; hala nola emakumeen ahalduntzea, herriko boterea eta giza eskubideak edo kultura-nortasuna.




02. Irudia. Sektore banaketa (2002-2007).

Iturria: 2008-2011 denboraldiko Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaile Estrategikoa.

Banaketa geografikoa

Historian zehar, euskal lankidetzak lotura eta aliantza estrategikoak egin ditu Amerikako herrialdeekin, bereziki Erdialdeko Amerikako eta Karibeko herrialdeekin. Dena den, eta Afrikako gizon-emakumeek bizi duten pobrezia-egoera eta muturreko kalteberatasun eta bazterketa kontuan izanik, Amerikarako joera horren osagarri, Afrikarekiko loturak indartzeko esfortzua gero eta handiagoa da.



03. Irudia. Banaketa eremu geografikoen arabera (2002-2007).


Iturria: 2008-2011. denboraldiko €usko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaile Estrategikoa.

II.2. Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Plan Zuzentzailea

Bultzatu nahi den politikaren printzipioak eta helburuak ezartzen dituen lankidetzarako Euskal Legea ez ezik, Eusko Jaurlaritzak Plan Zuzentzaile Estrategiko bati jarraitzen dio. Plan hori Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren hobetzeko premiaren eta jardun-esparru sendo eta koherente bat ezartzearen ondorioz sortu da.

Planaren oinarri teorikoa herritartasun unibertsalaren kontzeptua da eskubideen ikuspegitik; horrek esan nahi du gizaki eta herri guztiek eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozial guztien titularrak direla eta ezin izango zaiela eskubide horiek baliatzeko aukerarik kendu, etniarekin, erlijioarekin, giza-egoerarekin edo jatorriarekin lotutako faktoreak gorabehera.

Herritarren sektore kalteberenen aldeko apustu aktiboa egin behar du herritartasun unibertsalean oinarritutako lankidetzak, ez asistentzialko modu batean, baizik eta prozesuak sortzeko, estrategiak ezartzeko eta giza garapen iraunkorrean eragiteko norberaren gaitasunetan sinestea oinarritzat hartuta. Herri-sektoreek nazioarteko panoraman egiteko garrantzitsua eta funtsezkoa eskatzeko eta lortzeko balio izan behar du lankidetzak.



Identitate eraldatzailea, kalitatezkoa, koordinatua eta koherentea izango duen garapenerako lankidetzako politika sendotzea, egiturazko pobrezia ezabatzean oinarrituta


Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaz-ekintza guztiak helburu hori lortzera bideratu beharko dira. Bertan azterketaren, estrategien eta helmugen oinarri diren funtsezko bi kontzeptu definitzen dira: egiturazko pobrezia eta nortasun eraldatzailea.

Egiturazko pobrezia, pobreziaren ikuskera integrala da; horren arabera, egiturazko pobrezia alderdi ekonomikoekin eta sozialekin lotzeaz gain, era berean, alderdi politikoekin, kulturekin, ekologikoekin eta generoarekin zerikusia dutenekin lotzen da. Egiturazko pobrezia duintasunez bizitzeko beharrezkoa diren gaitasunen, askatasunen eta aukeren gabezia da, eta pertsonak eta herriak beren erabakiak hartzeko aukerarik ez izatea eragiten du.

Egiturazko pobrezia desagerrarazte aldera, kalteberatasuna eta desberdintasunak eragiten dituzten kausetan eragin behar da. Ildo beretik, egitura horiek aldatzeko, aldaketaren subjektuak laguntzeko eta ahaldundutzeko prozesuak behar dira.

Nortasun eraldatzailea honako egiturazko kausa hauei aurre egiteko gaitasunean eta borondatean datza: pobrezia-egoeran dauden emakumeen, gizonen eta herrien giza garapena oztopatzen duten hainbat motatako arrazoiei –ekonomiarekin, politikarekin, gizartearekin, ingurumenarekin edota generoarekin lotutakoak-, hain zuzen ere. Helburua kausen gain jardutea da eta ez bakarrik ondorioengan; ikuspegia, beraz, ahaldundutzean kokatzen da, eta ez hainbeste premiak arindu edo betetzean.

II.2.1. Helburuak



05. Irudia.

Iturria: 2008-2011 denboraldiko Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaile Estrategikoa.

Funtsezko kontzeptuak:

- **Prozesu endogenoak eta gaitasunak indartzea**

Eusko Jaurlaritzaren lankidetzak ez ditu prozesuak sortzen, baizik eta martxan daudenak laguntzen ditu, horien indartzea sustatzen du eta herriko, nazioko edo nazioarteko sare eta aliantza estrategikoak sortzea edo sendotzea ahalbidetzen du.

- **Jardun-eremua: herrian herrikoa eta globala**

Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko lankidetzaren politikaren helburuak herriko eremuko jarduna lehenetsi du, betiere estatuko eta nazioarteko eremuekin loturik.

Zergatik lehenesten da herrian herrikoa?

Gaitasunak eta herriko prozesuak indartuz, proiektuak abian jartzea ahalbidetzen duten oinarri sendo batzuk finkatzen baitira; horrek herrian herrikoa ezagutzera ematea eta eremu zabalagoak barnean hartzea eragiten du. Herrian herrikoa lantzeak aukera ematen du beren eskubide indibidualak eta kolektiboak jabetzen diren eta beren garapena eragozten duten arazoak ulertzeko eta aurkaratzeko gai diren subjektu politikoei laguntzeko eta horiek finkatzeko. Gainera, lurraldean bertan sortutako garapen-estrategietan eta garapen-aukeretan oinarrituta egiten du hori, hau da, zehaztasunean oinarrituta, eta, beraz, prozesuak sendoagoak dira, ez dira hain abstraktuak, eta etengabe handitzen eta finkatzen dira. Herrian herrikoa lehenestea ez du esan nahi lokalista izan behar denik, baizik eta herrian herrikoa indartzetik estrategia globalak eraikitzea esan nahi du.

Laburbilduz, Plan Zuzentzaileak hiru estrategia proposatu ditu, eta horien bitartez, egiturazko pobrezia desagerrarazteko politika eraldatzaile eta koherentea gara daiteke. Hona hemen estrategia horiek, bata bestearekiko osagarriak eta beharrezkoak:

- Eraldaketa-subjektuen (politikarekin, gizartearekin, ekonomiarekin eta kulturarekin lotutakoak) sortze- eta finkatze-prozesuetan laguntzea, egiturazko pobrezia desagerrarazteko helburuarekin.
- Eraldaketa-subjektu horien ekitatezko eta kalitatezko garapen-aukera sakonak planifikatzeko eta martxan jartzeko prozesuetan laguntzea.
- Internazionalismo berri baten eta multilateralismo aktibo berri baten sorreran laguntzea, parte-hartzearen eta sareen finkatzearen bidez, eragin politikoaren eta garapenerako hezkuntzaren bitartez.

II.2.2. Sektore-arloak

Esku-hartze eremu espezifikoak zehazten dute sektore-arloek, erlazioetatutako gizarte-egoerei aurre egiteko jarduerak eta ezaugarri komunak dituzten jarduerak pila-tuta.

Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren sektore-arloak honako hauek dira:

1. Lehentasunezko Gizarte Premiak.
2. Herri Ekonomia.
3. Tokiko edo herriko Boterea.
4. Emakumeen ahalduntzea.
5. Giza Eskubideak.
6. Kultura Nortasuna.

II.2.3. Zehar-lerroak

Zehar-lerroak azterketa-aldagaiak dira eta edozein lankidetzak-ekintzetan kontuan hartu behar dira, jarduten den eremua kontuan izan gabe. Zehar-lerroen garrantzia dela-eta, Proiektuaren fase guztietan presente eta integratuta egon behar duten alderdiak dira.

Zehar-lerroek erakunde bakoitzak bere lankidetzak-politikari eman nahi dion orientabideari erantzuten diote. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, lankidetzarako Plan Zuzentzaileak 4 zehar-lerro hartu ditu kontuan:

- 1. Herriko gaitasunak, Partaidetza eta Antolamendua:** ekintzen helburua ez da premia jakin bati erantzutea soilik, baizik eta pertsona, erakunde eta mugimenduetan gaitasunak sortzea horiek beren kabuz premia horri erantzuteko. Horretarako, partaidetza beharrezkoa da, partaidetza sustatzeko helburuak egin behar dira, proiektu zehatzean nahiz proiektua kokatzen den prozesuetan. Baina partaidetzak indibidualtasuna zabaldu behar du, baita erakundera eraman ere, interes eta premia komunak dituzten subjektuen bateratzearen bitartez lor baitaitezke eraldaketa politiko sakonak.
- 2. Genero-ekitateak:** ekintza orok inplikaturako emakumeen eta gizonen egoera eta posizio ezberdina kontuan hartzetik abiarazi behar du. Gizonen eta emakumeen arteko desorekak murriztera bideratutako helburuak adierazi behar dira, ahalduntze-estrategien bitartez. Gainera, genero-ikuspegiak proiektuak zabaldu behar ditu eta erakundearen eremu estrategikoari eta instituzionalari heldu behar dio.
- 3. Giza Eskubideak:** lankidetzak-ekintza orok premisa giza eskubideen ikuspegia eduki behar du eta ikuspegi hori hartzeak lankidetzak-ekimenak behartzen ditu xede-biztanleria pertsonatzat hartu ordez, eskubideen eta askatasunen titulartzat hartzera, baita titulartasun indibidual eta kolektibo horiek indartzera ere.
- 4. Iraunkortasun ekologikoa:** lankidetzak-ekintzek ingurumena errespetatu behar dute, eta ekologikoki iraunkorrak diren ohiturak sustatu eta defendatu behar dituzte, baita azterketa kritikoak eta garapenerako estrategia alternatiboak sustatu ere.

Jarrian, Eusko Jaurlaritzak bere Plan Zuzentzailean definitzen dituen lau zehar-lerroak aurkezten dira, honako bi helburu hauekin:

- Aipatzen diren kontzeptuak ulertzea.
- Lerro bakoitzak lankidetzaren proiektu eta -programetarako dituen inplikazioak ulertzea.

1. Herriko gaitasunen, partaidetzaren eta antolamenduaren zehar-lerroa

Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzaren helburu nagusia garapenaren subjektuen gaitasunak indartzea da. Helburu hori pertsonen eta taldeen partaidetza aktiboan oinarritutako epe luzerako estrategiak planteatuz lortzen da.

Garapenerako lankidetzaren jardun-ildo guztietako helburuetan gizarte zibila indartzea, partaidetza eta antolamendua barnean hartu behar dira. Horrela egin behar da nahitaez, baldin eta asistentzialismoa gainditzea lortu nahi bada, garapen endogenoa eta demokratikoa bultzatzeko ekintzak indartu nahi badira eta kalteberatasun-egoera murriztuko duten egiturak indartu nahi badira. Hori guztia lortzeko, lankidetzaren berrantolaketan behar da estrategietan, gizarte-gehiengoen premiak abiapuntu izanik, eta giza eta gizarte-kapital sendoa sortzea helburu duten estrategietan, hain zuzen ere.

Gaitasunak handiagotu nahi dituen ekintza orok giro soziopolitiko parte-hartzailean gertatu beharko du, ekitatearekin eta ongizatearekin konprometitutako giroan; biztanleriaren eskaerei behar bezala erantzuteko gai diren erakunde demokratikoei eusteko adina sendotasuna duenean, orduan sor daitezke horrelako giroak.

Hazkunde ekonomiko hutseko estrategiekin ez bezala, giza garapen iraunkorrak ezin du gizarte desegituratutan, parte-hartzaileak ez diren gizartetan eta erakunde publikoekiko urrun diren gizarteetan gertatu. Ildo horretatik, lankidetzak egituraren arloan inpaktua eduki dezan eta horrenbestez, pobrezia eta kalteberatasunari aurre egiteko gai izan dadin, garapenaren ikuspegi zabal bat eduki eta ekonomiaren, gizartearen eta politikaren eremuen artean sinergiak eragiten dituzten prozesuak bultzatu behar ditu.

Zergatik da funtsezkoa partaidetza?

Gure ekintzek inplikaturako subjektuen gaitasuna hobeto dezatela lortzea nahi badugu, giro soziopolitiko parte-hartzaile konprometitua egotea behar dugu, eta hori gure gizarte indartuta dagoenean bakarrik da posible.

Zergatik da garrantzitsua gizarteak indartzea?

Egituratutako gizarte bat bere gatazkak metodo demokratikoekin konpontzeko gai da eta sendaagoa da; horrenbestez, politika ekonomikoak, sozialak edo kulturalak hitzartzeko baldintza hobeto dago. Era berean, gizarte parte-hartzaile batek legitimotasun handiagoa ematen die instituzio publikoei.

Partaidetza

Herritarren partaidetza ikasketa-prozesu bat da eta prozesuak berak balio demokratikoa du, autonomiaren, askatasunaren eta ahalduentzaren adierazpena baita. Indibidualki jarduten da talde edo erkidego baten testuinguruan.

Eremu komunitarioan partaidetza egoteak esan nahi du gizarte hau osatzen duten kolektiboetako kide diren gizon eta emakume guztiek eragiten dizkieten alderdiei buruzko erabaki berdinak hartzen dituztela.

Partaidetzak ez du erabat bermatzen garatuko dugun proiektua arrakastatsua izango denik, baina lankidetzak-ekintza askoren hutsuneak inplikaturako biztanleriaren partaidetza ez aurreikusteagatik sortzen dira.

Garapenerako lankidetzak biztanleriaren partaidetza ahalik eta zabalena izatea bultzatu (bereziki ohiko moduan baztertuak izaten diren sektoreetan) eta herritarren, erakundeen eta instituzioen arteko topaketa ahalbidetu behar du. Era berean kultura demokratiko berri bat sustatu behar du, eskubide zibil eta politikoak ahalduentzean eta egikaritzean oinarrituta.

Lankidetzaren ikuspegi horrek proiektu bakoitza gizarte-egiturak sendotzera eta herriko gaitasunak indartzera bideratutako estrategia zabal eta integralekin erlazionatzea esan nahi du. Ikuspegi hori eta biztanleriak berak protagonista izan behar duen eta erabakitzeko gaitasuna eduki behar duen printzipioarekin bereiztezinak dira.

Lankidetzak, bultzatzen duen proiektu-esparruan partaidetza sustatzeaz gain, eremu hori zabaltzeko behar du eta eremu guztietara hedatuko den partaidetzaren kultura zabaltzeko behar du: erkidegoa, herriko guztiak eta nazioa. Era berean, elkarte-sareen sortzea edo indartzea babestuz behar da, partaidetza indibiduala ahula baita garapenerako helburu komunak lortzeko.

Antolamendua

Partaidetzaren bitartez antolamendura iristen da. Partaidetza indibidualak esan nahi du pertsona bakoitzak bere subiranotasuna egikaritzen duela, antolamenduak efektu biderkatzailea duen bitartean.

Antolamendua interes eta premia komunen alde borroka egiten duten, eta interes eta egoera ezberdinak dituen jendeak modu kontzientean bat egiteko gunea da. Pertsona bakoitzak bere indibidualtasuna ematen dio eraikuntza kolektibo bati.

Benetako ahalduentzea lortzeko gakoa antolamendua da. Ez da GGK-ekin edo erakundeekin babespean iritzi ezberdinak entzuteko espazio bat. Era berean, ez du tresna zehatz bat izan behar lankidetzak-ekintzek irauten duten bitartean, baizik eta lorpen estrategiko bat izan behar du: sinergiak aprobetxatu, lankidetzako ekintzak beste agenteekin eratzea interes komunei erantzungo dieten estrategiak planifikatzeko, etab. Lankidetzaren esperientzia ikusita, nabarmena da komunitate antolatu batek askoz ere errazago lortzen dituela aurreikusitako helburuak.

Prozesu horretan, aitzindaritzaren demokratikoen zeregina funtsezkoa da, eta lankidetzak horri ere erreparratu behar dio.

Antolamenduak ez du inolako zerikusirik kolektibismoarekin, baina bai kolektibotasunaren nortasunarekin. Horrek zera esan nahi du: lehenik, antolamenduaren aukera partaide bakoitzaren ekintza askea dela; eta bigarrenik, pribatutasunari eutsi behar zaiola, eta nahiz eta helburu komunak eduki, beharrezkoa dela pertsona bakoitzaren ezberdintasunak erakustea. Oreak individual-kolektibo hau mantentzeko, elkartasunaren eta partaidetzaren arloko balioak bultzatu behar dira; horretarako, gizarte-hezkuntzako prozesuak behar dira kontu komunitarioak kontuak eta etika barnean hartuko dituen gizarte-erantzukizuneko kultura eraikitzeko.

2. Genero-ekitatearen zehar-lerroa

Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileak honako hauek aurreikusten ditu: genero-ekitatea zehar-lerro gisa eta, era berean, emakumeak ahalduz lanean sektore-arlo gisa. Estrategia bikoitz horrek ezberdintasunak sortzen dituzten egituren aurka borroka egiteko premiari erantzuten dio.

Plana teorikoki Genero Garapenean (GEG) ikuspegiak kokatzen da; horren arabera, azterketaren xedea gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman ezberdinak dira. Generoaren ikuspegia bakarrik proiektuetan eta programetan gelditzearen ideia gainditzea beharrezkoa dela uste du. Ez da alderdi tekniko bat, baizik eta guztiei eta guztiari, iparraldean nahiz Hegoaldean, interpelatu eta eragiten dion/alderdi politiko bat.

Horrek inplikazioak ekarriko ditu eremu guztietan, eremu teknikoan, baita eremu instituzional eta estrategikoan ere:

a) Eremu instituzionala

- Lankidetzaren agente guztien politika instituzionalaren parte izan behar du genero-ikuspegiak.
- Gizarte-agenteei elkarriketa, gai nagusitzat hartu behar da genero-ekitatea.
- Erakundeetako langileen –bai zuzendaritzakoak, bai teknikoak– prestakuntzak du lehentasuna, genero-ekitatearen inguruan, alderdi instituzionaletan, estrategikoetan edo teknikoetan.

b) Eremu estrategikoa

- Planifikazio estrategiko mailakaturik definitzea beharrezkoa da, lankidetzaren ekintza eta tresna guztietan genero-ikuspegia berrantolatzea.
- Genero-ekitatea helburu zehatz bat eta zehar-elementu bat da, jardun sektore-ildo eta -eremu guztiek dute lehentasuna.
- Lankidetzaren tresna guztiek genero-ekitatean eragina izan behar dute (lankidetzaren programak eta proiektuak, laguntza humanitarioko programak eta proiektuak, garapenerako hezkuntza programak eta proiektuak, hitzarmenak, etab.).

- Ekonomiaren, gizartearen, partaidetzaren eta antolamenduaren eremuetan, emakumeak egiaz gaitzeko mekanismoak eta prozedurak bermatu behar dira. Gizonak ere genero-ekitatea lortzeko aldaketa-prozesuen agente aktibo izatea funtsezkoa da.
- Emakumeen interes espezifikoak erantzuteko ekintzak garatu behar direla azpimarratu behar da behin eta berriro. Ideia hori honako puntu hauetan zehazten da:

c) Eredu Teknikoa

Genero-ikuspegia txertatzeko praktika egokiak gauzatu behar dira:

- Genero-azterketa funtsezko tresna da, testuinguru jakin batean gizonen eta emakumeen arteko harremanen inguruko informazioa jasotzeko. Programa eta proiektu guztiak planifikatzeko eta abiarazteko ezinbesteko tresna da.
- Proiektuaren fase guztietan, hau da, planifikaziotik hasi eta ebaluaziora arte, gizon-emakumeen egiazko partaidetza bermatzeko metodo parte-hartzaileak barnean hartuta, gizonen eta emakumeen interesak eta premiak aintzat hartuko eta beteko direla bermatzen da, proiektuen helburu nagusitzat.
- Proiektu guztietan txertatu behar dira genero-adierazleak. Emakumeen egoeran eta mailan proiektuek izandako ondorioak aztertzeaz gain, adierazle horiek genero-harremanetan izandako efektua ere aztertu behar dute, genero-ekitateko bidean egindako aurrerapausoak eza-gutzearren. Adierazle horiek proiektuaren edo programaren aurrekontuan jaso behar dira, modu definituan eta zehatzetan.
- Egikaritutako programen eta proiektuen genero-inpaktuaren ebaluazioa izango da epe ertain eta luzerako estrategiak finkatzeko oinarria.

Lankidetzak-ekintzek emakumeen ahalduzkoa erraztera bideratuta egon behar dute, hau da, subjektu politiko gisa beren gaitasunak eta protagonismoa indartzera, aldaketa positiboak bultzatzeko bizi dituzten egoeretan eta eremu politikoan, pertsonalean eta gizarte-eremuetan betetzen duten zereginean, gizonekin alderatuta.

3. Giza Eskubideen zehar-lerroa

Genero-ekitatearekin gertatzen den moduan, edozein garapen-estrategiaren premisa eta helburua ez ezik, giza eskubideen errespetua, defentsa eta sustapena ere helburuak dira.

Eusko Jurlaritzaren lankidetzak-politika oinarritzen den giza garapenaren teoriak uste du hazkunde ekonomikoaren maila bat lortzearen gainetik, banakako guztiek, komunitate guztiek eta herri guztiek euren garapen-prozesuan aurrera egiteko helburua gailendu dela, euren askatasunak eta gaitasunak areagotzeko. Horrenbestez, giza eskubideen sustapenaren eta pobrezia murrizteko estrategien artean lotura zuzena dago.

Horrek honako hau esan nahi du:

- Gizakia garapenaren funtsezko subjektua da
- Hedadura ekonomikoa beste bat besterik ez da garapenaren barruan
- Garapena kulturen mende dagoen kontzeptu ireki eta dinamiko bat da, kultura gizarte jakin baten bizimodua bereizten duten ezaugarri bereizgarrien multzo gisa hartuz.

Horren ondorioz, garapenaren eta giza eskubideen arteko harremana honako modu honetan ulertzen da:

- Garapena eta giza eskubideak kontzeptu zatiezinak eta elkarren mendekoak dira
- Gizakia garapenaren oinarritzko subjektua dela ulertzen badugu, ezin da helburu orokorren eta estatuko helburuen lorpena lehenetsi, eskubide eta askatasun indibidualen kalterako.
- Garapena ezin da giza eskubiderik gabe ulertu eta alderantziz. Gure abiapuntuak giza eskubideen errespetuan eta sustapenean oinarritutako garapenaren ikuspegia izan behar du.
- Eskubide zibilak eta politikoak eta eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, baita hirugarren belaunaldiko eskubideak ere³, oinarritzko eskubideak dira

Giza garapeneko kontzeptu ireki eta dinamiko horrek kultura ezberdinekin duen harremana berriz planteatzera garamatza, honako hau ondorioztatuz: indibiduo, komunitate edo herri bakoitzak garapen-eredu ezberdinak eduki ditzake, duen kulturaren arabera. Kontzeptu horren arabera, bigarren eta hirugarren belaunaldiko eskubideak lehenengo belaunaldiko eskubideen maila berean jartzen dira, hau da, eskubide zibilen eta politikoen mailan.

Ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloko eskubideen galdagarritasun-bideak indartzea eskatzen du giza garapenaren ikuspegiak, garapen-prozesuak iraunkorrak izan daitezzen eta gizonen eta emakumeen eskubide zibilek eta politikoei osatzen dituzten oinarritzko askatasunak bermatzearen.

Garapenerako lankidetzari aplikatutako giza eskubideen ikuspegiak funtsezko bi erronka planteatzen dizkigu:

1. Justizia soziala errealitate bat izateko behar diren gutxieneko erreferente gisa hartzea Giza Eskubideak.
2. Pobrezia eta baztertuta daudenak prozesuaren erdian jartzea, pobrezia-egoeran egonarazten dituen botere-harremanak aldatuz eta egoera horretan genero-disekuintasuna dagoela onartuz. Aholku duena ez da soilik lortzen dena, baizik eta nola lortzen den.

³ Honako hauek dira hirugarren belaunaldiko eskubideak; garapen-eskubidea, aurrerabide informatikoan eta teknologikoan sartzeko eskubidea, etab.

Horretarako, ezinbestekoa da pertsonen eta herrien kontzientzia pizten laguntzea, bere giza eskubideen inguruan eta beren ahalduntze-prozesua babestea, beren eskumenak indartuz eskubide horiek eskatzeko eta finkatzeko. Era berean, eskubideek betebeharrak sortzen dituzten hirugarrenentzat; horregatik, nahitaezkoa da betebeharren titularrekin jokatzeko –gobernuarekin, gizarte zibilarekin, sektore pribatuarekin eta enpleuekin-, horiek guztiak beren betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko, egiturazko desberdintasunak eta botere-harremanak aldatzeko, ikusteko eta diskriminazio-jardunei aurre egiteko eta, pertsona eta herri guztiek giza eskubideak bermatuta edukitzeko.

Kontuan hartu behar da ikuspegi horren arabera garatutako proiektuek denbora gehiago eta laguntza handiagoa behar dutela finkatzeko, eta horien ondoriozko eraldaketa-prozesuak epe luzeko ikuspuntua duela. Prozesuak denbora asko eskatzen du gogoetarako, elkarrizketarako, zalantzan jartzeko eta trukatzeke; eta horrek ahailegin handia eskatzen dio edozein erakunderi. Era berean, ahailegin berezia eskatzen du gobernuko agintarien eta kontrako alderdien laguntza lortzeko eta bermatzeko eta prozesuan horien partaidetza bermatzeko.

Beste aldetik, enpleuek oraindik ez daukate behar adinako sentsibilitaterik, konbentzimendurik eta operatibitatez ikuspegi hori beren laguntza jasotzen duten erakundeetan ezartzen eta kontuak ematen laguntzeko. Ilde beretik, eskubideen ikuspegiak aukera bat eskaintzen du enpleuen jarrerak aldatzeko epe luzeko konpromiso baten premiarantz eta marjinaltasunaren eta bidegabekeria sozialaren kausei heltzeko.

4. Iraunkortasun Ekologikoaren zehar-lerroa

Eusko Jaurlaritzaren Plan Zuzentzaileak giza garapena eta iraunkortasuna prozesu zatiezintzat hartzen ditu, eta horregatik iraunkortasun ekologikoa zehar-lerro gisa zehaztu du. Ingurumena hondatzea gaitasunak kentzeko modu bat da, pertsonen eta herrien bizi-kalitateari zuzenean eragiten diola, giza garapenera alegia.

Eguneko eredu ekonomikoak ezin izango du luzaro iraun eta ezin izango da herrialde pobretuetara zabaltu. Argi dago ezin zaiola herrialde industrializatuen erritmoari jarraitu, ez bailitzateke baliabide natural nahikoa egingo. Iparraldearen iraunkortasunik eza onartzeak garapen-eredua bera eta produkzio- eta kontsumo-jarraibideak arazoaren erroan kokatuko direla esan nahi du.

Esparru teorikoarekin koherente izanik, Eusko Jaurlaritzaren lankidetzak ez du iraunkortasun ekologikoa planteatzen politika "sendagarrien" bitartez, hots, garapenerako lankidetzako proiektuek ingurumenaren egindako efektu negatiboak sendatuko dituzten politiken bitartez; baizik eta politika "prebentiboen" bitartez, giza garapenaren eta ingurumenaren arteko harremana osotasun gisa barne hartuta proiektuen diseinuan.

Hortaz, ekologia globalari buruzko hausnarketetan modu bateratuan aztertu behar dira ekitatearen arazoa eta iraunkortasunaren arazoa, betiere hiru alderdi aintzat hartuta:

- Krisi ekologiko globalean Iparraldeak duen erantzukizun nagusia.
- Planetaren ondasun eta zerbitzu komunen ustiapena, nagusiki herrialde horiek egindakoa.
- Herrialde horiek Hegoaldeko baliabide naturalekin egiten duten erabilera ez-iraunkorra.

Hortaz, iraunkortasunerako bidean, ezinbestekoa da egungo eredutik ekonomia iraunkorrean oinarritutako eredu berrirako trantsizioa: giza garapen iraunkorra.

III. Esparru logikoaren ikuspegiaren metodologia tresna gisa

III.1. Oinarrizko kontzeptuak

III.1.1. Zer da garapenerako lankidetzaproiektu bat?

Proiektu bat elkarren artean erlazionatutako eta helburu batzuk lortzera bideratutako jarduera multzo bat da, baliabide mugatuekin, ezarritako denboraldi batean eta helburuen emaitzak mantendu egiten dira behin proiektua amaituta dagoenean.

Emakume eta gizon talde bat beren errealitatearen eraldaketa-subjektu bilakatzeko jartzen da abian garapenerako lankidetzaproiektu bat, beren gaitasuna handiagotuz eta indartuz, garapen-prozesuak protagonizatzeko helburuarekin. Abiapuntua honako hau da: talde batek premia zehatzak definitzen ditu eta premia horien kausak amaitzera bideratutako estrategiei ekiteko antolatzen dira.

Garapenerako lankidetzaproiektu baten atzean borondate eraldatzailer bat dago beti, errealitatea aldatuko duen garapen-prozesu bat protagonizatzeko desioa. Errealitatearen eraldaketa hori inplikaturako emakumeen eta gizonen bizi-baldintzak hobetzera bideratuta egongo da, baita kalteberatasuna eta desberdintasuna sortzen dituzten kausengan eragina izango duten aldaketa sakonei laguntzera ere. Eraldaketarako bide asko daude; horrenbestez, proiektuek argi eduki behar dute giza garapena, garapen iraunkorra, ekitatean oinarritutako garapena eta eraldaketa-subjektu izateko pertsona eta herri guztien gaitasunak indartzen dituen garapena lortzera bideratuta daudela.

Proiektu bat egiteko beharrezkoa da lortu nahi diren helburuak zehaztea eta helburu horiek lortzeko erabiliko diren baliabideak aukeratzea. Giza garapen iraunkorra esparru gisa hartuz, helburuak eta baliabideak definitzerako garaian beharrezkoa da ezartzea zer premiak duten lehentasuna eta zer ekintza aukeratu diren egon daitezkeen alternatiba guztien artean, horiek epe luzerako garapen-prozesuetan sartzeko. Era berean, beharrezko baliabideak eta ekintza eraginkorrenak definitu behar dira giza garapen iraunkorra indartzeko.

Lankidetzaproiektu baten sortze-prozesua:

- Emakumeen eta gizonen talde batek bere uste lehentasunez bete behar diren premiak definitzen ditu.
- Honako hau planifikatzen du: premiak betetzeak nola laguntzen duen garapen-prozesua indartzen.
- Jardun zehatzen hautaketa- eta egituraketa-prozesu bati hasiera ematen dio giza garapen iraunkorra lortzeko.

Horrela, proiektu bat ekintza-estrategia batean bilakatzen da. Esku-hartze puntual bat izatetik urrun, epe luzerako garapen-prozesu batean sartzen diren premia zehatzen identifikazioarekin hasten den ziklo bat da, eta ziklo hori aurreikusitako helburuak lortu diren edo ez ebaluatzen den momentura bitarte luzatzen da.

III.1.2. Zertarako balio du Esparru Logikoak?

Proiektuak egiteko prozesuan, oso erabilgarria da garapen-prozesuaren gako eta elementu zehatzak definitzen eta lortu beharreko helburuen eta horiek lortzeko aurreikusitako baliabideen arteko harreman koherente bat ezartzen lagunduko duten plangintza-metodologiak erabiltzea.

Erabiltzen diren plangintza-metodologiaren artean, Esparru Logikoaren Ikuspegia da hedatuenetako bat. Ikuspegi horrek epe luzerako garapen-estrategia batean sartutako ziklo gisa ulertzen du lankidetzeta-proiektu bat (beti martxan dagoen eta bertan, etapa bakoitzak hurrengoa elikatzen duen zerbait).

Proiektu baten zikloaren etapak Esparru Logikoaren Ikuspegiaren arabera:


Identifikazioa: xede-biztanleriak lehentasunezkatzat hartzen dituen premiak definitzea, ekintza-estrategiak hautatzea proiektua biztanleriaren garapen-prozesuan sartzeko, eta aurreikusitako baliabideak mugatzea.

Formulazioa: dokumentu batean proiektua kokatzen den proiektuari eta garapen-prozesuari buruzko informazio garrantzitsu guztia sistematizatzea eta laburtzea, lankidetzak eta laguntzak antolatzeko tresna gisa balio izateko.

Gauzatzea: proiektuaren jardura espezifikokoak eta baliabideen aplikazioa martxan jartzea.

Jarraipena: proiektuaren egikaritze-prozesua laguntzea, honako kontu hauetan arreta jarritz: helburuak betetzen ari diren, baliabideak planifikatutakoaren arabera aplikatzen ari diren, eta proiektuaren ekintzak epe luzerako garapen-prozesua indartzeko laguntzen ari diren.

Ebaluazioa: proiektuak pentsatutako emaitzak eta helburuak zer neurritan lortu dituen aztertzea, laguntza eman nahi dion garapen-prozesuan sartutako ekintza nola balioetsi daitekeen, eta ikaskuntzak ateratzea horiek etorkizuneko jardunetan aplikatzeko, emaitza positiboetatik nahiz egon daitezkeen akatsetatik.



06. Irudia.

Iturria: una gestión y comunicación.

Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologiak garapenerako lankidetzak-proiektuak egiteko egokiak diren hainbat ezaugarri espezifiko ditu:

Zalantzak murrizten ditu

Esparru Logikoaren Ikuspegiak lehenik eta behin premia konplexuenak definitzen dituen eta bere kausa eta efektuekin erlazionatzen dituen egitura metodologiko bat du; horrenbestez, oinarri logiko baten gainean erabakiak hartzea ahalbidetzen du: premiei erantzuteko horiek sortzen dituzten kausen gainean jardutea beharrezkoa da, eta horrela premia horiek sortzen dituzten efektuengan eragina izan dezake.

Erabaki egokiak hartzeko aukerak handiagotu egiten dira Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologian erabiltzerakoan, ekintza-estrategiak irizpide logikoen arabera erabakitzen baitira. Irizpide horiek premia guztiak kausekin eta horien efektuekin erlazionatzen dituzte, eta ez egokitzen igartzen diren konponbideen arabera. Horrela, arbitrariotasuna murrizterakoan, era berean, aurreikuspenen arabera proiektuak lortuko dituen emaitzen inguruan zalantza murrizten da.

Ezagutzen ez duen herrialde edo eskualde batera joan behar duen pertsona baten egoerarekin konpara daiteke. Guztia inprobisazioaren eskuetan utz dezake edo bildutako hainbat informaziotan oinarritutako plangintza bati jarrai diezaioke: eremuaren ezaugarriak, eskualdeen arteko distantziak, alde batek bestera mugitzeko garraiobideak, bidaiaren garaiko klima, hizkuntzak, moneta, ohiturak, alojamendu-aukerak, etab. Informazio horrek guztiak oinarri bat ematen du. Nahiz eta oinarri horrek bidaiaren gure helburuetan modu negatiboan eragina edukiko duten ezustekoak gertatuko ez direla ez bermatu, zalantza nabarmen murriztuko du eta denbora eta baliabideak hobetzen lagunduko du.

Xede-biztanleriak ekintzak eskuratzea ahalbidetzen du

Erabakiak hartzeko prozesua, Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologiaren arabera, proiektuaren xede-biztanleria osatzen duten pertsonen eta kolektiboen partaidetza zuzenarekin eta aktiboarekin garatuko da.

Izan ere, partaidetzaren osagaia Esparru Logikoaren Ikuspegiaren funtsezko ezaugarrietako bat da. Proiektuan inplikaturako emakumeen eta gizonen zuzeneko esku-hartzeak legimitate handiagoa ematen die esku-hartzeei, pertsonak baitira (proiektuak pertsona horien premiei aurre egin nahi die) erabaki horiek zeintzuk diren eta horietan nola lan egingo den definitu behar dutenak. Xede-biztanleria elementu eraldatzailea da partaidetza-ikuspegi batetik planifikaturako proiektu batean; izan ere, erabakiak hartzeaz eta proiektuaren ekintzak burutzeaz gain, proiektuaren ekintzak proiektuaren garapen-prozesuan sartzeko funtsezko zeregina du. Horrela, xede-biztanleriaren emakumeek eta gizonen bere egiten dute proiektua (proiektu hori eraikitzeo funtsezko zati izan dira hasieratik). Proiektuaren jabe egiten dira.

Proiektuak pertsonen eta herrien eraldaketa-subjektuaren zeregina indartzeko egiten direla onartzen badugu, ez du zentzurik xede-biztanleriak proiektuak egitea horiekin ados ez badago (ez luke inolako

arrakastarik izango), ezin baitira garapen-prozesuak bultzatu prozesuaren xede-pertsonak, -kolektiboak eta -erakundeak prozesuaren jabe egin gabe.

Era berean, prozesuen jabetzea funtsezkoa da ekintzen iraunkortasunerako, xede-biztanleriak behin proiektuaren egikaritzealdia amaitu ondoren proiektuaren emaitzak mantentzeko eta bere garapen-prozesua modu eraginkorrean indartzeko zuzeneko ardura hartzen baitu bere gain.

Proiektua garatzen den testuingurua kontuan hartzen du

Pertsonak, taldeak eta erakundeak lehentasunezkoztat hartzen dituzten premiak beren testuinguruaren egoera soziopolitikoarekin eta ekonomikoarekin, beren ingurunearen zirkunstantzia geografikoekin eta klimatikoekin, genero- eta etnia-harremanekin, barneko ezberdintasunekin eta nazioarteko errealitatearekin hertsiki erlazionatuta daude beti. Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologiak ez ditu proiektuak elementu bakan eta estatiko gisa hartzen, baizik eta beren helburuak lortzeko erabakigarriak izan daitezkeen kanpoko faktoreak kontuan hartzen ditu.

Testuinguruaren arabera, kolektibo bateko emakumeak eta gizonak premia batzuk edo beste batzuk lehentasunezkoztat definituko dituzte, eta premia horiek modu desberdinean aurka egingo dute bizitzen ari diren momentuaren arabera. Horrela, Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologiaren arabera zirkunstantzia bakoitzerako proiektu bakarra eta espezifikoa egin da.

Nahiz eta askotan proiektuaren kanpoko faktoreak proiektua planifikatzen duten pertsonen kontrolatzeko gaitasunetik alde egin, faktore horiek proiektua egiteko prozesuari gehitzeak horiek kontuan hartzea eta horien eraginari indarra kentzeko egon daitezkeen neurriak jartzea bultzatzen du.

Modu egituratuan planifikatzea eta proiektuaren ikuspegi orokor bat edukitzea ahalbidetzen du

Plangintzaren hasieratik, Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologia kausa-efektu harreman agerikoaren ezarpenean oinarritzen da; horri esker, lehentasunezko premiei buruzko ikuspegi global bat izan dezakegu, baita premia horien kausak eta ondorioak zein diren ingurukoari buruzkoa ere. Informazio hori guztia egituratzen eta aberasten doa prozesuan aurrera egiten den bitartean, prozesuaren eskema zehatz bat eduki arte.

Ikuspegi orokor horrez gain, Esparru Logikoaren Ikuspegiak garatu beharreko ekintza zehatzak ulertzea ahalbidetzen du, aurreikusitako emaitza bakoitzarentzat jardun espezifiko bat proposatzen baitu. Horrela, proiektuaren prozesu guztiaren ikuspegi zabal bat edukitzeko aukera prozesua osatzen duten ekintza bakoitzaren informazio zehatzarekin konbinatzen da.

Proiektua egiteko eta abian jartzeko prozesuko eragileen antolamenduak (xede-biztanleria, herriko erakundeak, instituzioak, erakunde laguntzaileak, erakunde finantzatzaileak) proiektuaren esku-hartze logika ulertzea eta edozein agenterentzat aurreikusitako ekintzak eta baliabideak identifikatzea ahalbidetuko duten tresna argiak behar ditu.

Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologiari jarraiki, identifikazio-etapan dokumentu batean helburuak, baliabideak eta esku-hartzearen oinarritzko informazio guztia islatzea ahalbidetzen duen Proiektuaren Planifikazioko Ideia nagusia osatzen da; horrenbestez, prozesu guztiaren ikuspegi oso bat eduki daiteke.

Proiektuak epe luzerago estrategietan kokatzen dira.

Nahiz eta proiektu bakoitza egiteko prozesua premia, estrategia eta baliabide espezifiko batzuetan oinarritu, Esparru Logikoaren Ikuspegia proiektuaren fase bakoitzari garapen-prozesuan (proiektuak garapen-prozesua indartzen lagundu nahi du) inplikaturako subjektu guztien lehentasunak, ildo estrategikoak eta epe luzerako helburuak gehitzeko sortu da.

Giza garapen iraunkorraren ikuspegi batetik, proiektu bakoitza xede-biztanleriak definitutako epe luzerako garapen-prozesua indartzen lagunduko duen elementu gisa ulertzen da. Hori horrela izanik, ulertzen da proiektu bakoitza premia espezifiko batzuk betetzean oinarritzen dela, baina bere azkeneko helburua garapenerako helburu estrategikoak lortzea eta hasitako prozesuak indartzea da.

Proiektua etengabe berraztertzea ahalbidetzen du

Esparru Logikoaren Ikuspegiak hautatutako estrategia berriz bideratzea ahalbidetzen duten hainbat elementu proiektua egiteko prozesuan sartzea aurreikusten du, beharrezkoa baldin bada.

Proiektua egiteko fase bakoitzak aurreko faseen planteamendua egiaztatu eta hurrengo faseak elikatzen ditu; horrenbestez, helburuak lortzera, baliabideak hobetzera eta xede-biztanleriak epe luzera definitutako proiektuaren ekintzak garapen-estrategian sartzera bideratutako neurri zuzentzaileak sar daitezke.

Zehazki, plangintzako ideia nagusian objektiboki egiaztagarriak diren adierazleak txertatzeak eta proiektuaren zikloan aurrerapausoen jarraipen-fase bat sartzeak, aurreikusitakoa zer neurritan betetzen ari den aztertzea ahalbidetzen dute, proiektuaren gauzatzea amaitzeko zain egon gabe.

Bere aplikazioa orokortu da

Garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten duten erakundeek eta instituzioek plangintzako metodologia espezifikoak erabiltzeko premia ulertu dute proiektuen kudeaketa hobetzeko. Eta, beste metodologia baliozko batzuk egon arren, Esparru Logikoaren Ikuspegia horietako askoren artean orokortu da.

Hein handi batean proiektuaren dokumentu-formulario bat metodologian sartzeagatik, (bertan, proiektuaren funtsezko elementuak era laburrean eta erraz ulertzeko moduan labur daitezke) erakunde finantzatzaileek geroz eta gehiago erabiltzen dute Esparru Logikoaren Ikuspegia. Diru-laguntzen deialdi askoren kasuan, Esparru Logikoaren Ikuspegiaren formularioa betetzea nahitaezko baldintza batean bilakatu da proiektuetarako laguntza-eskaerak aurkezteko.

Esparru Logikoaren Ikuspegia proiektuak planifikatu eta kudeatzeko proposatutako teknika erabilgarria da; horrenbestez, garapenerako nazioarteko lankidetzaren prozesuetan parte hartzeko interesa duten erakunde eta pertsona guztiek beren oinarritzko kontzeptuak erabili beharko lituzkete.

Zehar-lerroak sartzea aurreikusten du

Esparru Logikoaren Ikuspegia plangintza errazten duen eta beste metodologia eta tresnekin konbinazioa ahalbidetzen duen metodologia malgu bat da. Izaera malgu horrek prozesu planifikatzailea abiarazten duen eta eduki politikoa ematen dioten ikuspegiak sartzea ahalbidetzen dio Esparru Logikoaren Ikuspegiari, metodologia garapen-eredu zehatz baterantz orientatuz.

Garapen-kontzeptuaren etengabeko azterketek nazioarteko lankidetzako gero eta eragile gehiagori garapenera bideratutako edozein ekintzatan ezinbestekotzat hartzen diren aldagai espezifiko batzuk ezartzea eragin die.

Emakumeen eta gizonen arteko ekitatea, iraunkortasun ekologikoa, giza eskubideen ikuspegia, eta herriko gaitasunen sustapena, partaidetza eta antolamendua lankidetzaren ekintza guztietan zeharka sartu behar duten faktoreak dira, giza garapen iraunkorraren eta ekitatiboaren eremuan funtsezkoak baitira. Hain zuzen ere, aipatutako faktoreek euskal kooperazioaren laguntza bilatzen duten proiektuek beren fase guztietan (identifikaziotik ebaluaziora bitarte) sartu behar dituzten zehar-lerroak osatzen dituzte.

III.1.3. Zehar-lerroak Esparru Logikoaren Ikuspegian

Zehar-lerroak giza garapenaren kontzeptuan funtsezko faktoreak dira; horrenbestez, ezinbestekoa da horiek sartzea giza garapenean lagundu nahi duen edozein ekintzaren plangintzaren eta abiaraztearen fase guztietan.

Garapen-prozesuan laguntzera bideratutako ekintza guztietan esanbidez sartu behar diren ekintza-esparruak dira, genero-ekitaterik, eskubide guztien titulartasun eraginkorrik, iraunkortasun ekologikorik eta gaitasun, partaidetza eta antolamendu sendorik gabe ezin baitu giza garapenik egon.

Adibidez:

Proiektu baten bitartez, erakunde bateko gizonen eta emakumeen garapen-prozesua indartzera zuzendutako ekintza bat planifikatzen ari gara. Proiektuaren osagai nagusia trebakuntza da. Eremuko errealitatearen beste ezaugarrien artean aurkitzen dugu xede-biztanleria batez ere nekazaritzan aritzen dela eta eremuan ingurumen-arazoak daudela, lurrak gehiegi ustiatu eta lugorriak besterik ez baitaude. Beste aldetik, emakumeen % 90 analfabetoak dira.

Errealitate horiek kontuan hartu gabe planifikatzen bada nahi gabe emakumeak baztertuko dituzten ekintzak diseina daitezke. Adibidez, baliteke planteatzen diren trebakuntzak gizon eta emakume nekazariak luraren produkzio-teknikei buruzko ezagutzak eskuratzera bideratuta egotea, baina

teknika iraunkorrei buruzko edukirik ez gehitzea. Kasu horretan, trebakuntzen benetako premiei erantzuten ari gara? Zer gertatzen da ingurumen-iraunkortasunarekin? Zentzu horretan biztanleriaren gaitasunak hobetzen dituzten ekintzak planifikatzen ari al gara, komunitatean benetako arazo bat den bitartean?

Beste aldetik, baliteke prestakuntzetara bertaratzen diren pertsonen eskolei jarraitu ahal izateko irakurtzeko materiala edukitzea aurreikusi izana, komunitatean emakumeen % 90 analfabetoak direla. Ekintzaren proiektuak behar bezala planteatzen ari dira? Zer gertatuko da materialak irakurri ezin dituzten emakumezko ikasleekin? Beren garapenaren subjektu gisa indartzen ari al dira? Hortaz, garapen erreal eta ekitatibo bati laguntza ematen ari al zaio?

Gizonen eta emakumeen premia espezifikoak detektatzeko diagnostiko on bat egin izan balitz, ingurumen-iraunkortasunaren eta emakumeen analfabetismoaren arazoak detektatzeko lirateke, oztopoak gainditzeko estrategiak diseinatuko lirateke (adibidez, teknika iraunkorrei buruzko trebakuntzak, i ruditzen oinarritutako material didaktikoak, Herri Hezkuntzako metodologiak, laguntza-eskolak irakurtzeko materialen edukien berri emateko, etab.).

Hau da, genero-ekitatearen eta ingurumen-iraunkortasunaren aldagaiak lehentasunezko premien identifikazioaren hasieratik zehar-lerro gisa aurreikusi izan balira, proiektuaren planteamenduak aintzat hartuko litzuke hain lehentasunezkoak diren alderdiak.



Lankidetzak-ekintza guztiak benetan giza garapenera bideratuta egoteko, funtsezkoa da zehar-lerroak proiektu bakoitzaren etapa guztietan sartzea:

Lankidetzak-ekintza guztiak benetan giza garapenera bideratuta egoteko, funtsezkoa da **zehar-lerroak** proiektu bakoitzaren etapa guztietan sartzea:

- Identifikazioa
- Formulazioa
- Egikaritzea
- Jarraipena
- Ebaluazioa

Horrek ez du esan nahi proiektuaren formulazio-fasean horiek indarrez sartu behar direnik ezarritako baldintza baten erantzun gisa, baizik eta planifikazio-prozesuaren hasieratik zehar-lerro bakoitzari buruzko ekintza-premiak eta –estrategiak kontuan hartu behar direla, lehentasunezkoztat hartzen diren premien identifikazioan. Horrela, zehar-lerroak proiektuaren oinarriaren parte dira, proiektua egiteko prozesuan funtsezko osagaiak dira, giza garapena bilatzen duen edozein prozesuetan bezala (ez proiektuaren ekintzekiko gehigarri eta osagarri gisa sartutako alderdiak).

Ondorengo irudiarekin konparazio bat ezarriz, zehar-lerroak proiektuan sartzeko prozesua B irudiarekin identifikatu behar da. B irudiak zehar-lerroak giza garapenaren bilaketan kokatzen dituen eta proiektua egiteko prozesuan integratzen dituen prozesu bat deskribatzen du eta ez A irudiak sinbolizatzen duenarekin. Irudi horretan ikusten da proiektuaren prozesua bere funtsezko edukaren kanpoko elementu gisa sartzen diren zehar-lerroetatik kanpo gertatzen dela.



07 Irudia.

Iturria: una gestión y comunicación.

Nola sar daitezke zehar-lerroak proiektua egiteko prozesuan?

Xede-biztanleriak lehentasunezkoztat hartzen dituen premiak identifikatuz, zehar-lerro bakoitzak ematen duen ikuspegitik abiatuz.

Ekintza-estrategia positiboak definituz zehar-lerro bakoitza benetan prozesuan sartzeko.

Definitutako jardun-estrategietatik ondorioztatzen diren zehar-lerro bakoitzarentzat ekintza zehatz espezifikoak planteatuz.

Zehar-lerro bakoitzarekin erlazionatutako ekintzetara baliabide espezifikoak bidaliz.

Zehar-lerro bakoitzari lotutako ekintzen benetako sartzea eta inpaktua ahalbidetuko duten adierazle zehatzak azalduz.

Herriko gaitasunak, partaidetza eta antolamendua

Biztanleriaren herriko gaitasunak indartzea eta partaidetza eta antolamendua sustatzea, pertsonen eta herrien benetako giza garapen bati jarraitzen dion ekintza batean lan egiteko ezinbestekoak izango diren alderdiak dira. Bertan, batzuk eta beste batzuk eraldaketa-subjektuak izango dira.

Egiturazko aldaketak eragin ditzaketen subjektu indibidualen eta kolektiboen gaitasunak indartzean oinarritutako pobrezia-aren aurkako borroka-estrategia bat hartzen dugu oinarritzat. Biztanleriaren gaitasunak herritartasuna eraikitzeke oinarria dira, bakarrik aldaketa-subjektu indibidualen eta kolektiboen indartzearen bitartez desberdintasunaren egiturazko kausei eraso egingo zaie, eta benetako eraldaketa-prozesuak martxan jarriko dira. Horrenbestez, xede-biztanleriaren indarguneak, ahuleziak eta potentzialtasunak argi eta garbi definitu behar dira, xede-biztanleriak dituen gaitasunei dagokienez.

Egiaz ahalduetzeko prozedurak barne hartu dira proiektuetan eta lankidetzak-ekintza guztietan, partaidetza eta antolamenduen bitartez. Desberdintasun-egoeran egonda ere, parte hartzeke eta antolatzeke prest dauden sektoreekin lan egitea dakar horrek, izan ere, pobrezia, desberdintasunaren eta kalteberatasunaren aurka borrokatzeke modu bakarra gizarte-ekintza da, askatasuna, askatasun-, justizia- eta demokrazia-politikak lortzeke nahiarekin batera.

Lankidetzak-proiektuaren oinarria xede-biztanleriaren gaitasunak sortzea izan behar du eta ez hainbeste premia zehatzak asetzea, biztanleria ahaldu eta bere garapen-prozesuen protagonista izan dadin. Herri ahaldu batek soilik, bere eskubideez eta pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituzten kausei jabetutakoak, eraldatu ahal izango du bere errealitatea. Ahaldu-ikusuntu horren arabera, pobrezia-egoeran dagoen biztanleriaren helburu espezifikoak beteta ere, azken helburuak beti epe luzeke izango dira, eta lehentasuneko premiak asetze-mailaren arabera baino gehiago, ahaldu-prozesuak sortzearekin erlazioatutako alderdien arabera neurtuko dira: garapen-subjektuak indartzea; giza eskubideen baliozkotasuna eta horien gaineko eraginaren maila; ekitatea, justizia eta iraunkortasunaren balioetan oinarritutako garapen-ereduak abiarazteke gaitasuna; herri-sektoreak koordinatzeko herriko, estatuko eta nazioarteko egitura eta sareak sortzea; sektore horiek antolatzea eta parte-hartze aktiboa izatea; emakumeen eta gizonen egoerari buruzko inaktuaren ekitatea.

Beste aldetik, giza garapen iraunkor eta ekitatibo bat lortu nahi duen edozein ekintzak inplikaturako biztanleria eduki behar du prozesu eraldatzaileen protagonista gisa. Gizonak eta emakumeak gizarte onuradun izatetik proiektuaren xede-biztanleria izatera igaro dira, ekintzak erantzun nahi dituen premiak zehazten diren fasetik, lortu nahi diren helburuak eta emaitzak planifikatzerako garaian, proiektuak duen garapen-ereduaren definizioan, jardura zehatzak burutzen diren momentuan eta ekintzaaren emaitzak ebaluatzen direnean.

Horregatik, ezinbestekoa da partaidetza sustatzea, baina ez bakarrik proiektuaren jardun-eremuan kokatuta, baizik eta ahaldu indibidualerako eta kolektiborako tresna gisa.

Partaidetza helburu bat da, baita berezko xede bat ere. Ez da bermatu behar den eskubide bat bakarrik; era berean, funtsezko elementu bat da proiektu batek biztanleriaren garapen-prozesuari benetan laguntzeko. Baina partaidetza indibidualak, oso garrantzitsua bada ere, indibidualismoa ezagutarazi behar du eremu kolektibora iristeko. Hau da, partaidetzak antolamendura eraman behar du. Partaidetza sustatzea antolamenduari bidea emateko oinarriak ezartzea da, eta horrek gizarte zibila indartzeko laguntza ematen du, aliantzak ezartzeko, eskubide eta interes komunak defendatzeko, politika publikoak hitzartzeko eta abarretarako baliabideak ematen baitizkio. Hori berari jarraiki, partaidetza-demokrazia bultzatzea ezinbestekoa da giza garapen iraunkor bat lortzeko beharrezkoak diren baldintzak sortzerako garaian.

Gaitasunen, partaidetzaren eta antolamenduaren indartzea zehar-lerro gisa sartzeak xede-biztanleriaren ahuleziak, indarguneak eta premiak zeintzuk diren adierazten duen diagnostiko on batetik abiaraztea esan nahi du. Horretarako, identifikazio-fasean honako galdera hauei buruzko datuak lortu nahi dira: zer gaitasun indartu behar dira, zer premia espezifiko dituzte xede-biztanleria osatzen duten kolektiboek, batez ere kalteberenak eta ohiko moduan baztertuak izan direnak, zeintzuk dira emakumeetan indartu behar diren gaitasunak eta zeintzuk gizonetan indartu behar direnak.

Partaidetzari dagokionez, gaur egun dauden eta egon beharko luketen parte hartzeko guneak buruzko diagnostiko bat lortzea garrantzitsua da, zeintzuk diren kolektibo batzuen partaidetza zailtzen duten arazoak, batez ere kolektibo kalteberenen partaidetza (etnien edo hizkuntzaren arloko gutxiengoak, ahalmen mugatuak dituzten pertsonak, biztanleria indigena, etab.) Eta, jakina, funtsezkoa da identifikazio-prozesuan inplikaturako pertsona, talde, kolektibo eta erakunde guztiek parte hartuko dutela bermatzea. Horrenbestez, hori lortzeko neurriak aurreikusi beharko dira: tailerrak biztanleria-talde ezberdinentzat, partaidetzarako zailtasunak dituzten pertsonekin edo taldeekin soilik lan-saioak edo elkarrizketak, etab.

Antolamenduari dagokionez, era berean diagnostikoak honako galdera hauei buruzko informazioa gehitu beharko du; nola dago biztanleria antolatuta, zer eremutan eta zer gaietarako, emakume antolatuen talde espezifikorik ba ote dagoen, biztanleriaren kolektibo antolatuen artean koordinatuta jarduten den, eraldatzeko ahalmen handia duten subjekturik aurkitu den, etab.

Gaitasunei, partaidetzari eta antolamenduari buruzko datu horietatik guztietatik, premiak lehenesten dira eta helburuak eta emaitzak diseinatzen dira. Hori lortzeko, partaidetza bermatzeko eta antolamendua sustatzeko funtsarekin garatutako jarduerak planifikatzen dira. Jarraipena egiteko eta ebaluatzeko garaian, lortzen ari diren efektuak neurtzen dira eta akatsak zuzentzea eta asmatzeak indartzea ahalbidetzen duten helburuak ateratzen dira.

Genero Ekitatea

Gaur egun, ezin gizartetan emakumeek ez dute gizonak adina garapen-aukera.

Genero-ekitate giza garapenari atxikita dago. Hau da, lankidetzak giza garapena lortzera bideratzen badira emakumeak eta gizonak eraldaketa-subjektu gisa indartzearen bitartez, bere gaitasunak eta aukerak handiagotuz, ezin dira biztanleria erdiaren egoera, posizioa eta interesak alde batera utzi: emakumeenak, hain zuzen ere.

Ezinezkoa da pertsonen eta herrien gaitasunak indartu nahi dituen giza garapenerako estrategia bat diseinatzea, genero-desberdintasunak onartu gabe eta helburua genero-desberdintasunak murriztea eta ezabatzea ez bada.

Generoa kultura-eraikuntza da eta, horrexegatik kultura eta etnia ezberdinetan hainbat genero-harremant ezartzen dira. Munduko kultura guztien ezaugarri komun bakarra da emakumeak gizonen mende azaltzea. Ezberdintasuna honako hauetan ikus daiteke: mendekotasun hori azaltzen den moduan, mendekotasunaren mailetan eta emakumeen eta nesken bizi-kalitateari eragiteko moduan.

Beharrezkoa da proiektuaren xede-biztanleriaren genero-harremant espezifikoak aztertzea. Bestela, azterketa etnozentrikoetan erortzeko aukera egongo litzateke, genero-harremantak gizarte eta kultura guztietan berdinak direla eta genero-orekarik ezak testuinguru guztietan adierazpen berdinak dituela interpretatuta.

Lankidetzak pertsonen eta bereziki, emakumeen ahalduntzea bilatu behar dute. Emakumeen ahalduntzeak gizarte talde gisa beren gaitasunak eta protagonismoa indartzea esan nahi du eta horrek aldaketa indibidual bat –autoestimua gehitzea, erabakiak hartzeko gaitasuna– nahiz kolektibo bat dakar –beren partaidetza eta antolamendua handiagotzea–. Ahalduntze-prozesuaren bitartez, emakumeak beren burua aldaketa-subjektu izendatzeko moduan daude, beren egoera aldatzeko eta eremu sozialean, politikoan eta pertsonalean gizonetikiko duten posizioa aldatzeko jardun dezaten.

Ahalduntze hori ez da *zero batzen duen ahalmena*, hau da, ez da *ezeren gaineko ahalmena*⁴, zeinaren arabera emakumeen ahalmen-gehikuntzak gizonen ahalmen-galera ekarri behar duen. Emakumeek eskubideak irabaztea lortu nahi da, ez gizonen eskubideen kontura, baizik eta gizonen, gizon izateagatik bakarrik, esleitura dituzten abantailen kontura. Ahalduntze-kontzeptutik ondorioztatzen den ahalmena *zerbaitekin ahalmena* da, eta bertan gizonen eta emakumeen irabazten dute, pertsona guztiek, nahiz eta autonomoak izan, ahalmena beren gaitasunak garatuta edukitzera, erabakitzeko gaitasuna edukitzera, osasun eta hezkuntza hobetuz edukitzera eta abar bideratzen baita.

Inork ezin du beste pertsona bat ahaldundu, bakoitzak garatu behar duen autokontzientzia-prozesu bat baita. Baina lankidetzak proiektu batek baldintza onuragarriak sor ditzake eta sortu behar ditu emakumeek ahalduntze-prozesuak has ditzaten eta daudenak indar ditzaketen. Horretarako, garrantzitsua da emakumeek bizi dituzten, lanean dituzten, eta abar. baldintzak hobetzeko erlazioetatik eta beren rol tradizionalen jardueren lotura dauden premiei erantzutea. Baina ezinbestekoa da interes estrategikoetan, eta eremu praktikoa gainditzeko duten eta emakumeek gizartean, etxean eta produkzio-ere-

⁴ Ikus Lukes, Stevenen obra: "Power: a radical view" (1974).

muan duten posizioa hobetzeari buruzko alderdi horietan arreta jartzea. Hausnarketaren, kontzientzia-hartzearen eta antolamenduaren prozesuen sustapenak interes estrategikoei eskaintzen die arreta.

Nadie puede empoderar a otra persona, ya que es un proceso de autoconciencia que tiene que desarrollar cada cual. Pero un proyecto de cooperación puede y debe crear condiciones favorables para que las mujeres inicien procesos de empoderamiento y se fortalezcan los ya existentes. Para ello, aunque también se deben atender las necesidades prácticas de las mujeres, es fundamental centrar la atención en sus intereses estratégicos, aquellos relacionados con aspectos que trascienden lo práctico y que se refieren a la mejora de la posición de las mujeres en la sociedad, en la casa y en el ámbito productivo. La promoción de procesos de reflexión, toma de conciencia y organización presta atención a los intereses estratégicos.

Adibidea

Emakumeentzako familiaren higieneari eta nutrizioari buruzko tailer bat ematean oinarritzen den jardura bat planifikatzen da. Emakumeek tailerretara bertaratzeko zailtasunak dituzte, beren seme-alabak ezin dituztelako inorekin utzi; hori dela-eta, haurtzaindegi-zerbitzu bat eskaintzea planteatzen da.

Ekintza horrek zuzenean emakumeei eragiten die, honako bi arrazoi hauengatik:

- Beren seme-alaben osasuna zaintzeko eta familiaren elikadura zaintzeko baldintza higienikook hobetzerantz bideratutako ezagutzak ematen ditu tailerrak.
- Tailerretara lasaitasunez bertaratzeko aukera edukiko dute, beren seme-alabak haurtzaindegian ondo zainduta egongo direlako.

Jardura horrekin emakumeen premia praktikoa bat asetzen ari da, tailerrean eskuratzen dituzten ezagutzek ama gisa eta etxeko zaintzaile gisa egiten duten lana hobetuko dutelako. Hala ere, orain ez da inoiz zailtasunaz jartzen, "naturalizat" hartzen da eta ez da planteatzen, adibidez, gizonak tailerretara bertaratzeko aukera dutenik beren seme-alaben zaintza-lanetan inplikatzeko ahalbidetuko dien ezagutzak eskuratzeko. Hau da, generorolak indartzen dira (emakumeak=ama eta zaintzaileak) eta ez dago lan-, ardura- eta ahalmen-birbanaketarik.

Genero-ekitatearen alde lan egiteak gizonak ere tartean sartzen ditu. Lankidetzaproiektuek bereziki emakumeekin lan egin eta ahalduzko-prozesuak erraztu behar dituzte, baina genero-ekitateak emakumeen eta gizonen artean ahalmena, lanak eta ardurak banatzea eragiten du; horrenbestez, gizonak ezin dira agente pasibotzat hartu. Era berean, gizonak beren izate maskulinoari buruzko hausnarketa- eta kontzientzia- prozesuak hasi behar dituzte, betidanik emakumeei bakarrik egokitu zaizkien lanetan eta arduretan sartzeaz gain.

Adibidea

Jardura bat egitea proposatzen da, jardura horretan familiaren higieneari eta nutrizioari buruzko tailerrak egingo dira emakumeentzat, premia hori lehentasunezko hartu baitute emakumeek. Hala ere, tailerrean edukiak handitzen dira, eta seme-alaben eta familiaren zaintza hobetzerantz bideratutako higieneari eta nutri-

zioari buruzko alderdiez gain, emakumeen higieñari eta osasunari buruzko alderdiak gehitzen dira. Horrez gain, haurtzaindegi-zerbitzu bat jarriko den arren, alde aurretik, gizonekin egiten diren jardueren bitartez, lantzen da gizonak izatea haurren zaintzaren arduradun, emakumeak tailerretara bertaratzeko bideratzen diren bitartean.

Jarduera horrekin, emakumeek lehentasunezkatzat planteatu duten emakumeen premia praktikoko bati erantzuna emateaz gain, generoaren arloko interes estrategikoei erantzuna ematen zaie, izan ere:

- Tailerretan, beren familia zaintzera bideratutako ezagutzak eskuratzeko gain, beren buruak zaintzeko ezagutzak ere eskuratu dituzte, inplikazio guztiekin (autoestimua, balorazioa, norberaren denbora).
- Gizonekin beren genero-rola lantzen da, beren identitate maskulinoren inguruan hausnar dezaten sustatzeko. Ahalmenak birbanatzeari laguntza ematen zaio eta emakumeak tailerrera bertaratzeko bideratzen diren bitartean beren seme-alabak zaintzeko arduratzeak lehen bakarrik emakumei egokitzen zitzaizkien lan bat birbanatzeari laguntzen dio. Hori bezalako prozesuekin, gizonak lehen automatikoki egokitzen zitzaizkien abantailak galtzen dituzte baina ekitatean oinarritutako genero-harremanak eraikitzen partehartze aktiboa dute, batez ere etxeko eremuan.

Garrantzizkoa da nabarmentzea genero-ikuspegiak ez duela proiektu zehatzen jardun-eremura mugatu behar. Ez da proiektuetara kategorio gisa sartzeko azterketa-aldagai tekniko bat, baizik eta kontu politiko bat da, lparaldean nahiz Hegoaldean guztiei interperlatu eta eragiten digun eta giza garapeneraren kontzeptutik bereizten ez den emakumeen eta gizonen arteko benetako ekitatearen aldeko borroka. Horrek inplikazioak ekarriko ditu eremu guztietan, eremu teknikoan, baita erakunde- eta estrategia-eremuan ere.

Horregatik, proiektuaren fase guztietan genero-ikuspegia sartzeko errazten duten tresna teknikoak ezagutzeaz gain, proiektuan inplikaturako erakunde guztien politikak genero-ikuspegia integratuta eduki behar du modu esplizituan, eraginkorrean eta planifikatuan. Horrek inplikazio zehatzak ditu:

- Erakundeak esfortzuak eta baliabideak erabili behar ditu erakundeko kideek genero-ekitatean trebakuntza edukitzeko.
- Plan estrategikoei genero-ikuspegia sartu behar dute.
- Antolamendu-kulturak entitatearen barruko desberdintasunak saihestera bideratuta egon behar du.
- Genero-ekitatea antolamenduaren egituraren eta ahalmenaren benetako banaketan islatu behar da.
- Aliantza estrategikoei ezarri behar dira genero-ekitateari buruzko kontuak lantzeko.

Azken batean, proiektua egiteko konpromisoa hartu duten erakunde eta entitate guztiek ekintza-ildo zehatz bat eduki behar dute antolamenduaren maila guztietan onartutako genero-politika bat ekarriko

duen ekitatearen aldeko lanean, esleitutako baliabideak dituzten eta eraginkorrak bilakatuko diren neurri zehatzekin.

Genero-ekitatearen zehar-lerroak lankidetzeta-proiektu batean sartzeko beharrezkoa da lehenengo fase-arekin hastea, hau da, lehentasuneko premien identifikazioarekin.

Benetan giza garapenari laguntza ematen dion proiektu bati ekiteko (bertan, biztanleriaren emakumeak eta gizonak eraldaketaren xede izango dira) genero-ekitatearen funtsak hasieratik abiatu behar duela hartu behar da kontuan: genero-azterketarekin identifikazio bat eginez, horren ondorioz, gizonen nahiz emakumeen premiekin erlazionatzen diren helburuak, emaitzak eta jarduerak formulatuz eta, behin prozesua amaitu ondoren, gizonentzat nahiz emakumeentzat proiektuak lortu dituen efektuak eta proiektuak emakumeen eta gizonen arteko ahalmen-harremanetan eduki duen inpaktua ebaluatuz.

Prozesu zuzena	Prozesu okerra
1. urratsa Genero-azterketa batean oinarritutako proiektuaren identifikazioa. ↓	1. urratsa Genero-azterketarik gabeko proiektuaren identifikazioa. ↓
2. urratsa Plangintzako ideia nagusia egitea, genero-azterketatik sortu diren gizonen eta emakumeen premien eta interesen arabera, genero-ekitatera bideratutako helburuekin, emaitzekin eta adierazleekin. ↓	2. urratsa Plangintzako ideia nagusia egitea generoa kontuan hartzen ez duen azterketa baten arabera. ↓
3. urratsa Formularioa eta formularioaren barruan generoaren idatz-zatia betetzea, genero-azterketa hori eta formulazio hori elementu guztiekin agerian jarritz.	3. urratsa Formularioa eta formularioaren barruan, generoaren idatz-zatia alderdi teorikoekin eta abstraktuekin bete, ez gure proiektuaren errealitatearekin.

08 Irudia.

Iturria: una gestión y comunicación.

Giza Eskubideak

Giza garapena ezin da ulertu eskubideen ikuspegia sartu gabe. Pertsona eta herrialde guztiak eskubide guztien titularrak dira. Edozein garapen-estrategiaren abiapuntua eta era berean helburua titulartasun horren erabilera defendatzea, sustatzea, errespetatzea eta eskatzea da. Giza eskubideak ez dira kontzeptu abstraktuak eta etereoak, baizik eta errealitate hautemangarri eta zehatz batean bilakatu daitezke, eskubideen ikuspegitik lan egiten bada.

Garapenerako lankidetzak-ekintzetan eskubideen ikuspegia aplikatzeak ikuspegia landu ahal izateko ezagutu behar diren erronka eta zailtasunekin egingo duela topo:

- Ikuspegiak sortzen eta inplikatzeko dituen itzaropenak betetzea lortzen ez duen eskubideen erretorika bat erabili daiteke.
- Giza eskubideak sartzeko garrantzi politikoa du, eta horrek lana oztopa dezake beren botere-egiturak eta hainbat klase faboraturen aldeko pribilegioak aldatzeko prest ez dauden herrialde askotan.
- Lankidetzak-agenteei legeriari eta araudiei buruzko kontzeptu batzuk erabili behar dituzte, baita lan egiten duten testuinguruetako politika publikoak sakon ezagutu ere. Horrela bakarrik eragin daiteke benetako eraldaketetan.

Lankidetzak-proiektu batek honako funts honekin jardun behar du: proiektuan inplikaturako biztanleria eskubideen eta askatasunen titularra da, eta ez onuraduna bakarrik. Ekintza bat diseinatzerako garaian, honako estrategia hauek hartu behar dira kontuan giza eskubideei dagokienez: defentsa, sustapena, salaketa, hedapena eta prestakuntza.

Zehazki, honako ekintza hauetara bideratutako helburuak sartu behar dira estrategietan:

- Eskubide edo askatasun baten ez-betetzearen aurrean ez jarduteaz arduratu behar diren erakundeetan intzidentzia.
- Xede-biztanleriaren sentsibilizazioa eta sustapena beren eskubideen kontzientziazioari, egikaritzeari eta galdagarritasunari dagokionez.
- Biztanleen eskubideak urratzen dituzten entitateak –publikoak eta pribatuak– identifikatzea eta salatzea.
- Nazioarteko intzidentzia giza eskubideen esparruaren defentsan, baita horien galdagarritasunean ere.
- Hegoaldeko herrialdeetako pertsonen eta herrien eskubideei egin zaizkien erasoei buruzko sentsibilizazioa Iparraldeko gizarteetan.

Garapen-ekintzek ezin dute eskubide bat urratzen denean bakarrik jardun, baizik eta eskubide guztien errespetua eta defentsa sustatu behar dute pertsona eta herri guztientzat. Lankidetzak-proiektuek babestu behar dituzten ahaldunduzko-prozesuek gizonek eta emakumeek zer eskubide dituzten eta eskubide horiek erabiltzeko eta eskatzeko duten aukeraz ohartaraztea eskatzen dute. Askatasunen gabezia jakitu gabe ezin da ahaldunduzkerik egon, eta ezta urratutako eskubideen alde borrokatzeko ekimenak garatzen ez badira ere.

Giza eskubideen ikuspegia lankidetzak-proiektu batean sartzeko identifikazioaren hasieratik xede-biztanleriaren egoerari buruzko informazioa ematen duten diagnostikoetatik eta azterketatik abiatzea esan nahi du, beren eskubide indibidualen eta kolektiboen ezagutzari, betetzeari eta galdagarritasuna-

ri dagokionez. Xede-biztanleria osatzen duten gizonen, emakumeen, taldeen eta erakundeen eskaerak zeintzuk diren ezagutu behar ditugu, beren eskubideak aldarrikatzeko edota eskubideen urraketa salatzeko duten gaitasuna zein den, eskubideen indarraldia eta betetze-maila ziurtatzeko ardura dutenen betebeharrak zeintzuk diren, inguruko zer erakundek egiten du lana eskubideen defentsaren eta sustapenaren alde, arrazagatik, adinagatik, sexuagatik, orientabide sexualagatik, gaitasun desberdinengatik eta abarregatik baztertutako kolektiboen egoera nolakoa den, etab. Hortik aurrera, premiak lehenetsi ahal izango dira, eta horiei jarraiki, helburuak, emaitzak eta estrategiak egin, jarduerak planifikatu eta baliabideak bideratu.

Eskubide indibidualen nahiz eskubide kolektiboen bermeagatik zaintzea. Ikuspegi tradizionalek garrantzi handiagoa ematen diete eskubide zibilei eta politikoei, baina Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Plan Zuzentzaileak erabiltzen duen giza eskubideetan oinarritutako garapen-ikuspegiak funtsezkoak direla aitortzen du –sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta hirugarren belaunaldikoak-, eta eskubide guztiak zatietan, elkarren mendeak eta elkarri lotuak direla ulertzen du. Hau da, eskubide guztiek garrantzi berbera dute, ezin dira hierarkizatu, ezta batzuei besteei baino garrantzia gehiago eman ere.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko garaian, honako datu hauek eskuratu behar dira: zer efektu dituen proiektuak giza eskubideen sustapenean eta defentsan, ezarritako helburuak eta emaitzak betetzen ari ote diren, aurreikusi ez diren efektu negatiboak ba ote dauden, horren inguruan formulatutako adierazleak betetze-maila zein den, etab. Horrela, ikaskuntzak ateratzeko eta egon daitezkeen akatsak zuzentzeko aukera edukiko dugu, jarduerak egikaritzekoan (jarraipena egiten dugunean) edota ikaskuntza horiek ondorengo proiektuetan aplikatuz (amaierako ebaluazioen kasuan).

Iraunkortasun Ekologikoa

Garapen iraunkorra terminoa Brundtland Txostenean (1987) erabili zen lehen aldiz, eta honela definitzen da: “egungo belaunaldiaren premiak asetzeko, etorkizuneko belaunaldiak beren premiak asetzeko aukerak arriskuan jarri gabe”. Kontzeptu horrek aldaketa oso garrantzitsua ekarri zuen iraunkortasun ekologikoa ulertzeko moduan, hain zuzen ere ingurumenaren alderdiak ekonomiaren eta gizartearen alderdiekin lotzen dituelako.

Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Plan Zuzentzaileak biltzen duenez, giza garapena eta ingurumen-iraunkortasuna banandu ezin diren bi kontzeptu dira, eta ezinezkoa da bat ulertzea bestea kontuan hartu gabe. Garapena ekarri nahi duen edozein proiektu oso arreta handiz zaindu behar du bere ekintzek iraunkortasuna bermatzen dutela, hain zuzen ere ingurumenaren degradazioa gaitasunez gabetzeko modu bat delako, pertsonen kalteberatasunean eta bizitza-kalitatean zuzeneko eragina izanik eta, beraz, baita giza garapenean ere. Hori nabarmenagoa da pobreziako egoeran dauden pertsonen artean, hain zuzen ere baliabide naturalen degradazioaren, kutsaduraren eta hondamendi ekologikoen aurrean kalteberagoak direlako.

Ingurune eta ingurumen iraunkor bat izatea gizakien eskubide bat da, eta pertsona eta herri guztiek bermatuta izan beharko lukete. Horren ildotik, Nazio Batuen Garapen Programaren Milurtekoko Gara-

pen Helburuek honako hau ezartzen dute 7. helburu gisa: "Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea". Horretarako, garapen iraunkorreko printzipioak politika nazional guztien zeharkako elementu gisa barnean hartzea funtsezko ekintzat hartzen da.

Lankidetzaproiektu batek oinarrizko helburu gisa izan behar du gaur egungo belaunaldien garapenak zalantzan ez jartzea etorkizuneko belaunaldien garapena. Proiektuek zentzu politikoan ulertu behar dute iraunkortasun ekologikoaren kontzeptua. Hau da, ingurumenaren narriaduraren kausak modu kritikoan aztertzea, garapen- eta ekoizpen-eredu nagusiak zalantzan jartzera, eta eredu iraunkorrak proposatzera bideratutako helburuak, emaitzak eta estrategiak planifikatzean oinarritu behar dituzte beren ahalegin guztiak. Abiarazitako lankidetzak guztiek ingurumena errespetatu behar dute, eta ekologiararen aldetik iraunkorrak diren garapen-ohiturak, -azterketak eta -estrategiak sustatu eta defendatu.

Horretarako, iraunkortasuna bermatzen duten ekintzak garatu behar dira, eta ingurumenen ahalik eta inpaktu txikiena duten jarduerak proposatu. Gainera, proiektuaren betearazpenean eragina duten ingurumen-baldintzak kontuan hartu behar dira. Era berean, oso garrantzitsua da proiektuaren xede-biztanleria osatzen duten gizonen eta emakumeen jakintzak eta gaitasunak indartzea, ikuspegi kritikoa sustatzeko eta jardun iraunkorrak dakartzaten ereduak definitzeko aukera ematen duten gakoak ahalbidetzeko. Iraunkortasun ekologikoaren aldeko apustua egitea ezinbestekotzat hartzeaz gain, adibidez, nekazaritza-teknika ez agresiboak, luraren zaintzari edo tokiko baliabide naturalak eraginkortasunez aprobetxatzeko moduei buruzko informazioa baldin badugu, errespetuzko ekintzak eta ekintza iraunkorrak planifikatu ahal izateko inputak izango ditugu.

Bestalde, iparraldeko herrialdeetan nagusitzen den garapen-eredua argi eta garbi eutsiezina dela ikusten ari gara, hain zuzen ere ekoizpen- eta kontsumo-mailak oso altuak direlako eta azkenean baliabide naturalak agortuko dituztelako. Hortaz, garapenaren alde lan egiteak ingurumena errespetatzen duten ekintzak planifikatzeaz gain, garapen-sistema eutsiezin hau zalantzan jartzea eta iparraldean egiten diren gehiegikeria ekologikoen gainean sentsibilizatu, kontzientziatu eta salatzeke lan egitea dakar.

Iraunkortasun ekologikoaren ildoak lankidetzaproiektu baten barruan sartzeak proiektuaren ziklo osoan ingurumen-tresnak eta ingurumen-ikuspegiak barnean hartzea dakar. Hori dela-eta, -identifikazioaren unetik- honako hauek kontuan hartu behar dira: baliabide naturalak inguruan nola erabiltzen diren, hondakinak nola kudeatzen diren, nor daukan baliabideen jabetza, eta zer ondorio dituen horrek, zer ingurumen-arazo dauden eta zeintzuk diren horien efektuak, bai gizonengan, bai emakumeengan, biztanleriak zein ezagutza dituen ekoizpeneko eta birziklapeneko teknika iraunkorrei buruz, zein teknologia erabiltzen diren, teknologia horien erabilerak zein inplikazio dituen, ingurumeneko zirkunstantziek nola eragiten duten biztanleriaren kalteberatasun-mailan, etab. Hortik aurrera, premiei lehentasuna ematen zaie, eta helburuak, emaitzak, estrategiak eta jarduerak formulatzen dira.

Berriz ere ezinbestekoa da genero-analisisa barnean hartzearen garrantzia azpimarratzea, emakumeen premia espezifikoak arreta emateko, gizonen premietatik bereizita. Adibidez, etxeak egurrezko

sukaldea erabiltzen duten komunitate batean lan egiteko, kontuan hartu beharko da kalte nahiko handia dakarrela emakumeentzat bereziki, hain zuzen ere normalean emakumeak direlako elikagaiak prestatzeaz arduratzen direnak.

Lankidetzarekin planifikatzerakoan, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

- Ingurumenean duten inpaktuak albatu gehien mugatu behar da, ingurumena babestu behar dute, eta baliabideak modu iraunkorrean kudeatu.
- Norberaren baliabide naturalak eta energia-baliabideetan oinarritutako garapen-ereduak eta garapen-estrategiak proposatu behar dituzte. Adibidez, elikadura-subiranotasuna, landetako ekonomiak sustatzen dituenak, oinarritutako ondasun naturalen iragarritasun eta kontrol ez-merkantilizatuak, kontsumitzaileen osasuna eta pertsonen eta herrien eskubideen eta notatuen iraunkortasun ekologikoko eta kulturalako ikuspegi bat bermatzen duten ekoizpen-prozesu agroekologikoak, landa-eremuan politikak, arauak eta ohiturak genero-ikuspegiak oinarrituta berrikusteko asmoarekin.
- Gaitzea, hausnarketa eta pentsamendu kritikoa sustatu behar dute, hain zuzen ere gaitasunen eta jakintzen prestakuntzako eta indartzeko estrategiek zuzeneko eragina dutelako prebentzioan.
- Aniztasunaren, bilakaeraren, autoantolatamenduen, autosufizientziaren, deszentralizazioaren eta lankidetzaren printzipioak sustatu behar dituzte. Horren ildotik, oso garrantzitsua da tokiko praktika iraunkor tradizionalak berreskuratzea, indartzea eta sustatzea.
- Materialen zikloa ixtea izan behar dute helburu, hondakin-emisioak ekosistema naturalak birziklatuta.
- Baliabide berriztagarriak erabiltzeko beharra dute sistema ekologikoek etorkizunean baliabide horiek eskaintzeko izango duten gaitasuna murriztu gabe; eta baliabide ez berriztagarriak ere behar dituzte, horien beharra etorkizunean eta bestelako baliabideen prestatasuna kontuan hartuta.
- Eraginkortasun-irizpideei (produktu-ale bakoitzeko baliabide-kontsumoa murriztea) eta nahikortasun-irizpideei (baliabideen guztizko kontsumoa murriztea) jarraiki baliatu behar dira egungo baliabideak.
- Testuinguru bakoitzean, teknologia egokienak eta garbienak aztertu eta aplikatu behar dira.
- Ingurumena Kudeatzeko Plan bat egin baldin bada, jarraipenaren eta bilakaeraren unean oso baliagarria izango da ingurumenaren gaineko inpaktu negatiboak prebenitzeko neurriak modu arrakastatsuan ezarri direla egiaztatzeko eta proiektuaren identifikazio-fasean hautemandako inpaktu positiboak hobetzeko.

III.1.4. Nola egiten da garapenerako lankidetzaproiektu bat Esparru Logikoaren Ikuspegia erabiliz?

Proiektu baten eraikuntza-prozesuaren etapa guztiak ikuspegi parte-hartzaile batean oinarrituta landu behar dira, xede-biztanleria osatzen duten talde guztiek parte hartzea bermatuta, bereziki tradizioz baz-

tertuak dauden taldeek, eta azken helburua izan behar da ekintzak xede-biztanleriaren berezko prozesua indartzera bideratzea.

Proiektuaren helburua da biztanleriako emakumeak eta gizonak eraldaketa-subjektu gisa indartzea, eta helburu hori betetzeko, funtsezkoa da xede-biztanleria osatzen duten pertsona, erakunde, talde eta instituzio guztiek benetako ordezkari izatea proiektuaren eraikuntza-prozesuan. Horrela, etapa guztiek parte hartzeko guneak barnean hartu behar dituzte, bertan zuzenean inplikaturiko xede-biztanleriak eta erakundeek lan egiteko gakoak defini ditzaten.

Funtsezkoa da arreta berezia jartzea parte hartzeko guneen osakeran, biztanleriaren ordezkari-talde guztiek bertan lekua izan dezaten, arreta berezia jarri kalteberagoak eta tradizioz baztertuak har ditezkeen taldeengan.

Talde horien partaidetza efektiboa izateko eta horien ekarpenak kontuan hartuak izateko beharrezkoak diren neurriak aurreikusi behar dira. Gomendio hau ezin da erraz eraldatu orientabide zehaztetan, hain zuzen ere giza talde bakoitzak behar adina espezifikotasun dituelako jarraibide zehatzak zertan eman ez izateko, baina arreta berezia jarri behar da honako hauengan: gutxiengo etnikoak, erlijiosoak edo hizkuntzazkoak, biztanleria analfabetoa, zaharrak, haurrak, guraso bakarreko familiaren kargura dauden emakumeak, muturreko pobrezia egoeran dauden pertsonak, homosexualak, ezintasunen bat duten pertsonak, eta kalteberatasuneko eta bazterkeriako egoeran dagoen edozein talde.

Era berean, xede-biztanlerian eraldaketa-agentek daude, eta eraikitako garapen-prozesu kolektiboaren arabera hainbat antolamendu-maila izan ditzakete. Eraldaketa-agentek horiek biztanleriaren berezko garapen-prozesuan funtsezko zeregina duten erakundeak, gizarte-mugimenduak, herritarren sareak eta instituzioak dira. Funtsezkoa da proiektuaren eraikuntza-prozesua eraldaketa-agentek eraikitzen lagundu duten garapen-prozesuan txertatzea, eta baita agente horien ikuspegia proiektuarekin lotutako erabakietan kontuan hartzea ere.

Partaidetza-prozesua behar bezala gara dadin, esku-hartzeak koordinatzeko, ondorioak jasotzeko eta taldeko dinamikak zuzentzeko lan-saioak bideratzeko zeregina du(t)en pertsona baten edo batzuen figura barnean hartzen da.

Proiektuaren eraikuntza-prozesuaren emaitzek zuzeneko harremana izango dute sortutako eztabaiden sarkontasunarekin eta aberastasunarekin eta, beraz, bideratzaileen taldeen prestakuntza eta hizkuntzazko eta dinamizazio gaitasunak funtsezko faktoreak dira eztabaida eta eraikuntza kolektiboa sortzeko.

Erabakiei buruzko akordioak lehentasunez adostu behar dira, hain zuzen ere proiektuan parte hartzen duten agente guztiek norberaren lehentasun gisa beren gain hartu behar baitituzte proiektuak eta aurreikusitako ekintza-estrategiek ezarritako lehentasunak.

Azken batean, proiektu baten eraikuntza-prozesuko bideratzaileek emaitzen kalitatea bermatzen duten trebetasun eta gaitasun jakin batzuk izan behar dituzte. Horretarako, partaidetza-metodologiaren erabilerran trebatuak egon behar dute.

Bideratzaileen zeregina

- Taldearekin konektatu behar dute, eta eskuragarri dauden neurri guztiak hartu biztanleriaren parte-hartze efektiboa ahalbidetzeko, eta, era berean, estrategiak aurreikusi behar dituzte talde kalteberen mugei aurre egiteko. Tailerrak edo bilerak antolatzerakoan soilik eremu urriko tokiko hizkuntzetan hitz egiten duten pertsonak kontuan ez hartzea (normalean emakumeak eta talde kalteberenak) beste oztopo bat gehiago da partaidetzarako.
- Oso garrantzitsua da partaidetza-metodologiaren erabileran trebatuak egotea, hain zuzen ere pertsona eta talde guztiek hertsatuak sentitu gabe beren ikuspegiak adierazi ahal ditzaten.
- Prozesua aberasten duten eta emaitzen kalitatea bermatzen duten eztabaidak eta trukeak eragiten dituzten galderak sorrarazteko gaitasuna izan behar dute.
- Prozesuan sor daitezkeen gatazkak maneiatzeko gaitasunak izan behar dituzte.
- Ikuspegi estrategikoa eduki behar da, premiak mugatu eta lehenestea ahalbidetzeko, hain zuzen ere ongizate orokorrera bideratzen diren premien eta bereziki talde edo pertsona kaltebera jakin batzuen premien arteko oreka lortzeko helburuarekin. Kasu horietan, pertsona edo talde jakin batzuentzako –adibidez, pertsona ezinduen kasuan– bereizketa positiboko neurriak ezartzen ez badira, –hain zuzen ere– prozesutik kanpo uzten ari dira.
- Oso garrantzitsua da prozesua gidatu eta orientatzeko –zuzentzaileak izan gabe– eta proiektuan inplikaturiko GGKEn ildo, politika eta planetan baxertatzeko gaitasuna izatea.

III.2. Proiektuak identifikatzea: planifikatzeko aztertzea

Proiektu posible bat identifikatzea prozesu bat da, eta bertan norberaren errealitatean eraldaketa-subjektu bihurtzea erabaki duten emakumeen eta gizonen talde batek beren helburuak zehazten dituzte, beren garapen-prozesua eraikitzeke beharrezko bitartekoak definitzen dituzte eta eskuragarri dauden baliabideak neurtzen dituzte.

Garapenerako lankidetzaren proiektu baten identifikazio-etapan lehentasunez asebetze behar diren premiak, lortu nahi den etorkizuneko egoera eta hori lortzeko bitartekoak zehazten dira.

Identifikazio-etapa honako hauek zehaztean oinarritzen da:

- Lehentasunezko gisa hautematen diren premiak
- Premia horiek zuzenean nor hartzen dute eraginpean
- Zeintzuk dira premia horiek azaltzen dituzten kausak
- Zeintzuk dira hori aurre egiteko bitartekoak

Lankidetzaren ikuspegi eraldatzaile batetik abiatzen gara, eta horren helburua da ekitatean, justizian eta iraunkortasunean oinarrituak dauden eta eraldaketaren subjektua den biztanleria bat protagonista den garapen-prozesuetan laguntzea. Horregatik, epe luzerako ahalgintza-estrategiak diseinatzea da helburua, premia zehatzak definitzearekin hasita. Proiektuak ez dira premiak asetzera mugatu behar, baizik eta kalteberatasuna eragiten duten egituretan inpaktu bat lortzera bideratu behar dira.

Lehentasun gisa ikusten diren premiak hautemateko, proiektuaren xede-biztanleria osatzen duten pertsona, talde, erakunde, instituzio eta agente guztiek identifikazioan parte hartzen dutela bermatu behar da.

Soilik norberaren eskubideez eta norberaren kalteberatasunaren kausez jabetzen den biztanleria izan daiteke bere garapenaren subjektu eraldatzaile. Lehentasunen definizioa zehatzetik abiatuta egin behar da, esperientzia zehatzetan oinarritutako ikuspegi demokratiko batekin eta subjektu indibidual eta kolektibo guztien partaidetzarekin.

Honako hauek kontuan hartu behar dira:

- Nola ahalbidetuko da inplikaturiko talde guztien partaidetza eta, bereziki, emakumeena, gutxiengoena eta talde kalteberena.
- Nola bermatuko da erabakiak xede-biztanleriako talde guztiek hartzen dituztela.
- Zein mekanismo jarriko dira martxan emakumeen, gutxiengoaren eta talde kalteberen partaidetzak premien eta lehentasunen diagnosian barne hartzen diren eskaera zehatzak dakartzatela bermatzeko.

Partaidetza bermatzeko erabili behar diren irizpide batzuk:

- *Barnean hartzea*: talderik nahiz agenterik ez baztertzea.
- *Desberdintzea*: talde kalteberen partaidetza bermatzeko neurri espezifikoak ezartzea.
- *Integrazioa*: talde guztien interesak eta ezaugarriak ordezkatzan dituzten parte hartzeko gune pluralak sortzea.
- *Ekitate*: eskubide eta betebeharrak berberak bermatzeko estrategia bereiziak.
- *Malgutasuna*: sormena eta aukerak zapuzten ez dituzten partaidetza-ereduak eraikitzea.
- *Koherentzia*: eragile publikoen eta pribatuen partaidetza kontuan hartzen duten ekintza-planak eratzea.
- *Legitimitatea*: parte hartzeko guneak adierazgarriak izan behar dute.
- *Erantzunkizuna*: erabakiak gardentasunez hartzea.
- *Ikaskuntza*: partaidetza-arauak berritzea, hobetzeko.
- *Erabakigunea*: partaidetzak hartutako erabakiak egiaztatzen ditu.

Egoeraren diagnosi bat egin ondoren, talde bakoitzak, baita kalteberak ere, lehentasunezkoztat hartzen dituzten premiak barnean hartzen dituen arazoak eta helburuen zuhaitz batekin helburuak, emaitzak eta jarduerak adierazten dira. Honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Identifikazio-fasean hautemandako arazoak eta adierazitako helburuak helburu, emaitza eta jarduera zehatz bihurtu behar dira.
- Xede-biztanlerian, erakundeetan eta instituzioetan indartu behar diren gaitasunak aztertu behar dira.
- Planifikatutako jarduerak aurrekontuan esleitutako baliabide materialak eta giza baliabideak izan behar dituzte, hain zuzen ere gauzatuko direla bermatzeko.

Galderei erantzunez, proiektuaren jardun-eremua ezarri da, hain zuzen ere honako hauek zehazten baitira: oinarrian izango dituen premiak, ekintzen subjektuak diren pertsonak, erakundeak eta taldeak, eta jarraituko den ekintza-estrategia.

Askotan esku-hartzeak aurreko beste esku-hartze batzuen ondorio dira, eta, beraz, identifikazio-prozesua jada lurralde-oinarri batean finkatuta dago. Zer egingo den oraindik ez dakigula egia bada ere, non eta norekin gauzatuko den badakigula ziur gaude. Beste kasu batzuetan, identifikazio-prozesua lurralde-oinarri hori eduki gabe hasten da, eta, beraz, identifikazioaren aurretik lokalizazio- eta diagnosi-prozesu bat egingo da.

Proiektu bat egitea pentsatzen denean, askotan lan egingo den lekua eta xede-biztanleria jada zehaztuta dago, hain zuzen ere leku batzuetan lankidetzaz izatea eta beste batzuetan ez izatea hainbat faktoreren mende delako, batik bat inguruko lankidetzatradizioa.

Leku batean eta pertsona talde batekin identifikazio-prozesu bat hasten denean, honako hauek aztertu behar dira: aurreko esku-hartzeak, horien emaitzak, inplikaturiko erakundeen helburuekin bat etortzen den, eta proiektu berriak egitea egokia den ala ez. Bestalde, proiektua egiteko pertsona edo erakunde egokiak garen ala ez erantzun behar dugu zintzotasunez. Identifikazio-prozesu on bat proiekturik sustatzea komeni ez dela ondorioztatuta amai daitezke.

Proiektu posible baten lokalizazioaren helburua da gehien behar den eta arrakasta-aukera gehiago dituen leku batean proiektu bat identifikatzen ari garela ziur izatea.

Erantzun behar dugun lehenengo galdera honako hau da: nor gara eta zer dakigu egiten. Adibidez, Osasunaren Lehen mailako Arretan espezializatutako GGK bat baldin bagara, gomendagarriena da osasunean oinarritzea eta ezagutzen ez ditugun gaietan ez sartzea. Esku-hartze posible baten egokitasuna zehazteko, funtsezkoa da honako hauei buruzko datuak edukitzea: biztanleria, epidemiologia, osasun-zentroen estaldura biztanle bakoitzeko, osasunaren lehen mailako arretan laguntzen duten beste erakunde batzuen presentzia, biztanleriaren jarrera mendebaldeko medikuntzari dagokionez, etab.

Horrek baliagarria izan behar du leku jakin batean eta pertsona talde jakin batekin proiektu jakin bat identifikatzeko premia zenbaterainokoa den zehazteko. Normalean, soilik premiaren irizpidean oinarritutako lokalizazioko eta diagnosiko alde aurreko prozesu horietan, emaitza da neurri batean edo beste an diagnosiaren xede-leku guztietan proiektu-proposamen bat beti dela beharrezkoa. Nola proposa dezakegu leku bat beste baten kaltetan?: aukeraren ikuspegia kontuan hartuta.

Premian oinarritutako diagnosiarekin batera, aukeran oinarritutako beste bat egitea gomendatzen da. Aukeratzat hartzen ditugu proiektu baten garapena errazten duten kanpo-faktore guztiak. Faktore hauek proiektu motak bezain anitzak dira, hain zuzen ere gauza asko har baititzaizkete barnean: eskualde baten egonkortasun politikoa, ustelkeria-pertzepzioa, lankidetzako aurreko eskakizunak, klimatologia-faktoreak, kultura-arloko gauzak, etab.

Oso garrantzitsua da argi eta garbi zehaztea proiektuaren ezaugarrien arabera eta premiaren eta aukeraren ikuspegitik erabakigarriak diren faktoreak zeintzuk diren. Esate baterako, produkzio-garapene-ko proiektuetan espezializatutako erakunde bat, proiektuaren arrakastarako funtsezkotzat hartutako aukeraren ikuspegian oinarrituta, eta honako faktore hauek, besteak beste: komunikazioa, argindarrerako irisgarritasuna, kreditu-erakundeen presentzia, etab.

Identifikaziorako tresnak

Proiektu baten identifikazioa funtsezko fasea da gauzatzeko. Identifikazioa modu egokian egitearen mende egongo da neurri handi batean proiektuaren arrakasta eta, beraz, pentsatutako helburuen lorpena.

Partaidetzak antolakuntzara garamatza, interes eta premia komunak dituzten pertsonen batasunerako gune kontziente gisa ulertuta, bakoitzak eraldaketaren eraikuntza kolektiborako laguntza ematen duen gunea. Antolakuntza funtsezko pausoa da benetan ahalduztzeko. Proiektuek partaidetzaren eta antolakuntzaren bitartez ahalduztze-estrategiak barnean hartu behar dituzte.

Identifikazio on bat egiteko ezinbestekoa da metodologia egoki bat erabiltzea, –denbora mugatu batean– informatzaile fidagarrietatik eta zilegitasunarekin lortutako kalitatezko behar adina informazio lortzeko aukera emanaz. Baina, nagusiki, ezinbestekoa da bermatzea biztanleriak proiektuaren identifikazioan parte hartzen duela eta proiektuak hautemandako premiei eta lehentasunei erantzuten diela.

Informazioa biltzeko tresna asko daude. Honako hauek dira gehien erabiltzen diren tresna batzuk:

- Elkarriketa sakonak gako informatzaileei
- Kontsulta-prozesua
- Zuzeneko behaketa
- Identifikazio-tailerra
- Talde fokalak

Elkarriketa sakonak

Identifikazio-prozesu batean, normalean, denbora gutxi eta bildu beharreko informazio asko dago. Tes-tuingurua ulertzeko modu onenetako bat da elkarriketa-erronda bat egitea gako informatzaileei. Informazioa emango duten pertsonen hautaketak plurala eta adierazgarria izan behar du, sentsibiltate guz-tiak barnean hartzen direla bermatuta.

Bi motatako elkarriketa askonak egin daitezke. Bi kasuetan, ezinbestekoa da galdera-gidoi bat prestatzea:

- Elkarriketa sakonak erdiegituratuak: gidoi bat prestatzen da galdera irekiekin, eta aukera ematen zaio informatzaileari proiektuarekin zuzeneko lotura duten gaiak gainditzen dituen informazioa emateko.
- Elkarriketa egituratuak: gidoi itxi bat prestatzen da proiektuarekin zuzeneko lotura duten gai espezifikoei buruzko galderekin.

Zuzeneko behaketa

Zuzeneko behaketa oso metodo ona da informazioa biltzeko. Behar dugun informazioa lortzeko garrantzitsutzat jotzen duguna ikustea eta bisitatzea da helburua.

Ekintza egitea aurreikusi den errealitatearen behaketa sistematikoan eta planifikatuan datza. Plangintza egituratu bati erantzuten dio, eta behatu beharreko alderdiei buruzko alde aurreko gidoi bat behar du, eta baita emaitzak sistematizatzen dituen behaketa-egunkari bat betetzea ere.

Kontsulta-prozesua

Kontsultak hizketaldi informalak dira, eta gako-informatzaileekin egindako elkarrizketen bitartez edo zuzeneko behaketaren bitartez lortutako informazioa osatzeko balio dute. Kontsultak egiteko, datu fidagarriak eta garrantzitsuak emango dituzten erreferentziazko pertsona fidagarriak identifikatu behar dira.

Identifikazio-tailerria

Tailerrek taldeko lanerako guneak dira, eta bertan, partaidetza-metodologiaren bitartez, xede-biztanleriaren kezkei eta iritziei buruzko informazioa biltzen da. Arreta berezia jarri behar da proiektua gauzatzeko garrantzitsuak diren talde eta pertsona guztiak ordezkatuak egon daitezen, eta horien guztien iritzia kontuan har daitezen.

Talde fokalak

Taldeko lanerako guneak dira, talde jakin batean oinarrituak. Tresna hau erabiltzea gomendatzen da identifikazio-tailerretan modu aktiboan parte hartzeko zailtasunak dituzten taldeak dauden kasuetan, edo talde jakin baten informazio gaitua lortu behar denean. Interesgarria izan daiteke talde fokalak antolatzea emakumeekin, haurrekin eta nerabeekin, gutxiengo linguistiko batekin, osasun-zentro bateko langileekin, edo ezintasunen bat duten pertsonekin.

III.2.1. Identifikazioaren eremua

Proiektu bat eraikitzeko, lortu nahi diren helburuak definitzen dira eta eskuragarri dauden aukeretara eta bitartekoetara egokitzen dira.


Proiektu baten helburuak zehazteko, ezinbestekoa da protagonista izango den biztanleriako emakumeen eta gizonen nahiak, desioak eta motibazioak agertzea. Baina, era berean, garrantzitsua da eskuragarri dauden baliabideak neurtzea.

Lanaren metodologia epe luzerako eta epe ertainerako estrategietan oinarritu behar da, proposatutako ekimenak beren artean osatuta eta helburu estrategikoetara bideratuta.

Proiektu bat modu errealistan identifikatzeko, honako hauek bat datozen gune jakin batean kokatu behar da: lehentasunezko premiak, benetako aukerak, xede-biztanleria indartzeko prest dagoen gaitasun propioak, eta epe luzerako garapen-estrategiak.

Lehentasunezko premiak

- Lehentasunezko premien definizioak ikuspegi integrala izan behar du, kalteberatasunaren, pobrezia-aren eta desberdintasunaren dimentsio guztiak aztertzen dituen epe luzerako garapen-estrategia bat txertatuta, hau da, honako dimentsio hauek: ekonomia, kultura eta partaidetzaren eta antolamenduen indartzea.
- Ez da premien asetzea bilatu behar, baizik eta xede-biztanleriaren gaitasunak indartzea beren premiekiko arreta kudeatzeko.
- Oinarrizko gizarte-premiekiko arreta tokiko instituzioentzako erronka gisa ulertu behar da, biztanleria zerbitzuen onuradun izan ordez, zerbitzu horien estaldura eskatzeko eskubidearen subjektu izanik.



09 Irudia.

Iturria: Gómez Galán, M. eta Sainz Ollero, H.

El ciclo del proyecto de cooperación al desarrollo: el marco lógico en programas y proyectos: de la identificación a la evaluación.

Identifikazioaren eremua

Egin behar dena definitzea: premia zehatz eta urgenteei erantzutearen eta epe luzerako eraldaketa-prozesuan txertatzearen arteko orekari eustea da helburua.

Gure gaitasunak eta eskuragarri dauden baliabideak zeintzuk diren pentsatzea, eta mugatuak direla kontuan hartzea. Alde handia dago behar dugunaren eta jasateko gai garenaren artean. Egin daitezkeen itunak eta inplikaturiko erakundeen estrategiekiko egokitasuna definitu behar da.

Egin dezakeguna identifikatzea: premiak definitu ondoren, eta gauzatuko diren ekintzak definitu ondoren, ekintza zehatzak epe luzerako garapen-prozesu propio batean txertatzeko gai izan behar dugu.

Garapenerako lankidetzaproiektu baten identifikazio-etapa honako bi fase hauetan banatzen da:

Egoeraren azterketa

Proiektuaren diagnostika ezartzeko beharrezkoa den informazioa biltzen den fasea da.

- Honako hauek definitzen dira: proiektuaren xede-biztanleria, biztanleria osatzen duten mugimenduak, erakundeak eta instituzioak, eta horren errealitatea (xede-biztanleriaren profila)
- Lehenetsuneko premiak hautematen dira eta epe luzerako garapen-helburuen arabera egituratzen dira (arazoen zuhaitza)
- Egin daitezkeen ekintza-estrategiak definitzen dira (helburuen zuhaitza)
- Xede-biztanleriak erabaki duen garapen-prozesura eta inplikaturiko erakundearen politika eta plan estrategikoetara gehien egokitzen diren aukerak hautatzen dira (aukeren azterketa).

Proiektuaren planifikazioko ideia nagusia

Lanaren estrategia zehatza definitzen eta egituratzen den etapa da.

- Lortu nahi diren helburuak definitzen dira (esku-hartzearen logika).
- Horiek lortzeko bitartekoak ezartzen dira (jardueren plangintza).
- Aurreikusitako baliabideak zehazten dira (baliabideen eta kostuen kalkulua).

III.2.2. Zehar-lerroak identifikazio-etapan sartzea

Tokiko gaitasunak, partaidetza eta antolamendua identifikazioan

Proiektuak ez dira mugatu behar partaidetza soilik beren jardun-eremuan sustatzera, baizik eta komunitatearen bizitzako eremu guztietan sustatu behar dute, eta baita gizarte-sare sendo, kontziente eta koordinatu bat eraikitzea babestu ere.

Lankidetzaproiektu guztiak tradizionalki baztertuak izan diren talde kalteberen partaidetza aktiboa sustatzera bideratu behar dira. Emakumeen partaidetzaren kasuan, maskulinizatutako partaidetza-eredu, subjektu eta moduei aurre egiten dieten estrategiak definitu behar dira, eta baita haien guztizko partaidetza ahalbidetzen duten guneen, egituren eta politiken gabeziari aurre egiten dioten estrategiak ere.

Gaitasunen, partaidetzaren eta antolakuntzaren zehar-lerroa proiektu baten identifikazio-fasean txertatzeko, lehenik esku-hartzearen xede-gizonen eta emakumeen edo xede-taldearen premien diagnostika egin behar da, honako hauen arabera: haien gaitasunak, hainbat gunetan gauzatzen duten partaidetza, eta beren antolakuntza-maila. Horretarako, honako hauek interesatzen zaizkigu:

- Biztanleriaren gaitasunei dagokienez, gabeziak eta indarrak hautematea.

- Arazoen definizio-prozesuan, gizonak eta emakumeak zein eskakizun egin dituzten jakitea: zein gaitasun indartu beharko lirateke emakumeen kasuan, eta zeintzuk gizonen kasuan.
- Xede-biztanleria osatzen duten talde guztien partaidetza ahalbidetzeko neurriak ezartzea, bereziki, talde kalteberenak edo indibidualizatuak parte hartzen dutela bermatzeko; azken horien artean honako hauek barne hartuta: emakumeak, gutxiengoak, ezintasunak dituzten pertsonak, edo parte hartzeko zailtasunak dituzten adin-taldeak.
- Partaidetzaguneak diseinatzea, eta funtzionamenduari eta erabakiak hartzeari dagokionez, horien ordezkariak eta gardentasuna bermatzeko irizpideak finkatzea.
- Biztanleriaren antolamendu moduak eta, horri dagokionez, ahultasunak eta indarrak aztertzea.
- Lidergo motak eta inplikaturiko biztanlerian lidergoa betetzeko modua identifikatzea
- Honako hauen artean hitzarmenak eta itunak egiteko guneak sortzeko aukera bultzatzea: gizarte-agentek, instituzio tradizionalak, erakundeak, herri-administrazioa, etab.

Ezinezkoa izango da identifikatutako premia guzti-guztiak proiektu baten bitartez asebetetze, eta, beraz, besteak beste, ekintza-eremuak eta estrategiak lehenestera, funtsezkoa da honako hau kontuan hartzea:

- Prozesuan inplikaturiko erakundearen ikuspegi estrategikoa eta politikoa, hain zuzen ere proiektuak ezartzen dituen helburuekiko eta estrategiekiko koherentea izan behar duelako. Ez dauka zentzurik, adibidez, ahaldundutako prozesuetan laguntzera bideratutako GGKE bat oinarritzeko premiak asetzeari oinarritutako helburuak dituen proiektu batean inplikatzeko.
- Udal, eskualde edo estatu osoko instituzioek ezarritako planak; proiektuaren helburu eta estrategia berberak izan ditzakete, edo, aldi berean, garapen-ikuspegi guztiz kontrakoak izan ditzakete.
- Beste mugimendu edo erakunde batzuek garatutako estrategiak eta lana; horiekin itunak ezar daitezke edo esku-hartzea osa dezakete.

Xede-biztanleriaren gaitasunekin, partaidetzarekin eta antolamenduekin lotutako alderdien identifikazioa egin ondoren –kontuan hartuta emakumeen eta gizonen eta xede-biztanleria osatzen duten taldeen errealitate desberdina–, identifikatutako errealitatearen koherenteak diren eta lehenetsitako premiei erantzuten dieten helburuak, emaitzak eta jarduerak formulatzen dira. Honako hauek garrantzitsuak dira:

- Helburuak eta emaitzak adieraztea, gizonak, emakumeak eta biztanleriako talde bakoitzak, bereziki kalteberenek, adierazitako premien arabera.
- Emaitza bakoitza lortzeko jarduerak zehatzak diseinatzea.
- Biztanleriaren ahaldundutzei dagokionez, proiektuaren emaitzekin lotu nahi diren efektuak argitzea. Proiektuaren protagonistak diren pertsonen, eta bereziki talde kalteberen, gaitasunen indar-

tzean inpaktu positiboa nola lortu nahi den adieraztea: autoestimua hobetzea, autonomia pertsonala handitzea, intzidentzia indibidualerako eta kolektiborako gaitasuna indartzea, etab.

- Genero-harremanetan lortu nahi diren inpaktuak ezartzea, eta horretarako helburu, emaitza, adierazle eta jarduera espezifikoak definitzea: zer egingo den pentsatzea emakumeen egoera eremu guztietan hobetzeko, haienak ez diren guneetan sar daitezen, gizonek gune pribatuetan eta etxeko guneetan gehiago parte har dezaten, etab.

Genero Ekitatea identifikazioan

Genero-ekitatea identifikazio-fasean bertatzeko, funtsezkoa da honako hauei buruzko informazioa biltzea:

- Emakumeen eta gizonen premia espezifikoak proiektuaren helburuarekin lotutako eremuetan. Horretarako, emakumeen eta gizonen egoera eta postu ezberdinari buruzko informazioa lortzeko kontuan hartuko diren premia guztiei buruzko datuak eskuratu beharko dira, sexuaren arabera bananduta. Horrek esan nahi du identifikazioan **genero-azterketa** bat gaineratu behar dela.
- Emakumeek adierazitako eskakizunen artetik, zeintzuk diren **premia praktikoak** eta zeintzuk **interes estrategikoak**. Horren ildotik, berriz ere prozesuaren bideratzailearen paper garrantzitsua azpimarratu nahi dugu, hain zuzen ere ez baita erraza premia estrategikoak erraz azaltzea, bai emakumeek oraindik premia gisa adierazten ez dituztelako, bai gatazkak sor ditzaketen kontuzkoa gaiak direlako. Hortaz, funtsezkoa da paper hori beren gain hartzen duen pertsonak ikuspegi feminista, genero-tresnen arloko prestakuntza eta taldeak dinamizatzeko gaitasuna edukitzea.

Lankidetzarako euskal Plan Zuzentzaileak ezartzen duenez, garapenerako lankidetzaproiektuek emakumeak ahalduzera bideratutako ekintzak barnean hartu behar dituzte. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da ahalduzko estrategia argi bat edukitzea, honako alderdi hauek biltzen dituenak:

- Funtsezko helburua, eta aurre egin nahi dien ezberdintasunak eta desorekak.
- Zehazten duten ekintzak (kontzientziazioa, prestakuntza, gaitzea, eta abar), pentsatutako estrategiak, eta estrategia bakoitzarentzat aurreikusitako metodologiak.
- Emakumeen partaidetza efektiboa eta benetakoa bermatzeko aurreikusitako neurriak.
- Emakumeen egoeran lortzea espero diren aldaketak.
- Emakumeen postuan lortzea espero diren aldaketak.
- Nola sartu zaien tartean gizonak, eta nolakoa izango da horien partaidetza.
- Beste emakume batzuekin eta beste mugimendu batzuekin itun estrategikoak sortzeko neurriak.

Giza Eskubideak identifikazioan

Eskubideen ikuspegi identifikazio-fasean bertatzeko, subjektu indibidualen eta kolektiboen eskubideei buruzko bermea, betearazpena eta aldarrikapenak aztertu behar dira, eta baita paira ditzaketen

urratzeak ere. Proiektuaren hasierako diagnosiek eta azterketek eskubideen titularren aldarikapenak barnean hartu behar dituzte, eta betebeharren titularrek betetzen duten papera aztertu.

Honako hauei buruzko informazioa eskuratu behar da:

- Eskubide-subjektuen jakintzak eta gaitasunak: beren eskubideez jabetzen diren ala ez; horiek irmo eskatzeko eta erreklamatzeko gaitasuna duten ala ez.
- Zein eskubide-urraketen edo eskubide-gabetzeen eraginpean dauden.
- Eskubideen beteazpenaren egoera: eskubideen urraketa edo gabetzea talde bakoitzeko, bereziki kalteberenak, batik bat gutxiengo etnikoak, edo linguistikoak, homosexualak, GIBa duten pertsonak, haurrak, etab.
- Inguruko giza eskubideen babeserako erakundeen lana eta intzidentzia itunak egiteko
- Eskubideen salaketarako edo sustapenerako egindako mobilizazioak
- Eskubideen beteazpena, horien errespetua, sustapena eta babesa zaintzeaz arduratzen diren estatuko agenteei edo erakundeei dagokienez.

Iraunkortasun Ekologikoa identifikazioan

Proiektuaren identifikazio-fasean, iraunkortasun ekologikoko irizpideak kontuan hartu behar dira nagusiki arazoen azterketan eta estrategien hautaketan.

Arazoen azterketan, proiektuan parte hartuko duten gizonengan eta emakumeengan eragin duten ingurumeneko baldintzak edo egoera identifikatu beharko da (adibidez, uraren moduko oinarritzko baliabide naturalak ez izatea; eskuratzeko zailak diren baliabideekiko mendetasuna; ingurumen-hondamendiekiko kalteberatasuna; ingurumen-baldintzen ondoriozko gaixotasunak, lur-mugimenduak eta lur-gorbiketak, baso-soiltzea, ehizako eta arrantzako baliabide gutxi, eta abar). Horretaz gain, etorkizunean inpaktuak sor ditzaketen (hala nola baso-soiltzea, higadura dakarrelako) edo arazo globalagoak eragin ditzaketen (hala nola, biodibertsitatea galtzea edo berotegi-efektua duten gasen isurketa) jardura motak identifikatu beharko dira.

Arazoak identifikatu ondoren, pertsonengan dituzten ondorioak aztertu behar dira, emakumeengan eta gizonengan eragin desberdina nola duten bereizita. Era berean, arazoen kausak zeintzuk diren ezagutu behar da: ibaiaren ura kutsatuta baldin badago, zergatik jakin beharko da (inguruan egon daitezkeen fabrikak, abereentzako bazkalekuak korrontearen goiko tartetetan, fumigazioak, eta abar). Eguneroko arazo askok ageriko arazoia dute eta konpontzeko errazak dira. Beste kasu batzuetan, kausak politikokoak izan daitezke, hala nola estatua edo nazioz gaindiko enpresak baliabide bat erazten ari direlako. Kasu horietan, biztanleria ahalduentzea eta gaiaren gainean biztanleriak ikuspegi kritikoa izatea ezinbestekoak dira arazoari aurre egiteko.

Estrategien hautaketan, kontuan izan beharko da zeintzuk diren proiektuaren bideragarritasunean eragina izan dezaketen kanpo ingurumen-faktoreak (negatiboak nahiz positiboak), eta zein ingurumen-inpaktu (negatiboak nahiz positiboak) ondorioztatzen diren estrategiaren azterketan ebaluatu beharreko aukera bakoitzaren betearazpenetik. Horretaz gain, oso garrantzitsua da proiektuan inplikaturiko emakumeen eta gizonen gaitasunak eta ezagutzak jakitea, baina ez bakarrik baliabideak modu iraunkorrean kudeatzeari dagokionez, baita honako hauei buruz hausnartzeari dagokionez ere: baliabideen jabetza nori duen, horrek zer ondorio dituen, zein harreman dagoen biztanleria ahalduztzearen eta ingurumena hondatzearen artean, etab. Azken batean, ingurumen-arazoan oinarria aztertzea eta aukera iraunkorrak proposatzea da helburua.

Proiektuaren hasierako azterketa bat egiteko eta abiapuntuko ingurumen-egoera eta egon daitezkeen ingurumen-inpaktuak identifikatzeko tresna oso baliagarria da ingurumenaren aurretiazko ebaluazioa. Hortik aurrera, Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio (IIe)⁵ bat egin behar den edo ebaluazio ingurumenaren aurretiazko ebaluazio honekin nahikoa den erabakiko da. IIe bat egitea edo ez egitea proiektu motaren arabera eta proiektua egiten den herrialdearen legediak horri buruz ezartzen duenaren arabera erabakiko da.

III.2.3. Xede-biztanleriaren profila

Garapenerako lankidetzaren proiektu bat martxan jartzeko funtsezko arrazoiak emakumeen eta gizonen talde batek beren errealitatearen eraldaketa-subjektu izan nahi izatea baldin bada, lehenengo pausoa biztanleriaren ezaugarriak eta biztanleria osatzen duten pertsonen eta taldeen errealitatea zehaztasunez ezagutzea eta definitzea izan beharko da.

Giza talde batean, taldea osatzen duten pertsonak eta horiek biltzen dituzten kolektiboak ez dira guztiak egoera berean bizi, eta, era berean, ez dituzte premia berberak. Pertsona bakoitzaren eta talde bakoitzaren premiak eta lehentasunak zehazten dituzten faktore orokor batzuk daude, hala nola sexua, adina, etnia, edo egoera sozioekonomikoa. Talde bakoitzaren alderdi espezifikoak ere badaude (erlijio-ezberdintasunak, gatazka politikoak, eta abar) osatzen duten kideak hainbat postutan jartzen dituztenak, nahiz eta premia batzuk partekatzen diren.

Ezinbestekoa da identifikazioa honela ulertzea: xede-biztanlerian dauden ezberdintasunak ikusarazten dituen eta biztanleria-talde kalteberenen gaineko lehentasuneko baliabideak eta estrategiak biltzen dituen diagnosi-prozesu gisa.

Era horretan, biztanleria jakin baten barruan, osasuneko, desnutrizioko edo diru-sarreraren gutxiengo problematika espezifiko batekin —adibidez—, ezinbestekoa izango da kontuan hartzea, neskatilekin edo gizon

⁵ Ingurumen Inpaktuko Ebaluazioa gerta daitezkeen ingurumen-inpaktuen ebaluazio sistematiko bat da, inpaktu negatiboak arintzeko eta positiboak optimizatzeko neurri egokiak proposatzeko helburuarekin. Hori guztia Ingurumen Kudeaketako Plan (IKP) baten bitartez gauzatzen da; planak monitorizatzeko sistema bat biltzen du eta adierazleak barnean hartzen ditu.

zaharrekin alderatuta, gizon helduek oso modu desberdinean biziko dutela problematika hori. Era berean, diru-sarrera erregularrak dituzten emakume helduak oso egoera desberdinean egongo dira diru-sarrerarik ez dutenekin alderatuta. Indigenez eta mestizoez osatutako biztanleria baten barruan, adibidez, kide bakoitzaren errealitatea etnia-talde bateko edo beste bateko kide izatearen mende egongo da. Gehiengoaren sexu-, erlijio- edo politika-aukera ez duten pertsonak beren lehentasunak zehaztuko dituzten egoera espezifiko batzuk biziko dituzte. Gaitasun fisiko edo mental mugatuak dituzten pertsonak egoera espezifikoak bizi dituzte, arreta jaso beharko duten premia zehatzekin.

Horregatik, proiektu baten xede-biztanleria ezin da egoera eta premia berberak dituen talde homogeneo gisa ikusi. Hain zuzen ere, arrazoi horren ondorioz, ezin da espero proiektu batek norberaren garapenaren subjektu bihurtzeko pertsona guztien gaitasuna hobetzeko helburua lortzea, hasiera beretik haien arteko aldeak kontuan hartzen ez badira.

Era berean, alde horiek eragina dute subjektuen garapen-eredua ikusteko moduan, eta, horren ondorioz, pertsona eta talde horiek garapen-helburu desberdinak eta lortzeko estrategia desberdinak dituzte. Horregatik, funtsezkoa da xede-biztanleria osatzen duten talde guztien ikuspuntua kontuan hartzen duten partaidetza-metodologiak ezartzea.

Errealitate horiek guztiak txertatzeko eta interes-talde guztiak ezagutzeko, biztanleria osatzen duten giza talde bakoitzaren egoera zehatzak jasotzeko aukera ematen duen tresna bat proposatzen da: **Xede-biztanleriaren profila.**

Proiektu bate protagonistak den biztanleria osatzen duten pertsonen eta taldeen artean agertzen diren aldeak ezagutzeko eta definitzeko, Xede Biztanleriaren Profila honako faktore hauek zehaztea eskatzen du:

1. Biztanlerian identifika daitezkeen talde guztien zerrenda

Xede-biztanleriaren barruan hautematen diren pertsona talde desberdinak zeintzuk diren ezartzea da helburua, honako irizpide hauen arabera: adina, sexua, etnia, errealitate sozioekonomikoa, egiten duten lana, banaketa geografikoa, aukera politikoa edo erlijiosoa, eta biztanleriaren barruan pertsona jakin batzuek errealitate espezifiko bat bizitzea eta errealitate horren eraginpean egotea zehazten duen beste edozein faktore.

Identifikatutako talde bakoitzak nahitaez sexuaren arabera bananduta egon behar du, talde osatzen duten gizonen eta emakumeen kopurua zehaztuta, betiere posiblea bada.

Biztanleria baten barruan aurki daitezkeen taldeen adibide zehatz batzuk: haurrak, helduak, zaharrak, biztanleria indigena, landetako pertsonak, biztanleria antolatua, merkatariak, biztanleria mestizoa, etorkinak, homosexualak, herriko agintariak, etxerik gabeko pertsonak, gutxiengoak, etab. Biztanleriaren ezaugarri zehatzen arabera, faktore asko eta beste hainbeste talde egon daitezke.

Ez da beharrezkoa taldeek kolektibo antolatu bat osatzea, eta nahikoa da taldea osatzen duten pertsonak besteengandik bereizteko premiak eta lehentasunak dituen taldetzat hartzeko behar adina faktore esanguratsu edukitzea. Xede-biztanleriaren zati bat antolatua baldin badago, oso garrantzitsua da biztanleriaren kideek osatzen dituzten antolakundeak profilean kontuan hartzea.

Pertsona bakoitza profilean adierazitako talde batean baino gehiagotan txertatzen da. Adibidez, nekazaritza-ekoizpenean aritzen den, lurren jabea den eta kooperatiba bateko kide den gizon heldu bat gutxienez 3 taldetan txertatuko da: *helduak*, *lurra dituen landetako biztanleriak*, eta *kooperatibistak*; edo, gizon zahar bat, ezintasun fisiko batekin, eta diru-sarrerarik ez duena beste hainbeste taldetan txertatuko da: *zaharrak*, *pertsona ezinduek*, *diru-sarrerarik gabeko pertsonak*.

Xede Biztanleriaren Profila osatzen duten taldeen kopurua aldakorra da, eta biztanleriaren ezaugarri zehatzen eta haien bizitzaren inguruko zirkunstantzien mende dago; hortaz, xede-biztanleria bakoitzarentzat profil espezifiko bat definitu beharko da.

2. Definitutako talde bakoitzak eskura dituen baliabideen xehetasuna

Proiektuaren xede-biztanleria osatzen duten taldeak ezarri ondoren, oso garrantzitsua da talde bakoitzeko kideek errealitatea modu jakin batean bizitzea eragiten duten aldeak zeintzuk diren definitzea. Pertsona baten egoera zehazten duten gako-elementuak dira eskura dituen baliabideak eta, era berean, baliabideak biztanleriaren barruan banatzen diren modua. Saihestezina da aitortzea biztanleria baten barruan aldeak egongo direla eskuragarri dauden baliabideei dagokienez eta baliabideak berriz banatzeko sistema garapen-eredu propioa definitzeko elementu bat dela.

Garapenerako lankidetzaproiektu bat martxan jartzen bada, inplikaturiko pertsonentzat eta taldeentzat mesedegarria izango diren baliabide jakin batzuk sortuko dira. Baliabide horiek honako forma hauetan ager daitezke: gaitasunak, sargaiak, tresnak, ondasunak, botere, edo bestelako onurak. Nolanahi ere, baliabideen banaketari dagokionez biztanleria-taldeetan agertzen diren aldeak ezagutu behar dira, proiektuaren etorkizuneko onuren banaketa ekitatiboa planifikatu ahal izateko; era horretan, bakoitzak bere premien arabera onurak jasoko ditu. Ekintzak planifikatzerakoan, biztanleria osatzen duten pertsona guztiek baliabide berberak dituztela hartzen bada oinarritzat, eta –horren ondorioz– pertsona guztiei onura berbera ematea aurreikusten bada, era horretan dauden aldeak indartzeari lagunduko zaio.

Horretarako, ezberdintasunak gainditzeko –ekonomikoak, genero-ezberdintasunak, kulturakoak, eta abar–, diskriminazio positiboko neurriak ezarri beharko dira, subjektuek, ezberdintasuneko egoeretatik abiatuta, ekitateko postuetara iristea lor dezaten.

Xede-biztanlerian ematen diren baliabideei dagokienez, egoerak kalifikatzeko, eredu gisa hartzen da definitutako talde bakoitza, eta bakoitzak eskuragarri dituen baliabideak azaltzen dira.

Baliabideen irisgarritasuneko maila desberdinak daude, hain zuzen ere ez baita gauza bera baliabide bat erabiltzea eta horren gainean erabakitze gaitasuna edukitzea. Era horretan, irisgarritasuneko bi maila bereizten ditugu:

- Irisgarritasuna, baliabide bat erabiltzeko aukera gisa ulertuta, baina horren gainean erabakitze gaitasuna izan gabe.
- Kontrola, baliabidea erabiltzeko moduaren gainean erabakitze gaitasun gisa eta baliabidea administratzeko botere gisa ulertuta. Baliabide baten gaineko kontrolak horrekiko irisgarritasuna dakar berarekin.

1. adibidea

Juliak, Manuelek eta haien bi seme-alabek osatutako familia bat imajina dezagun. Manuelek *lan produktibo* bat dauka (ordainsari bat jasotzen du ordainean) eta Julia *lan erreproduktiboan* aritzen da (etxea zaintzea, elikagaiak prestatzea eta haurrak zaintzea, ordainsaririk ematen ez dioten zereginak).

Manuel da diru-sarrerak jasotzen dituen, eta diru-kopuru bat ematen dio Juliari etxerako behar dena eros- teko, baina Manuelek bere gain hartzen du diru gehienaren administrazioa, erosketa handien gaineko era- bakiak hartuz, eta erabilera pertsonalerako diru-kopuru bat baliatuta.

Familia honetan, Juliak dirua balia dezake, hain zuzen ere horren zati bat erabil baitezake; baina ez du ho- rren gaineko kontrola izango, hain zuzen ere Manuel delako dirua erabiltzeko moduaren gaineko erabakiak hartzen dituen eta bidezkoztat hartzen duen moduan erabil dezakeena.

Juliak dirua balia dezake, eta Manuelek diruaren gaineko kontrola dauka (horrek esan nahi du harekiko iris- garritasuna duela).

2. adibidea

Maria eta Lucia pilotarekin jolasten ari dira, eta pilota Mariarena da. Jolasten ari diren bitartean, itxuraz ez dago desadostasunik haien artean, biek erabil baitezakete pilota. Baina Mariak etxera joatea erabakitzen duenean, pilota eramaten du.

Era horretan, argi geratzen da haien arteko aldea: Mariak pilotaren gaineko kontrola dauka, eta, horrega- tik, berak bakarrik berarekin eramatea erabaki dezake, Lucia pilotarik gabe utzita. Soilik baliabidearekiko irisgarritasuna zuen pertsona baliabidearen gaineko kontrola duen pertsonaren erabakien mende dago.

Oso garrantzitsua da xede-biztanleria osatzen duten taldeen garapenerako garrantzitsuak diren baliabide guztiak islatzea. Baliabideek ez dute soilik materialak izan behar, hain zuzen ere erabakiak hartzeko boterea, astialdia, ospea, eta antzeko beste elementu batzuk erabakigarriak izan daitezkeelako bizitzen den errealiterako.

Baliabideen eta horien banaketaren azterketa bat egitea da helburua, proiektuaren xede-biztanleriako kideen gabeziak, potentzialtasunak, premiak eta haien arteko aldeak zeintzuk diren ikusarazteko.

3. Xede-biztanleriak gauzatzen dituen jardueren eta lanen zerrenda

Pertsonen zaintza, diru-sarrerak sortzea, edota ohiko gauzen gaineko erabakiak hartzea biztanleria baten ohiko jardura batzuk dira. Askotan, lan horietako batzuk beste batzuk baino nabariagoak dira, eta, beraz, garrantzia gehiago aitortzen zaie, eta horiek egiten dituzten pertsonak gehiago balioesten dira. Askotan, *garrantzitsuago* gisa ikusitako lanak ingurune publikoan gauzatzen dira eta gizonek egiten dituzte, eta, horren bitartean, gutxiago kontuan hartzen diren lanak ingurune pribatuan egiten dira eta emakumeek gauzatzen dituzte.

Lan batzuk gutxiestea saihesteko, ezinbestekoa da talde bakoitzak gauzatzen dituen zereginak ikusaraztea. Tradizioz *balio gutxiagoko* gisa ikusitako lanak nabarmendu beharko dira, kasu askotan behar den neurrian balioetsiak ez izateagatik lan-gainkargak (normalean emakumeentzat) eragin baitituzte.

Adibidez

Itzul gaitezen Julia eta Manuelengana.⁶

Manuel etxetik irteten da egunero goizeko 8etan, bere lan *produktibora* joateko. Julia goizera etxean gertatzen da, hain zuzen ere oro har pentsatzen denaren arabera "lanik egiten ez duelako".

7etan, Manuel esnatzen denean, Juliak jada gosaria prestatu du eta harekin gosaltzen du. Manuel joaten denean, Juliak gosariaren platerak jasotzen ditu, garbitzen ditu, lehortzen ditu eta jasotzen ditu, haurak esnatzen ditu, gosaria prestatzen die eta txukuntzen laguntzen die, oheak egiten ditu, bere burua txukuntzen du, etxea garbitzen du, merkatura joaten da, behar dena erosten du, bazkaria prestatzen du eta mahaia jartzen du.

Manuel eta haurrak iristen direnean, bazkaria ematen die, elkarrekin bazkaltzen dute, platerak eta kazolak jasotzen ditu, garbitzen ditu, lehortzen ditu, jasotzen ditu, Manuelen alkandorako botoi bat josten du, atsedena pixka bat hartzen du, haurren haurrentzako askaria prestatzen du, bainua ematen die, eskolako lanekin laguntzen die, afaria prestatzen du, Manuel iristen denean elkarrekin afaltzen dute, platerak eta kazolak jasotzen ditu, garbitzen ditu, lehortzen ditu, jasotzen ditu, eta abar, eta ohera joaten da.

Egun osoan, Juliak ez du lan *produktiborik* egin, egin dituen zereginen truke ez duelako ordain ekonomikorik jaso, baina:

⁶ Juliaren eta Manuelen istorioa asmatutako adibide bat da, eta, beraz, errealitatea sinplifikatuta dago eta genero-harremanak eta lanaren banaketa ez dira kultura-errealitate jakin batekin identifikatu nahi.

Lanik ez duela egin esango genuke?

Manuelek baino lan gutxiago egin duela esango genuke?

Manuelek eta seme-alabek beren bizitza eta lana normaltasunez garatu ahal izango lukete Juliak gainerako zereginak egin ez balitu?

Gutxi nabari diren lan horiek kontuan hartzen ez baditugu, "Juliak ez du lanik egiten" ustean oinarrituta planifika dezakegu gure proiektua, Juliak denbora libre asko duela pentsatuta, eta Juliak eta egoera berean dauden beste pertsona batzuek (ziur asko emakumeak) astean hainbat ordu beharko dituzten jarduerak garatuta proiektuan laguntzeko jarduerak planifikatuz.

Juliaren edo beste emakume batzuen egoera hobetuko genuke? Ez horixe. Gutxienez Manuelen eta seme-alaben, edo egoera berean dauden komunitateko gizonen egoera hobetuko genuke? Ezta ere, jakina, hain zuzen ere Juliak gauzatzen duen lanak aukera ematen baitie Manueli eta seme-alabei dagozkien zereginetan aritzeko. Hortaz, biek gauzatzen dituzten lanek garrantzia berbera dute, gutxienez.

Adierazitako guztia dela-eta, funtsezkoa da biztanleria osatzen duten taldeetako bakoitzak gauzatzen dituen zeregin guztiak adieraztea, usteetan edo hautemate okerretan oinarritu gabe. Biztanleria osatzen duten pertsona guztiek norberaren garapenaren subjektu izateko duten gaitasuna hobetu nahi badugu, denek biztanleriarentzat baliagarriak diren funtzioak betetzen dituztela onartu behar dugu, eta dagokion neurrian funtzio horiek duten karga balioetsi. Era horretan, biztanleriaren talde batzuen gainean karga gehiegi jarriko dugu, proiektuak eskatzen dituen zereginen banaketa ez ekitatiboa erraztuz.

4. Talde bakoitzaren premia espezifikoak

Xede-biztanleria osatzen duen talde bakoitzarentzat definitutako faktore guztien arabera, talde bakoitzaren premia espezifiko batzuk definitzeko prest gaude.

Biztanleria baten barruan, pertsona guztienak diren premia batzuk egongo dira, eta baita talde jakin batzuenak diren premia espezifikoak ere. Talde bakoitzaren premia zehatzak kontuan ez hartzeak premia gehiago dituzten taldeen diskriminazioa ekarriko luke. Eta, beraz, proiektuaren azken helburutik aldentzeko ginateke: biztanleria osatzen duten pertsona guztiek norberaren garapenaren subjektu izateko duten gaitasuna hobetzea eta gizarte ekitatiboagoa eta bidezkoagoa eraikitzea.

Taldeak		Baliabidea		Jarduerak	Premiak	Zenbatekoa guztira
		Irigarritasuna	Kontrola			
	€					
	G					
	€					
	G					
	€					
	G					
	€					
	G					
	€					
	G					
	€					
	G					

10 Irudia. Xede-biztanleriaren profila
Iturria: una gestión y comunicación.

Kasu praktikoa

Xede-biztanleriaren Profilaren funtzioa eta metodologia hobeto ulertzeko, eskuliburu honetarako eta La Esperanza izeneko asmatutako komunitate batean oinarrituta sortutako adibide zehatz bat aplikatuko dugu.

La Esperanza

La Esperanza hiru mila biztanleko udalerri bat da, hiru hirigunetan eta urrundutako auzo batzuetan banatzen dena. Igarobide garrantzitsua da, hain zuzen ere bi departamenduko hiriburuen arteko bidearen erdian da-goelako. Askotan ibilgailuak gelditzen dira, hirigunetik gertu erregai-hornigailu txiki bat baitago.

Nekazaritza izan da tradizioz La Esperanzako biztanleen lanbidea. Finka txikietan landatzen da, eta auto-kontsumorako elikagaiak eta soberakin batzuk ekoizten dira, eta soberakinak bitartekariari saltzen zaizkie merkatu nazionalerako. Produktuak eraldaketarik gabe merkaturatzen dira, eta, beraz, ez die balio eran-tsirik eragiten.

Bai emakumeek bai gizonek nekazaritza-lanak egiten dituzte, nahiz eta lur guztien jabeak gizonak diren.

Soberakinak erosten dituzten nekazaritza-bitartekariak oso prezio baxuak ezartzen dituzte, eta, beraz, produktu horien salmentak diru-sarrera gutxi ekartzen dizkie nekazaritza-ekoizleei. Ez dituzte beste salmentakukera batzuk, salgaien garraio indibiduala hirietara oso garestia delako.

Ingurumena hondatuta dago, lurrak pobretu egin dira azken urte hauetan, iraunkorrak ez diren nekazaritza-teknikak erabiltzeagatik, eta horren ondorioz, produktibitatea oso baxua da. Tradizioagatik eta tokiko labore egokiak ez ezagutzeagatik, oso mota gutxi ekoizten dira.

La Esperanzako biztanleria ia soilik ekoizten duenarekin elikatzen da eta soberakinaren salmentak ez du behar adina diru-sarrera ematen dieta osatzen duten produktuak erosteko, eta, beraz, elikadura ez da oso aberatsa. Horrek desnutrizio-indize altuak eragiten ditu.

La Esperanzako emakumeek beren gain hartzen dute etxearen, haurren, gaixoen edo zaharren zaintza eta elikagaien prestakuntza. La Esperanza egurrezko sukaldeak erabiltzen dira, etxebizitzaren barruan kokatuak. Sukaldeak sortzen duen keak familiako kide guztiak kaltetzen ditu, baina emakumeak bereziki, askoz gehiago egoten baitira kearen eraginpean. Horrek arnas gaixotasunen intzidentzia handia eragiten du biztanlerian.

Horretaz gain, egurrezko sukaldearekin lotutako erreduren eta bestelako etxeko istripuen kasu asko gertatzen dira. Hala eta guztiz ere, egurrezko sukaldeen kalteak ez dira lehentasunezko arazo gisa hauteman, eta biztanleriak ez ditu beste sistema batzuk ezagutzen.

Era berean, sukalde horiek erabiltzeko behar den egurra lortzeko zuhaitz gehiegi moztu behar izateak ingurumenean dituen ondorioak ez dituzten ezagutzen: baso-soiltzea, biodibertsitatea galtzea, kutsadura, etab. Gainera, atzerriko egurren presa baten ekintzaren ondorioz ingurumen-narriadura larriagoa da, hain zuzen ere enpresa horrek urtero hainbat zuhaitz-mozketa egiten baititu inguruneetan.

La Esperanzako biztanleriaren prestakuntza-maila baxua da, oso pertsona gutxiak bukatzen baitute oinarriko ikasketa-zikloa. Eskola hirigunean dago, eta, beraz, urruneko inguruetatik haurrek ordu asko ibili behar dute iristeko. Eskola uztea nesken artean askoz gehiago gertatzen dela kontuan hartuta, analfabetismoaren indizea emakumeen artean oso handia da. Prestakuntza-maila ertaina lortzen dutenek askotan La Esperanza uztea erabakitzen dute, beste aukera batzuen bila joateko.

Eskolan ematen den hezkuntzak gobernu zentralak markatutako curriculumari erantzuten dio, eta ez dago biztanleriaren kultura- eta hezkuntza-arloko errealitatera egokituta. Era berean, nekazaritza-produkzioaren hobekuntzarekin lotutako ezagutzak ez dira barnean hartzen, eta ez da nutrizio egoki baten garrantzia aztertzen.

Hortaz, La Esperanzako biztanleria ez dago kontzientziatua nutrizioaren garrantziari eta osasunarekin duen zuzeneko harremanari dagokionez, eta elikadura egoki bat planifikatzeko beharrezkoak diren ezagutzak ez ditu.

La Esperanza jasotako desnutrizio-indizeen ondorioz, eta etxeko ohitura ez oso osasungarrien ondoriozko arnas gaixotasunen intzidentzia handiaren ondorioz, bizi-itxaropena batez besteko nazionaletik hainbat puntu behera dago.

La Esperanza Osasun Zentro bat dago, baino oso langile gutxi daude eta prestakuntza baxua dute, eta, beraz, osasun-laguntza urria da. Udaleko agintariak ez dute osasuneko arretarako plan espezifiko bat, biztanleriaren eskaerak jasotzeko mekanismo egokiak ez baitituzte ezarri.

La Esperanzako gizonek eta emakumeek gizarte- eta politika-arloko antolakuntza-maila altua dute. Duela bost urte baino gehiago talde txikietan antolatzen hasi ziren, udalerriari Osasun Zentroan sanitario gehia-

go eta eskolan irakasle gehiago jartzea aldarrikatzeko. Alkatetzarekin harremana beti urruna eta tirabiratsua izan zen, eta biztanleriak egiten zituen eskaera garrantzitsuenak, osasunarekin eta hezkuntzarekin lotutakoak, ez ziren udalerriko plan operatiboetan barne hartzen. Azken bi urteetan, biztanleria antolatua antolamendu-prozesu luzeagoa duen gertuko inguru bateko beste gizarte-mugimendu batekin koordinatu da. Horrek aukera eman die aldarrikapen komunitarako elkartzea, eta politika- eta antolamendu-arloko gaitasunak indartu ditu. Azken hauteskundeetan alkate berri bat hautatu dute; udalerriko bizilaguna, eta La Esperanzako biztanle guztien konfiantza dauka.

Talde antolatu horrek Pueblo izena du, eta gizonak nahiz emakumeek osatzen dute. Gehienak gizonak dira, baina emakumeen partaidetza geroz eta handiagoa da, eta emakume taldeak sortzen ari dira. Era berean, ingurumen-talde bat ere sortuko da, La Esperanzako arazoak aztertzeko eta beste erakunde batzuekin koordinatuta egur-enpresaren baso-mozketaren aurka mobilizatzeko.

La Esperanzako komunitatean etorkizunean proiektua garatzea aurreikusi da, eta komunitate hori eredu gisa hartuta, xede-biztanleriaren profila aplikatu dugu:

1. Identifikazio-prozesuan arreta espezifikoak jasotzeko garrantzitsu gisa biztanlerian identifika daitezkeen talde guztien zerrenda zehaztea. Horretarako, -arrazoi batengatik– errealitate desberdin eta espezifiko bat bizi duen talde bakoitza zehazten da.

La Esperanzan pertsona helduak, zaharrak eta haurrak daude, eta bakoitzaren esperientziak eta premiak horren arabera dira, eta, beraz, hiru talde horiek aipatu beharko dira.

Biztanleria heldua
Haur-biztanleria
Zaharrak

la giza talde guztien kasuan bezala, talde bakoitza gizonen eta emakumeen osatuta dago, eta horrek, zalantzarik gabe, taldearen eta komunitatearen barruan duten kokalekua baldintzatzen du; eta, beraz, denok zehazten dugu sexuaren arabera banaketa.

Biztanleria heldua	€
	G
Haur-biztanleria	€
	G
Zaharrak	€
	G

La Esperanzan, emakume eta gizon helduen zati bat Pueblo izeneko taldean antolatuta dago. Emakume eta gizon horien errealitatea eta komunitatean duten kokalekua antolakundean duten partaidetzaren mende dago, eta, beraz, Xede Biztanleriaren Profilean talde gisa jaso behar da.

Biztanleria antolatua	M
	G

Gainera, La Esperanzan agintaritza betetzen duen pertsona talde bat dago, eta berez bereizitako talde bat da.

Herriko agintariak	€
	G

Bestalde, herriko ekoizleen eta kanpo merkatuen arteko bitartekaritza-lana egiten duen pertsona taldea dago, gainerakoekin alderatuta kokaleku berezia duena.

Nekazaritza-produktuen bitartekariak	€
	G

Kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsona taldeei dagokionez, La Esperanzan ezintasun fisikoa duten 3 pertsona daude, eta premia espezifiko jakin batzuk izango dituzte:

Ezintasun fisikoa duten pertsonak	€
	G

Azkenik, Osasun Zentroan lan egiten duten langileak daude, beren lanarekin lotutako ezaugarri eta premia zehatzak dituztenak.

Pertsonal sanitarioa	€
	G

Era horretan, La Esperanzako xede-biztanleriaren profilaren lehen zutabea osatuta dago. Bertan komunitateko kide diren pertsonak bizi dituzten errealitateen xehetasuna izateko bereiztea garrantzitsutzat hartu den giza talde guztiak jaso dira.⁷

Taldeak	
Biztanleria heldua	€
	G
Haur-biztanleria	€
	G

Taldeak	
Zaharrak	€
	G
Biztanleria antolatua	€
	G
Herriko agintariak	€
	G
Nekazaritza-bitartekariak	€
	G
Pertsona ezinduak	€
	G
Pertsonal sanitarioa	€
	G

Orientabide praktikoak

Biztanleria baten taldekako osaerak biztanleen harremanen eta errealitatearen gaineko jakintza-maila sakon batean oinarrituta egin behar du. Biztanleriaren errealitatearekin bat ez datozen gizarte-ereduak sortzen dituzten aurreiritziak, aurretiaz ezarritako ideiak edo planteamendu etnografikoak saihestu behar dira.

Xede Biztanleriaren Profilaren taldeak ezartzeko unean, funtsezkoa da errealitatearen gaineko lehen eskuko ezagutza ematen duten pertsonak parte hartzea, eta sentsibiltate eta talde guztien ordezkaritza bermatzea.

Oso garrantzitsua da talde minoritarioak (etnikoak, politikoak, erlijiosoak, linguistikoak, eta abar) Xede Biztanleriaren Profilean kontuan hartzea eta barnean hartzea, eta arreta berezia ematea kalteberatasun bereziko egoeran dauden eta Profilean talde espezifiko bat osa dezaketen pertsonen (pertsona ezinduak, muturreko pobrezia egoeran daudenak, homosexualak, GIBa duten pertsonak, edo bestelako gaixotasun larriak dituzten pertsonak, eta abar).

⁷ Adibide teoriko bat dela aintzat hartuta eta ulermena errazteko helburuarekin, ezinbestekoa da adieraztea La Esperanzako komunitatearen errealitatea kontzienteki sinplifikatuta dagoela. Benetako komunitate batean, aurreikus daiteke Xede Biztanleriaren Profilean adierazi beharreko taldeen kopuru askoz handiagoa izatea eta izaera mota askoz gehiago edukitzea.

2. Ezarritako taldeetan oinarrituta, talde bakoitzak eskuragarri dituen baliabideak zehazten dira, baliabidearekiko irisgarritasuna duten edo horren gaineko kontrolean parte hartzen duten bereizita.

Eninbestekoa da azterketa hau sexuaren arabera bereizita egitea, hain zuzen ere kasu gehienetan talde bereko emakumeak eta gizonak ez baitira kokaleku berean egongo eskuragarri dituzten baliabideei dagokienez.

Nolabaiteko berdintasuneko egoera batean biztanleria oso batentzat eskuragarri dauden eta gabezia bat ez dakarten baliabideak (esate baterako, edateko ura komunitate batean) ez dira nahitaez adierazi behar.

La Esperanzako biztanleria helduaren taldea hartzen dugu adibide gisa:

La Esperanzako emakumeek honako hauekiko irisgarritasuna dute:

- Baliabide ekonomikoak (Juliaren kasuan bezala), hain zuzen ere beren kideek emandako eta etxe-ko premietara bideratutako diru-kopuru txikiak baliatzen baitituzte.
- Garraiobideak, hain zuzen ere herriaren ondoko errepidetik egunero pasatzen diren gurdietako bat erabiltzeko aukera baitute, betiere txartela erosteko dirua baldin badute.
- Gune komunitarioak, hain zuzen ere udalerriak eskaintako lokaletan egiten diren bileretara joateko aukera baitute, baina ez dute bileretan asko parte hartzen. Gizonak dira lokalak baliatzen dituztenak, giltzak gordetzen dituzte, horien erabilera baimentzen dute eta bilerak deitzen dituzte.
- Lurra, hain zuzen ere nekazaritza-lanean parte hartzen baitute, baina lurren jabeak beren kideak dira eta haiek erabakitzen dute laboreen, erosketen, ereiteen, eta abarren gainean.

La Esperanzako emakumeek honako hauen gaineko kontrola dute:

- Ez dago baliabiderik, zeinaren gainean erabakiak hartzeko eta administrazioari buruz erabakitzeko gaitasuna duten.

La Esperanzako gizonak honako hauekiko irisgarritasuna dute:

- Garraiobideak, hain zuzen ere herriaren ondoko errepidetik egunero pasatzen diren gurdietako bat erabiltzeko aukera baitute, betiere txartela erosteko dirua baldin badute.

La Esperanzako gizonak honako hauen gaineko kontrola dute:

- Nekazaritza-ekoizpenerako tresnak, hain zuzen ere haiek erosten baitituzte, erabileraren gaineko erabakiak hartzen dituzte eta nekazaritza-lanetan erabiltzen dituzte.
- Lurra, hain zuzen ere familiak lantzen dituen lurren jabeak baitira, eta honako hauen gaineko erabakiak hartzen dituzte: laboreak, erosketak, ereiteak, etab.
- Baliabide ekonomikoak, familiarentzako diru-sarrerak ekartzen baitituzte, dirua administratzen dute, horren erabileraren gaineko erabakiak hartzen dituzte, eta beren erabilerarako dirua dute.

- Gune komunitarioak, hain zuzen ere lokalak baliatzen baitituzte, giltzak gordetzen dituzte, horien erabilera baimentzen dute eta bilerak deitzen dituzte.
- Astialdia, atseden hartzeko, bizitza sozialerako edo nahi dutenerako denbora dute.

Era horretan, La Esperanzako biztanleria heldua honela definitzen da:

Taldeak		Baliabideak	
		Irisingarritasuna	Kontrola
Biztanleria heldua	€	Baliabide ekonomikoak Garraiobideak Gune komunitarioak Lurra	
	G	Garraiobideak	Nekazaritza-ekoizpenerako tresnak Lurra Astialdia Baliabide ekonomikoak Gune komunitarioak

Hemendik aurrera, profilaren zati gisa definitutako talde bakoitzaren azterketarekin jarraitzea da helburua. Ulertu dugunez, gainerako taldeak honela definitzen dira baliabideei dagokienez:

Neskek honako hauekiko irisingarritasuna dute:

- Astialdia, hain zuzen ere eskolako zereginak, beren anai-arreba txikien zaintzak eta etxeko lanetan laguntzeak libre uzten dieten denbora baliatzen dute.

Mutilek honako hauekiko irisingarritasuna dute:

- Eskolako zereginak egin ondoren eta aitaren landa-lanean lagundu ondoren libre geratzen zaien astialdia.

La Esperanzako emakume zaharrek honako hauekiko irisingarritasuna dute:

- Astialdia, hain zuzen ere etxeko lanak zereginak egin ondoren geratzen zaien denbora baitute.
- Gune komunitarioak, bileretara joateko aukera baitute, baina oso guxitan parte hartzen dute.

La Esperanzako gizon zaharrek honako hauen gaineko kontrola dute:

- Astialdia, hain zuzen ere bidezko hartzen duten moduan balia baitezakete ia egun osoa.

- Gune komunitarioak, hain zuzen ere gizon gazteagoen funtzio berberetan parte hartzen baitute.

Emakume antolatuek honako hauekiko irisgarritasuna dute:

- Erabakiak hartzea.
- Biztanleriaren lehentasunezko premiak zehaztea.

Gizon antolatuek honako hauekiko irisgarritasuna dute:

- Erabakiak hartzea.

Gizon antolatuek honako hauen gaineko kontrola dute:

- Biztanleriaren lehentasunezko premiak zehaztea.

Herriko agintariei dagokienez, ez dago emakumerik horien artean. Agintari gisa jarduten duten gizonek honako hauen gaineko kontrola dute:

- Erabakiak hartzea.
- Baliabide publikoak

Nekazaritza-bitartekari guztiak gizonak dira, eta honako hauen gaineko kontrola dute:

- Garraiobideak, hain zuzen ere kamioiak baitituzte pertsonak eta salgaiak garraiatzeko.
- Nekazaritza-produktuen prezioak, hain zuzen ere nekazariak salgaiak erosten dizkietenei prezioak ezartzen baitizkiete.
- Baliabide ekonomikoak, hain zuzen ere irabazi-tarte handia lortzen baitute nekazaritza-produktuen salerosketarekin.

Orientabide praktikoa

Herri bakoitza sakon ezagututa planteatu behar da baliabideen banaketa, eta herriaren errealitateari ez dagozkion gizarte-ereduak erreproduzitzen dituzten aurreiritziak, aurrez ezarritako ideiak edo planteamendu etnozentrikoak saihestu behar dira.

Munduko ia gizarte guztietan aldeak daude pertsonak dauzkaten baliabideen artean, faktore ugari baita, baina giza talde bakoitzak banaketa espezifiko du eta giza talde bakoitzean baliabideen banaketak esanahi espezifiko du, eta protagonistek definitu beharko dute, betiere Giza Garapen Iraunkorraren esparruan. Baliabideak birbanatzeko modua –ekonomia– giza talde bakoitzaren kulturaren zati da, eta ez dira baliabideen kanpoko banaketa-ereduak ezarri behar.

Taldeak		Baliabideak	
		Irisgarritasuna	Kontrola
Biztanleria heldua	€	aliabide ekonomikoak Garraiobideak Gune komunitarioak Lurra	
	G	Garraiobideak	Nekazaritza-ekoizpenerako tresnak Lurra Astialdia Baliabide ekonomikoak Gune komunitarioak
Hour-biztanleria	€	Astialdia	
	G	Astialdia	
Zaharrak	€	Astialdia Gune komunitarioak	
	G		Astialdia Gune komunitarioak
Biztanleria antolatua	€	Erabakiak hartzea Lehentasunezko premien definizioa	
	G	Erabakiak hartzea	Lehentasunezko premien definizioa
Herriko agintariak	€		
	G		Erabakiak hartzea Baliabide publikoak
Nekazaritza-bitartekariak	€		
	G		Garraiobideak Nekazaritza-produktuen prezioak
Pertsona ezinduak	€		
	G		
Pertsonal sanitarioa	€		
	G		

3. Hurrengo urratsa talde bakoitzeko kideek garatzen dituzten lan espezifikoak zein diren zehaztea da, kide horiek sexuaren arabera bereizita.

La Esperanza, honela banatzen dira lanak:

Emakumeek egiten dituztenak:

- Lan erreproduktiboa: etxea garbitu eta zaintzea, janariak prestatzea, haurrak, zaharrak eta gaixoak zaintzea.
- Lan komunitarioa: bilera komunalak, lokal komunitarioak garbitu eta zaintzea, jaialdiak antolatzea.
- Produkzio-lana, nekazaritza-zereginetan laguntzea.

Gizonak honako hauetaz arduratzen dira:

- Produkzio-lana: nekazaritza-produkzioa.
- Lan komunitarioa: bilera komunalak.

Neskatilen zereginak honako hauek dira:

- Anai-arreba gazteak zaintzea.
- Etxeko lanetan laguntzea.
- Eskolara joatea.

Mutikoen zereginak honako hauek dira:

- Eskolara joatea.
- Gizonen zereginetan laguntzea.

Emakume zaharren lana honako hauetan dautza:

- Lan erreproduktiboa: etxea garbitu eta zaintzea, janariak prestatzea.
- Lan komunitarioa: lokal komunitarioak zaintzea, bilera komunalak.

Gizon zaharren eginkizuna honako hau da:

- Lan komunitarioa: bilera komunalak.

Tokiko edo herriko agintarien zereginak honako hauek dira:

- Produkzio-lana: udal-kudeaketa.
- Lan komunitarioa: bilera komunalak.

Nekazaritza-produktuen bitartekarien eginkizunak honako hauek dira:

- Produkzio-lana: produktuen salerosketa.
- Lan komunitarioa: nekazaritzako bilera komunalak.

Horrela, xede-biztanleriaren profila osatu egingo da taldeen artean eta talde bereko sexu desberdineko pertsonen artean dauden aldeak argi eta garbi ikusiko ditugun arte.

Taldeak		Kop.	Baliabideak		Jarduerak
			Baliatzea	Kontrola	
Biztanleria heldua	€		Baliabide ekonomikoak Garraiobideak. Gune komunitarioak Lurra		Lan erreproduktiboa: etxea garbitu eta zaintzea, janariak prestatzea, haurrak, zaharrak eta goixoak zaintzea Lan komunitarioa: bilera komunalak, lokal komunitarioak garbitu eta zaintzea, jaialdiak antolatzea
	G		Garraiobideak.	Nekazaritza- produkziorako erremintak Lurra Aisialdia Baliabide ekonomikoak Gune komunitarioak	
Haur- biztanleria	€		Aisialdia		Anai-arreba gazteak zaintzea. Eskolara joatea
	G		Aisialdia		Nekazaritza-lanetan laguntzea. Eskolara joatea
Zaharrak	€		Aisialdia Gune komunitarioak		Lan erreproduktiboa: etxea garbitu eta zaintzea, janariak prestatzea Lan komunitarioa: lokal komunitarioak zaintzea, bilera komunalak
	G			Aisialdia Gune komunitarioak	Lan komunitarioa: bilera komunalak
Biztanleria antolatua	€		Erabakiak hartzea Lehentasunezko premiak definitzea		
	G		Erabakiak hartzea	Lehentasunezko premiak definitzea	
Herriko agintariak	€				
	G			Erabakiak hartzea Baliabide publikoak	Produkzio-lana: udal-kudeaketa Lan komunitarioa: bilera komunalak

Taldeak		Kop.	Baliabideak		Jarduerak
			Baliatzea	Control	
Nekazaritza-bitartekariak	€				
	G		Garraiobideak. Nekazaritza- produktuen prezioak		Produkzio-lana: produktuen salerosketa Lan komunitarioa: nekazaritzako bilera ko- munalak
Ezinduak	€				
	G				
Pertsonal sanitarioa:	€				
	G				

Ezaugarri horien eta talde gisa definitzen dituen errealitate beraren arabera, premia espezifiko batzuk izango ditu bakoitzak, betiere sexuaren arabera bereizita.

Taldeak		Kop.	Baliabideak		Jarduerak	Premiak
			Baliatzea	Kontrola		
Biztanleria heldua	€		Baliabide ekonomikoak Garraiobideak. Gune komunitarioak Lurra		Lan erreproduktiboa: etxea garbitu eta zaintzea, janariak prestatzea, haurrak, zaharrak eta gaixoak zaintzea Lan komunitarioa: bilera komunalak, lokal komunitarioak garbitu eta zaintzea, jaialdiak antolatzea	Produkzio-lana: Lan erreproduktiboetan laguntzea Baliabide ekonomikoen kontrola Erabakiak hartzeko aholmena Aisialdia Prestakuntza Arreta sanitario egokia
	G		Garraiobideak.	Nekazaritza- produktuorako erremintak Lurra Aisialdia Baliabide ekonomikoak Gune komunitarioak	Produkzio-lana: nekazaritza-produkzioa Lan komunitarioa: bilera komunalak	Prestakuntza Arreta sanitario egokia

Taldeak	Kop.	Baliabideak		Jarduerak	Premiak
		Baliatzea	Kontrola		
Haur-biztanleria	€	Aisialdia		Anai-arreba gazteak zaintzea Eskolara joateaj	Eskolara joateko prest egotea Prestakuntza-maila handiagoa Eskolan denbora gehiago egotea Arreta sanitario egokia
	G	Aisialdia		Nekazaritza-lanetan laguntzea Eskolara joatea	Eskolara joateko prest egotea Prestakuntza-maila handiagoa Arreta sanitario egokia
Zaharrak	€	Aisialdia Gune komunitarioak		Lan erreproduktiboa: etxea garbitu eta zaintzea, janariak prestatzea Lan komunitarioa: lokal komunitarioak zaintzea, bilera komunalak	Arreta sanitario egokia
	G		Aisialdia Gune komunitarioak	Lan komunitarioa: bilera komunalak	Arreta sanitario egokia
Biztanleria antolatua	€	Erabakiak hartzea Lehentasunezko premiak definitzea			
	G	Erabakiak hartzea	Lehentasunezko premiak definitzea		

Taldeak	Kop.	Baliabideak		Jarduerak	Premiak
		Baliatzea	Kontrola		
Herriko agintariak	€				
	G		Erabakiak hartzea Baliabide publikoak	Produkzio-lana: udal-kudeaketa Lan komunitarioa: bilera komunalak	Arreta sanitario egokia
Nekazaritza-bitartekariak	€				
	G		Garraiobideak. Nekazaritza- produktuen prezioak	Produkzio-lana: produktuen salerosketa Lan komunitarioa: nekazaritzako bilera komunalak	Arreta sanitario egokia
Ezinduak	€				
	G				
Pertsonal sanitarioa	€				Lanerako gaikuntza egokia Ekipamendu profesionala Lguntzaileak
	G				

Erreminta horri esker emakumeen eta gizonen arteko aldeak zein diren ikus daiteke baliabideak baliatzeari, horien bidezko kontrolari eta batzuek zein besteek egiten dituzten zereginiei dagokienez. Bertan hainbat gai islatzen dira, hala nola baliabideen kontrol desberdina eta emakumeek normalki jasan beharreko zereginen gainkarga. Kolektibo bakoitzak egoera eta baldintza desberdinak ditu, kolektiboko kideak emakume edo gizon izatearen baitan:

Biztanleria helduan ikus daiteke gizonek garatzen dituzten eta emakumeek egiten dituzten jardueren arteko aldea. Argi geratzen da nola banatzen den lana sexuaren arabera: Emakumeak, produkzio- eta komunitate-esparruan duten lanaz gain, etxeko lanarekin loturiko guztiaz arduratzen dira. Gizonak, ordea, ez dute etxean lan egiten. Horrenbestez, aisialdi gehiago dute.

Esanguratsuak dira, halaber, baliabideak baliatzeari eta kontrolatzeari buruzko zutabeak, informazioa ekartzen baitigute gizonen eta emakumeen ahalmenari buruz, betiere horien gaineko kontrolaren ar-

bera. Emakumeek ez dute kontrolik balia dezaketen ezein baliabideren gain, eta gizonek, ordea, lurra, gune komunitarioak, nekazaritza-ekoizpena eta aisialdia kontrolatzen dituzte.

Haur-biztanleria⁸ artean ere ikus daitezke alde horiek. Mutikoek eskolara joateko erantzukizuna eta soroko lanean laguntzeko erantzukizuna dute. Neskatilak etxeko lanetan eta familia zaintzeko zereginetan laguntzeaz arduratzen dira, eskolara joateaz gain.

Eta, azkenik, zenbait kolektibo gizonezkoek osatzen dituzte soil-soilik, hala nola herriko agintariak eta nekazaritza-produktuen bitartekariak, eta baliabideen gaineko kontrol-maila handiak dituzte.

Biztanleria aztertu izan bagenu sexuaren arabera bereizi izan gabe eta Xede Biztanleriaren Profil hau erreminta gisa erabili izan gabe, informazio horren zati handi bat ezkutatuko ziguten eta akatsak egin izango genituzke planifikatzeko garaian. Esaterako, emakumeek baliabide batzuk baliatu edo kontrolatzeko dituzten zailtasunak ez ezagutzeak egoera hori hobetzeko helburuak ez planteatzea eragin izango luke. Edo emakumei zer erantzukizun edo zeregin eta gizonei zer erantzukizun edo lan dagozkien ez ikertzeak emakumeen gainkarga eragin ahalko zukeen, eta haiei bideraturiko jarduera asko egunero bete behar duten lan guztia kontuan hartu gabe planifikatzea.

La Esperanzako **Xede Biztanleriaren Profila** osatuta, hura osatzen duten taldeak zehaztuta, baita horien potentzialitate eta gabeziak, eginkizunak eta premia espezifikoak ere. Horrela, proiektuak erantzun beharreko lehentasunen definizio-prozesuari eta aurrera egin beharreko garapen-ereduaren konfigurazio-prozesuari hasiera emateko prest gaude.

III.2.4. Arazoen zuhaitza

Proiektu bat identifikatzeko prozesuan, proiektuak erantzun beharreko arazo eta premiak definitzea da gakoetako bat⁸.

Proiektuak aurre egin beharreko arazoak definitzeko prozesua xede-biztanleriaren zuzeneko parte-hartzearekin burutuko da, hura osatzen duten interes-talde guztiek ordezkaturik, Xede Biztanleriaren Profilean definiturikoak, guztiak ere. Kausa-efektu erlazioaren arabera egituraturiko dira arazoak, **arazoen zuhaitzaren** eskemari jarraiki.

Arazoen zuhaitz bat egiteko lantalde bat eratuko da, lortutako datuak txertatuko dituztena, identifikazio-fase honetan erabilitako informazioa biltzeko beste erreminta batzuen bidez.

Honako hauek dira zuhaitza egiteko urratsak:

⁸ Egileek nahiago badute ere "premiei" hitz egin "arazoei" hitz egin baino, Esparru Logikoaren Ikuspegiari buruzko bibliografiak "arazok" terminoa erabiltzen du eta metodologian txertatzen du eta, hortaz, sinonimo gisa erabiliko dira, kontzeptuari buruzko nahasterik ez sortzearren.

1. Xede-biztanleriaren arazoak zehazten dira.

Ideia-jasa gisa, parte-hartzaileek, xede-biztanleriaren kide, lehentasunezkoztat jotzen dituzten arazoak zein diren adierazten dute.

Xede-biztanleriaren profilean islaturiko egoerak orientabide gisa erabili behar dira bertan arazo posible gisa agertu diren errealitateak ikusteko.

Egoera jakin batzuei aurre egiterakoan, esaterako, biztanleriaren zati bat analfabetoa bada, pertsona guztiak bilduko direla bermatzen duten metodologiak erabili beharko dira. Ildo horretan, oso interesgarriak dira Herri Hezkuntzan oinarrituriko erremintak⁹, ikuspegi horrek pertsonak eta haien praktika eta bi- zipenak baititu abiapuntu jakintzaren eraikuntza kolektibo batera iristeko.

Proposamen metodologikoak

Arazo bakoitza txartel itsaskor batean idazten da eta paretan atxikitzen da, ezarritako ordenarik gabe.

Arazoak egungo egoera negatibo egiazko gisa formulatzen dira, ez gabealdi edo egoera positiboen ukapen gisa. "Nekazaritza-produkzioak dibertsifikazio gutxi du" esango dugu, "laborearen barietate berriak falta dira" esan beharrean.

Hau da, arazoaren definizioak konpondu nahi dugun egoera deskribatu behar du, baina konponbide posiblea zein izango litzatekeen planteatzera aurreratu gabe.

Arazoa planteatzeko "falta da", "ez dago" edo "gabezia dago" erabiltzen baditugu, konponbidea zein litzatekeen jakintzat ematen ari gara, arazoaren kausa eta ondorioetan sakondu gabe.

2. Arazoak kausa-efektu erlazioaren arabera egituratzen dira

Arazoen kopuru nabarmena (gutxienez 4) definitutakoan, beren artean arazoak lotzen dituzten erlazioak bilatzen hasiko gara, batzuek besteen kasu edo efektu gisa. Horrela, arazoaren eskema bat sortuko da, zehatz eta espezifikoenekin hasi (kausak) eta konplexu eta orokorrenekin (efektuak) buka.

Bideratzaileak izan beharreko sen onaz eta ezagutzez gain (zein arazo diren kausa eta zein efektu jakiteko baliagarriak dira), badira zenbait "trikimailu" erabilgarriak direnak definituriko arazoaren artean kausa-efektu erlazioak ezartzeko:

- Galdetu zergatik? definitu dugun arazo bakoitzari
- Egiaztatu "...ez (kausa), orduan...(efektua)" formula betetzen dela

⁹ Herri Hezkuntzari buruzko erreferentziak zenbait orri: www.ceaal.org, www.libertas.com.br, www.paulofreire.org, www.idhpaulofreire.hpgvip.com.br, www.equipomaiz.org.sv, www.alforja.or.cr

Bideratzen duenaren paperak aktiboa behar du izan, ideiak, eztabaida eta trukea sortzen dituzten galderak bota behar dira, eta metodologiari jarraitu, baina malgutasunez, sorkuntzak ere lekua izateko moduan.

Beste arazo batzuen kausa zein arazo diren identifikatzen den neurrian, kausak beren efektuen justu azpian jartzen dira, arazoen egitura bat eraiki arte, non bakoitzak bere kausa eta efektuak identifikatuta dituen.

Aholku metodologikoak

Arazoak lotzen dituzten kausa-efektu erlazioak ezagutzen diren neurrian, paretan jartzen dira arazo bakoitza idatzitako txartelak, eta arazo bakoitzak justu azpian izango du kausa dituen arazoak dauzkan txartela eta justu goian efektu dituen arazoak dauzkan txartelak.

3. Identifikatu gabeko kausa eta efektuak osatzen dira.

Ez da nahikoa *ideia-jasan* sortutako arazoak ordenatzeko, izan ere, eta arazoen zuhaitza osatuta egon dadin eta biztanleriak identifikaturiko problematiken panorama egituratua eskaintzeko bere helburua bete dezan, zuhaitzean islatutako arazo bakoitzak hura argitzeko kasuak bildu behar ditu, eta dagozkion ondorioek ezarrita egon behar dute.

Horrela, tailerrean sorturiko arazo guztiak zuhaitzaren egitura logikoaren arabera kokatutakoan, ezinbestekoa da ziurtatzea arazo guztiak argitzen dituzten kausa guztiak taxutu direla. Horretarako, zergatik? galdetu behar diogu arazo bakoitzari, zuhaitzera erantzun gisa sortzen diren arazoak gaineratuta, kasua guztiak agortzen ditugun bitartean.

Kasu praktikoa

Itzul gaitezen **La Esperanza** Xede-biztanleriaren profilean eta biztanleriaren pertzepzioetan deskribaturiko errealitatearen arabera, identifikazio-tailerrean hasten da *idea-jasa*.

Lehen arazoak sortzen dira:

- Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan
- Diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira
- Biztanleriaren kualifikazio-maila oso baxua da
- Nekazariak beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak oso baxuak dira"

Har dezagun lehen arazoa: "Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan" eta galdera egi-ten dugu: beste arazoen artekoen bat kausa izan al daiteke?


Edo sinpleago esanda, **zergatik daude "desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan"?**

Ikus dezagun arazoren bat baliagarria izan ote daitekeen galderari koherentzia erantzuteko:

Zergatik...	"...diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira"
	"...Biztanleriaren kualifikazio-maila oso baxua delako"
	"...Nekazariak beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak oso baxuak direlako"

Erantzun posible horien guztien artean, badirudi familiaren diru-sarrera buruzkoa koherentea izan litekeela. Hori berresteko, ezagutzen dugun "trikimailuetako" batekin egiaztatuko dugu:

Probatuko dugu zentzurik ba ote duen esateak



Esaldia koherentea dela jotzen badugu, gure gain hartzen dugu desnutrizio-maila altuen kausetako bat familiaren diru-sarrera baxuak direla. Horrela, kausa den arazoa (diru-sarrera baxuak) efektua denaren (desnutrizioa) azpian jarriko dugu.

Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan
Diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira


Arazoen zuhaitza egiten jarraitzeko, horietako bakoitzaren kausak bilatzen jarraituko dugu.

Zergatik dira familiaren diru-sarrerak oso baxuak?

Kausa bilatzen dugu erantzun posibleen artean:

Zergatik...	"...Biztanleriaren kualifikazio-maila oso baxua da"
	"...Nekazariak beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak oso baxuak direlako"

Uste dugu koherentziaz esan dezakegula:



Horrenbestez, gure gain hartzen dugu diru-sarrera baxuen arazoaren kausetako bat aurkitu dugula, eta zuhaitzean islatuko dugu.

Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan
Diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira
Nekazariak beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak oso baxuak dira

Hasiera batean definituriko 4 arazoetatik 3 zerrendatu ditugu jada. Oraingoz gainerako arazoa erlazionatzen duen kausa-efektu erlazorik aurkitzen ez dugunez, alde batera uzten dugu behin-behingo eta jada zuhaitzean kokatutako arazoaren kausak bilatzen jarraituko dugu.

Zergatik dira nekazariak beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak oso baxuak?

Bere komunitatearen errealitatea ezagutzen duen biztanleriak honako hau erantzuten du: "bitartekariak produktuen prezioak finkatzen dituztelako".

Badugu beste arazo bat, jada identifikaturiko beten kasua den arazo bat. Tailerrean parte hartzen duten pertsona guztiek uste badute baliozko azalpena dela, zuhaitzean bilduko dugu kasua den arazoa-ren justu azpian.

Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan
Diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira
Nekazariak beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak oso baxuak dira
Bitartekariak produktuen prezioak finkatzen dituzte


Zehaztapen-maila egokia lortu dugu familiaren diru-sarrera baxuak azaltzen dituzten kausen azalpenen, baina identifikatu al ditugu arazo nagusia dakarten –oraingoz behintzat– desnutrizio-maila altuen kasuak, batez ere emakumeen kasuan? Argi dirudi ezetz eta, hortaz, galdera egiten dugu:

Zergatik gertatzen diren desnutrizio-maila altuak la Esperanzako biztanleen artean, batez ere emakumeen kasuan?

Eta bi kausa posible detektatzen ditugu:


- Biztanleriak ez du nutrizioari buruzko oinarritzko ezagutzarik
- Barne-produkzioak ez du oinarritzko dieta bat bermatzen

Egiaztatzen dugu koherentea ote den honako hau esatea:



Argi dirudi elikadura egoki bati buruzko ezagutzarik eza dela, familiaren diru-sarrera baxuekin batera, desnutrizio-maila altuak azaltzen dituen kausetako bat.

Planteatutako beste arazoarekin probatuko dugu, eta aztertuko dugu zentzurik bat ote duen honako hau esateak:



Biztanleria ados badago desnutrizioaren problematikarako baliozko azalpena dela, arazoen zuhaitzera gaineratuko dugu.

Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan		
Barne-produkzioak ez du oinarritzko dieta bat bermatzen	Diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira	Biztanleriak ez du nutrizioari buruzko oinarritzko ezagutzarik

Definituriko arazoak egituratzen jarraitu behar dugu, bakoitza bere kausen justu gainean egoteko moduan, baita bere efektuen justu azpian ere.

Orain arte egindako lanarekin, problematika konplexua definitu dugu, desnutrizioarekin erlazionaturikoa, kausa jakin batzuen arabera azaltzen dena, nekazaritza-produkzioarekin, diru-sarrerekin eta nutrizioari buruzko prestakuntza eskasarekin zerikusia dutenak.

Arazo horietako bakoitzaren kausen inguruan galderak eginez jarraitu behar dugu, zuhaitza osatzeko, betiere arazo bakoitza azaltzen duten kasu guztiak definituta. Baina biztanleria eraginpean hartzen duen arazo nagusi eta orokorrena definitu ote dugun ere galdetu behar diogu gure buruari. Horretarako, arazoen zuhaitzaren goiko aldean dagoen arazoak dituen efektuei buruzko galdera egiten dugu:

Zer ondorio dituzte la Esperanza gertatzen diren desnutrizio-maila altuek, batez ere emakumeen kasuan?

Komunitatearen ezaugarrien arabera, desnutrizio-maila altuek duten efektuaren ondorioz nazio osoko batez bestekoaren oso azpitik dago bizi-itzaropena la Esperanza.

Detektatu berri dugun arazo hori zuhaitzera gaineratzen dugu.


Udalerriko biztanleriaren bizi-itxaropena bereziki motza da herrialdekoaren batez bestekoarekin alderatuta		
Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan		
Barne-produkzioak ez du oinarritzko dieta bat bermatzen	Diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira	Biztanleriak ez du nutrizioari buruzko oinarritzko ezagutzarik

Beste arazo bat identifikatu dugu, zuhaitz osoko orokorra eta konplexuena dena, ikuspegi berriak zabaldua, bertatik proiektua bideratzeko. Baina desnutrizioa al da bizi-esperantza baxua azaltzen duen kausa bakarra? Argi dirudi ezetz.

Zer kausak azaltzen dute bizi-itxaropen baxua, desnutrizio-maila altuez gain?

Arnas gaixotasunek eragin handia dute La Esperanzan, eta gerta liteke hori izatea bizi-itxaropen baxuaren kausetako bat.

Ikus dezagun zentzurik ba ote duen honako hau izatea:



Udalerriaren bizi-esperantza baxuaren kausa nagusiak azaltzea lortu dugula dirudi.

Udalerriko biztanleriaren bizi-itxaropena bereziki motza da herrialdekoaren batez bestekoarekin alderatuta			
Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan			Arnas gaixotasunen eragin handia
Barne-produkzioak ez du oinarritzko dieta bat bermatzen	Diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira	Biztanleriak ez du nutrizioari buruzko oinarritzko ezagutzarik	

Hurrengo urratsa arnas gaixotasunen eragin handiaren kausei buruz galdetzea izango da, eta proiektuko arazoak zuhaitza osatzea kausa guztiak eta La Esperanzako biztanleek planteaturiko arazoak efektu bakoitza definitzen dugun arte.

Arazoen zuhaitza definitzen amaitutakoan, biztanleriak lehentasunezkoztat jotzen dituen premia nagusien laburpen argi eta egituratua izango dugu, eta horien artean ezarritako erlazioek aurreikusitako ekintza bakoitza bideratu behar dugun jardun-eremuari buruz orientatuko gaituzte.

Udalerriko biztanleriaren bizi-itxaropena bereziki laburra da herrialdekoaren batez bestekoarekin alderatuta				
Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan				
Barne-produkzioak ez du oinarritzko dietarik bermatzen				
Nekazaritza-produkzioa dibertsifikazio txikikoa da	Lurraren produktibitate baxua			
Bertako laborantza alternatiboen berri ez jakitea	Eraginkortasun baxuko eta iraunkorrak ez diren laborantza-teknikak erabiltzea	Lur pobretua erabilera intentsiboagatik	Lurrak, haziak eta abar zaintzeko emakumeek dituzten ezagutza tradizionalak eta iraunkorrak ez dira baloratzen	Atzerriko egur-enpresak zuhaitzen mozketan masiboa egin du

Udalerriko biztanleriaren bizi-itxaropena bereziki laburra da herrialdekoaren batez bestekoarekin alderatuta			
Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan			
Diru-sarrerak pertsonalak oso baxuak dira			
Nekazariak beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak oso baxuak dira	Diru-sarreraren iturri alternatibo gutxi daude		
Bitartekariak produktuen prezioak finkatzen dituzte	Tradizioak biztanleria orientatzen du nekazaritzan aritzeko	Emakumeek nekazaritzan egiten dute lan eta ez dituzte diru-sarrerarik jasotzen	Nekazaritza-produktuak balio erantsirik gabe saltzen dira

Udalerriko biztanleriaren bizi-itxaropena bereziki laburra da herrialdekoaren batez bestekoarekin alderatuta					
Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan					
Biztanleriak ez du nutrizioari buruzko oinarritzko ezagutzarik					
Biztanleriaren kualifikazio-maila oso baxua da		Biztanleria ez da kontzientziatua nutrizioaren eta osasunaren arteko harremanaren inguruan			
Eskolatzeko-indizea oso baxua da, bereziki emakumeen indizea		Prestakuntza-maila handiagoa duten pertsonen La Esperanzatik joan egiten dira		Ez dira nutrizioari buruko edukiak sartzen hezkuntzan, ezta gaikuntza ez-formaletan ere	
Arnas gaixotasunen eragin handia, batez ere emakumeen artean					
Etxeko ohitura gutxi osasungarriak					
Biztanleriaren kualifikazio-maila oso baxua da			Etxebizitzetan egur-sukaldeak erabiltzen dira		
Oinarritzko ikasketak amaitzeko indizea oso baxua da	Hezkuntza-curriculumak ez dago testuinguruaren kultura- eta hizkuntza-errealitatera egokituta	Emakumeen kolektiboak analfabetismo-indize handiena du	Elikagaien prestaketa emakumeei egokitzen zaien zeregina da	Zur-sukaldea erabiltzeak emakumeen osasunerako dituen kalteak ez dira ezagutzen	Zur-sukaldeentzako alternatibak ez dira ezagutzen
Mutikoek nekazaritza-zereginetan laguntzen dute eta neskek zeregin erreproduktiboetan	Eskola urruti dago eta ez dago garraiorik	Hezkuntza-politikak oso zentralizatuta daude	Neskatilek mutikoek baino urte gutxiago ematen dituzte eskolatuta	Emakumeak ez daude beren eskubide espezifikoak defendatzeko antolatuta	
Arnas gaixotasunen eragin handia, batez ere emakumeen artean					
Osasun-arreta eta -asistentzia eskasa					
Osasun-zentroa ez dago behar bezala ekipatuta		Osasun-zentroko langileak ez dira nahikoak eta ez dute kualifikazio egokia		Ezinduen eta beste talde kalteberen premia espezifikoak ez dira aintzat hartzen	
Mutikoek nekazaritza-zereginetan laguntzen dute eta neskek zeregin erreproduktiboetan					
Tokiko agintariek ez dute plan espezifikorik ingurunean osasunerako arreta hobetzeko					
Ez dago adostutako partaidetza-espaziorik biztanleria antolatua, hau da, emakumeek eta gizonek tokiko agintariei beren eskaerak adierazteko					

Garrantzitsua da azpimarratzea ez dagoela arazoen zuhaitz "zuzen" bat biztanleria edo problematika bakoitzerako. Arazoen zuhaitzean definituta dagoen lantalde bakoitza gai batzuk edo beste batzuk joko ditu lehenetsunezkatzat, hainbat faktore ren arabera, hala nola espezializazio-sektorea eta garapen-kontzeptua, besteak beste. Baina proiektua identifikatzeko fasea arrakastaz gainditzeko eta, horrela, bere helburuak lortuko dituen proiektu bat planifikatzeko, ezinbestekoa da arazo batzuen eta beste batzuen artean kausa-efektu erlazioak behar bezala ezartzea.

Ez badira behar bezala identifikatzen zein diren biztanleria eraginpean hartzen duten arazoak azaltzen dituzten kausak eta zein diren horien funtsezko efektuak, zaila izango da ekintza egokiak planifikatzea konponbideak aurkitzeko.

Zehar-lerroak arazoen zuhaitzean

Zehar-lerroak proiektuaren fase guztietan txertatu behar dira. Aldaketaren mende egon daitezkeen gizon eta emakumeen arazo eta premiak detektatzekoan, arreta berezia jarri behar zaio garapenerako lagungarri izan nahi duen edozein ekintzatan bildutako lerroak gaineratzeari: gaitasunak sendotzea, parte-hartzea, antolamendua, genero-ekitatea, giza eskubideak, iraunkortasun ekologikoa.

Premiak eta arazoak definitzeko prozesuan, zenbait jarraibide aplikatu daitezke galderak planteatzeko, zehar-galdera guztiak biltzen ari ote diren egiaztatzeko lagungarri diren galderak. Bakoitza urratsez urrats azter daiteke eta prozesuan lorturiko informazioa lortu beharko litzatekeenarekin alderatu, informazioa jasotzeko erremintetan edo xede-biztanleriako talde bakoitzarengana –bereziki kalteberengana– iristeko moduan aldaketak sartzeko, beharrezkoa izanez gero. Ondoren garatzen dira zehar-lerro bakoitzerako jarraibide espezifikoak:

Tokiko ahalmenak, partaidetza eta antolamendua

Tokiko gaitasunei, partaidetzari eta arazo eta premiak identifikatzeko antolamenduari buruzko zehar-lerroa gaineratu dela ziurtatzeko, hainbat galdera planteatu daitezke:

Xede-taldeetan ezarritako gaitasunekin erlazionaturiko arazoren bat islatzen al da zuhaitzean?

Ba al dakigu zein diren indarrak eta zein diren indartu beharreko trebetasun eta gaitasunak transformazio-xedeetan?

Esplizitatzen al dira emakumeen eta talde kalteberen eta tradizionalki hainbat arrazoi direla-eta (etnia, hizkuntza, gaitasun desberdinak eta abar) bazterturikoen premia espezifikoak?

Xede-taldeen parte hartzeko moduak eta parte hartzeko egungo guneak aztertu al dira?

Parte hartzeko gune berriak sortzeko premiak detektatu al dira?

Aztertu al dira parte hartzeko egungo guneak, gardentasunarekiko, erabakiak hartzeko moduekiko eta abarrekiko?

Gabeziaren bat detektatzen al da kolektiboren baten parte-hartzeari dagokionez, batez ere kalteberenei dagokienez?

Aztertu al da inplikaturiko gizon eta emakumeen eta interes-taldeen antolamendu-maila? Eta talde kaltebera eta baztertuena?

Kontuan hartu al dira antolatzeke modu tradizionalak?

Zalantzan jartzen al dira banaketa eta botere moduak?

La Esperanzako adibidean, honako arazo hauek detektatu dira emakumeen eta gizonen gaitasunei, parte-hartzeari eta antolamendu-mailari dagokienez:

- Bertako labore barietateen berri ez jakitea.
- Eraginkortasun gutxiko laborantza-teknikak erabiltzea.
- Biztanleriaren kualifikazio-maila oso baxua da.
- Eskolatzeko-indizea oso baxua da, bereziki emakumeen indizea.
- Ez dira nutrizioari buruko edukiak sartzen hezkuntza formalean, ezta gaikuntza ez-formaletan ere.
- Biztanleria ez dago kontzientziatua nutrizioaren eta osasunaren arteko erlazioaren inguruan.
- Emakumeen kolektiboak analfabetismo-indize handiena du.
- Egur-sukaldea erabiltzeak dituen kalteak ez dira ezagutzen.
- Egur-sukaldeentzako alternatibak ez dira ezagutzen.
- Osasun-zentroko langileak ez dira nahikoak eta ez dute kualifikazio egokia.
- Ez dago parte hartzeko itunduriko gunerik biztanleria antolatuak agintariei bere eskaerak adieraz diezazkion.
- Emakumeak ez daude antolatuta beren eskubide eta interes espezifikoak defendatzeko.

Kasu horretan, gaikuntzako eta prestakuntzako zenbait premia detektatzen dira, arazo nagusietako bat biztanleriaren prestakuntza-maila baxua baita, batez ere emakumeena. Gertakari hori erabakigarria da horrekin loturiko beste gai batzuetarako, hala nola lurraren aprobetxamendu eraginkorragoa, aztura osasungariak hartzea, elikadurak eta dieta orekatu batek eduki beharreko oinarritzko produktuen garrantzia ezagutzea.

Gainera, emakumeek arazo batzuekiko duten egoera esplizitatzen da: azpimarratzen da gizonek baino eskolatzeko-indize txikiagoa dutela, analfabetismo-indize handiena duten kolektiboa direla eta arnas gaixotasunen eragin handiena pairatzen duten kolektiboa direla. Garrantzitsua da detektaturiko arazo batzuek emakumeengan duten eragin handiago hori buruzko datuak biltzea, hortik abiatuta estrategiak era baitaitezke horiei ekiteko eta helburu eta emaitza jakinak planteatzeko.

Parte-hartzeari dagokionez, nabarmentzen da biztanleria antolatua –gizonak eta emakumeak– udal-gobernuari bere premia eta eskaerak adierazteko parte har dezakeen guneen gabezia. Horren ondorioz, ez zaie erantzunik ematen udalerriaren arazoari, eta ez dago plan eta politika zehatzik horri erantzuteko.

Kasu horretan, premia azaldu da eta agerian geratu da gizonak eta emakumeak bildu behar dituela antolaturiko herriak. Emakumeen antolamendurik eza arazo gisa detektatzea oso garrantzitsua da emakume horien posizioa hobetzeko. Arazo estrategiko bat da, emakumeen kontzientzia osoa hobetuko duena eskubide eta premiei buruz eta haien eskaerak adierazteko ildoak ahalbidetuko dituen, eta abar, azken batean, lagungarria izango dena emakumeak ahaldundutako. Horregatik, nabarmentzen dugu garrantzitsua dela arazoaren zehaztasunaren esplizitazioa, lehen urratsa delako horri ekiteko helburuak, emaitzak, estrategiak eta jarduerak osatzeko.

Edozein kasutan, kontuan hartu behar da adibide hori fikziozkoa dela eta errealitatean –generoko premia estrategikoekin gertatzen den bezalaxe, adibidez–, ez da erraza antolamendu- eta partaidetza-proiektuak zuzenean identifikatu eta adieraztea. Gainera, parte hartzeko ereduak askotarikoak izan daitezke eta ohituren, kulturaren, komunikazio-trebetasunen edo nortasunaren eraginpean daude. Ez dago parte hartzeko baliozko forma bakarra eta, aitzitik, denak hartu behar dira kontuan eta bildu behar dira identifikazio-prozesuan. Horrenbestez, berriz ere azpimarratu egiten da prozesuaren bideratzaileak jokatzen duen paper garrantzitsua, haren trebetasunaren baitan egongo baita parte hartzeko moduak errespetatuak izan eta integra daitezela, eta ahalik eta informazio gehien ateratzea normalean erraztasunez adierazten ez diren gaiei buruz.

Genero-ekitatea

Zenbait galdera planteatu ditzakegu genero-ekitatea zehar-lerro gisa planteatuta badago egiaztatzeko.

Proiekturako interes-talde guztietarako emakumeek parte hartu al dute arazoaren zehaztasunaren elaborazioan?

Gune egokiak sortu al dira kolektibo desberdinetako emakumeek parte har dezaten eta beren premiak adieraz ditzaten?

Zer arazo lotzen dira espezifikoak emakumeen egoerarekin? Eta haien posizioarekin gizonen posizioarekiko?

Emakumeen premia praktikokoak eta interes estrategikoak biltzen al dira zehaztasunaren islatutako arazoaren artean? Gizonen interes estrategikoak biltzen al dira?

La Esperanzako kasuan, informazio eduki beharko genuke zehaztasunaren formulazioa eragin duen identifikazio-prozesua nola burutu ote den, eta emakumeek parte-hartze aktiboa izan dutela ziurtatu beharko genuke.

Hori bermatuta, arazoaren zehaztasunaren islatutako premiak aztertzen dira, emakumeen arazo espezifikoak egiaz biltzen direla egiaztatuz:

- Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan.
- Lurrak, haziak, eta abar zaintzeko emakumeek dituzten ezagutza tradizionalak eta iraunkorrak ez dira balioesten.
- Emakumeek nekazaritzan egiten dute lan eta ez dute diru-sarrerarik jasotzen.
- Eskolatzeko-indizea oso baxua da, bereziki emakumeen indizea.
- Emakumeen kolektiboak analfabetismo-indize handiena du.
- Elikagaien prestaketa emakumeei egokitzen zaien zeregina da.
- Emakumeak ez daude antolatuta beren eskubide eta interes espezifikoak defendatzeko.

Zuhaitzean bilduriko arazo eta premien artean, horietako batzuk emakumeen egoerarekin, haien bizi-baldintzak hobetzeari buruzko gaiekin, betetzen dituzten zereginekin eta abarrekin erlazionatuko dira. Beste batzuk, gizarte-esparruetan emakumeek gizonetikiko duten posizioari lotuta egongo dira. Genero-ikuspegia daukan identifikazio batek emakumeen premia praktikoak zein haien interes estrategikoak bildu beharko ditu. Era berean, gizonen interes estrategikoak identifikatu eta landu beharko dira.

La Esperanzaren kasuan, detektaturiko premiek osagai estrategikoa dute. Esaterako, desnutrizio-maila altuak funtsezko faktorea dira, eskolatzeko eta analfabetismo-indizeekin ere lotzen dena. Biztanleria desnutrituta badago, eta emakumeak proportzio handiagoan, haien gaitasun fisiko, intelektual eta harremanetarakoak kaltetuta gertatzen dira, eta horrek atzerapena dakar emakumeen garapenari: osasun okerragoa izango dute, bizi-itxaropen txikiagoa, denbora gutxiago joango dira eskolara eta haien gaitasun intelektuala murriztuta egongo da eta, horrenbestez, eskola-errendimendua txikiagoa izango da, prestatzeko eta produkzio-lan bat etxetik kanpo garatzeko aukera gutxiago izango dute, eta abar.

Emakumeek lurra zaintzeari, haziei eta abarri buruz dituzten ezagutza tradizionalen balioespen eskasari dagokionez, emakumeek duten posizioarekin eta erreproduktzioa ez den esparrutik haiek baztertzearekin lotzen da. Haien ezagutzak gutxietsi egiten dira tradizionalak haien generokoak (janariak prestatzea, garbitzea, pertsonak zaintza) ez bezalakoak diren alderdietan eta emakumeen beren autobalorazioan du horrek eragina. Horrenbestez, premia hori lantzeak eragina izango du emakumeen autoestimuan eta komunitatean duten posizioa hobetuko du. Emakumeak indartu egingo dira produkzioaren hobekuntzak ekarpena egin dezaketela sentitzean eta gizonen emakumeak balioetsi egingo dituzte eurek maneiatzen ez zituzten ezagutza garrantzitsu eta erabilgarrien jabe gisa.

Emakumeek nekazaritza-lanak egin eta ordainsaririk ez jasotzeari dagokionez, haien eskubide ekonomikoekin loturiko gai estrategikoa da. Emakumeek egiten duten produkzio-lana ez bada aintzat hartzen eta horren truke diru-sarrerarik lortzen ez badute, haien autonomia eta aukerak eraginpean geratuko dira.

Bestalde, janarien prestaketa emakumeen eta beste inoren zeregina izatea aztertu beharreko funtsezko arazoa ere bada. Hori arazo gisa kontuan hartzea eta ez zalantzan jartzen ez den errealitate onartu

gisa, egoera aldatzeko helburua eta emaitzak formulatzea da. Horretarako nahitaezkoa izango da gizonekin lantzea nortasun maskulinoari, roiei eta abarri buruzko haien autogogoeta, baita lan erreproduktiboetan duten inplikazioa ere, zereginak eta boterea birbana dadila lortzeko. Bi helburuak –praktikoak eta estrategikoak– aldi berean landu daitezke aldibereko estrategia batekin, akatsa da helburu estrategikoen planteamendua atzeratzea lehen aurrerapauso “praktikoak” lortzearen pentzutan.

Azkenik, emakumeak beren eskubide eta interes espezifikoak defendatzeko antolatuta ez egoteak zuzeneko eragina du emakumeen ahalduzko-maila kolektiboan eta beren eragin-ahalmenean gizonekiko beren posizioa aldatzen duten generoko interes estrategikoak lortzeko.

Giza Eskubideak

Giza eskubideen ikuspegia gaineratzearen ikuspuntutik arazoan zuhaitza aztertzeke, honako galderak egin diezazkiokegu gure buruari:

Interes-talderen baten –batez ere kalteberatasun-egoeran dauden taldeen– giza eskubideen hausketa, urraketa edo gabetzerik dekretatzen al da?

Inplikaturiko subjektuak eskubideen titular gisa onartzen al dira? Eskubide indibidualak zein kolektiboak eza-gutzen al dituzte?

Inplikaturiko biztanleriak ba al daki zein diren eskubideen agente bermatzaileak eta zein eskubide dituen?

Gabeziaren bat detektatzen al da interes-taldeen gaitasunetan beren eskubideak eskatu eta erreklamatzeko?

Aztertutako al dira zein diren egungo ildoak xede-biztanleriak bere eskubideak eska ditzan?

Ba al da estrategiarik bermatzeko lortutako eskubideak indarrean jarrai dezatela eta horien errespetua, sustapena eta defentsa zaindu behar duten erakundeek hori egin dezatela?

Ba al da eskubideen urraketa salatzeke edo eskubideak bete daitezela zaintzeke antolaturiko mugimendurik? Beste agente batzuekin artikulatzen al dira mugimendu horiek?

La Esperanzako arazoan zuhaitzean, aurkitzen dugu detektaturiko zenbait arazo gizonen eta emakumeen eskubide jakin batzuk egikaritzearen defizitarekin lotuta daudela. Esaterako,

Osasunerako eta elikadurarako eskubidea

- Arnas gaixotasunen eragin handia, batez ere emakumeen artean.
- Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan.
- Ezinduen eta beste talde kalteberenen osasun-premia espezifikoak ez dira aintzat hartzen.
- Herriko agintariek ez dute plan espezifikorik ingurunean osasunerako arreta hobetzeko.

Hezkuntzarako eskubidea

- Biztanleriaren kualifikazio-maila oso baxua da.
- Emakumeek dute analfabetismo-indize altuena.
- Mutilak baino urte gubxiago egoten dira eskolan neskak, sozialki familia-lanean lagundu behar dutela uste baita.
- Hezkuntza-curriculumak ez dago testuinguruaren kultura- eta hizkuntza-errealitatera egokituta.

Parte hartzeko eskubidea

- Ez dago parte hartzeko itunduriko gunerik biztanleria antolatuta, gizon eta emakume, bere eskararak adieraz ditzan.

Emakumeen eskubide ekonomikoak

- Emakumeek nekazaritzan egiten dute lan eta ez dute diru-sarrerarik jasotzen.
- Emakumeek ezin dute lortu lantzen duten lurraren titulartasuna.

Ingurumen-eskubideak

- Atzerriko egur-enpresak zuhaitzen abusuzko mozketak egin du.

Premia guztiak funtsezko eskubideekin daude lotuta, eta betetzen ez badira, La Esperantzako subjektuen garapenean eragiten dute. Horrela, udalerrian arreta sanitario eskasa egoteak pertsonak gaixotasun gehiago izatea eragiten du, eta bitartekorik ez izatea pertsona horien osasun-arazoak behar bezala atenditzeko. Biztanleriaren geruza guztiak hartuko ditu horrek eraginpean: haurrek gaixotasun eta infekzio gehiago izatea eragingo du, eta gehiagotan huts egingo dute eskolara, eragina izango du, halaraber, helduengan, gehiagotan gaixotuta produkzio-errendimendu txikiagoa izango baitute, pertsonen bizi-esperantza murriztuko du, eta abar.

Illo horretan, La Esperantzako arazoen zuhaitzean gabeziak islatu dira ezintasunen bat dutenak eta talde kalteberenak eraginpean hartzen dituzten osasun-eskubideei dagokienez. Gehienbat emakumeak eraginpean hartzen dituzten arazoak ere ikusten dira. Bi gauza dakartzalako da hori garrantzitsua:

- Azterketa bereizi bat egin dela, arazo bakoitzak xede-biztanleriaren talde bakoitzeko gizon eta emakumei desberdin eragiten diela, talde kalteberenak barne.
- Agerian geratu eta kontuan hartu direla biztanleria-talde guztien osasun-arazo espezifikokoak, kalteberenak eta emakumeak barne, beren sexu- eta erreprodukzio-eskubideei buruzko arazoak izan ditzaketanak.

Hezkuntza- eta prestakuntza-premiak ere detektatu dira. Kasu horretan, parte hartzeko itunduriko gunean behar direla esplizitatzen da, non kolektibo guztiek hartuko duten parte, baita kalteberenek eta tradizionalki baztertutakoek ere.

Beste funtsezko gai bat zera da, emakumeen eskubide ekonomikoak bermatzen ez direla detektatu izana, problema gisa identifikatu baita nekazaritzan lan egiten dutela baina ez dutela luraren titulartasuna lortzeko aukerarik, ezta diru-sarrerarik jasotzen ere. Gertakari hori "berezkotzat" har zitekeen, zabalduko ohitura baita emakumeek ekonomikoki balioesten ez diren zeregin batzuk betetzea. Dena den, arazo bezala agertzeak esan nahi du emakumeek eragozpen gisa identifikatu dutela eta askatasunez adierazteko aukera izan dutela premiak identifikatzeko prozesuan.

Azkenik, ingurumen-eskubideekin loturiko arazoak ere bereizten dira, arazoen zuhaitzean adierazten baita atzerriko zuren enpresa batek zuhaitzen mozketa masiboa egiten duela. Gertari horrek La Esperanzako gizon eta emakumeen ingurumen-eskubideak zuzenean urratzen ditu, beren baliabide naturalak kaltetuta ikusiko baitituzte, eta zuhaitzen mozketa masiboak eragingo duen deforestazioaren ondorioak pairatuko dituzte (uholdeak eta bestelako hondamendi naturalak, esaterako).

Iraunkortasun ekologikoa

Iraunkortasunari dagokionez, honako galdera hauek planteatu ditzakegu:

Ingurumen-arazoren bat identifikatzen al da: baliabide naturalak baliatzeko aukerarik eza, baliabide-mendetasuna, ingurumen-hondamendiekiko kalteberatasuna, deforestazioa, eta abar?

Aztertzen al da nola hartzen dituzten eraginpean ingurumen-arazoak interes-talde guztiak, batez ere emakumeak, kolektibo kalteberak eta tradizionalki baztertuak?

Xede-biztanleriak ikuspegi kritikoa al du ingurumen-arazoen gain? Ba al da posizionamendu politikorik eredu alternatiboak planteatzen dituenik?

Ba al da kolektibo edo mugimendurik ingurunearen ahalduzko-prozesurik hasi duenik?

Gabeziak detektatzen al dira interes-taldeetako gizon eta emakumeen gaikuntzan ingurumen-gaiei dagokienek: baliabideak erabiltzea, energia, produkzio modu iraunkorrak, eta abar?

Detektatzen al dira ingurumen-inpaktu negatiboa dakarten jarduerak?

La Esperanzako arazoen zuhaitzean baliabide naturalen zaintzarekin eta gai horren inguruan biztanleriaren gaikuntzarekin loturiko arazoak islatu dira, honako gabezia hauek adierazten baitira:

- Erabilera intentsiboetatik pobreturiko lurra.
- Lurrak, haziak, eta abar zaintzeko emakumeek dituzten ezagutza tradizionalak eta iraunkorrak ez dira balioesten.
- Bertako labore barietateen berri ez jakitea.

- Biodibertsitate-galera, gutxi dibertsifikaturiko laborantza.
- Efizientzia baxuko eta iraunkorrak ez diren laborantza-teknikak erabiltzea.
- Etxebizitzetan egur-sukaldeak erabiltzen dira.
- Egur-sukaldea erabiltzeak emakumeen osasunerako dituen kalteak ez dira ezagutzen.
- Atzerriko egur-enpresa batek zuhaitzen mozketa masiboa egin du.

Ilido honetan, La Esperanzako gizon eta emakumeen hainbat gairi buruzko ezagutzak sendotzeko helburu, emaitza eta jarduerak planteatu beharko dira, hala nola lurra zaintzea, bertako labore alternatiboak, baliabideen kudeaketa iraunkorra, teknologia egokiak erabiltzea (laboreetan zein elikagaien prestaketan), eta abar. Ezagutza kritikoarena izan beharko du ikuspegiak, eta gai praktikoak ikasteaz gain, go-goeta ere ahalbidetu beharko da arazoen kausei eta garapenaren eta iraunkortasunaren arteko erlazioari buruz.

Berriz ere nabarmentzen da espezifikoki emakumeekin loturiko gaiak detektatzeko garrantzia, hala nola haien ezagutzak ez balioestea eta egur-sukaldeek osasunean dituzten eraginak. Emakumeek prestatzen dituzten janariak, eta, horrenbestez, beste inor baino gehiago daude kozinatzeako sistema horren kalteen eraginpean. Zuhaitza egituratuta dagoen bezala, ikus daiteke kozinatzen dutenak emakumeak izatea zuzenean dagoela lotuta egur-sukaldeak erabiltzen jarraitzearekin: ez dira jabetzen horrek beren osasunari eragiten diola, ez dira kexatzen eta ez dute alternatibarik ezagutzen, ezta bilatzen ere.

Bestalde, atzerriko zur-enpresa batek zuhaitzen mozketa masiboa egiten duela-eta detektaturiko arazoa nabarmentzen da. Arazo horren identifikazioaren ondorio izango dira arazo hori aztertzeako helburu, emaitza edota jarduerak, hala nola biztanleriaren antolamendua sustatzea biztanleen ingurumen-eskubideen defentsan.

III.2.5. Helburuen zuhaitza

Proiektuak haren gainean eragin nahi duen errealitatea xehetasunez definituta daukagunean, biztanleriaren lehentasunetako premiak egituratuta eta horiek azaltzen dituzten kausazko erlazioak ezarrita, proiektuarekin lortu nahi dugun errealitatea marrazteko unea iristen da.

Arazoen zuhaitzean deskribaturiko premien mapa oinarrituta, hurrengo urratsa deskribaturiko arazoei konponbide posibleak planteatzea izango da, argumentu errealistak izateko ekintza-estrategia zehatzak aukeratzeko orduan.

1. Arazoak helburu bihurtzea

Fase honetan, arazoen zuhaitzean deskribaturiko arazoak –egiazko egoera negatibo gisa formulaturikoak– helburu bihurtzen ditugu, lorturiko egoera positibo gisa formulatuta.

Helburuen zehaztea garatzeko gakoa zera da, arazoaren zehaztean oinarritzea eta bertan definitu dugun egoera negatibo bakoitzari "buelta ematea". Egiatzko egoera negatiboak egoera positibo gisa planteatzea da asmoa.

Proposamen metodologikoak

- Zehaztean bildu beharreko helburuak jada lorturiko egoera positibo gisa formulatzen dira, eta helburuen zehazteak egoera definituko du, betiere proiektua burutzen dugunean hura egotea nahi dugun egoeran.

Esango dugu: Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan

Honako hau esan beharrean: Biztanleria gaitzea nutrizioaren arloan

- Helburu bakoitza txartel itsaskor batean, eta paretan itsastan da sortu den arazoaren leku baliokidean, helburuen zehaztea arazoaren zehaztea egin izan den modu bereberetan egiteko moduan.
- Helburuak idazteko aukera ugari daude, eta ez dago arau zorrotzik horretarako, baina gomendatzen dugu termino negatiboaren ordez haien baliokide positiboak aldetarik gabe aldatzea soilik ez mugatzea, eta, aitzitik, gomendatzen dugu prozesu edo ekintza bat eskatzen duten egoera gisa idazteko ahalagin bat egitea.

Esango dugu: Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira

Honako hau esan beharrean: Biztanleriaren desnutrizio-maila baxuak

Argi geratzen da arazoak helburu bihurtzea ez dela idazkuntza-kontu bat, kontua ez baita positiboan itzultzea negatiboan deskribaturiko egoerak. Arazoak helburu bihurtzeko, planteatu behar dugu posible diren egoera guztien artean zein gaineratuko dugun helburuen zehazteak.

Helburuen zehazteak ekintza-estrategia posible guztien eskema bat agertzen du proiektuaren esparruan, eta bertan biltzen diren aukerak oso posibilitate gutxi dituzte proiektuaren jardueren artean isolatuak egoteko. Horrela, helburuak formulatzea zehazteak gaineratzeko proiektuaren jarduerak jokaleku gisa izango dituzten ildoak markatzea da.

Adibidea

Hori nabarmen geratzen da arazoaren transformazioan, "Bitartekariak produktuen prezioak finkatzen dituzte".

Aukera posible guztien artean, La Esperanzako subjektuek erabaki dute helburua formulatzea "antolatutako produktoreek produktuen prezioak markatzen dituzte" gisa. Formulazio hori jarrera hartzea da argi eta garbi, eta baldintzatu egiten du zein izango den proiektuaren jardueren zati handi bat.

Ez da ariketa mekaniko bat eta, aitzitik, erabaki bat eskatzen du, kontzienteki hartu beharrekoa. Une honetan, garrantzitsua da bideratzailearen zeregina, izan litezkeen gatazkak maneiatzeko gai izan behar baitu, eta erabakia orientatzeko gai ere bai, pertsona eta talde guztien premia eta interesei erantzuteko, kalteberenak barne.

2. Helburuak bitarteko-xede erlazioaren arabera egituratzea

Arazoak helburu bihurtzean, arazoen zuhaitzean planteaturiko kausa-efektu erlazioa bitarte-xede erlazio bihurtzen da helburuen zuhaitzean. Arazoen zuhaitzean elementu bakoitzak justu azpian hura azaltzen zituen kausak eta justu gainean haren ondorioak bazituen, helburuen zuhaitzean, aldiz, elementu bakoitzak justu azpian ditu lortu izateko behar diren bitartekoak eta justu gainean horiek lortzeko laguntza eskaintzen duen xedeak.

Arazoen zuhaitzean kausa-efektu erlazioak ezarri badira, zuhaitza osatzen duen elementu bakoitza helburu bihurtutakoan, proiektuak lortu beharreko helburuen egituraketa lortuko da, sinple eta zehatzekin hasi eta konplexuenekin buka. Helburu horiek euren artean lotuta daude, eta sinpleenak (zuhaitzaren beheko aldean daudenak) dira bitartekoak konplexuenak lortzeko, hau da, xedeak, betiere zuhaitzean gora eginda.

Garrantzitsua da arazoen zuhaitza egin izan den egiturari eustea, helburu bakoitza dagokion arazoak zeukan kokapenaren arabera kokatuta dagoela. Horrela baino ez da beteko dagokion baldintza, hots, helburu bakoitza hori lortzeko beharrezkoak diren bitartekoekin eta haietarako laguntza eskatzen duen xedeekin lotuta egotea.

Erlazio hori zuzena dela egiaztatzeko, badira zenbait "trikimailu" erabilgarriak direnak definituriko arazo-artearen bitarteko-xede erlazioak ezartzeko:

- Galdetu nola? definitu dugun helburu bakoitzari
- Egiaztatu "-ez...(bitartekoa), orduan...(xedeak)" formula betetzen ote den

3. Zuhaitza osatzen duten bitarteko eta xedeak gaineratzea

Helburuen zuhaitza osatzeko ez da nahikoa arazoen zuhaitzak marraztutakoarekiko egitura paralelo bat ezartzearekin, eta, aitzitik, ekintza-estrategia posibleen panorama egituratu batek eskatzen du helburu bakoitzak berekin izatea hori lortzeko bitartekoak eta horiek lortzeko xedeak.

Horrela, detektaturiko arazoetan inspiratutako helburu guztiak zuhaitzaren egitura logikoaren arabera kokatutakoan, ezinbestekoa da ziurtatzea bitarteko guztiak taxutu direla xede bakoitza lortzeko. Horretarako, nola? galdetu behar diogu helburu bakoitzari, zuhaitzera erantzun gisa sortzen diren helburuak gaineratuta, bitarteko guztiak osatzen ditugun bitartean.

4. Arazoak "konponbiderik gabe" mantentzea

Arazo guztiak ezin dira modu errealista batean helburu bihurtu. Arazoak helburu gisa formulatzea zera dakar, arazoa konpontzeko aurreikusitako ekintzak burutzean lortuko den egoera aurreratzea. Baina egoera guztiek ez daukate konponbide bat garapenerako lankidetzaproiektu baten hedadura soilik hartzen duena, proiektu hori anbizio handikoa izanda ere. Nazioarteko politikarekin, aldagai ekonomikoekin, fenomeno klimatologikoekin edo egoera "endemikoekin" loturiko arazoen konponbidea ez dago lankidetzaproiektuen hedaduran.

Modu errealistan helburu bihurtu ezin diren arazoak sortzen direnean, dauden moduan eramango dira helburuen zuhaitzera, konpondu ezin ditugun arazo gisa formulatuta, baina ezin ditugu inola ere ahaztu.

Adibidea

Arazoen zuhaitzean honako hauek gaineratu baditugu: "El Niño fenomenoak uztak hartzen ditu eraginpean", formulazio berari eutsiko diogu helburuen zuhaitzean, ez baitago gure esku arazoa konpontzeko estrategia-rik planifikatzea.

Kasu praktikoa

La Esperanzara itzuliko gara Arazoen zuhaitzean bilduriko zenbait arazo hartuko ditugu, egiazko egoera negatibo gisa formulaturikoak eta loturiko egoera positibo bihurtuko ditugu:

Horrela, **arazoa**:

Desnutrizio-maila altuak, batez ere emakumeen kasuan

Helburu bihurtuko da:

Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira

Arazoa:

Diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira

Helburu bihurtuko da:

Diru-sarrera pertsonalak handiagotzen dira

Arazoa:

Nekazariak beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak oso baxuak dira

Helburu bihurtzen da:

Nekazarien diru-sarrerek gora egin dute beren produktuak saltzeagatik

Biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da		
Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira, batez ere emakumeen kasuan		
Barne-produkzioak oinarritzko dieta bat bermatzen du	Diru-sarrera pertsonalak handiagotzen dira	Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan

Eta horrela, arazo bakoitza helburu bihurtzen da, eta helburuen zuhaitza egituratuta, honako emaitza hau lortuz:

Biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da				
Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira, batez ere emakumeen kasuan				
Barne-produkzioak oinarritzko dieta bat bermatzen du				
Nekazaritza-produkzioa dibertsifikatzen da	Lurraren produktibitateak hobera egin du			
Nekazariak bertako laborantza mota berriak ezagutzen dituzte	Laborantza-teknika eraginkorrak eta iraunkorrak gehitu dira	Lurraren kalitatea hobetzen duten teknikak erabiltzen dira	Lurrak, haziak eta abar zaintzeko emakumeek dituzten ezagutza tradizionalak eta iraunkorrak balioesten dira	Atzerriko zurenpresak zuhaitzen mozketan masiboa murriztu du

Biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da					
Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira, batez ere emakumeen kasuan					
Familiaren diru-sarrerak handiagotzen dira					
Nekazarien diru-sarrerak gora egin dute beren produktuak saltzeagatik		Komunitatean diru-sarreraren iturri alternatiboak sortu dira			
Antolatutako produktoreek produktuen prezioak markatzen dituzte		Alternatiba produktiboak martxan jartzen dira		Emakumeen diru-sarrerak eskuratzen dituzte beren nekazaritza-lanagatik	
		Nekazaritza-produkzioaren zati bati balio erantsia gehitzen zaio			
Biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da					
Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira, batez ere emakumeen kasuan					
Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan					
Biztanleriaren prestakuntza-mailak hobera egin du				Biztanleria nutrizioaren eta osasunaren arteko harremanaren inguruan kontzientziatu da	
Oinarritzko ikasketak amaitzeko indizeak gora egin du, batez ere emakumeen indizeak		Ikasketak izan eta udalerritik joaten diren pertsonen kopuruak behera egin du		Nutrizioaren arloko trebakuntzak ematen dira eta hezkuntza formalean nutrizioari buruzko edukiak gehitzeko proposamenak egiten dira	
Gurasoak kontzientziatzen dira haurren hezkuntzaren garrantziaren inguruan	Eskola-garraioaren sistema bat antolatzen da				
Arnas gaixotasunen eraginak behera egin du, batez ere emakumeen artean					
Etxeko ohitura osasungarriagoak					
Biztanleriaren kualifikazio-mailak hobera egin du				Etxebizitzetan sukalde hobetuak sartzen dira	
Oinarritzko ikasketak amaitzeko indizea oso baxua da	Proposamenak egiten dira hezkuntza-curriculumaren komunitatearen kultura- eta hezkuntza-errealitateari egokitzeko	Analfabetismo-indizeak behera egin du emakumeen artean	Elikagaien prestaketa familia osoaren ardura gisa hartzen da	Zur-sukaldea erabiltzeko emakumeen osasunerako dituen kalteak ezagutzen dira	Zur-sukaldeentzako o alternatibak ezagutzen dira
Gurasoak kontzientziatzen dira haurren hezkuntzaren garrantziaren inguruan	Eskola-garraioaren sistema bat antolatzen da	Hezkuntza-politikak oso zentralizatuta daude	Nesken batez besteko eskolatzekoaldia gora egin du	Emakumeak antolatuta daude eta beren eskubide espezifikoak defendatzen dituzte	

Arnas gaixotasunen eraginak behera egin du, batez ere emakumeen artean		
Osasun-arretak eta –asistentziak hobera egin du		
Osasun-zentroak ekipamendu egokia du	Zentroko langileak gaitzen dira eta laguntzeko langileak sortzen dira	Ezinduen eta talde kalteberenen premiak Zentroaren jardun-protokoloan barne hartuta daude
Tokiko agintariek ekintzak planifikatzen dituzte ingurunean osasunerako arreta hobetzeko		
Biztanleria antolatuak, gizonak eta emakumeak, udal-agintariekin adostutako espazioetan parte hartzen du		

Zehar-lerroak helburuen zuhaitzean

Arazoen zuhaitzean bezala, ziurtatu behar da helburuek proiektura gaineratu ditugun zehar-lerro guztiak bildu dituztela. Arazoen azterketa sakona egin da zehar-lerro bakoitzaren ikuspegitik begiratuta, guztiak kontuan hartuko direla bermatzeko, helburuen azterketa sinplea izango da, zuhaitza osatzen duten arazo guztietarako helburu jakin bat ezarri dela egiaztatu beharko da soilik.

Horrenbestez, lerro guztietarako baliozkoa izango den galdera bakarra honako hau litzateke:

Uztartzen al dira helburuak detektaturiko arazoekin?

La Esperanza, erlazio koherentea dago arazoen zuhaitzean ikusi diren detektaturiko premien eta helburuen zuhaitzean planteaturiko helburuan artean. Bi figura simetriko dira, bata negatiboan eta bestea positiboan.

Esaterako, **arazo** honen aurrean:

Bertako labore alternatiboen berri ez jakitea

Honako helburu hau planteatzen da:

Nekazariak bertako labore barietate berriak ezagutzen dituzte.

Edo **arazo** honen aurrean:

Ez dago itunduriko partaidetza-espaziorik biztanleria antolatuak, hau da, emakumeek eta gizonen herriko agintariei beren eskaerak adierazteko

Honako helburu hau planteatzen da:

Biztanleria antolatuak, gizonak eta emakumeak, udal-agintariekin itunduriko gunetan parte hartzen du

Helburuen zuhaitzak detektaturiko premia bakoitzerako helburuak planteatzen dituela egiaztatutakoan, premia eta helburuak lehenestea da hurrengo urratsa eta proiekturako estrategia bat hautatzea.

Identifikatzeko eta lehentasuna emateko prozesu horretan lau zehar-lerro ere gaineratu behar dira, baita proiektuan inplikaturiko erakundeen politika eta estrategiak ere, haien ekintza-lerro eta estrategien eta proiektuenaren artekoen koherentzia bermatuta.

Plangintzako ideia nagusiaren elaborazio-fasean ziurtatu egin beharko da formulatzen diren helburu, emaitza eta jardueren artean lehentasuna emandako premia guztiak aztertu ahalko dira.

III.2.6. Estrategien azterketa

Estrategien azterketa azken urratsa da proiektu bat identifikatzeko fasean. Azterketa hori amaitutakoan, proiektuaren formulazio-fasea hasteko prest egongo gara.

Arazoen zuhaitza egitean, zenbait *adar* marraztu ditugu bertan, komunitatean detektaturiko arazoei jarraiki definituriko helburuekin uztartzen direnak. *Adar* horietako bakoitza xede zehatzagoetan luzatzen da, eta horiek lortzeko beharrezkoak diren bitartekoetan. Aldi berean, *adar* bakoitza, proiektuaren helburu orokorrari helduta dago, zuhaitzaren goiko aldean agertzen dena, eta *adar* bakoitzak laguntza eskaintzen du hura heltzeko.

Eskuliburu honen hasieratik aurkezturiko proiektuaren definiziotik kontuan hartu da proiektu baten hedadura-ahalmena mugatua dela betiere. Hau da, proiektuak jartzen dira martxan, lehentasunezko premiei erantzunda, pertsonak eta herriak eraldaketa-subjektu izateko duten ahalmena hobetzeko, eta epe luze-rako garapen-prozesuei laguntzeko. Baina bakarka kontuan harturiko proiektu bakoitzaren bidez ezinezkoa da xede-biztanleriak lehentasunezko gisa sentitzen dituen premia guztiei erantzutea.

Pertsona eta talde bakoitzaren premiek oso faktore desberdinei erantzuten diete eta mota desberdineko gaiekin lotuta daude. Horregatik, herri batek lehentasunezkozat sentitzen dituen premien egituraketa ezartzeko edozein saioen emaitza errealitatearen errepresentazio konplexua izango da.

Arazoen eta helburuen zuhaitzaren metodologiaren bidez, helburu, bitarteko eta xedeen egiturak lortzen dira, oso esparru desberdinak dituzten premiei buruzkoak, eta sarritan oso zaila litzateke horiek osorik aztertzea proiektu berean. Osorik aztertzea bideragarri ez dirudien helburu eta estrategien egituraketa baten aurrean plangintza alde batera utzi beharrean, ekintza-estrategia posible guztien artean aukeratzeko gaitasuna izan behar dugu.

Era berean, pertsonak beren garapeneko subjektu izateko gaitasuna hobetzeko martxan jarritako estrategien artean, jardun posibleetako asko bideraezinak gerta daitezke, proportziorik gabeak, gutxi gomendagarriak, inkoherenteak izan daitezke komunitatearen garapen-planekin edo gure gaitasunak gaindi ditzakete, besterik gabe.

Hori horrela, proiektu gehienetan, helburuen zuhaitza definitutakoan, **estrategien azterketa bat egin behar da.**

Estrategien azterketa helburuen zuhaitza osatzen duten *adarren* artean konparazio bat egitean datza, eta proiektuan inplikaturiko biztanleria guztiaren eztabaidaren bidez ezartzea lan-estrategia posible guztien artean zein den, horietako bakoitza *adar* batek ordezkatzeko duela, proiektuaren ekintzak bilduko dituenak. Aukeratuak adarrean goiko aldean dagoen helburua izango da proiektua markatuko duena eta helburu orokorrera hurbiltzea ahalbidetuko duenez, zuhaitzaren adaburuan dagoena.

Estrategia egokiaren aukeraketa hainbat faktoreren mende dago, hainbat elementurekin zerikusia daukatenak, hala nola proiektu mota, proiektuan inplikaturiko pertsonen egoera, tokiko garapen planak, plana garatzen deneko testuinguruaren ezaugarriak, identifikazio-prozesua, formulatzen duenaren posizioamendua, eta abar. Ezinbestekoa da, edozein kasutan ere, aukeraketa behar bezala justifikatuta egotea, eta proiektuan inplikaturiko pertsona guztiek ulertu eta partekatzea jardun-estrategia bat eta ez gainerakoak hautatu izanaren arrazoiak.

Estrategien hautaketa desberdina da proiektu eta komunitate bakoitzerako, eta alderdi desberdinen mende dago kasu bakoitzean, baina zenbait kontuan hartu beharrekoak dira betiere:

- Baliabide erabilgarriak, alternatiba posibleen artean beti izaten baitira ekintza-estrategia batzuk egingarriagoak direnak baliabide mugatuekin, eta beste batzuk, aldiz, betiere gure esku ez dagoen baliabide tekniko, ekonomiko eta giza baliabideen inbertsio bat eskatzen dutenak.
- Funtsezkoa da bideragarritasunerako eta iraunkortasunerako inplikazioak kontuan hartzea baliabideen erabileran¹⁰.
- Xede-biztanleriaren gaitasunak, eta beren komunitateetan aldaketa-prozesuen protagonista izateko dituzten aukerak. Garrantzitsua da proiektuaren prozesura gaineratzea biztanleria eta herriko agintariak artikulatzeko baliagarri diren erakundeak.
- Xede-biztanleriaren prozesu propioak. Herri guztiek badute antolamendu-maila bat, etorkizunean hartara jo beharreko garapen- eta plangintza-ereduaren definizio-maila bat, eta, hori horrela, proiektua burutzeko aukeraturiko ekintza-alternatibak modu koherentean kokatu behar dira xede-biztanleriak definituriko garapen-planetan.
- Parte hartzeko duten erakundeen esperientzia eta ezagutzak, proiektuetako prozesuak babesten dituzten entitateek bere ibilbide propioa baitute, eta jardun-esparru jakinetan daude espezializatuak.
- Esku-hartze bakoitzak inplikatzeko duen denbora, zenbait esku-hartzek epe laburrerako emaitzak dituzten jardunak eskatzen baitituzte, eta beste batzuetarako, aldiz, prozesu luzeak ezar daitezke emaitzak lortzeari dagokionez.

¹⁰ Ikus "Bideragarritasunerako eta iraunkortasunerako inplikazioak baliabideen erabileran" koadroa. 147. or.

- Testuinguru soziopolitikoa, zenbait jardun gutxi-asko gomendagarriak baitaude une historikoen, giro politikoen, ziklo ekonomikoen, egoera gatazkatsuen edo beste faktore batzuen arabera, proiektu baten emaitzak konpromisoan jar ditzaketenak.
- Ekintzen lehentasunezko izaera, ezen, premia guztiak erantzun beharrekoak badira ere, badira zenbait lehentasunez estali beharrekoak nahitaez, hala nola oinarrizko premiekin loturikoak.
- Ekintza jakin horietan zuzenean inplikaturiko xede-biztanleria, komunitate guztietan baitaude zenbait talde kalteberatasun-egoera handiagoan dauden taldeak, eta talde horien gain izandako estrategiek lehentasuna behar dute izan bestekikiko.
- Testuinguruaren garapen-planak eta inplikaturiko erakundeen politika eta lerro estrategikook.
- Iraunkortasun-aurreikuspenak, proiektuaren emaitzak etorkizunean bere horretan eusteko aukerei buruzkoak
- Inpaktu positibo eta negatiboak, aurreikuspenen arabera efektu positiboak izango dituzten estrategiak aukeratzeko lagungarri izango direnak, planifikatuz haratago, eta lagungarri izango direnak, halaber, planifikatu gabeko efektu negatiboak izan ditzaketen estrategiak baztertzeko.
- Planifikaturiko ekintzen bideragarritasuna, oso eraginkorrak izan daitezkeen eta lehentasunezko zatihar daitezkeen zenbait jarduerak aukera gutxi baitute beren helburuak baliabide erabilgarriekin lortzeko. Edo kontrako posizionamendu politikoa izan dezakete testuinguruan ezarritako plan eta politiketikiko.

Kasu praktikoa

La Esperanzako komunitatera itzuliko gara.

Identifikazio-prozesutik sorturiko helburuen zuhaitzen adaburuan, helburu orokorra dago:

Biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da

Helburu orokorraren azpian, zuhaitzaren adaburu-lanak egiten dituenaren azpian, zuhaitzaren adar gisa jarduten duten bi helburuak daude:

Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira

Arnas gaixotasunen eraginak behera egin du

Bi adar horietako bakoitzak jardun-estrategia bat laburbiltzen du, eta hainbat emaitza eta jardueraren bidez luzatzen da, beharrezko bitarteko bihurtzen direnak estrategia bakoitzak funtziona dezan.

A. estrategia

Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira					
Barne-produkzioak oinarritzko dieta bat bermatzen du		Diru-sarrera pertsonalak handiagotzen dira		Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan	
Nekazaritza-produkzioa dibertsifikatzen da	Lurraren produktibitatea hobera egin du	Produktoreen diru-sarrerek gora egin dute produktuen salmentagatik	Diru-sarreren iturri alternatiboak sortzen dira	Biztanleriaren prestakuntza-mailak hobera egin du	Biztanleria nutrizioaren eta osasunaren arteko harremanaren inguruan kontzientziatu da

Biztanleriaren desnutrizio-mailen murrizketari buruzko *adar* batetik ateratzen da, eta beharrezko bitartekoak garatzen ditu desnutrizioaren murrizketa gerta dadin, guztiak ere gai espezifikoekin loturikoak, hala nola nekazaritza-produkzioa, familiaren diru-sarreraren hazkundea edo desnutrizio-arloko gaikuntza. Bitarteko horiek jardunare espezifikoagoetan garatzen dira, nekazaritza-dibertsifikazioari, lurraren produktibitateari, diru-sarrei, prestakuntzari edo osasunean nutrizioak duen garrantziaz kontzientziatzeari buruz.

B. estrategia

Arnas gaixotasunen eraginak behera egin du			
Etxeko ohitura osasuntsuenak		Osasun-arretak eta -asistentziak hobera egin du	
Biztanleriaren prestakuntza-mailak hobera egin du	Etxebizitzetan sukalde hobetuak sartzen dira	Osasun-zentroak ekipamendu egokia du	Zentroko langileak gaitzen dira eta laguntzeko langileak sartzen dira

Arnas gaixotasunen murrizketari buruzko erreferentzia egiten duen *adar* batetik abiatzen da, eta horretarako beharrezko bitartekoak ezartzen ditu, etxeko ohituren eta arreta sanitarioarekin loturikoak. Gai horietako bakoitza gai espezifikoagoen bidez garatzen da, biztanleriaren prestakuntzari, sukalde hobetuak sartzeari eta osasun-zentroa ekipamendurekin, langileekin eta gaikuntzarekin babesteari buruzkoa.

A estrategia zein B estrategia xede-biztanleria protagonista izan duen identifikazio-prozesuaren ondoren definitu dira, eta biztanleria horrek lehentasunezkoztat sentitzen dituen premiei erantzuten diete biek ere. Bi ekintza-estrategien ondorioz, hobetu egingo dira La Esperanzako pertsonen bizi-baldintzak, bi kasuetan ere eurek aukeratu duten zentzuan, baina bi estrategien batura proiektu anbizioso eta konplexuegia da, udalerriaren eta hura babesten duen erakundearen gaitasuna gainditzen duena, eta

udalerrria eta erakundea beren burua hori kudeatzeko gai ikusten ez duten baliabideen bolumena eskatzen du. Horregatik, beharrezkoa da estrategiak aukeratzea:

Erabakia errazteko, funtsezkotzat jotzen ditugun faktoreak zehazten ditugu eta bakoitzari buruzko estrategiak alderatzen ditugu taula batean:

Irizpideak	A estrategia	B estrategia
Baliabideak		Inbertsio garrantzitsua behar du hezkuntzan, ekipamenduan eta pertsonal sanitarioan
Gaitasunak	Gaikuntzekin indartzen da biztanleriaren zeregina	
Erakundearen esperientzia	Esperientzia du produkzio-proiektuetan eta gaikuntza komunitarioan	Ez du esperientziarik proiektu sanitarioetan
Denbora	Nekazaritza-produkzioko eta nutrizio-kontzientziatzioko aurrerapausoak epe laburrerako dira Diru-sarrerak sortzeari dagokionez, epe ertainerako eta hezkuntza formalean epe luzerako	Sukaldeek epe laburrerako emaitzak dituzte, baina aurrerapauso sanitarioak eta hezkuntza-arlokoak epe luzerako dira
Testuinguru soziopolitikoa		Alkatetzako aldaketa egokia izan liteke udalerrriak bere gain har ditzan sanitateko eta hezkuntzako hobekuntzak
Ekintzen lehentasuna	Desnutrizioaren gaineko jardunak lehentasunezkoak dira	
Xede-biztanleria	Biztanleria osoari bideratuta daude ekintza guztiak	
Iraunkortasuna	Produkzioko eta diru-sarrera sortzeko ekintzek iraunkortasun handiagoa dute	
Inpaktuak	Bideragarritasuna	

La Esperanza burututako identifikazio-prozesuaren arabera, eta estrategien azterketan sortu diren argumentuak ikusita, proiektuaren ekintza-estrategia gisa A estrategia hautatzea erabaki da.

Une horretatik aurrera, estrategia hori laburbiltzen duen *adarra* izango da proiektuaren **helburu espezifiko**:

Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira, batez ere emakumeen kasuan.

Eta proiektuaren ekintza guztiak helburu hori lortzera bideratuta daude.

Aukeratutako estrategia edozein dela ere, proiektuaren helburu espezifikoa proiektuaren helburu orokorrera hurbiltzea ahalbidetuko duen pauso gisa hartuko da betiere:

Biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da.

III.3. Egingo duguna planifikatzea: Proiektuaren plangintzako ideia nagusia

Estrategien azterketaren bidez, helburuen zuhaitzaren *adarren* arteko bat hautatu da, eta proiektuaren helburu espezifikoa bihurtu da. Proiektuaren esparruan hasten diren ekintza guztiak, helburu espezifiko hori lortzeko bideratuko dira.

Proiektuaren helburu espezifikoa hautatuta, Esparru Logikoaren Ikuspegiak proiektuaren funtsezko elementu baten diseinua aurreikusten du: Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia (PPIN).

Proiektuaren funtsezko elementuen laburpen egituratu eta bete-betekoa da Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia, eta elementu horiek beren artean lotzen dituzten erlazioena. Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia proiektuaren *argazki* bat da, ekintzek jarraitu beharreko ibilbidearen plano bat, jarduerak abian jartzen direnetik helburu espezifikoa lortzen den arte. Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusian proiektuak lortu nahi dituen xedeak biltzen dira, horiek lortzeko aurreikusitako bitartekoak eta horretarako balia daitezkeen baliabideak.

Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusiak proiektuan inplikaturiko pertsona guztientzat erabilgarria izan behar duen erreminta da, eta hori aztertzeak lanak norantz doan ulertzeko baliagarri izan behar du. Baina baliagarria izan behar du proiektua ezagutzen ez duten pertsonentzat ere, eta Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia balia dezakeen edozeinek ulertu ahalko du aztertzearekin soilik zein diren proiektuan bilduriko lan-ildoak, jarduerak eta baliabideak. Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia lerro eta zutabeetan zatituriko taula da, non informazioa proiektuaren elementu bakoitzaren loturen arabera egituratzen den.

Esku-hartze logika	Adierazleak	Egiaztatze-iturriak	Hipotesia
Helburu orokorra			
Helburu espezifikoa	IHE:		
Eraitzak	1.IHE:		
	2.IHE:		
Jarduerak	Baliabideak	Kostuak	

11. irudia. Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologiaren proiektuaren plangintzako ideia nagusia

Proiektua identifikatzeko prozesua behar bezala garatu bada, Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia osatzeak lan erraza beharko luke izan, plangintza-ariketa bat *egin nahi duguna nola egingo dugun* erakutsiko duena.

III.3.1. Esku-hartze logika

Plangintzako Ideia Nagusiaren lehen zutabea Esku-hartze Logika da. Zer egin nahi dugun eta hori lortzea nola pentsatuta dugun laburbiltzen du. Lehen zutabe horretan identifikazioan proiektuaren elementuen artean ezarritako bitarteko-xede erlazioa islatzen duelako dauka izen hori, proiektuaren funtzionamendu-logika bat bete behar baita, eta horren arabera:



Esku-hartze logika hori Esparru Logikoaren Ikuspegiaren metodologiaren gakoa da, oinarritzat hartzen baitu xedeak argi definituz gero eta horiek lortzeko bitartekoak behar bezala garatuz gero, proiektuan arrakasta lortzeko aukera handiak daudela.

Identifikazio-prozesu egoki bat burutu bada, bitartekoen eta xedeen arteko erlazioak ondo definituta, esku-hartze logikaren zutabea Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia osatzea erraza izango da, helburuen zuhaitzaren maila bakoitza Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusiaren dagokion mailara eramatea bezain erraza.

Horrela, esku-hartze logikaosatzen duten elementuak honako hauek dira:

Helburu orokorra

Hartara hurbildu nahi garen garapen-helburua da. Epe luzerako helburuen erreferentzia egiten du, proiektu bakarrarekin heltzea aurreikusita ez daudenak, baina proiektua hartarako lagungarri izatea nahi dugu. Hainbat elementurekin loturiko garapen-helburuen erreferentzia egiten du, hala nola hezkuntzako, nutrizio, osasuneko eta abarrek indizeak hobetzea, edo xede-biztanleriaren pertsonen egoerako hobekuntza integralak.

Proiektuan bilduriko ekintzak helburu orokorra lortzeko bideratutakotzat hartzen dira, baina ez dira hori lortzeko kontzentratzen.

Esparru Logikoaren Ikuspegiaren arabera, helburuen zuhaitzaren goi-goiko aldean dagoena da helburu orokorra, zuhaitzaren adaburuarenak egiten dituen aldean, eta haren mende daude gainerako adarrak.

La Esperanzaren kasuan, helburu orokorra honako hau da:

Biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da.

Horrela, nahiz eta badakigun La Esperanzako proiektua martxan jartzearekin ez den lortuko biztanleriaren bizi-itxaropeena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzea, ziur gaude –betiere proiektua aurreikusita daukagun bezala ateratzen bada– desnutrizioa murriztea lortuko dela eta, horrela, bizi-itxaropena lortzeko lagungarria izango da.

Helburu espezifikoa

Hori da proiektuarekin lortu nahi den helburua. Proiektuan hasitako ekintza guztiak helburu espezifikoa lortzera bideratuta daude.

Aldaketa ekarri behar du inplikaturiko pertsonen errealitatean, eta hartara iritsi nahi den errealitatea laburbiltzen du.

Helburua argia, zehatza, definitua eta neurgarria da, eta betiere neurri zehatzak ezarri ahalko dira hura lortzeko. Nolabait ere, erantzun egokia izan beharko luke norbaitek proiektu hau zertarako egiten da? galdetuko balu

Helburu espezifikoa zera da, proiektuaren ahaleginak kontzentratzeko hautaturiko arazoan zuhaitzaren adarra. Helburu orokorrari lotuta dago, justu bere gainean dagoenari, baina batez ere helburuen zuhaitzean bere azpian dauden bitarteko guztiekin dago lotuta, hots, helburu orokorra bete dadin beharrezkoak diren horiekin.

La Esperanzako proiektuan, helburu espezifikoa honako hau da:

Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira, batez ere emakumeen kasuan.

Helburu espezifiko horren definizioarekin, argi geratzen da proiektuaren helburua La Esperanzako biztanleriaren artean desnutrizio-mailak murriztea dela, eta hasitako ekintza guztiak horretara bideratuko direla.

Emaitzak

Son los medios necesarios para que se cumpla el objetivo específico. Se trata de metas concretas que dan contenido al objetivo específico y que se deben alcanzar para que al finalizar el proyecto se cumpla el objetivo marcado.

Helburu espezifikoa bete dadin beharrezko bitartekoak dira. Helburu espezifikoari edukia ematen dioten helburu jakinak dira, eta bete beharrezkoak proiektua amaitzean ezarritako helburua betetzeko.

Identifikazio-fasea osorik garatu bada, helburu espezifikoa lortzeko beharrezko bitarteko guztiak definitu izango dira. Une horretan galdetu behar dugu, bitarteko guztiak aurreikusi al dira bete dadin? Erantzuna negatiboa bada, ezinbestekoa da Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusira aurreikusi ez diren emaitzak gaineratzea, Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia ez baita osatuta egongo proiektuaren amaieran helburu espezifikoa egia bihurtzeko beharrezkoak diren bitarteko guztiak islatuta ez dauden bitartean.

Helburuen zuhaitzean helburu espezifikoa osatzen duen adarraren justu azpian daude hori lortzeko beharrezko bitartekoak, hots, emaitzak.

La Esperanzako proiektuan, helburu espezifikoa betetzeko beharrezkotzat identifikaturiko, eta proiektuaren emaitzatzat hartzen diren, bitartekoak honako hauek dira:

- Barne-produkzioak oinarrizko dieta bat bermatzen du
- Diru-sarrera pertsonalak gehitzen dira
- Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan

Horrela, onartzen dugu janarien barne-produkzioa, diru-sarreraren gehikuntza eta nutrizio-arloko gaikuntza beharrezko bitartekoak direla La Esperanzako biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizteko. Orduan, aurreikusi egin dira beharrezko emaitza guztiak proiektuaren helburu espezifikoa bete dadin.

Horrela, Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusian esku hartzeko logikaren zutabea osatzeko, beharrezkoa izan den gauza bakarra helburuen zuhaitzean ezarritako bitarteko-xede erlazioak aldatzea eta esku-hartze logikaren arabera ezarritako erlazioaren arabera kokatzea izan da: emaitzak lortzen baditugu, helburu espezifikoa lortuko dugu eta helburu orokorrera hurbilduko gara.

Proiektuaren plangintzako ideia nagusia

Esku-hartze logika	
Helburu orokorra	Udalerriko biztanleriaren bizi-itzaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da.
Helburu espezifikoa	Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira, batez ere emakumeen kasuan.
Emaitzak	1. E.- Barne-produkzioak oinarrizko dieta bat bermatzen du. 2. E.- Diru-sarrera pertsonalak gehitzen dira. 3. E.- Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan.

Jarduerak

Eta nola lortzen dira emaitzak?

Emaitzak helburu espezifikoa lortzeko bitarteko gisa deskribatu dira, baina emaitzek ere beren bitarteko propioak behar dituzte emaitza horietara iristeko: jarduerak.

Emaitzak lortzeko proiektuan zehar burutu beharreko ekintza jakinak dira jarduerak.

Horrela, proiektuan aurreikusitako emaitzetako bakoitza jarduera jakin batzuk izan behar ditu ondorio, emaitza bakoitza betetzeko martxan jarri beharreko ekintzak.

La Esperanzaren kasuan, honako jarduera hauek aurreikusi dira emaitza bakoitzerako:

1. E. Barne-produkzioak oinarrizko dieta bat bermatzen du

1.1.J. Gizon eta emakume nekazariak honako gai hauen inguruan gaitzeko 3 tailer:

- Laborantza barietate berriak eta inguruarekiko duten egokitzapena.
- Produkzioko teknika iraunkorrak.
- Produktibitatea hobetzeko teknikak.
- Teknika tradizionalak.
- Merkaturatzea.
- Kudeaketa eta plangintza ekonomikoa.

1.2.J. Nekazaritza-tresnak eta inputak erostea.

1.3.J. Pertsonalizatutako produkzio-planak egitea.

1.4.J. Produkzio-planen jarraipena egitea.

1.5.J. Salaketa- eta gorabehera-batzorde bat sortzea zur-enpresaren jardueretan.

2.E. Diru-sarrera pertsonalak gehitzen dira

2.1.J. Emakume eta gizon produktoreak elkartuko dituen erakunde bat sortzea.

2.2.J. Merkatu-azterketa bat egitea ekonomia- eta produkzio-jarduera alternatiboen inguruan.

2.3.J. Bilketa-zentro baten egokitzapena.

2.4.J. Nekazaritza-produktuak saltzen dituzten erakundeekin hitzarmen bat ezartzea.

2.5.J. Udalerrian janari- eta alojamendu-zerbitzu bat martxan jartzea.

2.6.J. Ontziratze-sistema bat sortzea produktuak egoera hobean mantentzeko.

2.7.J. Labore organikoen produkzioaren % 30 hirian saltzeko erabiltzea.

3.E. Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan

3.1.J. Haurrak eskolara eramateko sistema bat antolatzea.

3.2.J. Komunitate bakoitzeko gurasoak beren haurrentzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.

3.3.J. Komunitate bakoitzeko gurasoak neskentzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.

3.4.J. Lanbide-heziketako zentro bat abian jartzea, honako alor hauetan gaitasuna duten eta oinarrizko azterketak bukatu dituzten gazteentzat: igeltserotza eta zurgintza, ostalaritza eta nekazaritza-produktuak merkaturatzeko teknikak.

3.5.J. Langileak eskatzen dituztenak eta lana bilatzen dutenak harremanetan jarriko dituen lan-poltsa bat egitea udalerrian.

3.6.J. Komunitate bakoitzeko gizonak eta emakumeak nutrizioaren eta osasunaren inguruan gaitzeko 3 tailer.

3.7.J. Proposamen-dokumentu bat egitea hezkuntza formalean nutrizioari buruzko edukiak gehitzeko.

Emaitza bakoitzari dagozkion jardueren definizioan, esku-hartze logika osatzen da, Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusiaren lehen zutabea beteta.

Esku-hartze logika

Helburu orokorra

Udalerriko biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da.

Helburu espezifikoa

Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira, batez ere emakumeen kasuan.

Emaitzak

- 1.€ Barne-produkzioak oinarrizko dieta bat bermatzen du.
- 2.€ Diru-sarrera pertsonalak gehitzen dira.
- 3.€ Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan.

Jarduerak

- 1.1.J. Gizon eta emakume nekazariak honako gai hauen inguruan gaitzeko 3 tailer:
 - Laborantza barietate berria eta inguruarekiko duten egokitzapena.
 - Produkzioko teknika iraunkorrak.
 - Produktibitatea hobetzeko teknikak.
- 1.2.J. Nekazaritza-tresnak eta inputak erostea.
- 1.3.J. Pertsonalizatutako produkzio-planak egitea.
- 1.4.J. Produkzio-planen jarraipena egitea.
- 1.5.J. Salaketa- eta gorabehera-batzorde bat sortzea zur-enpresaren jardueretan.
- 2.1.J. Udalerria osatzen duten komunitateetako emakume eta gizon produktoreak elkartuko dituen erakunde bat sortzea.
- 2.2.J. Merkatu-azterketa bat egitea ekonomia- eta produkzio-jarduera alternatiboen inguruan.
- 2.3.J. Bilketa-zentro baten egokitzapena.
- 2.4.J. Nekazaritza-produktuak saltzen dituzten erakundeekin hitzarmen bat ezartzea.
- 2.5.J. Udalerrian janari- eta alojamendu-zerbitzu bat martxan jartzea.
- 2.6.J. Ontziratze-sistema bat sortzea produktuak egoera hobean mantentzeko.
- 2.7.J. Labore organikoen produkzioaren % 30 hirian saltzeko erabiltzea.
- 3.1.J. Haurrak eskolara eramateko sistema bat antolatzea.
- 3.2.J. Komunitate bakoitzeko gurasoak beren haurrentzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.
- 3.3.J. Komunitate bakoitzeko gurasoak neskatilentzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.
- 3.4.J. Lanbide-heziketako zentro bat abian jartzea, honako alor hauetan gaitasuna duten eta oinarrizko azterketak bukatu dituzten gazteentzat: igeltserotza eta zurgintza, ostalaritza eta nekazaritza-produktuak merkaturatzeko teknikak.
- 3.5.J. Langileak eskatzen dituztenak eta lana bilatzen dutenak harremanetan jarriko dituen lan-poltsa bat egitea udalerrian.
- 3.6.J. Komunitate bakoitzeko gizonak eta emakumeak nutrizioaren eta osasunaren inguruan gaitzeko 3 tailer.
- 3.7.J. Proposamen-dokumentu bat egitea hezkuntza formalean nutrizioari buruzko edukiak gehitzeko.

III.3.2. Adierazleak

Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusiaren bigarren zutabea daude adierazleak.

Adierazleak seinale-lanak betetzen dituzte, proiektuaren helburu eta emaitzen lorpen-maila ezarrita. Proiektuaren garapenean aurreikusitako plangintza betetzen ari den neurtzea ahalbidetzen du eta, proiektua amaitutakoan, esku-hartze logika bete ote den.

Proiektuaren helburu eta emaitzak lortu beharreko gutxieneko maila gisa formulatzen dira adierazleak, aurreikusitakoa bete dela kontuan hartzeko. Partaidetza bidez formulatu behar dira, proiektuaren subjektu protagonistak inplikaturik, eta sexuaren arabera bereizi behar dira.

Proiektuaren egite-prozesuan emaitza bakoitza bete dadin beharrezkoak diren jardura guztiak definitu dira, eta beharrezko emaitza guztiak ezarri helburu espezifikoak lortzeko. Baina, zalantza saihesteko, eta hasieratik proiektuaren bilakaerari jarraipena emateko, hainbat seinale ezarri dira, helburu eta emaitzen lorpen zehatza ezartzea ahalbidetuko dutenak: adierazleak dira.

adierazleak *objektiboki egiaztagarriak* izan behar dute, hots, erraz ezagutzeko moduko seinaleak izango dira, eta horien lorpena irizpide jakin batzuekin neurtu ahalko da. Neurtu nahi duguna kuantifikatzea ahalbidetzen duen seinalea aurkitu behar dugu, eta adierazle egiazko eta zehatzak aurkitzeko ahalegi-na egin.

Adierazle egokiak proiektua ezagutzen ez duten pertsonari adierazlearen betetze-mailari buruz ohar nabari bat egitea ahalbidetzen die. Proiektutik kanpoko pertsona batek zer neurtzen ari garen uler dezake, ulertzen badu nondik atera behar den informazioa egiaztatzeko, eta gai ikusten badu bere burua ohar fidagarri bat egiteko adierazlearen betetze-mailari buruz, adierazle on bat denaren seinalea.

Adierazleak, baliagarriak izan eta objektiboki egiaztagarriak izateko, honako 4 galdera hauei erantzun behar diete:

- **Zer** neurtuko dugu?

Neurtu beharreko aldagaia zein den definitu behar dugu, betiere adierazlea aplikatuko zaion helburuarekin edo emaitzarekin erlazionaturikoa.

Neurtzekoak dira partaidetzaren kalitatea, jardueren gogobetetze-indizeak, heriotza-tasa, gaixotasunen eragina, lurraren produktibitatea, bileretara bertaratzeko, egindako gaikuntzak, argitaraturiko dokumentuak, landaturiko hektareak, produzituriko esne-litroak, jardueretan izena emandako pertsonak eta beste hainbat eta hainbat aldagai, baina aldagaiak elementu neurgarrietan eman beharko ditugu betiere.

- **Noren** gain neurtuko dugu?

Nor den neurtuko dugunaren subjektua, aldagaia haiengan aplikatuko dugun pertsona, baliabide edo elementuak. Ez du ezertarako balio aldagaia zein talderen gain aplikatuko dugun zehazten ez badugu

Hainbat faktore neur ditzakegu, hala nola haurren desnutrizioa landa-biztanlerian, gaixotasunek biztanlerian duten eragina, diru-sarrera maila familiarian, herri baten lurren produktibitatea, herriko emakumeen partaidetza,... Aldagai bakoitzerako subjektu desberdinak erabili ahalko ditugu, baina betiere neurriko aldagaiaren subjektua nor den ezarrita.

- **Zenbat** neurtuko dugu?

Adierazleak zifra jakin baten bidez eman behar dira, helburua edo emaitza lortu dela adierazten duen seinalea zein puntu minimotan ezartzen den aldez aurretik definituta betiere. Adierazlea helburuaren eta emaitzen lorpen-mailaren froga gisa ulertzen badugu, ezinbestekoa da ezartzea zer puntutatik aurrera uler dezakegun adierazlea lortu dela.

Ez du ezertarako balio herri baten *lur komunalen* produktibitatearen igoera neurtzen duen adierazle bat, finkatzen ez badugu zer igoera hartzen den proiektua funtzionatzen ari denaren seinale, % 0,5eko igoera gertatu bada proiektuak funtzionatu duela ulertzen al dugu? Produktibitatearen zer igoera-ehunekotik gora jotzen dugu proiektua arrakastatsua izan dela?

Adibidea

Pentsa dezagun urtegi batean uraren maila markatzen duten marrekin: Markak daude metro gutxi batzuetan behin, ura zein altueratan dagoen adierazten dutenak. Marka gorri bat dago hondotik hasi eta 3 metrora, eta hortik behera ondoko herria urez hornitzeko beharrezkoaren azpitik dagoela jotzen da. Era berean, marka beltz bat dago hondotik hasi eta 10 metrora, eta hortik gora gomendaturikoaren gainetik dago uraren maila, uholde-arriskuarekin eta guzti.

Nahikoa al litzateke esatea uraren maila egokia denaren adierazle dela uraren altuera? Edo ezinbestekoa al litzateke ezartzea uraren maila egokia dela jotzeko marka gorriaren eta beltzaren artean egon behar duela esatea? Uraren altuera aldagaia da, baina altuera egokia denaren adierazlea 3tik 10 metrora bitarte egotea da.

- **Noiz?**

Denboraldi egokia ezarri behar da adierazleak maila egokia lor dezan betetakotzat jotzen diren helburu eta emaitzak erdiesteko.

Azter dezagun La Esperanzako adibidearen adierazle bat:

1.2 IHE: Proiektua egikaritzeko lehenengo urtean, gaitutako gizonak eta emakumeak guxtienez 2 fruitu barietate eta 2 barazki barietate berri sartu zituzten norberaren kontsumorako beren produkzioan.

Azter dezagun aipaturiko lau galderei erantzuten ote dien:

- **Zer neurtzen dugu?**

Sartutako fruta eta barazki barietate berriak

- **Nor?**

Gaituriko gizon eta emakumeak

- **Zenbat?**

2 fruta barietate eta 2 barazki barietate berri

- **Noiz?**

Proiektuaren lehen egikaritzapen-urtearen ondoren

Lau oinarritzko galderetarako erantzuna izan dugunez, adierazlea baliozkotzat jo dezakegu.

Adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak

Formulaturiko adierazleek proiektuaren aurrerapausoak balioesteko alderdi kuantitatibo esanguratsuak neurtzeko balio beha dute, baita kualitatiboak ere, pertzepzioei eta jarrera-, portaera-, egoera- edo baldintza-aldaketei buruzko informazioa ematen dutenak.

Aurrerapauso kualitatiboak egiteko adierazleak formulatzea lan konplexuagoa da alderdi kuantitatiboak balioesteko egitea baino, baina adierazle kualitatiboak definitzen ez badira, funtsezko informazioa galtzen da proiektuaren kalitateari buruz. Horrenbestez, adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen formulazioa konbinatu behar dute proiektu guztiek.

Adibidez, udalerri bateko antolatze eta erabakitze guneetan parte hartzen duten emakume eta gizonen kopurua neur liteke eta balioetsi, horren arabera, aurreikusitakoekiko lorturiko aurrerapausoak. Baina ez da informaziorik lortuko emakume eta gizon horiek beren partaidetza nola egikaritzen duten, nola kokatzen diren gune horretan, parte hartzeko aukera errazten zaiela nabaritzen duten, emakumeak, talde kalteberak edo etnia edo erlijio minoritarioak nola sentitzen diren, guztiek aktiboki parte hartzen duten edo ez.

Alderdi kuantitatiboen termino beretan adierazleak formulatzea zailtzen duten elementu subjektiboak biltzen dituzte alderdi horiek. Dena den, proiektu batean esanguratsuak diren alderdi kualitatibo horietako asko objektiboki neurgarria den aldagai batean alda daitezke.

Proposamen metodologikoa

1. Zehar-lerroetarako adierazleak formulatzea: parte-hartzea, antolamendua, generoa, giza eskubideak, iraunkortasun ekologikoa.
2. Ahal denean, alderdi kualitatiboak objektiboki neurgarriak eta kuantifikagarriak diren adierazleetan aldatzea.

Adibidea: aurrerapausoak lortu nahi ditugu bere udalerriko politiketan talde etniko minoritario batek duen eragin-mailan. Horretarako, eraginaren gehikuntza zer gaitan nabari daitekeen aztertuko dugu:

- Beren interesak defendatzeko eta beren eskaerak planteatzeko antolaturiko mugimenduen zati diren talde etnikoko pertsonen kopuruaren bilakaera
- Talde etnikoaren premiei erantzuten dieten udal-proiektuen kopuruaren bilakaera
- Beren premiei erantzuten dieten udal-proiektuetan erabilitako diru-kopuruaren bilakaera

Elementu horiek identifikatutakoan, horiekin loturiko adierazle neurgarrieekin pentsa dezakegu:

- Beren eskubideen defentsan antolaturiko mugimenduko zati diren etnia minoritarioko kideen kopurua % 50 gehitu da proiektua amaitutakoan. Ehuneko horretatik, % 20 gutxienez emakumeak dira.
- Urteko udal-planek etnia minoritarioaren interes eta premietara bideraturiko proiektuen % 10 gehiago biltzeko dute proiektuaren lehen urtea amaitutakoan eta % 20 proiektua amaitutakoan.
- Etnia minoritarioaren premia eta interesak estaltzen dituzten proiektuei bideraturiko aurrekontuaren guztizko kopurua % 10 gehitu da proiektua amaitutakoan.

Zehar-lerroetarako adierazleak

Gaitasunak, parte-hartzea eta antolamendua, genero-ekitate, giza eskubideak eta iraunkortasun ekologikoa proiektuan integratzea esparru horietako bakoitzarekin loturiko aurrerapauso espezifikoak neurtzea ahalbidetuko duten adierazleak formulatzearen mende dago. Adierazle kuantitatiboak zein kualitatiboak erabili beharko dira eta guztiak ere sexuaren arabera bereizi beharko dira, gizon eta emakumeen aurrerapauso espezifikoak neurtzeko.

Gaitasunak, parte-hartzea eta antolamendua

Eraldaketa-subjektuen gaitasunen aurrerapausoak neurtzeko, aldaketa pertsonal, sozioekonomiko eta politikoak kontuan hartzen dituzten adierazleak formulatu behar dira.

Proiektuaren lehentasunezko gaitasun gisa identifikatu diren gaitasunen arabera aldatuko da proiektuaren izaera, baina, esaterako, subjektuen ezagutzen gehikuntza neur daiteke garrantzitsutzat identifikaturiko gaietan –teknikoak zein ideologikoak edo politikoak–, xede-biztanleriak jasaten dituen eskubide-urraketei buruzko salaketa kopurua, eskubide horiek defendatzeko antolaturiko mobilizazio kopurua, kargu instituzional eta politikoak dituzten xede-biztanleriako pertsona kopuruaren aldaketa, subjektuen

autonomia pertsonalaren gehikuntza, eta abar. Hori guztia, betiere sexuaren arabera bereizita emakumeen eta gizonen aurrerapausoak neurtzeko eta al bait gehien desberdinduz ezaugarri sozioekonomikoen, etniari lotutakoen, hezkuntzari lotutakoen edo erabakigarritzat jotzen den beste edozein alderdiri lotutakoen arabera.

Xede-biztanleriaren parte-hartzeari eta antolamenduari buruzko aurrerapausoei dagokienez, parte hartzeko guneen kopuruarekin, horien funtzionatzeko moduarekin, horien autonomia-mailarekin eta beste erakunde batzuekiko duten artikulazio-mailarekin loturiko adierazleak formulatu behar dira.

Esaterako, adierazleak ezar daitezke neurtzeko zenbat gune sortu diren, zein izan den bilakaera gune horietan parte hartzen duten pertsonen kopuruan –horietako zenbat gizonak diren eta zenbat emakumeak diren kontuan hartuta–, kolektibo kalteberetatik parte hartzen duten pertsonen kopurua, sortu diren talde espeziakoetako gune kopurua (emakume taldeak eta minoria linguistikoen taldeak, esaterako) edo beste mugimendu aliatu batzuekin ezarritako hitzarmen kopurua. Alderdi kualitatiboek dagokienez, adierazleak formula daitezke gune horietan erabakiak ea nola hartzen diren, inplikaturiko subjektuen pertzepzioak beren parte-hartze mailari buruz, botere-harremanei buruz edo taldeko kideen arteko eragina, gatazkak konpontzeko moduari buruz, beste mugimendu batzuekin artikulatzeko eta koordinatzeko moduei buruz, eta abar.

Genero-ikuspegia

Genero-ekitateko aurrerapausoak neurtzeko, emakumeen ahalduntze-mailarekin, parte-hartzearekin, egoeran eta posizioan izandako aldaketekin eta gizonen balio, jarrera eta portaerekin izandako aldaketekin loturiko adierazleak formulatu behar dira.

Esaterako, adierazlerik ezar al daiteke ea zenbat emakumek parte hartzen duten erabakitzeko guneetan, zenbat lotu diren beren interesak defendatzen dituen mugimenduren batera, zenbatek parte hartu duten beren gaitasunak hobetzera bideraturiko jardueretan, nola hobetu den emakumeei baliabideekiko duten baliatzea eta kontrola, beren autonomia ekonomikoa eta osasunarekin, sexualitatearekin edo erreproduktzioarekin loturiko gaiak buruzko erabakitzeko beren ahalmena gehitu duten, beren buruarekiko pertzepzioa eta autoestimua hobetu duten, zer iritzi duten emakume gisa duten errekonozimenduari buruz, eta abar. Neur liteke, halaber, gogoeta maskulinoko taldeak sortu ote diren, zenbat gizonek parte hartzen duten horietan, nola aldatu diren gizonen pertzepzioak emakumeei kiko –haiekiko egiten duten balorazioa pertsona gisa, barneratuta zituzten estereotipoak–, zer neurritan aldatu diren emakumeei kiko jarrera bortitzak edo kontrol-jarrerak eta abar.

Giza Eskubideak

Giza baliabideei dagokienez, adierazleak neur dezakete subjektuen gaitasunean izandako aurrerapausoak beren eskubideak identifikatu eta defendatzeko, eskubideen urraketak direla eta izandako salaketak kopuruaren gehikuntza, errebindikazio-mugimenduetara bildu diren pertsonen kopurua, beren eskubideak zapalduta dituzten pertsona edo kolektiboek erabil ditzaketen baliabide legeak, psikologiko

edo orientabidezkoak, giza eskubideen arloan lan egiten duten erakundeen kopuruaren gehikuntza eta artikulazioak tokiko, estatuko edo nazioarteko beste mugimendu batzuekin, betebeharren titularretan lorturiko eragina, eta abar.

Iraunkortasun ekologikoa

Iraunkortasun ekologikoari buruzko aurrerapausoaren balioespenak hainbat alderdi biltzen dituzten adierazleak formulatzea eskatzen du, hala nola: xede-biztanleriaren gaitasunetan izandako aurrerapausoak, hainbat gairi dagokionez, hala nola ingurumen-egoeraren azterketa kritikoak egitea, teknika eta aztura iraunkorrak ezagutzea eta maneiatzea, baliabide natural eta energetiko propioetan kontzentraturiko eredu alternatiboak diseinatu eta proposatzea, subjektuen autonomiaren gehikuntza beren barne-produkzioa erabakitzeke, jarrera-aldaketak bertako baliabideen balorazioari dagokionez, bila-kaera baliabideen erabilera iraunkorrean edo teknologia berrien erabileran.

III.3.3. Egiaztapen-iturriak

Adierazleak bete diren egiaztatzeke, egiaztapen-iturri bat esleitzen zaio bakoitzari, hots, tresna bat horretan oinarrituta adierazlea bete den edo ez jakitea ahalbidetuko duena.

Proiektuaren dokumentu edo tresna propioak (gaikuntzen memoriak, betaratze-zerrendak, bileren aktak, argazkiak, biztanleriari eginiko elkarrizketak, eta abar) edo proiektuarekiko kanpo-dokumentuak (onarturiko erakundeetako estatistikak, dokumentu ofizialak, erregistroak) izan litezke iturriak.

Zenbait gako egiaztapen-iturriei buruz:

- Erraz baliatzekeak izan behar dute, adierazleen betetze-maila egiaztatzeke
- Garrantzitsua da ziurtatzea iturria badagoela eta fidagarria dela. Iturri berri bat planteatzen bada, iturriaren sorkuntza aurkeztu behar da eta arduradun bat definitu, egiaztapen-iturri hori kontuan hartuko dela bermatuko duena.
- Aurreikusitako iturriak baliatzeak ez du neurrigabeko esfortzurik eragin behar, ez ekonomikoa, ez denborazkoa
- Adierazle bakoitza egiaztatzeke iturriak bera izan behar du proiektuaren hasieratik amaierara bitarte, datuen bilakaera konparatzeko.

Aurreko adibideko lehen adierazlea hartuko dugu adibide gisa:

Beren eskubideen defentsan antolaturiko mugimenduko zati diren etnia minoritarioko kideen kopurua % 50 gehitu da proiektua amaitutakoan. Ehuneko horretatik, % 20 gubxienez emakumeak dira.

Adierazle hori lortu ote den egiaztatzeke, egiaztapen-iturrietako bat udalerriko gizarte-erakundeen erregistroa eta kideen zerrenda izan daiteke, egon baitaude eta datu eguneratuak eskaintzen baitituz-

te. Dokumentu horiek aztertuta -proiektua hasi aurretik eta amaitutakoan-, antolamendu-mugimendu bakoitza osatzen duten pertsonen kopurua alderatu ahaliko dugu eta adierazlearen lorpena balioetsi.

III.3.4. Hipotesiak

Proiektuarekiko kanpoko faktoreak dira, gure kontroletik at daudenak, proiektuaren emaitzetan zuzeneko eragina dutenak.

Giroa, testuinguru politikoa edo biztanleriaren jarrera jardueretik eraginekoak dira proiektuaren garapenean. Ezin ditugu kontrolatu, baina hainbeste hartzen dute emaitza eraginpean, ezen kontuan hartu beharrekoak diren planifikatu eta Plangintzako Ideia Nagusira biltzeko garaian.

Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusira hipotesi gisa bildua izateko lau baldintza bete behar ditu kanpoko faktore batek:

Proiektuaren emaitzetan egiazko eragina duen gai bat izatea

Proiektuarekiko eta hura kontrolatzen duen lantaldearen kontrolarekiko kanpoko faktoreak egon litezke, baina inolako garrantzirik ez dutenak emaitzen eta helburuen lorpenean.

Proiektuarekiko kanpoko faktore bat hipotesi gisa kontuan hartzeko zalantzarik gabeko eragina behar du izan proiektuan.

Proiektuaren jardun-sektorea funtsezkoa da aurreikuspenen arabera proiektuan eragina izango duten faktoreak definitzerakoan: nekazaritza-produkziozko proiektuetarako aldeko eguraldia hipotesi bat izango da ziur asko eta litekeena da hori ez iruditzea gaikuntza-proiektu baterako. Baina proiektua garatzen deneko testuinguruaren ezaugarriak erabakigarriak dira, ezen gaikuntza-proiektua landa-ingurune batean garatzeko bada oso urruneko komunitateetan, aldeko eguraldia ezinbestekoa izan litekeen urrugo bizi den pertsonen gaikuntzara bertaratzeko aukera izan dezaten.

Horrela, hipotesi baten garrantzia edo garrantzirik eza erabakitzeko, proiektua zein baldintza zehatzetan garatzen den aztertu behar da.

Gure kontroletik at dagoen kanpo-faktore bat izan behar du egiaz.

Hipotesi gisa garrantzitsutzat jotako faktore bat Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusira bildu aurretik ziurtatu egin behar da egiaz gure kontroletik at dagoen gai bat dela. Zenbaitetan hipotesi gisa hartzen dira egiaz hala ez diren kanpo-faktoreak, neurriak har baitaitezke efektu negatiboak prebenitzeko. Adibidez, imajina dezagun honako hau hartzen dugula hipotesi gisa:

Eguraldiak xede-biztanleria gaikuntzetara joatea ahalbidetzen du.

Ègia da eguraldia batzuetan ezinbestekoa dela, baina gure kontroletik kanpo dagoen faktoretzat jo dugu. Dena den, badakigu urteko zenbait garaitan eguraldia txarragoa izaten dela eta, hortaz, klima faktore garrantzitsu gisa detektatu badugu, aukera daukagu gaikuntzak txarra ez den sasoian planifikatzeko eta, horrela, klimatologia proiektuaren plangintzara biltzeko, hipotesi bezala baztertuta, hasteko.

Aurreikusi ezin daitezkeen fenomeno klimatologikoak edo sismoak hipotesi gisa har daitezke kontuan, ezin baitugu kontrolatu noiz gertatuko diren.

Kanpo-faktorea beteko den zalantzazko probabilitatea izatea.

Kanpo-faktorebat proiekturako garrantzitsutzat eta kontrolatzeko ezinezkotzat definitu badugu, gertatzeko aukera balioetsi behar dugu.

Probabilitatea oso handia edo oso txikia bada, ez dauka zentzurik hipotesi gisa biltzea. Zalantzazko probabilitatea duten faktoreak soilik formulatuko dira hipotesi gisa.


Horrela, ez dauka zentzurik hipotesi gisa fenomeno klimatologiko txarrak biltzea klima egonkorra duen alde batean edo sismoak jarduera sismikorik ez duen alde batean. Ez dauka zentzurik, halaber, aldeko klimatologia hipotesi gisa biltzea proiektua euri-sasoian garatzen bada.

Modu positiboan formulatuta egotea, proiektuaren esku-hartze logika betetzeko eman beharreko baldintza gisa.

Faktore eraginkor direnez, kontrolatzeko ezinezkoak eta zalantzazko probabilitatearekin, gertatu beharreko egoera gisa biltzen dira Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusira hipotesiak, emaitzak eta helburu espezifikoa lortzea dakarren proiektuaren betetzean ez inplikatzeko gertatu beharrekoa ere.

Hala, honako hau esango dugu: *"Eguraldiak xede-biztanleria gaikuntzetara joatea ahalbidetzen du"* hori baita bete beharreko baldintza klima proiektuaren esku-hartze logikan tartean sar ez dadin.

Horrela, Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusian biltzen ditugu proiektuak funtziona dezan ezinbestekoak diren gure kontroletik at dauden faktoreak. Zalantza-maila handia dugun gaiak direnez, Proiektuaren Plangintzako Plan Nagusian biltzeak proiektuaren plangintzan eta egikaritzapenean kontuan hartzea ahalbidetzen du, dagokion aldaketak sartuta proiektuaren emaitzak eraginpean egon ez daitezen hipotesia betetzen ez bada.



12 Irudia.

Iturria: una gestión y comunicación.

III.3.5. Zehar-lerroak proiektuaren plangintzako ideia nagusian

Proiektuaren plangintzaren erdigunea da Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia, zer lortu nahi den biltzen duen dokumentuan, zein jarduera eta baliabide erabilita, eta nola lortuko diren aurrerapausoak eta lorpenak.

Proiektuaren zehar-lerroak lantzerantz bideratutako plangintzaren elementuak bereizi behar dira dokumentu horretan. Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusian ikus daiteke ba ote dagoen helbururik, emaitzarik, adierazlerik eta gizonen eta emakumeen arteko gaitasunak, genero-ekitate, giza eskubideak eta iraunkortasun ekologikoa indartzeko jarduerarik.

Zehar-lerroak Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusian sartzeak proiektuaren elementuak formulatzean horiek kontuan hartu beharra eskatzen du:

- Helburuak.
- Emaitzak.
- Adierazleak.
- Egiaztatze-iturriak.
- Hipotesia.
- Jarduerak.

Proiektu baten Plangintzako Ideia Nagusia ikusita, nahikoa informazio lor daiteke zehar-lerroak kontuan hartu ote diren ulertzeko. Guztiek ez dute pisu bera, batek beste batek baino garrantzi handiagoa izango baitu ekintza bakoitzaren izaeraren baitan. Hori gorabehera, eta zenbait lerro proiektuaren osagai nagusiarekin zuzenean lotuta ez badaude ere, planifikatzeko garaian galderak egin beharra dago lau zehar-lerroekin loturiko gai bakoitzaren inguruan.

Proiektuaren Plangintzako Proiektuan garrantzitsuak diren elementu guztiak kontuan hartzen ari ote diren egiaztatzeko, honako hau bezalako taula bat erabil daiteke egiaztapen-zerrenda bezala:

Herriko gaitasunei buruzko zehar-lerroa	
Helburuak	Helburuak interes-taldeetako subjektuen gaitasun guztiak sendotzera bideratzen al dira, batean talde kalteberenak? Parte hartzeko guneak sortzeko lagungarri al dira xedeak? Eta jada existitzen diren guneen funtzionamendua hobetzera? Helburuak interes-talde guztiek guneetan parte hartzera bideratuta al daude, batez ere emakumeek, kolektibo kalteberenek eta tradizionalki baztertuek? Helburuak lagungarri al dira interes-taldeetako subjektuen antolamendu-gaitasunak hobetzeko? Agenteen arteko koordinazioa eta aliantza estrategikoen sorrera ahalbidetzera bideratuta al daude? Koherenteak al dira helburuek aztertzen dituzten premiak interes-talde guztiek planteaturiko eskaerekin, kalteberenak ere barnean hartuta? Gizon eta emakumeek parte hartu al dute helburuen definizioan?
Emaitzak	Biltzen al dira interes-taldeetako subjektuen gaitasunak sendotzera bideratutako emaitzak? Emaitzak parte hartzeko gune berriak sortzera bideratzen dira edo jada badaudenak sendotzera? Emaitzak inplikaturik dauden subjektu guztien parte hartzeko gaitasunak hobetzera bideratzen al dira, batez ere kolektibo kalteberenak eta tradizionalki baztertuenak? Ba al da emaitzarik emakumeen edo beste talde kalteberaren baten parte-hartzearekin loturik? Eta haien antolamendu-mailarekin? Formulatzen al dira interes-talde guztietako subjektuen antolamendu-gaitasunen hobekuntzarekin loturiko emaitzak? Agenteen arteko koordinazioa eta aliantza estrategikoak sendotzera bideratzen al dira emaitzak?

Adierazleak eta egiaztapen-iturriak	Formulaturiko adierazleak baliagarriak al zaizkigu aurrerapausoak neurtzeko interes-talde guztietako subjektuen gaitasunetan, emakumeen, kolektibo kalteberenen eta tradizionalki baztertuenen gaitasunak barne? Barnean hartzen al da helburu kuantitatibo espezifikorik intereseko subjektuek zein gaitasun hobetu dituzten neurtzeko? eta emakumeen eta kolektibo kalteberenen eta tradizionalki baztertuenen aurrerapauso espezifikoari buruz? Adierazlerik barne hartzen al da zenbat eta nola parte hartzen den jada badauden guneetan edo sorturiko parte hartzeko gune berrietan: xede-biztanleriako parte hartzen duten pertsonen kopurua, gune horiek funtzionatzeko moduak, erabakiak hartzeko moduak, gatazkak konpontzeko moduak, eta abar? Neur al daiteke nolakoa den emakumeen eta talde kalteberen parte-hartze espezifikoa: bilakaera gune mistoetan parte hartzen duten emakumeen kopuruan, parte hartzeko guneren batera bildu diren kolektibo kaltebera edota baztertuetako pertsonen kopuruan, subjektuen parte-hartzearen kalitatea gune horietan? Ba al da aurrerapausoekin loturiko adierazleren bat subjektuen antolamendu-mailan: sortu diren antolaturiko kolektiboen kopurua, beste mugimendu batzuekin artikulatu diren taldeak, emakume antolatuen talde espezifikoak, talde kalteberen talde espezifikoak? Aurreikusi ditugun egiaztapen-iturriek nahikoa informazio ekarriko al dute neurtu nahi ditugun gaitasunekin, parte-hartzearekin eta antolamenduarekin loturiko alderdiei buruz? Iturri horiekin sexuaren arabera bereizitako daturik lortuko al dugu aztertzen ahalbidetuko digutenik interes-taldeetako emakume eta gizonen lorpen espezifikoak? Jarraipen- eta ebaluazio-faseetan aurreikusita al daude erreminta jakin batzuk subjektu guztien aurrerapausoak neurtzeko, emakumeenak eta gizonenak ere bereizita? Jarraipen- eta ebaluazio-planek inplikaturiko subjektu guztien parte-hartzea biltzen al dute?
Hipotesia	Ba al da kanpo-faktorarik eragina izan dezakeenik interes-talde guztietako subjektuen –gizonen eta emakumeen– gaitasunekin, parte-hartzearekin eta antolamenduarekin loturiko helburu eta emaitzen lorpenarekin?
Jarduerak eta baliabideak	Nahikoa jarduera planteatzen al da emaitza bakoitzerako? Koherenteak eta errealistak al dira? Gaitasunekin, parte-hartzearekin eta antolamenduarekin loturiko jarduera guztiek giza baliabide edota baliabide material nahikoak al dituzte esleitura aurrekontuan?

Genero-ekitatearen zehar-lerroa	
Helburuak	Talde guztietako gizon zein emakumeen premiei erantzuten al die proiektuak, kalteberenetakoenak barne? Koherenteak al dira helburuak identifikazioan detektaturiko premiekin? Helburu espezifikoak zehazten al du norentzat izango den onuragarri proiektua, gizonen eta emakumeen artean bereizita? Interes-taldeetako emakumeen ahalduntzea ahalbidetzera bideratuta ala daude helburuak? Emakumeen zer premia praktikoa eta estrategikoa erantzuten die proiektuak? Interes-talde guztietako emakume eta gizonen arteko boterea birbanatzera bideratzen al dira proiektuaren helburuak?
Emaitzak	Argi bereizten al dira interes-taldeetako emakumeentzako espero diren emaitzak? Ba al emaitzarik zuzenean lotuta dagoenik taldeetako emakumeen ahalduntzearekin? Taldeetako emakumeen premia estrategikoak betetzera bideratzen al dira emaitzak? Gizonen arteko aldaketa-prozesuak bultzatzera bideratzen al dira emaitzak, haien nortasun maskulinoari eta haien genero-interes strategikoei buruzkoak bultzatzera? Emaitzaren bat lotuta al dago gizonen eta emakumeen arteko botere-erlazioa aldaketekin?
Adierazleak eta egiaztapen-iturriak	Formulaturiko adierazleek balio al dute interes-taldeetako gizonetan zein emakumeetan gertatuko diren aldaketak neurtzeko? Formulatu al dira adierazle kuantitatiboak zein kualitatiboak? Formulaturiko adierazleekin aurrerapausoa balioetsi ahalko da emakumeen ahalduntze-mailan? Adierazlerik ba al dago gizonen eta emakumeen arteko botere-erlazioa aldaketak neurtzen dituenik? Formulaturiko adierazleak balio al dute gizonen portaera-aldaketak neurtzeko, beren nortasun maskulinoari eta genero-interes strategikoei buruz duten pertzepzioari dagokionez? Aurreikusiriko egiaztapen-iturriek informaziorik ekartzen al dute emakumeen aurrerapauso strategikoari buruz eta genero-azterketa bat egitea ahalbidetzen al dute? Jarraipen- eta ebaluazio-faseetan erreminta jakin batzuk aurreikusita al daude genero-aurreikuspenak neurtzeko?
Hipotesia	Ba al da kanpo-faktorerik eragina izan dezakeenik generoko helburu eta emaitzen lorpenean?

Jarduerak eta baliabideak	Nahikoa jarduera planteatzen al da emaitza bakoitzerako? Koherenteak eta errealistak al dira? Jarduera espezifikoa planifikatu al dira emakumeentzat? Emakumeen ahalduz sendotzea bideratuta al daude jarduerak? Gizonekin jarduerak planifikatu al dira generoko gogoeta-prozesuak bultzatzeko? Emakumeen premia estrategikoekin loturiko jarduerak guztiek giza baliabideak edota baliabide materialek esleitura al dituzte?
Giza Eskubideen zehar-lerroa	
Helburuak	Subjektuen oinarritzko eskubideekin loturiko premiei erantzuten al diete helburuek, gizonen eta emakumeen arteko eskubideak bereizita, eta kolektibo kalteberak eta tradizionalki baztertuak kontuan hartuta? Interes-taldeetako gizon eta emakumeen oinarritzko eskubideak sustatu edota defendatzeko lagungarri al dira helburuak? Lagungarriak al dira eskubide kolektiboak sustatu, errebindikatu edota defendatzeko? Koherenteak al dira helburuek aztertzen dituzten premiak interes-taldeetako gizon eta emakumeek planteaturiko eskaerekin? Gizon eta emakumeek parte hartu al dute helburuen definizioan? Interes-taldeetako gizon eta emakumeak titular diren eskubideei buruz kontzientziatzera bideratzen al dira helburuak? Eskubide indibidualak zein kolektiboak biltzen al dira? Interes-taldeetako gizon eta emakumeen gaitasunak sendotzera bideratzen al dira helburuak, haien eskubideak errebindikatu eta galdatzeko? Giza eskubideen urraketak salatzei ildo eta bideak sendotzera edota eskubide horiek beteko direla zainduko duten egiturak bermatzera bideratzen al dira helburuak?
Emaitzak	Emaitza interes-taldeetako gizon eta emakumeak titular diren eskubideei buruz kontzientziatzera bideratuta al daude? Subjektuek beren eskubideak defendatzeko dituzten gaitasunak sendotzera bideratutako emaitzak biltzen al dira? Emaitzen bat formulatu da giza eskubideen iraunaldia bermatu beharreko agenteekin lotutakorik?
Adierazleak eta egiaztapen-iturriak	Interes-taldeetako gizon eta emakumeek identifikaturiko eskubideen hausketa edo urraketak etetara bideratzen al dira emaitzak? Ba al da emaitza espezifikorik emakumeen eskubideekin lotuta? Eta kolektibo kalteberen eta tradizionalki baztertuen eskubideekin? Ba al da emaitzarik zuzenbidezko subjektuen antolamendu-maila hobetzera bideratuta haien eskubideak salatu eta errebindikatzeko? Eta aliantzak sustatzeko defentsa-mugimendu antolatuekin eta eskubideak sustatu edo giza eskubideen urraketak salatzei?

	Formulaturiko adierazleak aurrerapausoak neurtzeko baliagarriak dira honako hauei dagokienez: • Subjektu eta kolektiboen kontzientziazio-maila titular diren eskubideen gain. • Interes-taldeetako gizon eta emakumeen gaitasunak beren eskubideak errebindikatzeko. • Urratuta zeuden eskubideen betetze-maila. • Gizon eta emakumeen antolamendu-maila eskubideak sustatu/errebindikatzeko edo eskubideen hausketa edo urraketa salatze. • Salaketa-ildo eta eskubideak bermatzeko egituren existentzia eta funtzionamendua. Adierazleek biltzen al dituzte emakumeen eta kolektibo kalteberenen eta tradizionalki baztertuenen aurrerapauso espezifikoak? Egiaztapen-iturriek nahikoa informazioa ekartzen al dute interes-taldeetako emakume eta gizonen eskubideei buruz? Iturri horiekin sexuaren arabera bereizitako daturik lortuko al dugu aztertzen ahalbidetuko dutenik taldeetako emakume eta gizonen lorpen espezifikoak? Jarraipen- eta ebaluazio-faseetan aurreikusita al daude erreminta jakin batzuk eskubideei buruz aurreikusitako aurrerapausoak neurtzeko, emakumeenak eta gizonenak ere bereizita?
Hipotesia	Ba al da kanpo-faktorerik eragina izan dezakeenik eskubideekin loturiko helburu eta emaitzen lorpenean?
Jarduerak eta baliabideak	Nahikoa jarduera planteatzen al da emaitza bakoitza lortzeko? Koherenteak al dira planteaturiko helburu eta emaitzekin? Planifikatu dira jarduerak giza eskubideen betetzearekin –salaketa, sustapena, defentsa eta abar– identifikaturiko premia guztietarako? Jarduerak taldeetako subjektu guztiei –gizonei eta emakumeei– zuzenduta al daude? Emakumeei bideraturiko jarduerak planifikatu al dira, beren gaitasunen hobekuntza beren eskubideak galdatzeko, beren antolamendua sendotzea beren eskubideak defendatzeko, eskubideen urraketa salatze ildoak eta beren eskubideak betetzen direla zaintzeko egiturak sortzea? Jarduerak planifikatu al dira kolektibo kaltebera eta tradizionalki baztertuetan? Giza eskubideekin loturiko jardura guztiek giza baliabide edota baliabide material nahikoak al dituzte esleitura aurrekontuan?

Iraunkortasun ekologikoaren zehar-lerroa	
Helburuak	Ingurumenarekin loturiko problematikak aztertzea bideratuta al daude helburuak? Bereizten al dira emakumeek pairatzen dituzten problematikak eta gizonek pairatzen dituztenak? Interes-taldeetako subjektuen –gizonen eta emakumeen– gaitasunak sendotzea bideratuta al daude helburuak, nagusi den produkzio-eredua zalantzan jartzea eta ingurumen-arazoen kausak bilatzera, eredu alternatibo iraunkorrak bilatzera, ingurumen-inpaktu negatiboak minimizatzen dituzten teknologia eta tekniken erabilera sustatzera, hainbat estrategia –hala nola elikadura-subiranotasuna– sustatzera, eta abarrera? Helburuek proiektuan ekologikoki iraunkorrak diren tekniken erabilera esplizitatzen al dute?
Emaitzak	Ba al da emaitzarik gizon eta emakumeen gaitasunak sendotzea bideratuta dagoenik iraunkortasun ekologikoko gaietan? Eta teknologia ez-agresibo eta egokiak, energia garbiak, baliabide berriztagarrien erabilera, eta abar, sustatzera? Ingurumen-inpaktu negatiboak murriztera bideratzen al diren emaitzak? Formulaturiko emaitzak eredu alternatibo iraunkorrak sortzearekin lotuta al daude?
Adierazleak eta egiaztapen-iturriak	Adierazleek aurrerapausoak neurtzea ahalbidetuko dute honako hauei buruz: • Produkzio-teknika iraunkorrak erabiltzea. • Gizonen eta emakumeen gaikuntza. • Inpaktu negatiboen murrizketa. • Baliabideen kudeaketa iraunkorra. • Kontzientziazioa ingurumen-arazoen kausei buruz. • Subjektuen antolamendu-maila euren ingurumen-eskubideak defendatzeko, eta abar? Adierazleek neurri espezifikoak biltzen al dituzte emakumeen eta kolektibo kalteberen aurrerapau-soetarako? Helburuen adierazleek neurtzen al dute proiektuak ingurumenaren gain duen inpaktua?, ingurume-naren egoera islatzen al dute proiektua amaitutakoan? (esaterako: landaturiko espezieen barieta-te kopurua, luraren produktibitate-indizea...) Ėgiaztapen-iturriek informazio nahikoa ekartzen al dute proiektuak biltzen dituen iraunkortasunare-kin loturiko gaiet buruz? Iturri horiekin sexuaren arabera bereizitako daturik lortuko al dugu aztertzen ahalbidetuko duenik in-teres-taldeetako emakume eta gizonen lorpen espezifikoak? Jarraipen- eta ebaluazio-faseetan aurreikusita al dago erremintarik iraunkortasun ekologikoaren in-tegrazioan aurrerapausoak neurtzeko, emakumeenak eta gizonenak ere bereizita?

Hipotesia	Ba al da kanpo-faktorerik eragina izan dezakeenik iraunkortasunarekin loturiko helburu eta emaitzen lorpenean? Zalantzazko ingurumen-faktoreekin loturiko hipotesian bildu al dira? (hala nola uholdeak eta beste hondamendi natural batzuk?)
Jarduerak eta baliabideak	Nahikoa jarduera planteatzen al da formulaturiko emaitza bakoitza lortzeko? Jarduerak koherenteak al dira iraunkortasun ekologikoari dagokionez identifikaturiko jarduerekin? Jarduera espezifikoa planifikatu al dira interes-talde guztietako emakumeentzat? Kolektibo kalteberenetara bideraturiko jarduerak planifikatu al dira? Iraunkortasunarekin loturiko jarduera guztiek giza baliabide edota baliabide material nahikoak al dituzte esleitura aurrekontuan?

Kasu praktikoa

La Esperanzako eredura itzul gaitezen. Arazoen zuhaitzean, helburuen zuhaitzean eta estrategien hautaketan oinarrituta, plangintzako ideia nagusira iritsi gara. Lau zehar-lerroak nola gaineratzen diren aztertuko dugu.

Tokiko gaitasunei, parte-hartzeari eta antolamenduari buruzko zehar-lerroa

Gaitasunak, parte-hartzea eta antolamendua sendotzera bideraturiko adierazleak, emaitzak eta jarduerak biltzen ditu proiektuaren plangintzako ideia nagusiak. Gaikuntzako osagaia lankidetzako proiektu gehienetan agertzen den bezalaxe, parte-hartzea eta antolamendua zenbait kasutan ez dira behar bezala islatzen helburu, emaitza, adierazle eta jardueren formulazioan. Gaitasunen sendotzea modu zabalean ulertu behar da, parte-hartzeko eta antolatzeko gaitasunak ere barnean hartuta, parte-hartzea eta antolamendua hobetuta emakume eta gizonen eta interes-talde guztien eragiteko gaitasuna ere hobetzen baita.

Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia formulaturiko **adierazleak** ikusten baditugu, honako adibide hauek ikusten ditugu:

1.1 IHE: Proiektua egikaritzeko lehenengo urtean, 150 gizon nekazariri eta 75 emakume nekazariri gaitasuna eman zaie laborantza-teknika iraunkorretan, bertako labore alternatiboetan eta teknika tradizionaletan.

Lehenengo urtean laboreen bertako barietate berrietan eta teknika tradizionaletan zenbat gizon eta zenbat emakume gaitzea aurreikusita egotearekin loturiko helburu kuantitatiboak ezartzera bideratuta dago adierazle hau. Adierazle honetan interesgarria da gizonen kopuruaren eta emakumeen kopuruaren arteko zifra bereizia, horri esker aurrerapausoak bereizita neurtu ahalko baitira, emakumeak aurrera nola egin duten argi geratzeko moduan.

Parte-hartzea hobetzera bideratuta daude beste adierazle batzuk:

1.3 IHE: Proiektua amaitutakoan, nekazaritzara bideratutako lurretako emakume titularren kopurua % 30 igo da.

Eta beste batzuk xede-biztanleriaren antolamendu-maila sendotzera:

2.1 IHE. Proiektuak urtebete egin ondoren, udalerrian nekazarien erakunde bat dago. Proiektua amaitutakoan, erakundea osatzen duten emakumeen kopurua % 40 da.

Kasu honetan, adierazlea baliagarria izango da nekazarien erakunde bat egotea lortzeko, baina, horretaz gain, emakumeentzako aurreikusitako lorpen espezifikoak ehuneko bat gaineratzen da eta, hori horrela, jarraipena edota ebaluazioa egitean, ez dugu soilik berraztertutako beharko nekazarien erakunde bat sortu ote den, eta zenbat emakumeek parte hartzen duten ere aztertutako beharko dugu.

Emitzak

Emitzei dagokienez, ideia nagusiak gaikuntzari bereziki bideraturiko bat gaineratzen du:

A.3. Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan

Horrek ideia bat ematen digu gaikuntza osagaia pisuzko elementua dela proiektuan. Emitza horretan oinarrituta, adierazleak formulatutako dira, helburu jakinak eta egikaritzarakoan emitzaren lorpena bermatu beharko duten jarduerak ezarriko dituztenak.

Jarduerak

Aurreikusitako jardueren zerrendan, ikus dezakegunez, Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusiak xede-biztanleria gaitzera bideraturiko ekintza espezifikoak biltzen ditu:

A.1.1. Gizon eta emakume nekazariak honako gai hauen inguruan gaitzeko 3 tailer:

- Bertako laborantza barietate berriak.
- Produkzio teknika iraunkorrak.
- Produktibitatea hobetzeko teknikak.
- Produkzio teknika tradizionalak.
- Merkaturatzea.
- Kudeaketa eta plangintza ekonomikoa.

A.3.2. Gurasoak beren haurrentzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.

A.3.3. Gurasoak neskentzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.

A.3.4. Lanbide-heziketako zentro bat abian jartzea, honako alor hauetan gaitasuna duten eta oinarritzako azterketak bukatu dituzten gazteentzat:

- Igeltserotza eta zurgintza.
- Ostalaritza.
- Nekazaritza-produktuak merkaturatzeko teknikak.

Parte-hartzea eta antolamendua hobetzeko planifikaturiko jarduerak ere aurkitzen ditugu:

- A.1.5. Salaketa- eta gorabehera-batzorde bat sortzea zur-enpresaren jardueretan.
- A.2.1. Udalerriko emakume eta gizon produktoreak elkartuko dituen erakunde bat sortzea.
- A.2.4. Nekazaritza-produktuak saltzen dituzten erakundeekin hitzarmen bat ezartzea.
- A.3.1. Haurrak eskolara eramateko sistema bat antolatzea.
- A.3.7. Proposamen-dokumentu bat egitea hezkuntza formalean nutrizioari buruzko edukiak gehitzeko.

Genero-ekitateari buruzko zehar-lerroa

Ikus dezakegunez, Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusiak helburu espezifikoaren formulaziotik abiatuta barnean hartzen ditu genero-ekitateari buruzko gaiak, biztanleriaren desnutrizio-mailak gutxitu nahian betiere eta, batez ere, emakumeei dagokienez gutxitu nahian. Aipu horrek begi-bistan uzten du gizonak eta emakumeen desnutrizio-mailak desberdin pairatzen dituztela (handia da bi kasuetan ere, baina handiagoa emakumeen kasuan), eta inplikatzeko du maila horiek neurtzea ahalbidetuko duten adierazleak ezarriko direla, eta horretara bideraturiko emaitza eta jarduerak formulatuko dira.

Horrela, honako **adierazle** hauek aurki ditzakegu Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusian, besteak beste:

IOV.1.1: Proiektua egikaritzeko lehenengo urtean, 150 gizon nekazariri eta 75 emakume nekazariri gaitasuna eman zaie laborantza-teknika iraunkorretan, bertako barietate alternatiboetan eta teknika tradizionaletan.

IOV.1.3: Proiektua amaitutakoan, % 30 gehitu da emakume nekazarien kopurua.

Bi adierazle hauek helburu kuantitatibo espezifikoak ezartzen dituzte emakumeentzat. Lehenengoan, ikus dezakegunez, zifra bereziak ezarri dira, eta horri esker kolektibo bakoitzaren emaitzak bereizita neurtu ahaliko dira, eta hori baliagarria da aurrerapauso espezifikoak aztertzeko.

Bigarren adierazlean zifra bat baino ez da azaltzen, helburu jakin bat emakumeentzat. Adierazle horiek beharrezkoak dira emakumeek oraindik presentzia handirik ez duten gune batera sartzeko aukera lantzen nahi bada. La Esperanzako kasuan, biztanleria nekazariaren gaitasunak handitu nahi ditu proiektuak eta luraren errendimenduak gehitu baina –horretaz gain– garrantzitsutzat jotzen da udalerriko emakumeak nekazaritzako produkzio-esparrura sartzeko.

3.2 IHE: Nutrizio-tailerretara bertaratzen diren pertsonen % 50 gizonak dira.

Kasu honetan, gizonen bideratuta dago helburu kuantitatiboa. Produktzio-esparruan emakumeekin gertatzen den bezala, gizonen askoz ere presentzia txikiagoa dute beste esparru batzuetan, hala nola erreproduktzioarenean. Horregatik, proiektuak bere helburuen artean planteatu nahi du gizonen aukera erraztea tradizionalak emakumeen esleituriko zereginekin has daitezkeen, hala nola haurren osasuna eta elikadura zaintzea.

3.3 IHE: Nutrizio-tailerrek emakumeen eta gizonen nutrizio-premia espezifikoak buruzko edukiak gehitzen dituzte.

Gizonen eta emakumeen egoera desberdina eta premia desberdinak oinarri hartuta planifikatu behar dira gaikuntzak. Nutrizio-tailerren kasuan, premia desberdinez hitz egitea elementu interesgarria da, ohikoa izaten baita emakumeek beren elikadura baino beren familien elikadura lehenestea. Horregatik, garrantzitsua da argi eta garbi uztea elikadura bete-betekoa funtsezkoa dela gizonentzat zein emakumeentzat. Horretaz gain, beharrezkoa da ezagutzen ez diren zenbait gai azaltzea, lagungarriak gerta daitezkeen emakumeen elikadura hobetzeko eta haien osasuna indartzeko (beharrezko mantengoiak emakumeen bizitzaren adin edo bizitzakoaldi desberdinetan, eta abar).

Era berean, zenbait jardura aurkitzen ditugu, emakumeen ahalduntzea ahalbidetzera eta genero-ekitate lantzerantz bideratutakoak:

A.1.1. Gizon eta emakume nekazariak honako gai hauen inguruan gaitzeko 3 tailer:

- Bertako laborantza barietate berriak.
- Produktzioaren teknika iraunkorrak.
- Produktibitatea hobetzeko teknikak.
- Produktzioaren teknika tradizionalak.
- Merkaturatzea.
- Kudeaketa eta plangintza ekonomikoa.

Jardura honetan gizon zein emakume nekazariak ahalduntzera bideraturiko edukiak planifikatu dira. Gai horietako zenbait estrategikoak dira emakumeentzat, kudeaketa eta plangintza ekonomikoari buruzko ezagutzak bezala. Kontua ez da soilik produktzio-teknikak hobetzea eta beren errendimenduak gehitzea, baizik eta beren baliabideak maneiatzen ikas dezatela. Gainera, gaietan teknika tradizionalak buruzko kapitulu bat sartzeak emakumeek mendeetan zehar maneiatu dituzten ezagutzak birbalioesten ditu, eta emakumeak ezagutza garrantzitsuen jabe gisa komunitatean errekonozimendua izatea eragingo du horrek, eta emakumeen beren autobalorazioaren hobekuntza bat.

A.3.2. Gurasoak beren haurrentzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.

A.3.3. Gurasoak neskontzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.

A.3.6. Gizonak eta emakumeak nutrizioaren eta osasunaren inguruan gaitzeko 3 tailer.

Hiru jarduera horiek interesgarriak dira, gizonen eta emakumeen bideratuta baitaude –eta ez bakarrik emakumeen– seme-alabak zaintzarekin loturiko zerbaitean. Gizonak horrelako jardueretan sartzeari lehen pausoa da beren zaintzaile-rola lantzen has daitezen, eta komunitateak berezkitzat har dezan gizonen erreproduktzio-alarrean duten egitekoa. Jarduera bat sartzeari neskatilen hezkuntzaren garrantziari buruz espezifikoki kontzientziatzeko neskatilen eskolatzeko-maila baxuagoak dituztela erakusten duen errealitateari erantzuten dio. Problematika horren aurrean, garrantziak da jarduera jakin batzuk diseinatzea, guztiak ere sentsibilizazioa lantzea bideratuak, hezkuntza neskatilen eskubide bat izateari, haien aukerak gehitzeari eta haien bizitzak hobetzeari buruzkoa.

Giza eskubideei buruzko zehar-lerroa

Plangintzako ideia nagusian giza eskubideak proiektuaren helburuen oinarrian daudela aurkitzen dugu:

Helburuak

Udalerriko biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da.

Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira, batez ere emakumeen kasuan.

Biek ere oinarritzko gaiei heltzen diete, hala nola osasunerako eta elikadura bete-beteko eta osasunagarrirako eskubidea, biztanleriari baldintza fisiko eta mental minimo batzuk emango dizkietenak pertsona gisa dituzten gaitasunak garatzeko.

Helburuen betetzea bermatzen duten adierazle, emaitza eta jarduerak planteatzea eragingo du helburu horiek formulatzeak. Horretarako, honako **adierazle** hauek aurkituko ditu Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusian:

1.IH: Proiektua amaitutakoan, Osasun Zentroan erregistratutako desnutrizio-kasuak % 50 jaisten dira mutikoetan eta % 75 neskatiletan.

2.IH: Proiektua amaitutakoan, desnutrizioarekin erlazionaturako kontuak direla-eta Osasun Zentroa egiten diren bisitak % 50 murriztu dira gizonen kasuan eta % 75 emakumeen kasuan.

Bi adierazleak osasunarekin eta nutrizioarekin lotuta daude, izan ere, eta planteaturiko helburuak ikusita, adierazleak desnutrizio- eta gaixotasun-mailak murrizteko larpen-helburuak ezarri behar dituzte. Aurreko adierazleen adibideekin gertatzen zen bezala, oraingoan ere emakumeentzat eta gizonentzat ezarritako helburu desberdinak ikusten ditugu. Ikus dezakegunez, mailen murrizketa-helburuak neskatilen eta emakumeen artean handiagoak dira gizonentzat ezarritakoak baino diagnostikoak adierazi duenez gehiagotan pairatzen baitituzte desnutrizioa eta gaixotasunak.

Generoari diagnostiko itsua egin izan bagenion, ziur aski ehuneko berak planteatuko ziren bi ehuneko-entzat, eta, hortaz, emaitza ez zen ekitatiboa izango. Hau da, oinarritzat hartzen badugu emakumeen desnutrizio-mailak gizonenak baino handiagoak direla eta biek ere euren osasuna eta elikadura modu berean hobeto dezatela nahi denez, ezin dugu planteatu biek % 50 gutxitzea desnutrizio-maila eta loturiko gaixotasunen eragin-maila, eta, aitzitik, emakumeen artean murrizketa-maila handiagoak finkatu beharko ditugu, horiek beteta gizonen egoera berera iritsi daitezen.

Berdintasunezko neurria			Ekitatezko neurria		
Kolektiboa	Gizonak	Emakumeak	Kolektiboa	Gizonak	Emakumeak
Egoera	100etik 50ek desnutrizioa pairatzen dute	100etik 75ek desnutrizioa pairatzen dute	Egoera	100etik 50ek desnutrizioa pairatzen dute	100etik 75ek desnutrizioa pairatzen dute
Neurria	% 50 gutxitu desnutrizio-kasuak		Neurria	% 50 gutxitu gizonen desnutrizio-kasuak	% 75 gutxitu gizonen desnutrizio-kasuak
Emaitza	100etik 0k desnutrizioa pairatzen dute	100etik 25ek desnutrizioa pairatzen dute	Emaitza	100etik 0 gizonek desnutrizioa pairatzen dute	100etik 0 emakumek desnutrizioa pairatzen

13 Irudia.

Iturria: una gestión y comunicación.

Desnutrizio eta osasun-mailekin loturiko emaitzez gain, beste batzuk aurkitzen ditugu presentzia txikia-go duten esparruetarako emakumeen sarbidea hobetzera eta haien eskubide ekonomikoak bermatzera bideraturikoak:

- 1.3 IHE: Proiektua amaitutakoan, nekazaritzara bideratutako lurretako emakume titularren kopurua % 30 igo da.
- 2.1 IHE: Proiektuak urtebete egin ondoren, udalerrian nekazarien erakunde bat dago. Proiektua amaitutakoan, erakundea osatzen duten emakumeen kopurua % 40 da.

Beste adierazleetako bat ingurumen-eskubideekin lotzen da:

1.4 IHE: Proiektua amaitutakoan egur-enpresak mozketa murrizteko konpromiso bat sinatu du.

Iraunkortasun ekologikoari buruzko zehar-lerroa

Iraunkortasun ekologikoari buruzko zehar-lerroa ere esplizituki sartzen da plangintzako ideia nagusia, emaitza, adierazle eta jardueren bidez:

Emaitzak

R.1. Barne-produkzioak oinarritzko dieta bat bermatzen du

Inplikaturiko biztanleriak gizon eta emakumeek produzitzea erabaki duten kantitateek erabaki izanak, eta kantitate nahikoarekin horrela biztanleria modu osasungarrian elikatu ahal izateko, zuzenean erlantzionatzen da elikadura-subiranotasuneko estrategiarekin, eta iraunkortasun ekologikoko irizpideak inplikatzeko horiek. Emaitza hori giza eskubideei buruzko zehar-lerroarekin lotuta dago, elikadura eta osasuna, eta zer elikagai eta zer nolako kantitatea produzitzeko herriek duten eskubidea, funtsezko elementuak dira emakume eta gizonen bizitza duina izan dezaten.

Indicadores

1.1 IHE: Proiektua egikaritzeko lehenengo urtean, 150 gizon nekazariri eta 75 emakume nekazariri gaitasuna eman zaie laborantza-teknika iraunkorretan, laboreen bertako barietate alternatiboetan eta teknika tradizional eta egokietan.

1.2 IHE: Proiektua egikaritzeko lehenengo urtean, gaitutako gizonen eta emakumeen gutxienez bertako 2 fruta barietate berri eta 2 barazki barietate berri sartu zituzten norberaren kontsumorako beren produkzioan.

Bi adierazleak aurrerapausoak neurtzera bideratuta daude, emakume eta gizon nekazarien gaitasunei dagokienez. Gaikuntzaren bidez ezagutzak eta trebetasunak indartu nahi dira, teknika iraunkorrak erabilita produkzioaren errendimendu handiagoa lortzea eragingo dutenak. Kasu honetan, berriz ikusten ditugu helburu kuantitatibo bereziak gizon eta emakumeentzat, eta arrestian adierazi bezala, funtsezkoak dira emakumeen aurrerapausoak balioesteko.

1.4 IHE: Proiektua amaitutakoan egur-enpresak mozketa murrizteko konpromiso bat sinatu du

Biztanleriak bere ingurumen-eskubideen defentsan duen salaketa- eta eragin-gaitasunarekin lotzen da adierazle hori. Antolamenduaren sustapenaren bidez, aurrerapausoa lortu nahi da biztanleriaren mobilizazio-gaitasunean eta enpresarekin akordioak lortzeko duen ahalmenean, enpresa hori ingurumenari eragiten ari zaizkion kalteak murrizteko.

Jarduerak

1.1 J. Gizon eta emakume nekazariak honako gai hauen inguruan gaitzeko 3 tailer:

- Bertako laborantza barietate berriak.
- Produkzioko teknika iraunkorrak.
- Eta abar.

Jarduera hori gizon eta emakume nekazarien gaitasunen igoerarekin lotzen da produkzio-teknika iraunkorren erabileran eta haien produkzioaren gainera daitezkeen bertako laborantza barietateen ezagutzan aurrera egiteko. Gaitasun horiek gehitzeak bidea zabaltzen du iraunkortasun-irizpideetan oinarritzen diren produkzio-eredu berriak bilatzeari, baita beste estrategia berri batzuei ere, hala nola elikadura-subiranotasunari.

1.5 J. Salaketa- eta gorabehera-batzorde bat sortzea zur-enpresaren jardueretan

Jarduera horrekin La Esperanzako biztanleriaren antolamendu-maila sendotu eta biztanleen eskubiak, batez ere ingurumen-arlokoak, defendatzeko mobilizazioa eta intzidentzia bultzatu nahi da.

III.3.6. Zeregin, baliabide eta kostuen taula

Proiektuaren Plangintzako Ideia Nagusia definitutakoan eta proiektuaren emaitza eta helburu bakoitza lortzeko garatu beharreko jardura guztiak planifikatutakoan, hurrengo urratsa zero da, aurreikusitako jardura guztiak burutzeko beharrezkoak izango diren baliabide guztiak –giza baliabideak eta baliabide materialak– kalkulatzea.

Baliabideen kalkulu zehatza lehen urratsa da aurrekontu on bat lantzeko eta oinarritzkoa da proiektua eraginkortasunez egikaritzeko. Fase honetan izandako edozein akatsek jardueren garapena baldintzatuko du, planifikatuta geneukan moduan behintzat, eta horietakoren bat egitea ere ekar dezake, proiektuaren emaitza eta helburuak eraginpean hartuta. Beharrezko baliabide materialek kalkulatzea funtsezkoa den bezalaxe, oinarritzkoa da, halaber, beharrezkoak diren giza baliabideen aurreikuspen errealista egitea.

Kalkulu zehatza egiteko, oso erabilgarria da plangintza xehatua egitea, honako hau zehaztuta:

- Jardura bakoitzak eskatzen dituen zereginak.
- Burutuko diren zeregin horietaz arduratuko den/diren pertsona edo pertsonak.
- Zeregin bakoitza garatzeko beharrezkoak diren baliabideak.
- Baliabide horietako bakoitzak dakarren kostua.

Horretarako, honako taula hau proposatzen dugu erreminta gisa:

Jarduerak	Zereginak	Arduraduna/k:	Baliabideak	Kostuak
1.1 J.				
1.2 J.				
1.3 J.				

14 Irudia. Zeregin, baliabide eta kostuen taula
Iturria: una gestión y comunicación.

Jarduerak zereginetan banantzea lagungarria da xehetasun guztietan pentsatzeko, bestela oharkabe-an pasatuko liratekeen xehetasun guztietan pentsatzeko. Era berean, zeregin bakoitzaren arduraduna nor izango den xehatzeko zutabe bat taulan biltzean, argi eta garbi bereziko ditugu hainbat gai, hala nola honako hauek:

- Lanaren bidezko banaketa egiten ari ote garen.
- Aitzitik, dauzkagun langileek burutu ditzaketenak baino jarduera gehiago planifikatzen ari ote diren.
- Egungo langileekin zer profil betetzen ez diren.
- Inplikaturiko langileek zer prestakuntza-premia eskatzen dituzten
- Pertsona edo talde batzuek zereginekin gehiegi kargatzen ari ote garen.
- Arreta berezia jartzea zereginen esleipenean generoko rol tradizionalak ez errepikatzeke.

kasu praktikoa

3.6 J. Jarduerak (Komunitate bakoitzeko gizonak eta emakumeak nutrizioaren eta osasunaren inguruan gaitzeko 3 tailer) honako zeregin hauek eskatzen ditu burutzeko:

- Tailerren edukiaren diseinua.
- Beharrezko materiala prestatzea.
- Gurasoentzako deialdia.
- Lokala egokitzea.
- Tailerra ematea.

Informazio horrekin, taula betetzen hasiko gara:

Jarduerak	Zereginak
3.6 J.	
Komunitate bakoitzeko gizonak eta emakumeak nutrizioaren eta osasunaren inguruan gaitzeko 3 tailer	Beharrezko materiala prestatzea.
	Tailerren edukiaren diseinua.
	Emakumeentzako eta gizonentzako deialdia.
	Lokala egokitzea.
	Tailerra ematea.

Zeregin horietako bakoitzari pertsona arduradun bat edo batzuk esleitzeko diogu/dizkiogu:

Jarduerak	Zereginak	Arduraduna/k
3.6 J.		
Komunitate bakoitzeko gizonak eta emakumeak nutrizioaren eta osasunaren inguruan gaitzeko 3 tailer	Beharrezko materiala prestatzea.	Osasun-zentroko zuzendaria/ Proiektuaren gaikuntza-batzordea.
	Tailerren edukiaren diseinua.	Osasun-zentroko zuzendaria/ Proiektuaren gaikuntza-batzordea.
	Emakumeentzako eta gizonentzako deialdia.	Proiektuaren gaikuntza-batzordea.
	Lokala egokitzea.	Proiektuaren gaikuntza-batzordea.
	Tailerra ematea.	Osasun-zentroko zuzendaria.

Cada una de las tareas requerirá tener previstos unos recursos:

Jarduerak	Zereginak	Arduraduna/k	Baliabideak
3.6 J.			
Komunitate bakoitzeko gizonak eta emakumeak nutrizioaren eta osasunaren inguruan gaitzeko 3 tailer.	Beharrezko materiala prestatzea.	Osasun-zentroko zuzendaria/Proiektuaren gaikuntza-batzordea.	Papelogafo 1. 2 Errotuladore. Papera (folio-pakete 1). 30 Bolaluma.
	Tailerren edukiaren diseinua.	Osasun-zentroko zuzendaria/Proiektuaren gaikuntza-batzordea.	Kontsultarako liburuak. Ordenagailua.
	Emakumeentzako eta gizonentzako deialdia.	Proiektuaren gaikuntza-batzordea.	Garraioa (erregaia).
	Lokala egokitzea.	Proiektuaren gaikuntza-batzordea.	30 Aulki. 5 Mahai.
	Tailerra ematea.	Osasun-zentroko zuzendaria.	Irakasle 1.

Beharrezko baliabideak zein diren argi edukitakoan, dagokien kostua esleitu beharko diegu. Zenbait kasutan jada badaukagun baliabide bat izan daiteke, jarduera hori eskaini diezaikeguna komunitatearen ekarpen gisa, baina, edozein kasutan ere, baliabide hori erosteak ekarriko lukeen kostua islatuko dugu. Ikus dezagun adibidea:

Jarduerak	Zereginak	Arduraduna/k	Baliabideak	Kostuak
3.6 J.				€
Komunitate bakoitzeko gizonak eta emakumeak nutrizioaren eta osasunaren inguruan gaitzeko 3 tailer.	Beharrezko materiala prestatzea.	Osasun-zentroko zuzendaria/Proiektuaren gaikuntza-batzordea.	Papelogafo 1. 2 Errotuladore. Papera (folio-pakete 1). 30 Bolaluma.	50 10 20 10
	Tailerren edukiaren diseinua.	Osasun-zentroko zuzendaria/Proiektuaren gaikuntza-batzordea.	Kontsultarako liburuak. Ordenagailua.	200 800
	Emakumeentzako eta gizonentzako deialdia.	Proiektuaren gaikuntza-batzordea.	Garraioa (erregaia).	20
	Lokala egokitzea.	Proiektuaren gaikuntza-batzordea.	30 Aulki. 5 Mahai.	100 100
	Tailerra ematea.	Osasun-zentroko zuzendaria.	Irakasle 1.	500
JARDUERAREN KOSTUA, GUZTIRA				1.810

Taula horrela betetzen badugu, azkenean erraz lortuko dugu jarduera bakoitza burutzea eragingo duen guztizko kostua. Jarduera bakoitzarekin prozedura berari jarraitzen badiogu, jardueren guztizkoaren kostua izango dugu jarduera bakoitzaren kostuak batuta.

Baina, jardueren garapenari zuzenean loturiko baliabideez gain, proiektu guztietan badira zenbait ondasun, zerbitzu edo pertsona jarduera jakin bati zuzenean lotuta ez daudenak, baizik eta proiektu osoari. Hau da, beharrezko baliabideak dira proiektua kudeatzeko: koordinatzailea, erakundearen lana garatzen deneko lokalaren alokairu-gastuak, eta abar. Baliabide horiek kalkulatzeko taulan ere bildu behar dira, dagozkien kostuak bezalaxe, hots, proiektuaren kostu orokorrak deiturikoak.

Hortaz, proiektuaren guztizko kostua jardueren guztizko kostuen batura gehi proiektuaren kostu orokorrak litzateke.

III.4. Proiektuak formulatzea: plangintza dokumentu batean laburtzea

III.4.1. Formulazioaren oinarriko elementuak

Identifikazio-fasea osatuta, proiektua planifikatuta dagoela esan daiteke:

- Helburuak finkatu dira, partaidetza-metodologiaren bidez biztanleriarekin eginiko diagnostiko batean oinarrituta.
- Emaizak ezarri dira helburuak bete daitezzen.
- Jarduerak planifikatu dira emaitza bakoitza lortzeko.
- Baliabide espezifikoak esleitu zaizkio jarduera bakoitzari.
- Aurrerapausoak neurtzea ahalbidetuko duten adierazleak ezarri dira.

Proiektuaren gakoak definitutakoan, erabilgarria izango da dokumentu batera aldatzea, proiektuaren alderdi nagusiak eta iturburu duen identifikazio- eta plangintza-prozesuarenak laburbilduko dituenak, baita lortu nahi diren emaitzen eta horien inpaktua egiaztatzeko neurrien aurreikuspen bat ere. Proiektuaren helburu nagusiak dokumentu batean gauzatzeko helburua plangintza prozesua aldatzea da, bertan parte hartu ez duen edozein pertsonak jatorria, helburuak eta aurreikusitako emaitzak uler ditzan.

Proiektua dokumentu batera aldatzea erabilgarria da taldean lan egiteko planifikaturiko proiektuari buruz, lan- edo lankidetzaren proposamen gisa aurkezteko beste erakunde batzuei edo erakunde emailer bati laguntza ekonomikoa eskatzeko.

Badira zenbait alderdi proiektua laburbiltzen duen dokumentuan sartu beharrekoak, eta nolabaiteko adostasuna dutenak garapenerako lankidetzan lan egiten duten agente gehienek artean, proiektuaren formularioa deritzona osatzen dutenak. Proiektuaren alderdi nagusiak laburbiltzen dituen dokumentua da formularioa, betiere proiektuarekiko kanpoko edozein pertsona edo agentek dokumentu hori ulertzeko moduan.

Proiektuaren formulazio-fasea proiektuaren informazio garrantzitsu guztia dokumentu edo formulario batera iraultzean datza. Proiektuaren formularioaren idazkuntzak, plangintza ona egin bada zeregin zaila ez bada ere, zenbait gako kontuan hartu beharra eskatzen du:

- **Argitasuna eta sipleutasuna:** garrantzitsua da informazio garrantzitsu guztia hizkuntza sinplea erabiltzea. Hitz tekniko gehiegi erabiltzea saihestuko da eta idatzi beharko da kontuan izanda proiektua irakurriko duten pertsona batzuek ez dakitela ezer proiektuari buruz, ezta eskatzen dituen premiei edo inplikatzeko duen biztanleriari buruz ere. Sarritan, suposatuzat jotzen da proiektua formulatzen dutenek oso argi duten informazioa, baina proiektua irakurtzen duten pertsonak ez daukate zertan jakin eskaintzen ez bazaie.

- **Laburtasuna:** informazio garrantzitsu guztia aurkeztu behar da, baina laburpen-ahalmena erabilita, datuen kantitate handiagoak ez du beti informazio hobea esan nahi, eta, hori horrela, alderdi ba-koitzari buruz informazio garrantzitsua soilik bildu beharko da, orokortasunak edo xehetasun ge-hiegi saihestuta.
- **Zorroztasuna eta zehaztasuna:** zehazteko eta laburbiltzeko ahalmena izatea bateragarria da infor-mazio zehatza eskaintzearekin, hala dagokionean. Zenbait gaik datu jakinak, zehatzak eta betiere zorrotzak ekartzea eskatzen dute. Formularioan azaltzen den guztiak egindako plangintzaren kohe-rentzia eta trinkotasuna helarazi behar du.

Erakunde emaile ia guztiek diru-laguntzak eskatzeko formulario propioekin lan egiten dute, eta horiek betetzea ezinbesteko baldintza da laguntza ekonomikoa eskatzeko, sarritan. Baina formulario guztiek badituzte zenbait atal erkide, proiektu batekiko babesa zenbaterainokoa den jakiteko eta aztatzeko alderdiak funtsean berak direlako.

Kontuan izanda eskuliburu hau Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzaren ekimena dela harekin lan egiten duten erakundeei laguntzeko eta erakunde honek formulario batek bildu beha-rreko funtsezko alderdi guztiak biltzen dituela, Eusko Jaurlaritzaren Garapena Sustatzeko eta Laguntze-ko Funtsearen diru-laguntzak eskatzeko formularioaren funtsezko elementuetan oinarrituko gara¹¹.

Proiektuaren deskribapen laburtua

Formularioaren hasierako orrien ondoren, administrazio-informazioari eskainitakoak, formulario batean bete beharreko lehen atala proiektuaren deskribapen laburtuari buruzkoa da.

Proiektuaren laburpenean garrantzitsua da proiektuaren gako nagusiak laburbiltzea (gehienez 10 lerro-tan, gomendioen arabera), laburpena irakurrita proiektuaren funtsezko ideia ulertzeko. Proiektuaren deskribapen laburbildua idazteko funtsezko bost gairi erantzun nahiko zaie:

- Zein da proiektuaren helburua, zer premiari erantzuten die eta zer emaitza lortu nahi ditu?
- Nola burutuko da proiektua, zer esku-hartze jakin planteatzen da definituriko premiei erantzuteko?
- Non garatuko da proiektua?
- Noiz, zer denboratan edota fasetan burutuko dira ekintzak?
- Zein da xede-biztanleria eta zein dira ezaugarri nagusiak?

¹¹ Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Funtsa.

Kokapen zehatua

Formulario guztiak atal bat biltzen dute bertan esku-hartzearen egoera geografikoa zehazteko, informazio orokorra oinarri hartuta eta ahalik eta zehaztasun-maila handiena lortuta.

Garrantzitsua da proiektua zein herrialdetan garatzen den, baita estatua, probintzia edo departamentua ere, eta udalerri zehatza eta -hala badagokio- proiektuan inplikaturiko komunitateen izena ere bai. Erabilgarria da ahalik eta zehaztasun handiena lortzea, eta jarduerak komunitate bateko baserri jakin batean, herrixka espezifiko batean edo gune lokalizatu batean garatzen badira, ahalik eta informazio zehatz eta osoa ekarri behar da betiere.

Atal horretan ez da xehetasunik eman behar gai demografiko, geografiko edo klimatologikoei buruz.

Testuingurua, aurrekariak eta justifikazioa

Hiru kontzeptu desberdin dira, sekuentzia bat osatzen dutenak proiektuaren "historiaren" deskribapena, eta lagungarriak dira ulertzeko nondik abiatzen den, zer errealitatei erantzuten dion eta zergatik den esku-hartze koherente bat.

Idea zehatza eman behar dute honako hauei buruz:

- Zein diren proiektuaren jatorriak, aurreko zein jarduni erantzuten dien egungo proiektuak.
- Zein inguruetan egiten den: zein dituen ezaugarri sozial, ekonomiko, politiko eta kulturaltzat eta, batez ere, nola lotzen diren horiek proiektuaren jatorrizko problematikarekin eta proposaturiko helburuekin.
- Zein diren konpondu nahi diren arazoak: jatorriak eta testuinguruaren ezaugarriak ikusita, zergatik duen zentzurik planteatzen den proiektuak.

Testuingurua

Proiektua bertan egitea aurreikusita dagoen esparrua da. Honako hauei buruzkoa da:

Alderdi geografikoak

Egoera, orografia, klima, biztanleria, biodibertsitatea, eta abar. Deskribapen laburra egitea komeni da eta proiekturako interesgarriak diren xehetasunetan soilik geratzea.

Azalpen bat eskaini nahi da, proiektua ingurune jakin batean kokatu nahi duena, baina ez da beharrezkoa azalpenak ematea proiektuak aurre egin beharreko premietan eragina ez duten gaiak buruz, edo proiektuaren lan-prozesuan eraginik ez dutenei buruz.

Gai batzuek besteekin alderatuta duten garrantzia proiektuaren jardun-esparruak baldintzatzen du.

Adibidea

Nekazaritza-produkzioa ardatz duen proiektu baten formularioan, esanguratsua gerta daiteke inguruko klima eta labore propioak azaltzeko gelditzea, baina ez ordea eragin politikoko proiektu batean edo klimaren eragina baldintza ez duen edozein sektoretakoa.

Alderdi ekonomikoak

Informazio garrantzitsua proiektuaren, eskualdearen eta –batez ere– jardungunearen ezaugarriei buruz, biztanleriaren diru-sarreraren mailari, produkzio-sektore nagusiei, sektoreen arabera lanaren banaketa sexualari, emakumeen eta gizonen errentari, balizko produkzio-sektoreei eta abarri buruz.

Proiektua zuzenean produkzio-esparruarekin lotzen den neurrian, gehiago zehaztu beharko da informazioa, batez ere proiektuaren xede-gaiei buruzkoa.

Beste atal batzuetan bezala, garrantzitsua da kasu honetan eskaintzea dagokion informazioa hautatzea, ez baitu zentzurik herrialde osoko edo proiektuaosatzen duten elementuengan eragina ez duen inguruko aldagai sozio-ekonomikoak zehaztea.

Alderdi politikoa

Inguruko edo herrialdeko koiuntura politikoa, proiektuaren edukiekin lotzen diren gaiak nabarmenduta.

Kasu honetan, erabilgarria da inguruko egoera politikoa deskribatzea (agintarien jarrera erakundearen lanarekiko, lankidetzeta-aurrekariak, gatazkak, eta abar) eta proiektuaren emaitzetan izan dezakeen eragina taxutzea.

Alderdi sozialak

Proiektua garatzen den inguruko emakume eta gizonen ezaugarriak, hizkuntza-errealitatea, biztanleria indigena bada zein etniatakoak diren eta zein kosmoikuspegi duten, testuinguruan gertatzen diren problematika sozial nagusiak, genero-harremanen egoera, emakumeen eta gizonen ahulezia eta indar nagusiak, biztanleriaren antolamendu-maila, eta abar.

Garrantzitsua da nahikoa informazio eskaintzea proiektuan planteatzen diren premiak biztanleriaren premien mapa orokorrean kokatzeko.

Beste gai esanguratsu batzuk eta proiektuan eragina dutenak

Ekarritako datuak genero-azterketatik fokatu behar dira, emakumeen eta gizonen egoera bereizita deskribatzeko moduan, eta, hortaz, datuak sexuaren arabera bananduta ekarriko dira. Kontuan ez da soi-

lik estatistika-datu bereiziak izatea, baizik eta, horietan oinarrituta, ondorioak ateratzea, emakumeek eta gizonek bizi duten errealitate bereziaren "argazkia" izatea ahalbidetzeko moduan.

Ez da beharrezkoa deskribapen oso luze eta xehatua egitea inguruko errealitatea osatzen duten alderdi guztiei buruz, baizik eta proiektuaren ingurunearen deskribapen orokor bat eskaintzea eta, batez ere, proiektuarekin zuzeneko erlazioa duten eta proiektua garatzeko garrantzia berezia duten gaiak jorratzea. Adibidez, prozesu historikorik baldin badago proiektuaren garapenean eragina duenik, labur azaldu da, baina ez da zehaztuko inguruko historiari buruzko ikerketa bat balitz bezala.

Laburbiltzeko ahalmenaren gakoarekin lan egin behar da berriz ere eta identifikatzen jakin zein diren azaltzeko interesgarriak diren testuinguruko gaiak, proiektua irakurtzen duenak uler dezan atal bakoitzean adierazten denaren lotura planteatzen den esku-hartzearekin.

Aurrekariak

Argi geratu behar du nondik datorren ekimena, ba ote dagoen aldez aurreko proiektu edo esku-hartzerik antzeko problematikarik aztertu duenik edo jardunak garatzen ari ote diren proiektuak osatzen dituenak. Proiektuaren "historia kontatzeko" unea, inplikaturiko erakundeena, antzeko esperientziarena, alde bakoitzaren inplikazioarena, egikaritu eta identifikazioarekin burutu diren prozesuena.

Honako gai hauek bildu behar dira:

Erakunde eskatzailearen eta herriko erakundearen arteko harremanak

Proiektuaren erakunde kudeatzaileek batera garatu dituzten jardunak zein diren azaltzea, sektore eta testuinguru berean zein beste batzuetan edo beste inguru batzuetan.

Ideaia zera da, bermeak eskaintzea bi erakundeek esperientzia dutela inguru horretako antzeko esku-hartzeetan eta, gainera, elkarlanean bidea eginga dutela. Bi faktore horiek proiektuaren kudeaketa egoia errazten dute eta, hortaz, positiboki balioetsitako gaiak dira.

Erakunde eskatzailearen eta herriko erakundearen profila

Bi erakundeen jardun-lerroak eta horiek proiektuaren helburuekin nola uztartzen diren ere balioetsi beharrezko gaiak dira, erakundeen koherentziaren eta plangintza estrategikoko mailaren erakusgarri baitira.

Bere eginkizuna, ikuspegia eta balioak zein diren eta horiek lortzeko helburu estrategikoak eta ekintza-norabideak finkatuta dituen erakundea bere barne-prozesuetan sendoturiko erakundea dugu, proiektuari ikuspegia eta esperientzia ekartzen dioten lan-ildo argiekin.

Erakunde bakoitzaren zein jardun-lerro lotzen diren proiektuaren helburuekin zehaztu beharko da, nola dauden lerro horiek bilduta haren plangintza estrategikoetan, haren eginkizunean, ikuspegian eta balioetan, nola lotzen diren proiektuaren helburuak erakundearen genero-politikarekin, eta abar.

Beste agente edo erakunde batzuk proiektuan eta haren posizioan inplikatura egotea

Proiektua nola dagoen planifikatuta balioesteko beste faktore bat zera da, proiektua garatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen agente edo erakundeak kontuan hartu diren jakitea. Helburu antzekoak eta osagarriak dituzten agenteen arteko ahaleginen baturak indartu egiten du jardunen inpaktua eta balioa da berez ere, sinergiak koordinatu eta aprobetxatu egiten baititu.

Argitu beharko da beste erakunde batzuek ere proiektuan inplikazioaren bat dutela, nola hartzen duten parte berran, zer zeregin dute, horien eta proiektuaren erakunde kudeatzaileen artean zein harreman ezarri den eta horien arteko koordinazioa nola definitu den.

Nola identifikatu zen proiektua

Proiektuaren helburuak nola identifikatu ziren funtsezkoa da proiektuaren beraren arrakasta bermatzeko. Atal honetan, egiaztatu nahi da proiektuak bermeak erakusten dituztela hainbat punturi buruz:

- Erakunde kudeatzaileek helburu estrategikoak partekatzen dituzte
- Esperientzia dute antzeko proiektuen garapenean
- Esku-hartzeak testuinguruaren eta biztanleriaren egiazko premia batzuei erantzuten die, azterlanek eta datu zehatzek bermaturikoak.
- Diagnostiko-prozesu on bat egin da, inplikaturiko biztanleriaren parte-hartzearekin

Prozesua zehatz-mehatz azaldu behar da:

- Norik parte hartu duen: zein izan diren diagnostikorako informazio-iturriak: erakundeak, aurreko diagnostiko-dokumentuak, inguruaren eta biztanleriaren problematikei buruzko onartutako txosten edo azterlanak, proiektuan zuzenean inplikaturiko kolektiboak, kolektibo bakoitzeko zenbat emakume eta zenbat gizon-.
- Noiz egin den identifikazioa.
- Nola burutu den: zer dokumentu edota azterlan erabili diren oinarri gisa datu diagnostikoak lortzeko, biztanleriarekin partaidetza-prozesu bat egin ote den hasieratik inplikatzeko proiektuaren diseinuan, nola egin zaien deialdia emakumei eta gizonei, zer metodologia erabili diren arazoak identifikatu eta helburuak lehenesteko, eta zer estrategia diseinatu diren interes-kolektibo guztien parte-hartzea bermatzeko.
- Zer identifikatu den: prozesutik ateratako ondorio nagusiak laburtzea –detektaturiko arazoa eta markaturiko helburuak–.

Proiektua nola erlazionatzen den herrialdeko edo eskualdeko politika edo planekin eta proiektua aurkezten zaion erakundearekin

Proiektuarekin ekintza-ildo edo helbururen bat partekatzen duten nazioko, eskualdeko edo harriko jardun-planen kasua da hori, edo proiektua haietan txertatzen den erakunde finantzatzailearen planak, estrategia-herrialde gisa.

Prozesuen deskribapenaz gain, eranskinetan bilduko duen dokumentazioarekin oinarritzeko komeni da: ildo estrategikoak, genero-politika, identifikazio-prozesuak, lankidetzak-hitzarmenak, bi erakundeek aurretik kudeaturiko proiektuak (zenbatekoa eta finantzaketa bilduta).

Justifikazioa

Atal honetan, idazkuntzak proiektua abiaraztearekin konpondu nahi den arazoa deskribatzea izan behar du aztergai eta -batez ere- arazo horrek proiektuaren helburu espezifikoarekin duen zuzeneko harremana azaldu. Identifikazio-fasean detektaturiko premien eta markaturiko helburuen arteko koherentzia frogatzea da gakoa. Hau da, azaltzea zergatik markaturiko helburua eta gure esku-hartzeak biltzen dituen jarduerak baliagarriak izan behar dute identifikatu ditugun arazoak eragozteko.

Funtsezkoa da irmo argumentatzea zergatik den planteaturiko esku-hartzea egokia xede-biztanleria-erentzat. Ildo horretan, diagnostiko-prozesuari helduko diogu, xede-biztanleriako emakume eta gizonen identifikaturiko premiei eta fase horretan biztanleriak izan duen parte-hartze aktiboari, eta horrek egokitasuna eta legimititatea ematen dizkio diagnostikoari.


Kontuan izanda problematika bakoitzari aurre egiteko estrategia posible oso desberdinak daudela, garrantzitsua da ondo argumentatzea zergatik hautatu den estrategia jakin hori proiekturako, eta ez beste bat. Frogatzea nola lortuko diren planifikaturiko jardueren bidez aurreikusitako emaitza eta, horrenbestez, markaturiko helburu espezifikoak.

Azkenik, labur azaldu beharko da zein den zehar-lerro bakoitzerako jarraitu beharreko estrategia.


Garrantzitsua da argitasuna, zehaztasuna, argumentu irmoak aurkeztea eta ez kontzentratzea arazo oso orokorren deskribapenean edo proiektua egikaritzearekin inolako zerikusirik ez dutenetan.

Kasu praktikoa

La Esperanzako proiektua formulatzen ariko bagina, proiektuarekin zein arazo nagusiri ekitea adieraziz hasi beharko genuke. Egokia litzateke labur gogoratzea –Aurrekarien atalean zehaztuko zen lehena-gotik– erabaki hori identifikazioko partaidetza-prozesu baten fruitu izan dela, eta prozesu horretan arazo zehatz bat eta helburuen zehatz bat egin dira, eta identifikaturiko elementu guztien artean jarduteko estrategia jakin bat hautatu da.




Arazo hori dela-eta, honako hau da planteatzen den proiektua:



Horrela, koherentzia ikusten da proiektuaren helburuen eta identifikazioan detektaturiko problematiken artean.

Bigarren pausoa zera da, azaltzea nola izango den lagungarri hautaturiko estrategia emaitza horiek lortzeko, zergatik diseinatu diren emaitza horiek eta zergatik izango den lagungarria emaitza horiek lortzea helburu espezifikora iristeko.



Azkenik, zehar-lerroak gaineratzeari buruzko estrategiei dagokienez, honela laburbildu ahalko genituzke:

Gaitasunak, parte-hartzea eta antolamendua

- Gaikuntza laborantza-teknika berrietan, produkzio teknika iraunkorretan, produktibitatea hobetzeko teknikak, teknika tradizionalak, merkaturatzea, kudeaketa eta plangintza ekonomikoa.
- Lanbide-heziketa emakume eta gizon gazteentzat.
- Nekazarien erakundea sortzea.
- Emakumeen parte-hartzea gehitzea nekazaritza-antolamenduan.
- Gizon eta emakumeentzako gaikuntza nutrizioan eta osasunean.

Generoa

- Emakume nekazarien kopurua gehitzea.
- Gaikuntza alderdi teknikoetan baina baita estrategikoetan ere (merkaturatzea, kudeaketa eta plangintza ekonomikoa).
- Laborantza-teknika tradizionalak balioestea, normalean emakumeek erabilitakoak.
- Gizonen inplikazioa nutrizioari eta osasunari buruzko gaikuntzan eta seme-alaben zaintzan.

Eskubideen ikuspegia:

- Osasunerako eta nutriziorako eskubidea bizi-esperantza gehitzea eta desnutrizio-mailak gutxitzea.
- Eskubide ekonomikoak: diru-sarrerak gehitzea eta diru-sarrera horiek kontrolatzea.

Iraunkortasun ekologikoa

- Elikadura-subiranotasuna: oinarritzko dieta bat bermatzea barne-produkzioarekin eta zer laborantza barietate landu nahi dituzten erabakitzea.
- Gaikuntza laborantza-teknika iraunkorretan.
- Labore organikoak sustatzea, produkzioaren ehuneko jakin bat haiei eskainita.
- Zur-enpresaren jardueraren aurreko biztaleriaren mobilizazioa.

Esku-hartze logika

Proiektuarekin zer lortu nahi den adierazten du esku-hartze logikak eta nola pentsatzen dugun hori egitea. Iritsi nahi den azken egoera zein den eta horretarako aurreikusitako bitartekoak zein diren argitzen duen eskema da.

- "Azken egoera" hartarako bidean jarri nahi den helburu orokorrarekin eta lortu nahi den helburu espezifikoarekin lotzen da.
- Horretarako emaitza jakin batzuk lortu beharko dira.
- Emaitza horiek lortzeko zenbait jarduera egin beharko ditugu.
- Jarduerak burutzeko zenbait baliabide behar ditugu.

Esku-hartze logika deitzen zaio proiektuaren elementuen artean harreman logikoa ezartzen duelako. Logika hori "goitik behera doa", hau da, zehatzenarekin hasi eta orokorrenarekin buka, eta logika bete egingo da aurreikusitako jarduerak garatuta emaitzak lortzen baditugu, helburu espezifikoa lortzen badugu eta helburu orokorrera hurbiltzen bagara.



Formulazio-fasean diseinatuta dago jada plangintzako ideia nagusia, identifikazio-fasearen azken pausoa baita. Horrenbestez, une horretan aldatu beharko dira formularioan Plangintzako Ideia Nagusiaren elementu guztiak:

- Helburu orokorra.
- Helburu espezifikoa.
- Espero diren emaitzak.
- Helburuen eta emaitzen adierazleak.
- Helburu eta emaitzak egiaztatzeko iturriak.
- Helburuen eta emaitzen hipotesiak.
- Emaitza bakoitzerako aurreikusitako jardueren zerrenda.

(Ikus III. Kapitulua 2. Egingo duguna planifikatzea: proiektuaren plangintzako ideia nagusia).

Aurreikusitako jardueren zerrenda

Espero den emaitza bakoitza lortzeko beharrezkoak diren ekintzen multzoa dira jarduerak.

Plangintzako ideia nagusian aurreikusitako emaitza bakoitzetik hainbat jarduera eratortzen dira, hots, emaitza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak.

Aurreikusitako jarduerak garatuta espero diren emaitzak lortuko direla bermatu behar du plangintzak. Emaitzaren baterako beharrezkotzat jotzen diren jarduera guztiak ezin badira planifikatu, ez dauka zentzurik emaitza hori mantentzea, badakigu-eta ezin direla bermatu hori lortzeko beharrezko bitartekoak. Kasu bakoitzean, emaitza aldatu egin beharko litzateke.

Garatzeko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide tekniko eta materialak esleitura izan behar ditu jarduera bakoitzak. Esleituriko baliabiderik izango ez dituzten jarduerak diseinatu badira, pentsatzekoa da plangintza ez dela beteko.

Jarduerak ez dute behar adierazleak formulatzerik, egin direla erakusten baitu haiak garatu izanak.

Formulazio-dokumentu emaitza bakoitzerako aurreikusitako jardueren zerrenda adierazi behar da eta labur azaldu nola aurreikusten den bakoitza burutzea.

Atal horretan zer metodologia erabiliko den zehaztuko da, nori bideratuko den eta nola ahalbidetuko den xede-biztanleriaren parte-hartzea dagokion garapenean. Hori guztia zehaztasunaren eta laburpen-ahaltenaren gaketik abiatuta, jarduera bakoitza abiaraztearen datu esanguratsuak azpimarratuta.

Xede-biztanleriaren parte-hartzea

Proiektu baten formulazio-dokumentuko ezinbesteko atal bat jardueren ardatz izango den biztanleria deskribatzeari eta definitzeari buruzkoa. Deskribapen bete-beteko bat egiteko, honako hau azaldu beharko da:

Xede-biztanleriaren identifikazioa

Lehen urratsa da prozesuaren protagonista izango den biztanleriaren zehaztapen xehatua egiteko, honako hauei buruzko datuak ekarrita:

- Proiektuaren xede-biztanleria osatzen duten emakumeen eta gizonen kopurua (ahalik eta zehatzegina). Ezinbestekoa da kuantifikazioa sexuaren arabera bananduta egotea, baita esanguratsuak diren beste zenbait alderdiri jarraiki ere:
 - Etnia.
 - Adina.
 - Talde sozioekonomikoa.

- Aukera erlijiosoak, politikoak edo beste era batekoak .
- Intereseko beste gai batzuk.
- Biztanleriaren ezaugarri sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta politikoak: oso labur deskribatzea alderdi esanguratsuenak eta proiektuarekin lotzen direnak.
 - Biztanleriaren produkzio-jarduera nagusiak.
 - Nola zatitzen diren sexuaren arabera produkzio-jarduerak.
 - Komunitateak edo kolektiboak egituratzeko moduak.
 - Nola diren genero-erlazioak.
 - Zein diren botere-erlazioak.
 - Garrantzizko alderdi soziopolitiko edo erlijiosoak.
 - Gatazka edo barne-dinamika posibleak.
 - Kolektiboen ahalduntze-maila.
 - Identifikaturiko subjektuen antolamendu moduak.

Xede-biztanleria hautatzeko irizpideak

P proiektuan inplikaturako biztanleriari buruzko datuak ekarritakoan, interes-talde batzuk hautatzeko eta beste batzuk ez hautatzeko jarraitutako irizpideak adierazten dira:

- Proiektuak biztanleria jakin hori aztergai hartzeko arrazoiak.
- Kolektibo espezifikoren bat lehenetsi bada, azaldu zergatik eta zer irizpideri jarraitu zaien.
- Talde edo kolektiboren baten aldeko diskriminazio-neurriak hartu ote diren.

Xede-biztanleriak haietan parte hartzen duen proiektuaren faseak

Proiektu guztiek bildu behar dute xede-biztanleriaren parte-hartzea bere fase guztietan eta ahalbidetzeko beharrezko neurriak ezarri. Zehaztea nola inplikatzen diren subjektuak proiektuaren identifikazioan eta diseinuan eta nola dagoen aurreikusia egingo duela bakoitzak egikaritzapenean, jarraipenean eta ebaluazioan.

- Burutu diren ekintzak azaltzea eta fase bakoitzean aurreikusita daudenak xede-biztanleria proiektuaz jabetu dela bermatzeko
- Burutu diren ekintzak zehaztea, eta fase bakoitzean aurreikusita daudenak, emakumeen parte-hartze efektiboa espezifikoki ahalbidetzeko berdintasun-baldintzetan.
- Burutu diren neurri espezifikoak eta fase bakoitzean aurreikusita daudenak azaltzea, kalteberatasun-egoeran dauden biztanleria-taldeek erabateko partaidetza izan dezaten baldintza-egoeran.

Beste atal batzuetan bezala, komeni da azalpenekin batera burututako eta aurreikusitako neurriak idazki bidez jasotzen dituzten eranskinak prestatzea.

Jardueren kronograma

Jardueren egutegia definitzea funtsezkoa da ekintzaren denbora-esparrua osorik bistaratzeko, faseak bereizteko eta jardura bakoitza zer unetan egingo den argitzea.

Kronograma on bat lantzea lagungarria da proiektuan erabiliko diren giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoen plangintza eta arrazionalizazio hobea lortzeko.

Kronograma diseinatzeko, planifikaturiko jarduerak kokatzen dira egutegi bat daukan taula batean –bat, bi, hiru edo sei hilabeteko epeetan zatituta egon daitekeena– eta hortik eratortzen da proiektuaren aurreikusitako guztizko zenbatekoa.

Emitza bakoitzerako aurreikusitako jardura guztiak eta dagokien denbora-kokapena bildu behar ditu taulak. Jardura bakar bat ere ezin gera daiteke kronogramatik kanpo.

Jardueren kronograma erabilgarria da planifikatzeko, honako honetarako lagungarria baita:

- Denboraldi bat jardura askorekin ez gehiegi betetzea
- Jarduerak garatzea ezinezkoa izango dela badakigun aldietan jardura horiek planifikatzeko aukera saihestea (testuingurua gorabehera: uza-garaiak, eguraldi kaskarra, eta abar):
- Aldeko koiuntura izango den aldietan jarduerak planifikatzea

Horretaz gain, kronogramak datu grafikoetarako sarbidea izatea ahalbidetzen du kronogramak eta proiektuaren aurreikusitako plangintza betetzen ari ote den egiaztatu. Horrela, kontrola dugu izan daitezkeen desdoikuntzen gain eta erreakziona daiteke desbideratzeak zuzentzeko eta jardueren denbora-plangintza birplantatzeko.

III.4.2. Zehar-lerroak formulazioan sartzea

Formularioa betetzerakoan, ezinbestekoa da nola integratzen dituen proiektuak zehar-lerroak.

Samitan, zehazgabetasunetan edo anbiguitasunetan erortzen gara atal hori idazterakoan, zehar-lerro bakoitza proiektuaren zer alderditan zehazten den argitzea ez delako erraza edo dagokion gaineratzearen lana ez delako egin plangintzan.

Atal honetan kontua ez da paragrafo teorikoak edo asmo-deklarazioa idaztea zehar-lerro bakoitzarekiko, baizik eta proiektuak biltzen dituen gai jakinak aldatu behar direla bakoitza lantzeko, betiere argi

geratzeko moduan zertan zehazten den genero-ikuspegia, gaitasunen sendotzea, eskubideen ikuspegia eta iraunkortasun ekologikoa proiektuaren elementuetan.

Zehaztu beharrekoa da zer helburu, emaitza, adierazle edota jarduera dauden bideratuta zehar-lerroak lantzerantz eta zer estrategia eta metodologia bilduta dauden horien integrazioa ahalbidetzeko. Komeni da azaltzea nola landu den zehar-lerro bakoitzaren inkorporazioa proiektuaren zikloaren faseetan.

Genero-ikuspegia

Genero-ikuspegiari buruzko zeharkakoari dagokionez, argitu behar da nola izan diren kontuan problematika eta helburuen identifikaziotik. Zehaztu abiapuntua genero-azterketa bat izan ote den, proiektuak emakumeen ahalduzko-estrategiak aurreikusi ote dituen eta zer aldaketa espero den horien praktikan jarrita lortzea gizonen eta emakumeen egoeran eta posizioan.

Adierazi behar da proiektuaren erakunde kudeatzaileek beren gain hartzen ote duten genero-ikuspegia alderdi teknikoa gainditu eta arlo instituzional eta estrategikoan sartzen den elementu gisa. Genero-ekitatearen aldeko apustua eraginkorra izan dadin, erakundearen politika gisa planteatu behar da, helburu, emaitza eta akzio jakinekin. Apustu politikoa behar du izan, erakundearen pertsona guztiak eta arlo edo departamentu guztien funtzionamendu inplikatzeko duena. Horrenbestez, nabarmendu behar da proiektua erakundeak definitu duen genero-politika batean biltzen ote den eta zehaztu nola lotzen diren politika eta proiektua.

Esanguratsua da informazioa ekartzea honako hauei buruz:

Identifikazioa

- Nola izan den premien eta lehentasun identifikazio-prozesua: arazoaren zehaztea, helburuen zehaztea.
- Nola parte hartu duten emakumeek prozesuan eta zer estrategiari jarraitzeko erabakian.
- Zer datu nagusi lortu diren gizon eta emakumeen egoera eta posizio desberdinari buruz. Genero-azterketa.
- Zer mekanismo erabili diren bermatzeko emakumeek parte har dezatela eta haien eskaerak diagnostikokoan bilduak izan daitezkeen.
- Zein izan diren identifikaturiko premia eta lehentasunak eta zeinek erantzuten dieten interes estrategikoei eta emakumeen premia praktikoei.
- Zer helburu eta emaitza dauden genero-ekitatea lantzerantz bideratuta.
- Zer adierazle izango diren lagungarri emakumeen ahalduzkoan eta genero-ekitatean aurrerapausoak neurtzeko (aurrerapausoak arlo kuantitatiboan eta baita kualitatiboan ere).
- Helburu eta emaitzak nola aldatu diren ekintza jakin batzuetan, emakumeen premia praktikokoak zein interes estrategikoak betetzera bideraturikoak: helburuak eta emaitzak jarduerekin lotzea.

- Egiaztatzea planifikaturiko jarduerak aurrekontuan esleituriko baliabide materialak eta giza baliabideak dituztela, burutuko direla bermatuko dutenak: aurrekontua jarduerekin lotzea.

Ahalduntze-estrategia

Beste atal batzuetan aipatu denez, lankidetzak ekintzek bildu egin behar dituzte emakumeen ahalduntzera bideratutako ekintzak. Atal honetan informazio zehatza eman behar da ildo horretan proiektuak edo programak hartzen duen estrategiari buruz, honako hauei buruzko datuak ekarrita:

- Estrategia zertan datza, zein duen funtsezko helburutzat, eta zer desberdintasun eta desorekari aurre egin nahi dien.
- Zer ekintzatan zehazten den: kontzientziazioa, prestakuntza, gaikuntza eta abar, eta zein diren horietako bakoitzerako estrategiak/metodologiak.
- Nola antolatzen den emakumeen parte-hartzea, zer neurri bildu diren parte-hartze egiazko eta eraginkorra lortzeko.
- Zer aldaketa lortzea espero den emakumeen egoerari dagokionez.
- Zer aldaketa lortzea espero den emakumeen posizioari dagokionez.
- Gizonak tartean sartu ote diren eta nola planteatzen den haien parte-hartzea.
- Neurriak biltzen ote diren beste emakume batzuekin aliantza estrategiakoak sortzeko.

Egikaritzea

- Nola aurreikusi den izatea emakumeen inplikazioa eta parte-hartzea ekintzen garapenean.
- Zer neurri dauden aurreikusita haien parte-hartzea bermatzeko.

Jarraipena eta ebaluazioa

- Ideia nagusian formulaturikoen artean zein diren genero-ekitateko adierazleak.
- Adieraztea nola dagoen aurreikusia ebaluatzea genero-inpaktua.
- Aurreikusitako neurriak zehaztea emakumeen parte-hartzea bermatzeko proiektuaren edo programaren ebaluazio-unean.

Herriko gaitasunak indartzeko estrategia.

Beharrezkoa da azaltzea zer estrategia hartu duen proiektuak gizonen eta emakumeen gaitasunak sendotzeko eta arreta berezia eman behar zaio gizonezkoek eta emakumezkoek gaikuntza bidezko baldintzetan lortzeko neurri espezifikoak zein diren azaltzeari.

Identifikazioa

- Adieraztea gaitasunei dagokienez zer gabezia detektatu diren identifikazioan.
- Azaltzea zer neurri hartu diren fase honetan kolektibo kalteberen parte-hartzea bermatzeko.
- Adieraztea zer eskaera egin dituzten gizonak eta zer eskaera emakumeek arazoaren definizio-prozesuan: zer gaikuntza-premia adierazi dituzten emakumeek eta zer gaikuntza-premia gizonak.
- Proiektuaren helburu eta emaitzak zerrendatzea gizonak zein emakumeek adierazitako premien arabera.
- Adierazi zer jardura diseinatu diren emaitza horiek lortzeko.
- Detektaturiko problematikak aztertzea zer estrategia hartu den azaltzea.
- Zer emaitza lortzea espero den definitzea.
- Proiektuak genero-erlazioetan zer efektu izango dituen azaltzea.

Egikaritzea

- Adieraztea zer gaikuntza-ekintza aurreikusi diren.
- Zehaztea nola burutuko diren: nola parte hartuko duen biztanleriak jardueran garapenean. Nork zer egingo duen.
- Gizonen eta emakumeen parte-hartzea bermatzeko bilduriko metodologiak definitzea.

Jarraipena eta ebaluazioa

- Gaitasunen sendotzeari buruzko adierazleak adieraztea, gizonen eta emakumeen artean bereizita.

Estrategia eta proiektuan parte hartzeko prozesuak, eta proiektua bukatutakoan sortutako egiturak.

Atal honek hasieratik proiektuan inplikaturiko agente guztien parte-hartzea nola gauzatu den eskatzen du.

Honako gai hauek adierazi beharko dira:

Identifikazioa

- Problematikak, helburuak eta estrategiak identifikatu direneko fasean inplikaturiko talde guztien parte-hartzea nola planteatu den.
- Nola bermatu den talde kalteberenek parte hartzea.

- Beste agenteekin ituntzeko guneak sortzea aurreikusi ote den: sozialak, instituzionalak eta abar.
- Prestakuntza planifikatzea aurreikusita ote dagoen hainbat gairi buruz:
 - Kultura demokratikoa
 - Parte-hartze estrategiak
 - Liderrentzako prestakuntza parte-hartze prozesuetan

Zein diren finkaturiko irizpideak parte hartzeko guneen ordezkagarritasuna bermatzeko.

Neuririk biltzen ote den bermatzeko parte-hartzerako guneak gardenak direla funtzionamendu orokorrari dagokionez eta erabakiak hartzeari buruz.

Egikaritzea

- Zer ekintza jakin egikaritutako diren onarturiko parte-hartze estrategia burutzeko.
- Zer ekintza jakin aurreikusten diren emakumeentzat.
- Zer mekanismo jarriko diren martxan parte hartzea nahi dugun taldeek autonomiaz parte har dezaten.
- Zer mekanismo aurreikusten diren emakumeek aurreikusitako guneetan parte har dezatela bermatzeko.
- Biztanleriaren ahalduzteari dagokionez aurreikusten diren emaitzak: zenbaterainoko eragina izango du proiektuak edo programak bultzatzen duen parte-hartzeak pertsonen gaitasunen sendotzean, batez ere emakumei eta kolektibo kalteberei gagozkiela? (autoestimua hobetzea, autonomia pertsonala gehitzea, eragiteko ahalmena indartzea).
- Parte-hartze estrategiaren eragina genero-harremanetan: eragina izan al du horrek emakumeek aurreko egoerarekiko sozietatean/komunitatean/famlian duten posizioan? emakumeek lehen arrotz zitzaizkien guneetan (esparru publikoa) sartu al dira? Eta gizonak, presentzia handiagoa al dute gune pribatuetan/familiaguneetan)?

Jarraipena eta ebaluazioa

- Azaltzea zer adierazle aurreikusten dituen proiektuak aurrerapausoak neurtzeko parte-hartzeari dagokionez.
- Aurreikusitako neurriak zehaztea inplikaturiko kolektibo guztien parte-hartzea bermatzeko proiektuaren edo programaren ebaluazio-uneetan.

Antolamendua sendotzea

Azaltzea nola ari diren proiektua bultzatzen antolamendu-prozesuak, sinergiak eta helburu erkideak dituzten agenteen arteko koordinazio helburu estrategikoak lortzeko, nola ari diren sustatzen balio demokratikoak, hezkuntza zibiko, sozial eta politikokoak eta gizarte-erantzukizuneko kulturakoak.

Identifikazioa

Proiektua planifikatzerakoan antolamendu-alderdiak kontuan hartzeko, inplikaturiko biztanleriaren autonomia-mailari buruzko informazioa biltzen duen egoeraren azterketa hartzen da abiapuntutzat, honako gai hauei buruzkoa:

- Biztanleria antolatzeko modua eta horri buruz identifikatu diren biztanleriaren indar eta ahuleziak.
- Lidertza mota eta inplikaturiko biztanleriak hori egikaritzeko duen modua.
- Detektaturiko defizit posiblea: balio demokratikoetan oinarrituriko hezkuntzakoa, eta abar.
- Inplikaturiko talde guztiek prozesu honetan parte-hartzea bermatzeko neurriak, bereziki talde kalteberenak eta emakumeak.
- Lidertza demokratikoak sendotu nahi ote diren, batez ere emakumeenak, eta nola.
- Neurriak hartuko ote diren (tailerrak, gaikuntzak eta abar) honako hauek sendotzeko:
 - Balio demokratikoak
 - Gizarte-erantzukizuneko kultura
 - Gizarte- eta politika-hezkuntza

Aurreikusitako lorpenak: zer alderdi estrategiko ari garen sendotzen proiektuaren edo programaren ekintzen bidez.

Egikaritzea

- Zer neurri aurreikusten dira herritarren parte hartzeko guneen funtzionamendu egokia bermatzeko: erregelamenduak eta araudiak sortzea, gatazkak konpontzeko guneak, eta abar.
- Zer neurri hartuko diren erakundeak sendotzeko, batez ere emakumeenak eta herri indigenenak.
- Ituntzeko guneak sortzea planifikatu ote den: udal-kontseiluak, auzoko edo komunitateko batzordeak, eta abar.
- Nola aprobetxatuko diren lidertza horiek antolamendua sendotzeko eta eragin biderkatzailea izateko.
- Nola indartuko den beste kolektibo batzuekin sareetan egindako lana, betiere kolektibo horiekin interesak partekatzen badira herriko edo komunitateko estrategiak planifikatzeko.

Jarraipena eta ebaluazioa

- Azaltzea zer adierazle aurreikusten dituen proiektuak aurrerapausoak neurtzeko antolamenduari dagokionez.
- Aurreikusitako neurriak zehaztea inplikaturiko kolektibo guztien parte-hartzea bermatzeko proiektuaren edo programaren ebaluazio-uneetan.

Giza Eskubideen ikuspegia

Azalduko dugu zer helburu, emaitza eta jardura biltzen dituen proiektuak Eusko Jaurlaritzarekiko lankidetzako planteatzen duen giza eskubideen ikuspegiarekin. Arreta berezia eskainiko zaie emakumeek eta talde kaltebera eta baztertuei beren eskubideak erabat baliatuko dituztela bermatzeko neurriei.

Identifikazioa

Informazioa ekartzea honako hauei buruz:

- Identifikazio-fasea detektaturiko zuzenbideko subjektuen gaitasunak: jabetzen ote diren dauzkaten eskubideez eta ukatzen dizkietenez, eta abar.
- Eskubideak betetzeari buruz diagnostikoan lorturiko informazioa: zenbait kolektibori eskubideak urratzea edo gabetzea, batez ere emakumeei dagokienez.
- Inguruko giza eskubideen erakundeei buruzko lanaren inguruko jakintza.
- Inguruan egindako salaketako edo eskubideak sustatzeko mobilizazio posibleei buruz lorturiko informazioa.
- Betebeharren titularren egoera.

Egikaritzea

Detektaturiko arazoetatik ekintza batzuk ondorioztatuko dira. Formularioan argi adierazi beharko da nola egikarituko diren ekintza horiek, betiere eskubideen defentsa, salaketa, sustapena, hedapena edota prestakuntzaren klabetik begiratuta. Zenbait gai zehaztu beharko dira, hala nola:

- Hartuko diren neurriak eskubideen urraketari buruzko salaketak babesteko: esaterako, herriko erakunde edo instituzioek egindako salaketako legezkotasunak babestea, laguntza juridikoa ematea, eta abar.
- Eskubideen zabalkundea babesteko neurriak: eskubideen behatokiak sortzea, prestakuntza- eta informazio-materialak lantzea, mintegiak antolatzea, eta abar.
- Pertsonen hezkuntza/prestakuntza sendotzeko ekintzak aurreikusten ote diren, subjektu diren eskubideei dagokienez.

- Nola babestuko den emakumeen eskubideen sustapena: legeko aholkularitzak, laguntza ematea salaketa-prozesu edo prozesu judizialean, aldaketak sustatzen araudi eta legeetan (lurren titular-tasuna, eta abar).
- Nola indartuko diren giza eskubideetako herriko erakundeak.
- Salaketa-ekintzak hobetzeko gaikuntza sendotzeko neurriak: GGKE eta gobernuentzako prestatu-tza tresnei buruz, juridikoki baliagarriak izango direnak giza eskubideen uraketengatik sala-ketei oinarria emateko.
- Biktimak babesteko neurriak: Egia-aren batzordeak sortzea, lekukotzak biltzea salaketa publikora-koa, babes-sistemak baliatzeko aukera ahalbidetzea, eta abar.
- Sareetako lanerako babesa: biztanleria estatuko edo nazioarteko kanpainetan inplikatzeko auke-ra sustatzea.

Jarraipena eta ebaluazioa

- Zehaztea zer helburu eta adierazle formulatu diren esku-hartzearen logikan jarraipen eta ebalua-zioa egin ahal izateko giza eskubideak sendotzeko prozesuei.
- Aurreikusitako neurriak zehaztea inplikaturiko kolektibo guztien parte-hartzea bermatzeko proiektuaren edo programaren ebaluazio-uneetan.

Iraunkortasun Ekologikoa

Identifikazio-fasean azaltzen denez, Ingurumeneko Aurretiazko Ebaluazio bat egitea gomendatzen da edo, proiektuaren ingurumen-inpaktuak esanguratsuak badira eta ingurumen-legediak hori eskatzen badu, Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio bat (IIE) egitea. Ingurumen-inpaktu negatiboak arintzeko eta in-paktu positiboak sendotzeko neurriak proiektuaren formularioan islatu behar dira.

Islatuta geratu behar du nola gaineratzen dituen proiektuak iraunkortasun ekologikoko irizpideak, kon-tzeptua prebentzio-klabea ulertuta (ingurumenari loturiko garapena), eta ez sendatze-klabea ulertu-ta, ingurumen-efektu negatiboak arintzeko.

Illo horretan, informazioa ekarriko da, irizpideak faseetan nola integratu diren biltzen duena:

Identifikazioa

Aldagai hau bildu behar da arazo-identifikazioan eta, horrenbestez, informazioa bildu beharko da ho-nako puntu hauei dagokienez:

- Ingurumen-egoera: identifikazioan horrelako arazoak detektatu ote diren eta horrek pertsonengan dituen ondorioak, gizonenganako eta emakumeenganako ondorioak bereizita.

- Informaziorik ba ote dagoen inplikaturiko biztanlerian hondakinak nola kudeatzen dituen, eta be-tiere inguru horretan.
- Daturik lortu ote den zer energia erabiltzen den gehiago eta zergatik puntuaren inguruan.
- Xede-biztanleriaren gaitasunak ingurumen-egoeraren ulerkuntzari eta horren kausen azterketari dagokionez.
- Subjektuen ahalduntzea eta proposamen alternatibo iraunkorrak egiteko duten gaitasuna.

Egikaritzea

- Nola biltzen duen proiektuak energien erabilera arduratsua sustatzea: kontzientziazio-programak eta abar.
- Zer ekintza jakin aurreikusten dira teknologia berrien erabilera ahalbidetzeko.
- Azaltzea ingurunearen zaintzarekin loturiko alderdiei buruzko prestakuntza biltzen ote den: birziklatze-jarraibideak, energia garbien aprobetxamendua (eguzki-panelak).
- Azaltzea aurreikusita ote dagoen natura errespetatzen duten eta naturarekin orekan dauden neka-zaritze-tekniketan zabalkundea egitea eta gaitzea.
- Azaldu produktu propioen erabilera sustatuko ote den, eta nola.
- Zehaztea proiektuak biltzen ote dituen nagusi den garapen-eredua zalantzan jartzen duten eta al-ternatiba iraunkorrak bilatzen dituzten ekintzak.

Jarraipena eta ebaluazioa

- Zehaztea zer helburu eta adierazle formulatu diren esku-hartzearen logikan aurrerapausoen jarrai-pen eta ebaluazioa egin ahal izateko iraunkortasun ekologikoari dagokionez.
- Aztertzea nola integratu den ingurumena proiektuaren fase guztietan. Ingurumen Inpaktuko Azter-lan bat egin bazen, Ingurumen Kudeaketako Plana eta jarraipena eraginkorrak izan ote ziren azter-tuko da. Gainera, ebaluazio-irizpideek ingurumena kontuan hartuko dute, ahal dela. Horri dago-kionez, esaterako, aztertuko da kontuan hartu ote ziren arazoak azterketan identifikaturiko ingurumen-alderdiak (egokitasuna), modu eraginkorrean bildu ote ziren planteaturiko ingurumen-neurriak, ingurumen-baliabideak eraginkortasunez erabili ote ziren, ba ote den ingurumen-faktore-rik proiektuaren iraunkortasuna mehatxa dezakeenik eta, inpaktuaren kasuan, proiektua lagunga-rria izango al den garapen iraunkorrerako.
- Aurreikusitako neurriak zehaztea inplikaturiko kolektibo guztien parte-hartzea bermatzeko proiektuaren ebaluazio-uneetan.

III.4.3. Bideragarritasuna eta iraunkortasuna

Bideragarritasuna eta iraunkortasuna funtsezko elementuak dira giza garapenerako laguntza eraginkorra eskaintzen duten proiektuak egiteko.

Bideragarritasuna

Elementu horri esker proiektu batek aurreikusitako baliabideekin funtziona dezake, eta garatzen den zirkunstantzietan eta testuinguruan.

Iraunkortasuna

Garapen-proiektu baten helburuak eta inpaktu positiboak beren amaiera-dataren ondoren luze irautea ahalbidetzen duen elementua¹².

Lankidetzeta-sektorebakoitzak bideragarritasunari eta iraunkortasunari buruzko bere azterketa propioa du, baina badira aldez aurreko zenbait baldintza plangintzan ezinbestean kontuan hartu beharrekoak, proiektuan lagungarriak izan daitezten transformazio-lankidetzeta lortzeko, kalitatezkoa, koordinatua eta pobrezia estrukturala kentzen kontzentratutakoa:

- Herriko prozesuetatik aldaketa globaletara aurrera doazen transformazio-printzipioetan oinarrituriko garapen-alternatibak sustatzea.
- Ekintzak pobrezia eragiten eta mantentzen duten egituren transformaziorantz bideratzea.
- Prozesu endogenoak eta herriko garapen-estrategiak sendotzea.
- Pobrezia-egoeran dauden pertsonen eta herriek laguntzea beren garapenerako subjektu izateko prozesuan.

Bideragarritasun teknikoa hasitako ekintzetan

Bideragarritasun teknikoa aurreikusitako baliabide teknologiko, baliabide material, giza baliabide eta baliabide metodologikoak garatzeko egokitasunari buruzkoa da, betiere xede-biztanleriarekin garatzeko eta testuinguru egokian.

- Hiru faktoretan oinarritzen da lankidetzeta-akzioen bideragarritasuna:
- Efikazia: ekintzek planifikaturiko helburuak lortzea.
- Efizientzia baliabideen erabileran, helburuak minimo posibleekin lortzeko moduan.
- Iraunkortasun ekologikoa ekintza-esparru giza baliabideen erabilerari dagokionez.

¹² Pérez de Armiño, Karlos (zuz.), *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*. Hegoa, Icaria, 2000.

Bideragarritasunerako eta iraunkortasunerako inplikazioak baliabideen erabileran:

- Hasitako ekintza guztien ingurumen-inpaktua albat gehien mugatzea.
- Xede-biztanleriaren eta proiektua garatzen den inguruaren baliabide natural eta energetiko propioen erabilera.
- Materialen zikloa ixtean, inguruko ekosistema naturalak igorritako hondakinak nola birziklatu behar diren planifikatuta.
- Baliabide berriztagarriak erabiltzea, horiek ordeztzeko ekosistemak duen gaitasuna bermatuta.
- Baliabide ez-berriztagarriak erabiltzea, etorkizunean haien inguruan izango den premia eta alternatiben erabilgarritasuna aurreratuta.
- Baliabideen erabileran eraginkortasun-irizpideak aplikatzea, proiektuak inplikatzen duen produktu edo ekintza bakoitzeko horien kontsumo minimoa bermatzeko moduan.
- Nahikortasun-irizpideak aplikatzea baliabideen erabileran, baliabideen guztizko kontsumoa minimo posibleraino gutxituta.
- Teknologia egoki eta garbienak erabiltzea testuinguru bakoitzean.

Baliabide materialen kasuan, kontuan hartzekoak dira:

- Nahikortasun-irizpideak aplikatzea baliabide erabilerakoan, kontsumoa ahalik eta guztiena gutxitzeko.
- Testuinguru bakoitzean teknologirik egoki eta garbienak erabiltzea.
- Testuingururako egokitzapena ahalbidetzen duten ezaugarriak: eraikuntza-materialen, makinen eta ekipoen kasuan, inguruko aurkako fenomeno klimatologikoekiko erresistentzia balioestea —urakanak, sismoak, muturreko beroa, hezetasun-maila altuak, eta abar—.
- Baliabideekin egingo den erabilerara egokitzea.
- Kalitate-kostu erlazioa aurrekontu erabilgarriaren arabera.

Baliabide teknologiko eta teknikoek kasuan, erabiliko diren testuingururako egokitzapena balioetsi behar da honako puntu hauei buruz:

- Baldintza klimatikoak eta geografikoak.
- Egoera onean egongo dela bermatuko duten baldintzak.

- Xede-biztanleria teknologia jakin batzuen alde edo kontra jar dezaketen ohiturak eta kultura-erabilerak.
- Ekipoak erabiltzeko zailtasun-maila.
- Baliabide teknologikoak erabiltzearen arduradunen gaikuntza.
- Laguntza teknikoko edo ordezkoi piezen aukerak matxurak izanez gero.

Hezkuntza-baliabideei dagokienez, metodologia pedagogiko egokienak aplikatzeko, funtsezkoa da honako hauek kontuan hartzea:

- Xede-biztanleria prestatzeko premiak.
- Hezkuntza-jardueretan parte hartzeko jarrera.
- Ordu-tegi-prestasuna eta inguruko sasoi-egutegira egokitzea.
- Zailtasunak eta potentzialtasunak detektatzeko hezkuntza-baliabideak zuzentzen zaizkien kolektiboen ezaugarriak.
- Emakumeek eta kolektibo kalteberak edo gaitasun mugatuak dituztenek parte hartzeko dituzten zailtasun espezifikoak.

Bideragarritasunerako eta iraunkortasunerako inplikazioak hezkuntzaren eta kulturaren esparruan bildutako ekintzetan:

- Kultura-nortasuna sendotzea, betiere kultura guztiekiko errespetuaren printzipiotik, non eta kultura horien balioak tolerantzia diren beste kulturekin, eta kultura nagusiaren inposizioarako joera zalantzan jarrita.
- Xede-biztanleriaren ahalduztzean kultura-dimentsioa integratzen duten eta komunitate-zentzua indartzen duten ekimenak planifikatzea.
- Hezkuntza kulturantza eta eleantza sustatzea, herrien memoria errebalorizatzeko, emakumeen posizioa bistaratzeko eta kultura propioaren barruan bidezko estrategiak proposatzeko dituenak.
- Kultura-balio gisa planteatzen diren emakumeen aurkako diskriminazio-praktikak bereiztea eta generoko ekitaterik eza gisa bistaratzeko, horixe baita.
- Herri indigenentzako babes integrala lehenestea, haien antolatze moduak, hizkuntzak eta tradizioak sendotuta, betiere giza eskubideen esparruaren eta genero-ekitatean oinarrituriko garapen-eredu baten barruan.
- Komunikabide alternatiboak eta gizarte-komunikazio sare propioak indartzea.
- Kulturako herriko instalazioak sortzea eta bertako talde artistikoak sendatzea.

Giza baliabideei dagokienez, ezinbestekoa da honako puntu hauek ziurtatzea:

- Giza talde nahikoa dagoela aurreikusitako jarduera guztiak ezarritako denboran garatzeko.
- Giza taldeak esleituriko erantzukizunekiko gaikuntza egokia duela.
- Zereginen banaketa arrazionala ezarri dela, betiere kolektibo edo pertsona berak erantzukizunen gainkarga izan gabe.
- Zereginen eta erantzukizunen banaketak genero-ekitatea errespetatzen duela eta ez dituela emakumeen eta gizonen rol tradizionalak indartzen.

Proiektuaren formularioko bideragarritasun teknikoko azalpenari dagokionez, garrantzitsua da zehaztea proiektua burutzeko zer giza baliabide eta baliabide material dituen eta argumentatzea zergatik aukeratu diren horiek eta ez beste batzuk proiektuaren ezaugarrien eta azaldutako faktoreen arabera.

Bideragarritasun-azterketak egin dituzten proiektuen kasuan, ondorioak gaineratzen zaizkio proiektuaren dokumentazioari.

Bideragarritasun ekonomikoa

Bideragarritasun ekonomikoko azterketa ezinbestekoa produkzio-jarduerak diren edo produkzio-jarduerak biltzen dituzten proiektuetan. Kasu horietan, produkzio- eta merkatu-azterketak egin behar dira hasi nahi den ekimenak arrakasta-aukera izango duela ziurtatzeko.

Produkzio-proiektuek edo produkzio-osagaiak biltzen dituztenek abiapuntu gisa hartu behar dute po-brezia diru-sarrera soilik ez dela biltzen duen kontzeptua, eta gaitasuna, aukeren eta baliabide eta zerbitzuak baliatzeko aukeren eta botere eta pertsona eta herrien eskubideak egikaritzeko aukeren murrizketa ere inplikatzeko duela. Gizarte-agenteeek parte hartzen duten ekintzak lehenetsiko dira, eta ez soilik agente ekonomikoek parte hartuko dutenak.

Bideragarritasunerako eta iraunkortasunerako inplikazioak produkzio-proiektuetan

- Produkzio-, merkataritza- eta finantza-sistemek giza garapen iraunkorraren zerbitzura egon behar dute.
- Ikuspegi ekonomikoak iraunkorra behar du izan, kultura-aniztasuna errespetatu eta ekitatea sortu.
- Emandako kontsumo-jarraibideek arduratsuak eta koherenteak behar dute izan iraunkortasunarekin.
- Elkartze- eta kooperazio-lana lehenesten da.

Giza garapen iraunkorarekin bat datorren eredu ekonomikoa, honako ezaugarri hauei erantzuteko moduan:

- Bilakaera: iraunkortasunerantz doan ekonomia batean, gizartearen helburu estrategikoak lortzera eta bere erritmoak horretara egokitzera bideratu behar da berrikuntza.
- Autoantolamendua: gizarteak gidatu behar du sistema ekonomikoa bere premiak ingurumen-mugen barruan definitu eta gogobetetzeko, betiere antolamenduan, bereizketan, espezializazioan, lankidetzan eta egonkortasunean oinarrituta.
- Autosufizientzia: Autonomia baliabide propioen mende dago soil-soilik, betiere erabakitzeko gaitasuna izateko moduan.
- Aniztasuna: produkzio-aniztasunaren mende dago egonkortasun ekonomikoa, merkatuaren mendetasuna eragiten baitu espezializazioak.
- Deszentralizazioa: lehentasunezko premiak betetzea eta egonkortasuna nazioarteko merkatuaren aurrean hobeto bermatzen dira herriko baliabide eta teknologiak erabilia.
- Lankidetzaren: lehiaren nagusitasunaren ordez lankidetzaren jartzea ezinbesteko eskakizun gisa iraunkortasunerako, baita elementu kohesionatzaile gisa ere.

Baliabideen banaketa-sistema herri baten kulturaren zati da. Produkzio-jardueren plangintzak ekonomian eragitea dakar, eta ezinbestekoa da kanpoko produkzio, merkaturatze eta kontsumo moduen inposaketa ezartzea.

Hiru ardatz estrategikotan oinarritzen da lankidetzaren proiektuen bidezko eragina merkatuetan:

Herri-ekonomia

- Helburu sozialak ditu eta, hortaz, ekonomia eta produkzio-jarduerak bitarteko bat dira hori lortzeko.
- Herriko premiak betetzera bideratuta dago.
- Enpresa txikia, lan elkartua eta kooperatiboa dira kapital-lan erlazio modu nagusiak.
- Ahaldundutza duen bokazioak emakumeen lehentasunezko parte-hartzea eskatzen du.

Tokiko garapen ekonomikoa

Lurralde bat sendotzea hainbat agente sozial eta ekonomiko (publikoak eta pribatuak) itunduta estrategia integral, endogeno eta epe luzera planifikaturikoaren arabera.

Nazio eta tokian tokiko merkatuek jarraitzen dute izaten eragiketa ekonomiko gehienek garapen-esparru. Toki-esparruan, potentzialtasun espezifikoak ematen dira, elementu bereizgarriak ditu, baliozko xede ekonomiko bihurtzen dutenak.

Honako gako hauei erantzuten die tokian tokiko garapen ekonomikoko estrategiak:

- Integrala da, eta produkzioa, merkaturatzea, kreditua, prestakuntza, berrikuntza, enpresa-garapeneko zerbitzuak eta erakunde-esparru egokia sortzea biltzen ditu.
- Gaitasun endogenoak sortzen ditu, eta tokian tokiko gaitasun, helburu eta premiak sendotzen ditu, eredu esportatzaileen aurrean.
- Enpresa txiki eta ertaina dira oinarritzko agente ekonomikoak.
- Estrategiaren xede nagusia lurraldea da.

Elikadura-subiranotasuna

Kalteberatasun espezifikoen esposiziopean dago nekazaritza eta abeltzaintzako sektorea. Merkataritza-alderdi erdigune duen industria-nekazaritza neoliberalaren ereduak hainbat prozesu eragin ditu, hala nola lurraren edukitze desberdina, nekazarien proletarizazioa, ekosistemen suntsiketa, biodibertsitatearen pribatizazioa, tokian tokiko produkzio- eta merkaturatze-sistemen suntsiketa, elikagai transgenikoen ugaritzea eta elikagai-segurtasunaren merkantilizazioa.

Kalteberatasun horiei erantzunez, nekazaritza eta abeltzaintzako sektorean kontzentratutako jarduerak ikuspegi globaleko estrategia batean bildu behar dira, tokian tokiko produkzio- eta kontsumo-estrategietan oinarriturikoa.

Planteaturiko estrategia elikadura-subiranotasuneko proposamena da, berriz berriz produkzioa lehen-tasuntzat hartuko duen garapen agroekologiko gisa definituta; kontsumitzailearentzat eta produktorearentzat prezio bidezkoak eskainita; lurra, ura, haziak eta bestelako produkzio-baliabideak behar dituenaren esku jarrita; hori guztia nekazaritza-produkzio-estrategiari jarraiki, eta emakumeen erabateko parte-hartzea eta giza eskubideak errespetatuz¹³.

- Produkzio- eta merkaturatze-sistema: agroekologia lehenesten da, nekazaritza ekologikoa, baliabideen gaineko (ura, haziak) herriaren kontrola, lan-baldintza duinak eta herri-merkatuak produkzioaren azken hartzaile gisa.
- Prestakuntza-osagaien integrazioa eta finantzaketarako sarbidea.
- Lantzen den lurraren gaineko kontrol efektiboa.
- Gizarte-erakundeen arteko koordinazioa eta aliantzak.

Jardun-esparruak honelakoa izan behar du.

- Lurralde-eremukoa, herri-merkatuen garapena sendotzeko.

¹³ Plan Zuzentzailea E.U.

- Itundua eta integrala, gaitasunen metaketa eta produktuen balio erantsiaren hazkundea ahalbidetzeko.
- Epe luzerakoa, helburu zehatzak proposatu ahal izateko elikadura-segurtasunean, osasunean eta diru-sarreretan.

Produktzio-jarduerak martxan jartzeko, eta adierazitako premisak abiapuntutzat hartuta, funtsezkoa da ondo definituta edukitzea produktio- eta merkaturatze-prozesuko gako guztiak, eta ziurtatzea merkaturan irteera izango duten ondasunak produzituko direla.

Produktzio-jarduera bat hastea jardueraren arrakastan edo porrotean eragingo duten funtsezko faktoreak –produktzioa nola planifikatu, nola kudeatu, merkaturatzea nola maneiatu, merkatuaren ezaugarriak zein diren eta abar– kontuan hartu gabe, arrisku handia da, xede-biztanleriaren baliabide ekonomikoak, ahaleginak eta igurikimenak inbertitzen ari baikara inolako bermerik ez dugun proiektu batean. Aldez aurreko azterketak egitea lurzoru seguruagooa zantpatzea da. Egia bada ere ezein produktzio-proiektu ez duela bere arrakasta % 100ean bermatuta, eragin negatiboa izan dezaketean kanpo-elementuak sor baitaitezke betiere, gakoa ahal den guztia egitea izan behar du arriskuak eta zalantza albait gehien gutxitzeko.

Honako¹⁴ alderdi hauek aztertu behar dira:

- Eskaintza: zer antzeko produktu dauden, zer ezaugarri dituzten, zer preziotan saltzen diren, zer alde dituzten hasi nahi den produktioarekin, eta abar.
- Eskaria: zein izango lirarteke bezero potentzialak, zein gustu eta lehentasun dituzten, zer produktu bolumen eskatzen duten, eta abar.
- Kanpo-faktoreak: nolakoa den ingurune sozial, kultural eta politikoa, egoera ekonomikoa, ingurumen-arlokoa, eta abar.
- Gaitasun erabilgarriak: zer giza baliabide dauden eta zein diren horien gaitasunak –prestakuntzakoak, antolamendukoak eta abar–.
- Bitarteko baliagarriak: zer baliabide tekniko, azpiegitura eta garraiobide baliabideak daitezkeen.

Faktore horiei buruzko informazioak errealitateari buruzko ezagutza izatea ahalbidetuko du eta lagungarria izango da erabakiak hartzeko onartu beharreko merkatu-estrategiari buruz.

Bestalde, ekintzaren kudeaketaren plangintza ona diseinatu beharko da, produktio-ahalduntzearen esparruak nola erabiliko diren jakin:

- Giza baliabideen kudeaketa.

¹⁴ Mundukideren "Bideragarritasun Plana" dokumentuan oinarrituriko informazioa.

- Administrazio-gaiak.
- Arlo ekonomiko-finantzarioa.
- Plangintza operatiboa.
- Merkataritza-alderdia.
- Alderdi soziala.

Plangintza lagungarria izango da ekimenaren gain kontrola izateko, eraginkortasuna eta efikazia irabazteko, errentagarritasuna hobetzeko eta baliabide erabilgarriak –materialak, teknikoak eta giza baliabideak– optimizatzeko.

Bideragarritasun instituzionala

Garapen-prozesu propioei lankidetzaren proiektuen bidez laguntzeak eragina du boterearen banaketaregituran. Lankidetzaren ekintzak kontzentratzen diren boterearen kudeaketa-sistema eta esparrua tokian tokiko boterea da.

Tokiko boterea

Sinergiak sortzea tokiko administrazio demokratikoaren eta gizarte-mugimenduen artean, garapen-estrategia itundu eta ekitatiboa lortzeko, lurraldearen gaitasun multzoa mobilizatzeko duena.

- Toki-esparruan, prozesuak irimoi sortzen dira, gutxiago abstraktuak dira eta sendotu egiten dira.
- Biztanleriak bere bizitza garatzen dueneko esparrua da, eta komunitarioari buruzko zentzurik handiena dagoen esparrua.
- Toki-esparruak aktore publiko eta pribatuaren batura bultzatzea ahalbidetzen du pobrezia erabat baztertzeko borrokan.

Lankidetzaren ekimenek toki-boterea sendotzeko hiru bide dituzte:

- Laguntza tokiko erakunde eta gobernu demokratikoentzat: Tokiko erakundeak proiektuak txertatzen diren garapen-prozesuetan inplikatzeko berme demokratikoak ekartzen ditu, baita oinarriko elementuak ere (hala nola azpiegitura, laguntza tekniko, informazio publikoa), eta itun-prozesu bateko buru izan daitezke.
- Erakundearen eta gizarte zibilaren artikulazioa: Garrantzitsua da tokiko erakundeak eta gizarte zibilera elkartzeko eta parte hartzeko guneak izatea, bertan erabaki bateratuak hartu eta estrategia erakundeak definitzeko. Laguntza juridiko eta estrategikoa parte-hartze egiturak osatzeko, eta prozesu horietako bideratzaile eta parte-hartzaileen gaikuntza elementu estrategikoak dira tokiko boterea sendotzeko.

- Erakunde zibilak sendotzea; Partaidetza-estrategietako herritarren hezkuntza, liderren prestakuntza, antolamendu komunitario, sektorial eta lurralde-arlokoa, eta sare eta plataformetako partaidetza sustatzea, gizarte zibil antolatuan gaitasunak babestu eta ezartzeko modu gisa.

Proiektuaren xede-biztanleriaren errealitate sozial eta kulturalari dagokionez, kolektibo guztiak –gizonak eta emakumeak– gaineratu badira prozesuaren hasieratik, bermea dugu biztanleriak propirotzat sentitzen dituen premiei erantzuten diela, eta haien denborak eta jarduteko moduak errespetatzen dituela. Horrenbestez, bideragarritasun instituzionala bermatzeko ezinbesteko elementu bat xede-biztanleriak proiektua bereganatzea eta propirotzat sentitzea da.

Bestalde, funtsezkoa da herriko lider, agintari eta erakundeen babesa izatea, horiek ekimen osagarriak garatzen ari badira eta proiektuaren helburuak bilduta dauden epe luzerako garapen-prozesua partekatzen badute, hots, aurrerapausoa bada biztanleria xede den eraldaketa-prozesuan. Ildo horretan, identifikazio- eta diseinu-fasean agente horiek kontuan hartu badira eta gaineratu badira proiektuaren diagnostikoan zein diseinuan, koordinazioa, lankidetzak eta hitzarmenak bilduta, agenteekin proiektuarekiko sintonia dutela eta proiektuaz jabetu direla ziurtatuta egongo da.

Proiektuaren iraunkortasuna proiektua bera amaitu ondoren

Lankidetzaproiektu baten bokazioa zera da, pobrezia-egoeran dauden pertsonen eta herriek laguntzea beren garapenerako subjektu izateko prozesuan Baina lankidetzak ez ditu prozesuak sortzen, protagonizatzen edo zuzentzen. Hori horrela, ezinbestekoa da proiektuaren plangintzara hainbat neurri gaineratzea proiektuaren helburuak eta inpaktu positiboak iraun dezaten proiektua bera amaitu ondoren.

Proiektu baten emaitzek etorkizunean iraungo dutela bermatzen duten faktoreak askotarikoak dira eta zenbaitetan aurreratzeko zailak. Oso lotuta daude proiektuaren sektoreari eta haren gain eragin nahi den errealitateari. Honako gai hauek kontuan izanda lan egin daiteke:

- Gaitasunak ezarri al dira proiektuaren xede-biztanlerian?
- Proiektuaren emaitzei efektu biderkatzailea ematen dieten jarduerak planifikatu al dira?
- Nola ordeztuko dira finantzaketa kendutakoan garatu ezin diren ekintzak?
- Ezarri al dira proiektuaren iraunkortasuna bermatzen duten lankidetzako edo konpromiso-akordioak?
- Planifikatu al da nola maneiatuko den baliabideen kudeaketa proiektua amaitutakoan?
- Zer neurri aurreikusi dira proiektuaren esparruan erositako ondasunak mantendu eta zaintzeko?
- Nork hartuko du bere gain erositako ondasunen titulartasuna?
- Beharrezko funtsak al daude erositako ondasunak mantendu eta zaintzeko?
- Beharrezko gaikuntza aurreikusi al da zaintzea eta mantentzea eraginkorrak izan daitezkeen?

III.4.4. Aurrekontuaren kalkulua

Proiektuaren aurrekontuak garrantzi berezia du, eta zertzelada txikienei ere begiratuta zehaztu behar da. III Kapitulua, 2. atalean, *Égingo duguna planifikatzea: Proiektuaren plangintzako ideia nagusia* atalean, alegia, azaltzen den bezala, beharrezko baliabideen ahalik eta kalkulu zehatzena egitea da aurrekontua artikulatzeko oinarria. Baliabideak kalkulatzeko adierazitako jarraibideak jarraituta, eta Zereginak, baliabideak eta kostuak kalkulatzeko proposatutako taula erabilia, jarduera bakoitza burutzeak eragingo dituen kostuen aurreikuspen egiazkoa eta, jardueri zuzenean lotuta egon gabe ere, proiektua kudeatzeari lotutako beste gastu batzuen zenbatekoa zein den jakingo dugu. Pauso horiek jarraituta, proiektuaren guztizko aurrekontua edukitzea lortuko dugu, jarduera eta gastu orokorren arabera xehakatur.

Datu horiek dira proiektua aurkeztuko deneko finantza-erakundearen diru-laguntzak eskatzeko formulario ereduaren arabera aurrekontua eraikitzeke beharrezko inputak. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako formularioa ari gara erabiltzen; hala, ondoriozko aurrekontua Eusko Jaurlaritzaren Garapena Sustatzeko eta Laguntzeko Funtzaren deialdiaren dekretuak ezartzen dituen baldintzetara doitu beharko da, eta formularioan aurreikusitako eredura egokitu.

Aurrekontuaren plangintza egiteko garaian, proiektzio ekonomiko integrala egin behar da; honetan, kontuan hartuko dira, ez bakarrik proiektua gauzatzeko eragiten dituen kostuak, izan ere, barnean hartuko dira erakunde kudeatzaileek eskaini ditzaketen baliabideak, toki ekarpena zertan izango den, batera finantzatzeko beharrak, eta abar ere kontuan izango dira. Proiektu edo programa bat erakunde baten deialdian aurkezteko, aztertze lan bat egin behar da, eta erabakiak hartu behar dira zehazteko proiektuaren zein osagai nahi dugun hark finantza ditzan, eta zein bideratuko diren beste erakunde emaile batzuen bidez. Erabaki honetan, erakunde bakoitzaren lankidetzatzerro eta politikak erabili beharko dira, eskabideak modu egokian bideratzeko.

Aurrekontua egiteko pausoak

1. Kostuak kalkulatu dira, prestatutako jarduerak erreferentziatzen hartuta.
2. Jarduera jakin horietara zuzenean lotuta ez dauden beharrian guztien kostuak (koordinazioa, administrazioa...) kalkulatu dira.
3. Lortutako datuak formularioan sartuta dagoen finantziario koadroan jartzen dira –bertan, kostuak aurrekontu partiden eta finantziario-kideen arabera taldekatzeko dira-, diru-laguntzen deialdiaren dekretuan ezarritako baldintzak kontuan hartuta.
4. Egiaztatu egingo da ea aurreikusitako aurrekontua bat datorren finantziarioa eskatuko deneko erakundeak ezarritako baldintzekin.

Eusko Jaurlaritzaren Garapena Sustatzeko eta Laguntzeko Funttsaren formularioan sartutako aurrekontu ereduak eskatzen duenez, kostuak idazpen eta finantziazio-kideen arabera aurkeztu behar dira:

Aurrekontu partidak	Eusko Jaurlaritza	Euskal erakunde eskatzailea	Toki erakundea	Beste ekarpen batzuk	Guztira
Zuzeneko kostuak					
A.I. Lursail edo eraikinen erosketa					
A.II. Eraikinen eraikuntza					
A.III. Ekipo eta materialen erosketa eta garraioa					
A.IV. Tokiko langileen kostua					
A.V. Erbesteratutako langileen kostuak					
A.VI. Gaitze eta prestakuntza kostuak					
A.VII. Funtz birakaria					
A.VIII. Funtzionamendu kostuak					
A.IX. Ebaluazio kostuak					
Zuzeneko kostuak guztira					
Zeharkako kostuak			Ez dagokio	Ez dagokio	
Erakunde eskatzailearen administrazio gastuak			Ez dagokio	Ez dagokio	
Zeharkako gastuak guztira					
Guztizko orokorra eurotan					
Guztizko kostuen gainerako portzentajea					

Gainera, formularioaren eranskinetan eskatzen denez, aurrekontua aurkezteko garaian, aurrekontu-partida bakoitzean sartutako idazpenak adieraziko dira, bai eta horietako bakoitzaren kostua ere.

Aurrekontua eraikitzean kontuan hartu beharreko gai garrantzitsu batzuk:

Baterako finantzazioa

Eusko Jaurlaritzak proiektuen baterako finantzazioa edo finantzazio-kidetza egiten du, hau da, proiektuek osotasuntzat hartzen ditu, eta beraren ekarpenak beste eragile batzuen ekarpena osatzen du. Aurrekontua egiteko garaian, kontuan izan beharko da Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ezingo duela gainditu proiektuaren guztizko kostuaren % 75a; beraz, aurrekontuaren gainerako zatiaren ekarpena proiektuaren kudeatzaile diren erakundeek edota beste erakunde publiko edo pribatuek egin beharko

dute. Era berean, proiektuaren finantza-justifikazioak eragina izango du, bai Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzan, bai eta gainerako finantzazio-kideen ekarpenean ere.

Proiektuak finantzatzen dituzten erakunde gehienek finantzazio-kidetzaren irizpidea aplikatzen dute; hala, euren ekarpena proiektuaren guztizko aurrekontuaren portzentaje bat izango da, ez osoa. Finantzazio-kidetzaren portzentajeak aldatu egiten dira finantza-erakundearen eta deialdiaren arabera.

Zuzeneko eta zeharkako kostuak

Proiektu batean finantza daitezkeen gastuak honela taldeka daitezke:

- Zuzeneko kostuak: proiektua egikaritzearekin zuzenean lotutako eta berori gauzatzeko beharrezkoak diren gastuak.
- Zeharkako gastuak: proiektuaren administrazio gastuak.

Eusko Jaurlaritzaren Dekretuak zuzeneko kostuak eratzen dituzten aurrekontu-partida bakoitzaren barruan diruz lagundu daitezkeen gastuak zein diren ezartzen du.

Mugak aurrekontu-partida batzuetan

Aurrekontu-partida batzuen kostuen zenbatekoa –tokiko langileena, erbesteratutako langileena, ebaluazio edo administrazio gastuena– muga batzuei lotuta dago. Adierazitako partiden kostuak ezingo ditu gainditu proiektuaren guztizko edo zati bateko aurrekontuari dagokionez ezarritako gehienezko portzentajeak. Baldintza horiek zehaztuta datoz diru-laguntzen deialdi bakoitzaren dekretuan, eta hori betetzea oinarritzeko betekizuna da aurrekontua onartua izan dadin.

Aurrekontu baldintzak eta mugak aldatu egiten dira finantza-erakundearen eta eskatzen den diru-laguntzaren arabera; hala, oinarritzekoa da arreta jarri eta kasuan-kasuan erakunde bakoitzak ezarritako baldintzak betetzea.

Egiaztagirien aurkezpena

Proiektuaren zenbait kostu justifikatzeko, egiaztagiriak aurkeztu beharko dira: prof ormako faktura, aurrekontuak, kanpoko egiaztagiriak edo balorazioak. Araudiak zehaztu egiten du zein kasutan den beharrezkoa dokumentazio hori aurkeztea.

Aurrekontuaren justifikazioa

Aurrekontuan aurreikusitako gastu guztiak proiekturako adostutako egikaritze epe barruan eginak izan behar dute; beraz, proiektuaren hasiera egunaren aurretiko edo amaiera egunaren osteko data duten egiaztagiriak ez dira baliozkotzat onartuko.

Balioztapenak tokiko ekarpen gisa

Eusko Jaurlaritzaren araudiak baimendu egiten du tokiko ekarpenen partidetan sartutako kontzeptu batzuen balioztapenak sartzea, esaterako, lursailak, eraikinen eraikuntza edo ekipo eta materialak. Kontzeptu bat balioztatua aurkeztu ahal izateko bete beharreko baldintzak ere zehaztuta agertzen dira Eusko Jaurlaritzako finantza-protokoloan.

III. 5. Proiektuak egikaritzea: ekintza zehatzak prozesuen zerbitzura

III.5.1. Helburuak, denborak, bitartekoak eta aurreikuspenak

Proiektua abiaraztea bultzatu zuen eraldaketa-nahia egia bihurtzeko unea da egikaritze-fasea. Planifikaturiko praktikan jartzeko garaia da, eta aurreikusitako bitartekoek espero ditugun emaitzak latzera eramaten dutela egiaztatzeko garaia.

Nahi dugun lankidetzaproiektua egia bihur dadin, ezinbestekoa da identifikazio-, plangintza- eta formulazio-prozesua egikaritze-fase batekin osatzea, hiru funtsezko faktore arretagai izango dituenarekin:

- Talde egokia definitzea proiektuaren arduradun gisa.
- Beharrezko ekintzak eta horiek burutzeko pertsona arduradunak ezartzea.
- Taldearen premia eta gaitasunetarako egokia den egutegiaren plangintza egitea eta betetzea.

Proiektuaren talde arduraduna definitzea

Proiektuaren egikaritze-fasera igarotzearekin batera, parte hartzen duten pertsonen eta erakundeen kopurua gutxitu egiten da aurreko faseetik, edo bere paperak berdefinitu egiten dira.

Proiektuaren identifikazioan eta plangintzan xede-biztanleria osatzen duten talde guztiekin lan egin da, eta ikuspegi guztiak gaineratzera bideratu dira ahalegin guztiak. Baina, proiektuaren ekintzak egikaritzeko, ezinbestekoa da erantzukizun espezifikoak esleitzea pertsona jakin batzuei eta, hortaz, zuzeneko parte-hartzea artikulatzeko aukerak murriztu egiten dira.

Proiektuaren talde arduraduna definitzeko unea da, eta proiektuaren egikaritze-fasea betetzeko beharrezkoak diren erantzukizun jakin batzuk beren gain hartzen dituzten pertsona guztiek parte hartzen dute bertan.

Fase horretan arreta berezia jarri behar da plangintza-prozesuan ordezkaturiko talde eta kolektibo guztiek ordezkartza baliozkoa eta eraginkorra izan dezaten jarduerak egikaritzen diren bitartean.

Proiektuaren talde profesionalak proiektua egikaritzeaz arduratzen den taldean ordezkaturik daudela egiaztatzeko, identifikazio-fasean definituriko Xede Biztanleriaren Profilerako dezakegu, eta errepasatu ea proiektuan inplikaturiko kolektibo bakoitzak ordezkartza egokia duen talde arduradunean.

Funtsezkoa da saihestea proiektua egikaritzeko ardura soil-soilik teknikoa den talde baten gain erortzea, jardueren garapen eraginkorrean kontzentratutakoaren gain. Eraginkortasuna –helburuen lorpen zat ulertuta, betiere baliabideen erabilera egokia tarteko– balio positiboa da, baina ezin talde guztien parte-hartzea eta ekarpenak sakrifikatu kudeaketa eraginkorra lortzeko.

Garrantzitsua da proiektuaren kudeaketaren talde arduraduneari inplikaturiko talde guztien ikuspegia ere gaineratzea. Proiektuen kudeaketarekin loturiko zenbait zereginak pertsona guztien irismenera ez dauden espezializazio eta gaitasun teknikoak eskatzen dituzte. Horregatik, egokia da proiektuaren kudeaketaz arduratzen den taldeak gai teknikoetan espezializaturiko pertsonak biltzea (bereziki alderdi teknikoak, teknologikoak edo espezializazio-maila altukoak dituzten proiektuetan), baina funtsezkoa da neurri berean proiektuan inplikaturiko talde guztiek –eta batez ere xede-biztanleria osatzen duten pertsonak– parte hartzeko gune bat izatea proiektuaren kudeaketaren arduradun den ekipoa. Horrela, proiektuaren xede-biztanleriak bere ikuspegia zuzenean emango du proiektuaren aurrerapausoei buruz, eta ez alderdi teknikoetan kontzentratutako pertsonen interpretazioari buruz.

Proiektuaren ardura duen taldea:

Proiektuaren ardura duen taldea:

Taldeakide guztien zereginak eta eginkizunak argi eta garbi zehaztu behar dira, baita funtzionamendu-dinamikak, koordinazio-instantziak eta bileren egutegia ere.

Proiektuaren identifikazioan eta plangintzan parte hartu duten sentsibiltate eta kolektibo guztien ordezkariak bildu behar ditu proiektuak.

Emakumeek eta gizonak ekitatez parte hartu behar dutela hartu behar du aintzat, eta arreta berezia jarri behar du zereginak esleitzerakoan genero-rol tradizionalak errepika ez daitezen.

Zereginak eta erantzukizunak esleitzeko taula

Proiektuaren plangintza-fasean, zeregin, baliabide eta kostuen taula osatu da, eta, taula horren arabera proiektuan aurreikusitako jarduera bakoitza zeregin jakin batzuetan banandu da, zeregin horiek gauzatzeko arduradunak izendatu dira, eta dagozkien baliabide eta kostuak kalkulatu dira:

Zeregin, baliabide eta kostuen taula				
Jarduerak	Zereginak	Arduraduna/k	Baliabideak	Kostuak
1.1..J.				
1.2..J.				

Proiektua egikaritzeko fasean, funtsezkoa da proiektua osatzeko abian jarri behar diren ekintza guztiak zehatz-mehatz aurreikustea, baita jarduera bakoitza arrakastaz gauzatzeko ardura nork hartu behar duen jakitea ere. Horretarako, zeregin, baliabide eta kostuen taularen edukiak hartu behar ditugu aintzat:

Taula horretan, proiektuan planifikatutako jarduerak bete-
tzeko abian jarri beharreko ekintza edo zeregin zehatzak
(ia guztiak) zehaztu dira, baita ekintza horiek betetzeko ar-
dura hartzeko izendatu diren ia pertsona guztiak ere.

Proiektua egikaritzeko fasean erabilgarri gertatuko den ze-
regin eta erantzukizunen esleipen-aula bat sortzeko,
proiektua identifikatzeko fasean zehaztu diren zeregin guz-
tiak bildu ditugu, dagokien jardueraren arabera zehaztuta:

Proiektuaren jarduerak betetzeko beharrezko ekintza eta ze-
regin guztiak bete ote diren aztertzen dugu, eta beharrezko-
tzat jotzen ditugun zeregin berriak eranstean ditugu.

Hala, zerrenda zehatza eta banandua edukiko dugu eskura, proiektuan planifikatutako jarduerak bete-
tzeko abian jarri beharko ditugun ekintza guztiak bilduko dituen.

Nolanahi ere, muga al daiteke proiektu baten garapena
planifikatutako jarduerak egikaritzera? Argi dago ezetz. Ba-
dira zeregin jakin batzuk proiektu bat arrakastaz burutzeko
ezinbestekoak direnak, jarduerekin inolako lotura zuzenik
ez badute ere. Honako hauek dira zeregin horietako ba-
tzuk: administrazio-lana, kontabilitatea, jarraipen-txostenak
lantzea, material eta ekipoen hornitzaileekiko tratua, lantal-
dearen koordinazioa, ekipoak mantentzea, automobilak gi-
datzea eta beste hainbat zeregin, proiektuaren ezaugarrien
arabera aldatuko direnak.

Zeregin eta erantzukizunen taula osatzeko, dagoeneko bil-
dutako ekintzei zeregin orokor berriak eranstean dizkiegu,
hain zuzen ere proiektua aurrera eramateko beharrezkotzat
jo ditugunak.

Erantzukizunen esleipenari dagokionez, plangintza-fasean
zehaztu zen zeregin bakoitza betetzeko arduraduna.

Jarduerak	Zereginak
1.1..J.	
1.2..J.	
1.3..J.	

Jarduerak	Zereginak
1.1..J.	
1.2..J.	
1.3..J.	
Zeregin orokorrak	

Proiektua egikaritzeko fasean erabilgarri gertatuko den zeregin eta erantzukizunen taula osatzeko, proiektua identifikatzeko fasean zehaztu diren erantzukizunak bildu ditugu:

Proiekturako beharrezko ekintza eta zeregin bakoitzari gubxienez arduradun bat esleitu ote zaion aztertzen dugu, eta zeregin bakoitza bere arduradunarekin osatzen dugu.

Zeregin bat betetzeko arduraduna izateak ez du esan nahi pertsona horrek bakarrik inplikatu behar duenik zeregin horren garapenean eta, hortaz, taulako zeregin guztiak aztertuko ditugu, ekintza arrakastaz burutzeko arduradunari lagundu behar diotenak zehazteko.

Jarduerak	Zereginak	Arduraduna/k:
1.1..J.		
1.2..J.		
1.3..J.		

Bereziki kontuan hartu beharrekoak:

- Ez utzi erantzukizun-eginkizunak gizonen esku eta laguntza-eginkizunak aldiz, emakumeen esku.
- Ez esleitu genero-rolak iraunaraztea eragiten duen zereginik.
- Ez eman gehiegizko lanik taldeko ezein kideri.

Jarduerak	Zereginak	Arduraduna/k	Laguntzaileak
1.1..J.			
1.2..J.			
1.3..J.			

15 Irudia.

Iturria: una gestión y comunicación.

Zeregin eta erantzukizunen esleipen-taulak tresna bizia behar du, egikaritze-fasearen hasieratik eta proiektuaren prozesu osoan erabiltzeko modukoa. Tresna aldagarria da, zeregin edo arduradun zein laguntzaile berriak bil ditzakeen neurrian.

Zeregin eta erantzukizunen esleipen-taula oso tresna baliagarria izan daiteke proiektuaren jarraipena egiteko, jardueren garapena eta planifikatutakoaren betetzea egiaztatzeko aukera ematen duelako.

Jardun-egutegia

Behin argi dugunean zer ekintza jakin jarri behar ditugun abian proiektua behar bezala burutzeko eta zein diren ekintza bakoitza betetzeko ardura dutenak, proiektuaren ekintzak aurreikusitako aldian egiteko beharrezkoak diren denbora-epeak ezarri beharko ditugu.

Horretarako, proiektuaren jardun-egutegia ezarriko dugu:

Zehaztutako zeregin bakoitza kontuan hartuta, honako galdera hauek egingo ditugu:

- **Zer egin behar da** zeregina betetzeko?
- **Noizko amaitu behar da?**
- **Zer pertsona talde behar dugu** zeregin hori behar bezala betetzeko?
- **Zenbat denbora behar dugu** zeregin hori behar bezala betetzeko?
- **Noiz hasi behar dugu**, ezarritako amaiera-egunerako amaitu ahal izateko?

Hala, proiektuaren zeregin guztiak eta hasiera eta amaierarako aurreikusitako data guztiak bilduko dituen taula osa dezakegu, planifikatutako epeak bete daitezzen errazteko:

Jarduerak	Zereginak	Hasiera-data	Amaiera-data
1.1..J.			
1.2..J.			
1.3..J.			

Informazio horrekin, proiektuaren behin betiko jardura-kronograma osatzen da:

Jarduerak	Zeregina	1. hilabetea	2. hilabetea	3. hilabetea	4. hilabetea	... hilabetea
1.1..J.						
1.2..J.						
1.3..J.						

17 Irudia.

Iturria: una gestión y comunicación.

III.5.2. Zehar-lerroak egikaritze-etapan sartzea

Identifikazio- eta formulazio-faseetan, proiektuaren helburuak eta ekintza-lerroak oso agerian daude, eta horregatik nahiko erraza da proiektuaren helburua eta proiektua abian jarri lortu nahi dugun errealitate berria etengabe kontuan hartzea. Plangintzatik ekintzak egikaritzera salto egitean, ordea, litekeena da jardueran oinarritutako dinamika eta operatibitateko eta eraginkortasuneko irizpideak nagusitzea, proiektuaren gako batzuen kaltetan. Hala, egikaritze-fasean jardura eta zereginak garatzeari, epeak betetzeari eta emaitza jakin batzuk lortzeari eman dakioke lehentasuna, proiektuaren zehar-lerroetan bildutako helburu espezifikoaren eta ikuspegi sozial eta politikoaren garrantzia alde batera utzita.

Proiektuaren identifikazio- eta formulazio-prozesu egoki batek proiektua sorrarazi zuten gakoak mantenduko direla bermatzea eskatzen du. Nolanahi ere, badira estrategia batzuk zehar-lerroek eta ikuspegi sozialak eta politikoak egikaritze-fasean proiektuaren ekintza zehatzak abian jartzerakoan duten garrantzia sendotzea ahalbidetzen dutenak. Honako hauek dira:

Zehar-lerroek proiektua kudeatzeko ardura duen taldean ordezkaritza izan dezaten bermatzeko mekanismoak ezartzea.

Kontzientziatutako eta trebatutako pertsonak hartu behar dute beren gain kudeatu beharreko lerroen erantzukizuna, horixe izango baita zehar-lerroen ikuspegia proiektuen egikaritze-fase osoan indarrean egon dadin bermatzeko modurik onena. Proiektu bat kudeatzeko taldean dauden pertsonen tresna egokiak badituzte eskura, hau da, tresna horiek parte-hartzetik, iraunkortasunetik, giza eskubideetatik

edo genero-ekitaketik jarduteko aukera ematen badiete, proiektuaren jarduerak eta garapenak lerro horien perspektiban jarrai dezaten ahalbidetzeko beharrezko ikuspegia eskainiko dute. Alabaina, beti ez da posible izaten lana zehar-lerro guztietatik bultzatzeko beharrezko trebakuntza eta tresnak dituzten pertsonak edukitzea, eta horregatik jardun-estrategia jakin batzuk jarri behar dira abian, zehar-lerroak proiektuaren talde teknikoan sar daitezzen bermatzeko:

- Proiektuaren talde teknikoa osatzen duten pertsonak zehar-lerroen inguruan trebatzea.
Taldean trebatutako pertsonarik ez badugu zehar-lerro bakoitzean, kontzientziazio- eta trebakuntza-tailerrak antola ditzakegu taldearentzat, edo bestela pertsona jakin batzuk hauta ditzakegu trebakuntza-prozesuetan parte har dezaten, horretarako bidea erraztuz.
- Zehar-lerro bakoitzaren inguruko galdera espezifikoek zerrendak diseinatzea, proiektu zehatza egikaritzeko faserako.
Proiektuaren ezaugarrien arabera, eta beste fase batzuetan landutako galdera-zerrendetatik abiatuz, zehar-lerro bakoitzaren inguruko galderak biltzen dituzten zerrendak sor daitezke, hartara etengabeko arretari eusteko zehar-lerroak proiektuaren egikaritze-prozesuan sartu behar diren inguruan.
- Zehar-lerro bakoitza egikaritze-fasean sartzeko arduradunak izendatzea.
Taldea osatzen dutenen gaitasunen eta kontzientziazio-mailaren arabera –eta adituak ez eduki arren–, pertsona edo talde bat izenda dezakegu zehar-lerro bakoitza proiektuaren egikaritze-fasean sartzeko ardura har dezan.
- Pertsona edo erakunde espezializatuen kanpo-laguntza zehar-lerro bakoitza egikaritze-fasean sartzerakoan.
Zehar-lerroak edo zehar-lerroetako bat proiektuaren egikaritze-fasean sartzeko lana zaila gertatzen bada edo espezializazio-maila handia izan dezakeela aurreikusten badugu, kanpoko espezialisten laguntza eska dezakegu, proiektuaren ardura duen taldean aldi baterako parte har dezaten, zehar-lerroak edo zehar-lerroetako bat proiektuaren egikaritze-fasean sartzeko erantzukizuna hartuz.

Giza eskubideen, parte-hartzearen iraunkotasunaren edo genero-ekitatearen arloetan lan-esperientzia duten erakundeek proiektuari laguntza orokorra ematea edo proiektuan zuzenean parte hartzea bermea ere bada, proiektuaren egikaritze-eginkizunera biltzeari dagokionez.

III.6. Jarraipena: berraztertu ikasteko

Proiektua egikaritzearen barnean hartutako alderdi guztiak etengabe eta aldizka berraztertze prozesua da jarraipena:

- Helburu eta emaitzen adierazleen lorpen-maila.
- Jardueren garapena.
- Aurreikusitako kronograma betetzea.
- Aurrekontua egikaritzea.
- Zehar-lerroen inguruko aurrerapausoak.

Jarraipen-prozesuan, informazioa jasotzen dugu elementu horien inguruan, eta jarraian aztertu egiten ditugu elementu horiek guztiak, proiektua nola doan ikusteko eta arrakasta-elementuak eta hobetzeko puntuak identifikatzeko.

Zertarako balio du jarraipena egiteak?

Zer egiten ari den eta nola egiten ari den berraztertzeak eta proiektuaren formulazioak egindako aurreikuspenarekin alderatzeak aukera ematen du proiektuarekin lortzen ari diren aurrerapausoen berri edukitzeko eta jarduerak egikaritu bitartean sortu diren zailtasunak ikusteko.

Kronogramarekiko, aurrekontuarekiko edo jarduera baten diseinuarekiko desbideratze posibleak zuzentzeko aukera ematen du jarraipenak, eta, hori ez ezik, lan-metodologiak birplanteatzeko lagungarri ere bada, baita egoera politiko edo sozialarekin zerikusia duten ustekabe posibleen aurrean erreakzionatzeko ere. Jarraipena ongi planifikatuz gero, proiektua ebaluatze bidea errazagoa izango da, behin proiektua amaitu ondoren.

Azken batean, jarraipena prozesu bat da, honako hauek ahalbidetzen dituen:

- Benetako informazio eguneratua lortzea proiektuaren nondik norakoaren inguruan, egikaritzean zuzenean inplikaturako agenteetatik.
- Lortutako lorpenak aurreikusitako lorpenekin alderatzea.
- Diseinutik, identifikaziotik, plangintzatik, jardueren garapenetik, proiektuaren kudeaketatik eta abarretik ikastea.
- Akats posibleak zuzentzea eta jardunbideak hobetzea, proiektuaren ondorengo fase eta ekintzei begira.

Norentzat da baliagarri jarraipena?

- Proiektua kudeatzen duten erakundeentzat: jarraipen-prozesuan bildutako informazioak datu baliagarriak eta ikasi beharreko hainbat gauza eskaintzen ditu, proiektuaren gainerako faseetan eta etorkizuneko esku-hartzeetan aplikatu daitezkeenak.

- Proiektuaren xede den biztanleriarentzat: jarraipen-ekintzetan parte hartzeak ikuspegiak planteatzeko, aurre egin beharreko zailtasunen berri emateko aukera ematen dio proiektua egikaritzean zuzenean inplikaturako biztanleriari.
- Finantziazio-erakundearentzat: proiektuaren nondik norakoen berri edukitzea ekimen horren alde egin duen erakundearen ardura ere bada. Ikasitakoa erakundearen lankidetzaren politikarako da baliagarri, baita eskaintako funtsak nola erabiltzen ari diren jakiteko ere.

III.6.1. Eraitzen aurrerapausoa etengabe berraztertzearen jarraibideak

Proiektuaren diseinu-fasetik aurrerakusi behar dira, batetik, planteatutako jarraipen-uneak, eta, bestetik, erabili behar diren tresna eta metodologiak. Beharrezkoa da jarraipen-plan bat diseinatzea, eta jarraipenak ikasteko eta gure jardunbideak hobetzeko aukera ematen digula barneratzea.

Jarraipen-planak honako eskema honi jarrai diezaiok, esaterako:

1. Jarraipen teknika eta finantzarioa egiteko kronograma bat ezartzea.
2. Jarraipen teknika eta finantzarioa egiteko adierazleak zehaztea.
3. Alderdi teknikoak berraztertzea:
 - Adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak berraztertzea.
 - Proiektuaren nondik norakoei buruzko informazioa emango duten eta dokumentu-datuak osatuko dituzten agenteak zehaztea.
 - Bilera, tailer edo elkarrizketen agenda zehaztea.
 - Bilera edo tailerretarako gidoiak diseinatzea.
4. Alderdi ekonomikoak berraztertzea:
 - Aurreikusitako partida bakoitzaren faktura eta gastuak kontrolatzea.
 - Desbideratze posibleak identifikatzea.
5. Zehar-lerroen inguruko aurrerapausoak berraztertzea.
6. Jarraipen-bxostena lantzea:
 - Taldean, bxostenaren ondorioak aztertzea, eta egin daitezkeen egokitzapenei buruzko erabakiak hartzea.

Prozesu honetarako, funtsezkoa da diziplina anitzeko talde bat izendatzea, prozesuaren ardura har dezan eta proiektuaren funtsezko alderdi guztiei –teknikoak, finantzarioak, metodologikoak edo zehar-lerroak proiektuan sartzearekin zerikusia dutenak– buruzko informazioa jasoko duela berma dezan.

1. Jarraipen teknika eta finantzaria egiteko kronograma bat ezartzea

Proiektuaren hasieratik zehaztu behar da egikaritze-fasearen zein unetan komeniko litzatekeen proiektua berraztertzea, lortutako aurrerapasoak buruzko informazioa lortzeko.

Erakunde kudeatzaileek planteatutako jarraipen-uneek gain, finantza-erakundeek jarraipen-protokolo bat badute, txostenak aurkezteko aldez aurretik zehaztutako epe jakin batzuekin. Eusko Jaurlaritzak eskatzen du jarraipeneko txosten teknikoak eta finantzarioak aldi berean aurkezteko: egikaritze teknikoaren txostenak sei hilabete behin aurkeztu behar dira. Egikaritze finantzarioaren txostenak, berriz, emandako diru-laguntza-ordainketak egiteko justifikatu beharreko aurrekontu-erakundearen arabera dira.

2. Jarraipen teknika eta finantzaria egiteko adierazleak zehaztea

Lehenik eta behin, jarraipen-prozesuan berraztertu beharreko adierazleak ezarri behar dira, honako irizpide honi jarraiki: ezarritako sistemak garrantzizko informazio guztiaren berri eman behar du proiektuaren nondik norakoaren inguruan.

Horretarako, formulazioan zehaztutako adierazleak erabil daitezke, emaitzen eta helburuen lorpenei buruzkoa neurtzeko, eta beste adierazle berri batzuk sortu, aintzat hartutako gaien inguruko aurrerapasoak neurtu ahal izateko.

3. Alderdi teknikoak berraztertzea

Aurreikusitako plangintzari dagokionez proiektua zer moduz dabilen berraztertzeko, honako hauei eman behar zaie lehentasuna:

- Aurreikusitako egikaritze-epeak betetzea.
- Emaitza eta helburuen adierazlearen betetze-maila berraztertzea.
- Jarduerak garatzeko prozesua: aurkitutako zailtasunak eta gauzatutako egokitzapenak.
- Erantzukizunak esleitzea eta betetzea.
- Egikaritze-erakundearen testuinguruan integrazteko maila.
- Xede-biztanleriaren inplikazio- eta gogobetetze-maila.
- Testuinguruaren bilakaera, eta testuinguruaren eta proiektuaren arteko harremanaren bilakaera.

Egikaritze-epeak betetzen diren kontrolatzeko, aurreikusitako kronograma berraztertzen da eta benetakoarekin alderatzen da. Funtsezkoa da aurreikusitako kronogramari dagokionez gertatzen ari diren aldaketak etengabe kontrolatu eta erregistratzea, horrek epeak eraginkortasunez berregokitzeko aukera ematen duelako, plangintza jakin bati jarraiki.

Adierazleak zenbateraino betetzen diren neurtzeko, ezarritako egiaztatze-iturrietara jo behar dugu. Zenbait kasutan, dokumentu-iturriak izango dira, txostenak, aktak, memoriak eta abar berraztertzea eskatuko dutenak; beste batzuetan, berriz, zuzeneko iturriak izango dira, hau da, proiektuan zuzenean inplikaturako agenteak, eta haiekin harremanetan jarri beharko dugu.

Kasu horietarako, informazioa biltzeko tresna zehatzak diseinatuko dira, agente guztietara ahalik eta ondoen egokitu beharra dagoela aintzat hartuta. Tresna bakoitza informazio-iturri gisa izendatutako publiko mota bakoitzari egokitzen zaion balioetsi beharko da. Tresnak askotarikoak dira: elkarrizketa pertsonalak funtsezko berri-emaielarekin, talde-tailerrak, bideratu gabeko bilerak, inkestak edo galdesortak, eta abar.

Tresnak diseinatzerakoan, tresna bakoitzarekin landu beharreko edukiak zehaztu behar dira, baita lortu nahi diren helburuak ere. Informazio-bilketa ondo planifikatzen bada, jarraipenak kontuan hartuko ditu proiektuaren nondik norakoen inguruko garrantzizko alderdi guztiak, zehar-lerroekin zerikusia dutenak barne.

bestetik, jardueren garapenari dagokionez, jarduerak aurreikusitako epeen arabera egikaritzen ari direla egiaztatu ez ezik, jarduerak garatzeko prozesua ere berraztertu behar da: zer metodologia erabili diren, xede-biztanleria nola integratu den, zer zailtasun sortu diren eta abar. Gabeziak edo ahalmenak eta beharrezko egokitzapenak identifikatzeko unea da.

Azkenik, funtsezkoa da, halaber, honako hauei buruzko informazioa lortzea: xede-biztanleria proiektuaz nola jabetu den, zer parte-hartze maila eta esku-hartze maila eduki duen, proiektua kudeatzeko ardura duen erakundea nola inplikatu den, nola konprometitu den eta eremuan nola onartu duten, eta proiektua testuinguruko gertaera sozial, politiko edo kulturalarekin nola lotu den.

4. Alderdi ekonomikoak berraztertzea

Alderdi teknikoez gain, jarraipenak proiektuaren egikaritze ekonomikoa berraztertzea hartu behar du aintzat. Horren haritik, honako hauek landu beharko ditu:

- Gastuaren egikaritze-maila.
- Egindako gastuak zerrendatzea eta aurreikusitako gastuekin alderatzea: aurrekontua proiektzio ekonomiko integral baten arabera egin behar da, aurreikusitako kostuetan eragina izan dezaketen garrantzizko alderdi guztiak kontuan hartuta. Jarraipenaren unean, benetako gastuak eta proiektzio horretan aurreikusitakoak alderatu behar dira.
- Moneta-aldaketek aplikaturako tasa.
- Proiektuko jarduerarekin aurrera jarraitzeko likidezia.
- Kostu batzuetan gertatu diren desbideratze posibleak.
- Aurrekontu-partiden artean gertatu diren aldaketak.

- Gastu guztiak justifikatzeko fakturak edo egiaztagirak eskuragarri daudela kontrolatzea.

Oso ohikoa da aurrekontua egikaritzean aldaketak gertatzea hasierako plangintzaren aldean. Litekeena da aldaketa horiek funtsezkoak ez izatea, hau da, aurreikusitako kostuetako batzuen aldaketa txikiak izatea, jarduerak egitean eta proiektuaren emaitza eta helburuetan eraginik ez dutenak. Beste batzuetan, aldiz, funtsezkoak izaten dira, aurrekontu-partidetako bat nabarmen desbidera daitekeelako, helburu eta emaitzetan eraginik izan dezakeena.

Kasu batean zein bestean, desbideratzeak erregistratu eta kontrolatu behar ditugu, eta finantza-erakundeari aldaketaren zergatiaren berri eman behar diogu, baita, hala badagokio, aldaketa hori zuzentzeko proposatutako aukeraren berri eman ere.

5. Zehar-lerroen integrazioan egindako aurrerapausoak berraztertzea

Jarraipenak berraztertu behar du, halaber, zer aurrerapauso aurreikusten diren proiektuan integratutako zehar-lerro bakoitzerako. Horren haritik, lerro bakoitzaren inguruko adierazleak bildu behar ditu proiektuaren formulazioak, horrek gidatuko duelako aurrerapausoak berraztertzeko ahalegina. Baina, hori ez ezik, adierazle berriak ere diseina ditzakegu, ahalik eta informazio zehatzena lortu ahal izateko.

Horren ildotik, jarraipen-txostena egiteko eskema egoki bati jarraitu behar zaio, hau da, zehar-lerroak aztertzeko atal espezifikoak aintzat hartu behar du eskema horrek, aurrerapausoak ikusi ahal izateko eta datuak errazago lortzeko, hartara egokitzapenak egin behar ote diren ikusteko.

6. Jarraipen-txostena lantzea

Behin informazio tekniko eta ekonomiko-finantzario guztia jaso ondoren, jarraipen-txosten bat idatzi behar da, taldeak ikuspegi orokorra edukitzeko aukera izan dezan proiektuaren nondik norakoen inguruan, eta,aldi berean, behar adinako xehetasun guztiak eskain ditzan proiektuaren garrantzizko alderdi guztiei buruz.

Lortutako aurrerapausoak, bultzatu beharreko ahalmenak, sortutako oztopoak eta lortu ez direnak jasotzea da txostenaren helburua. Informazio hori guztia eskura, proiektua egikaritzen jarraitzeko egin beharreko egokitzapenak negoziatu eta planteatu behar ditu taldeak.

Hortaz, jarraipen-txostena aukera egokia izan daiteke plangintza-akats posibleak bideratzeko, eta, proiektua egikaritzean, ustekabeko egoeretara egokitzeko.

Jarraipen-txostenaren dokumentuak honako ezaugarri hauek eduki behar ditu:

- Zehatza eta laburra.
- Planifikatua.
- Identifikazioko eta plangintzako metodologiarekiko koherentea.
- Hitzartua, inplikaturako agente guztiekin adostasuna lortu ondoren.

- Kuantitatiboa eta kualitatiboa: datuak garrantzitsuak dira, baina koherentzia eta edukia emango dien azalpen baten beharra ere badute.

Finantza-erakundeek formatu jakin bat erabili ohi dute jarraipen-txostenak egiteko. Oro har, honako eduki hauek biltzen ditu:

Jarraipen teknika

- GGKE kudeatzaileei eta proiektuaren ardura duen taldeari buruzko datuak
- Proiektuari buruzko datuak: hasiera- eta amaiera-data, esku-hartzearen laburpena eta finantza-datuak (aldi bakoitzeko diru-sarrerak eta gastuak, baterako finantza-erakunde bakoitzak justifikatutako aurrekontu-ehunekoa eta abar).
- Proiektuaren garapenaren deskribapena, esku-hartzea abian jarri izanaren gai garrantzitsuenen berri ematen duena.
- Plangintzako ideia nagusia eguneratua, helburu, emaitza eta jardueretan gertatutako aldaketa posibleen berri emanez. Atal honetan, helburu eta emaitzen adierazleak txosten bakoitzari dagokion aldian zenbateraino bete diren zehaztuko da. Gainera, jarduera bakoitza zertan den adieraziko da (hasi gabe, prozesuan edo amaitua), jarduerak garatzerakoan gertatutako aldaketa posibleak adieraziko dira, edo hasierako plangintzan aurreikusita ez zeuden jarduera berriak egin ote diren jasoko da.
- Jarduerak egikaritzeari buruzko benetako kronograma.
- Aurreikusitako egikaritzean gertatutako aldaketak zehaztea, eta aldaketa horietatik eratorritako garrantzirik gabeko aldaketen berri ematea.

Finantza-jarraipena

- GGKE kudeatzaileei eta proiektuaren ardura duen taldeari buruzko datuak.
- Proiektuari transferitutako funtsen eta erakunde kudeatzaileak jasotako funtsen kanbio-tasen laburpena, aplikatutako kanbio-tasa zehaztuta.
- Aldi bakoitzean aurrekontu-partida bakoitzean egindako gastuak, diru-laguntzaren eta aurrekontuaren justifikazio-ehunekoa adieraziz.
- Adierazitako gastuei eusten dieten egiaztagirien kopiak.

Gainera, aurreikusitako plangintzari dagokionez aldaketa garrantzitsuak gertatu diren kasuetarako –nola egikaritzea teknikoari hala finantzarioari dagokionez–, finantza-erakundeek aldaketa-eskaera bat betetzea eskatzen dute, gertaeren berri emateko, egindako aldaketak justifikatzeko eta alternatiba koherenteak proposatzeko.

III. 7. Ebaluazioa: hasitako prozesuetatik ikastea

III.7.1. Ekintzak balioesteko oinarrizko irizpideak

Lankidetzeta-ekintzak balioesteko tresna da ebaluazioa. Proiektuaren inguruko informazioa bildu eta aztertutik ondoren lortutako hainbat ebidentzian oinarritzen da **ebaluazioa**.

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak honela definitzen du ebaluazioa: jarduera programatua eta sistematikoa, genero-ikuspegiari jarraiki, eta, ahal dela, metodologia parte-hartzailean oinarrituta, garapen-ekimenen egokitasuna, efikazia, eraginkortasuna, iraunkortasuna, inpaktua, genero-ikuspegia eta parte-hartze maila balioesten duena, ikaskuntzak, ondorioak eta gomendioak ekarri, etorkizunean erabakiak hartzerakoan, gero eta erabaki hobek hartzea ahalbidetzeko.

Zertarako balio du ebaluazioak?

Jarraipena bezala, ebaluazioa ezinbesteko jardunbidea da ekintzak etengabe hobetzeko, ikaskuntza-prozesutik hartu beharko litzatekeena eta ohiko jardunbide gisa sartu beharko litzatekeena proiektuak egikaritzen aurretik.

Ebaluatzea ez da "nota jartzea" eta zer egin den gaizki eta nork egin duen gaizki ebatzea. Kontua da ahalik eta informaziorik osoena lortzea proiektuaren fase guztien garapenaren inguruan, ondorio batzuetara iristeko, eta lorpenak, zailtasunak, mugak eta ahalmenak identifikatu ahal izateko. Informazioa bildu behar da ezarritako plan bat oinarritzat hartuta, eta, jarraian, informazio hori aztertutik behar da, ondorioak ateratzeko eta ondorio horietatik ikasteko, ondorengo esku-hartzeak hobetzeko lagungarri. Baina datuak, esku-hartzearen alderdi teknikoak balioetsi eta hobetzeko ez ezik, emaitza sozialak eta solidarioak balioetsi eta hobetzeko ere baliatu behar dira.

Gainera, ebaluazioak garrantzi handiko eginkizuna betetzen du gardentasunari eta gizarteari kontuak emateari dagokionez, eta horrek legeztatu egiten ditu lankidetzeta-ekintzak eta ekintza horiek egiten dituzten agenteak. Horregatik, garrantzitsua da ebaluazioen emaitzak hedatzea, garapen-ekimenen xede diren biztanleriari, ekimen horietan esku hartzen duten agenteen, eta, oro har, iritzi publikoaren artean.

Zer alde dago ebaluazioaren eta jarraipenaren artean?

- Jarraipenaren helburua informazioa lortzea da, proiektua egikaritzeari buruzko gaiak berregokitzea ahalbidetzeko duena. Datu zehatzak biltzen dira proiektuaren nondik norakoaren inguruan, eta, datu horren emaitzen arabera, zuzenketak eta egokitzapenak planteatzen dira. Prozesu hori proiektuaren kudeaketa-zikloari erantsi behar zaio, aldizka eta etengabe egikaritze-fasean zehar.
- Ebaluazioak ere informazioa biltzen du, baina, hori ez ezik, informazio hori interpretatzen du eta esku-hartzeari buruzko balioespina ematen du, aldeztu aurretik ezarritako irizpide batzuk oinarritzat hartuta. Ebaluazio-prozesu batetik eratorritako informazioa ondorioak ateratzeko da baliagarri, eta, ondorio horiek oinarritzat hartuta, hobetzeko gomendioak planteatu daitezke, baita ikaskuntzak

eta ikasitako ikasgaiak identifikatu ere. Bestetik, proiektuaren kanpoko agente batek bere gain har dezake ebaluazioa.

Proiektua egikaritu aurretik, bitartean edo ondoren egin daitezke ebaluazioa, barne-talde baten, kanpo-agente baten edo barne- eta kanpo-agenteeek osatutako talde misto baten eskutik.

Eusko Jaurlaritzaren Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak kanpotik ondoren egindako ebaluazioen ereduari jarraitu nahi dio, eredu horrek esku-hartzeen emaitzak objektibotasunez eta independentziaz aztertzeko aukera ematen duelako.

Zer eduki ebalua ditzakezu?

- Proiektuaren diseinua: ebaluazioaren bitartez, informazio kritikoa lor dezakegu honako hauen inguruan: proiektua nola identifikatu den, formulazioan ezarritako helburu, emaitza eta jardueren arteko koherentzia, adierazleen zehaztasuna, baliabideen kalkulua, zehar-lerroak plangintzan sartzea eta abar. Azken batean, proiektuaren diseinua ebaluatzea lagungarri da formulazioaren kalitate teknikoa hobetzeko.
- Prozesua: funtsezkoa da balioestea proiektua nola garatu den, jarduerak egikaritu diren, xede-biztanleria fase guztietan nola inplikatu den, zer metodologia erabili diren eta abar.
- Lortutako emaitzak: behin proiektua amaiturik, aurreikusitako emaitzak lortu ote diren jakin behar dugu, baita jardueren garapenak aurreikusitako emaitzak lortzea ahalbidetu ote duen eta helburu espezifikoak lortzea eta helburu orokorrera inguratzea lortu ote den jakin ere.
- Lortutako inpaktuak: emaitzak lortzeaz gain, proiektuak xede-biztanlerian eta testuinguruan zer inpaktu izan dituen jakitea ere garrantzi handikoa da: biztanleen bizitzak, gaitasunak, ahalmenak, ahalduntzea eta abar zertan hobetu diren. Arreta berezia eskaini behar zaio genero-inpaktuak –hau da, emakume eta gizonen arteko harremanetan gertatu diren aldaketak– balioesteari.

Nabarmendu beharrekoak

Ebaluazio orok ikastea dakar berekin, eta hortik gomendio batzuk lortu behar dira, erabakiak hartzeko bidea erraztearren.

Ezinbestekoa da genero-ikuspegia ebaluazioak egitean btxertatzea. Genaro-azterketaren berezko tresnak –jardueren profila, sartzeko eta baliabideak kontrolatzeko ideia nagusia, generoko interes praktiko eta es-
trategikoen profila eta abar– baliagarri dira ebaluazioak egiteko.

Ebaluazioen metodologiak parte-hartzailea behar du, ahal dela. Ebaluazio parte-hartzaileak zera eskatzen du, biztanleria ebaluazio-prozesuari buruzko erabakiak hartzerakoan inplikatzeko, hau da, zer eta nola egin behar den hautatzeko aukera ematea, jarraipenean inplikatzeko eta informazio eta emaitzak partekatuz. Ikus-
pegi horren alde onak: aurkikuntzen egiazkotasuna handitzea, jabetzea eta iraunkortasuna hobetzea. Nola-
nahi ere, kontuan hartzekoa da metodologia hori korapilatsuagoa ere izan daitekeela, eta ebaluazioak egi-
tea denboran luzatzea eragin dezakeela; horregatik, kasuan kasu erabiltzea egokia ote den balioetsi
beharko da.

Ebaluazio-prozesua

Kanpo-agente baten ardura bada edo proiektuaren taldearekin batera egiten bada, ebaluazioaren
prozesuan zenbait urrats bereiz daitezke:



18 Irudia.

Iturria: una gestión y comunicación.

I. urratsa: Prestatze-fasea

Helburuak:

- Ebaluazio-talde bat eratzea.
- Ebaluazioaren erreferentzia-terminoak ezartzea: aurrekariak; ebaluazioaren xedea, helburua eta edukiak; ebaluazioa oinarritu behar den irizpideak eta ebaluazio-galderak; datuak biltzeko eta aztertzeko metodologia; talde ebaluatzailearen profila; kronograma; eta ebaluazioaren kostua.

II. urratsa: Dokumentazio-fasea

- Ebaluazioaren xede den dokumentazioa aztertzea.
- Lanerako plan bat lantzea:
 - Ezarritako irizpideen arabera aztertu beharreko adierazleak ezartzea.
 - Zuzeneko informazioa ekarriko duten agente inplikatuak hautatzea.
 - Informazioa biltzeko tresna espezifikoak diseinatzea.
 - Landa-lanaren agenda zehatza finkatzea.

III. urratsa: landa-laneko fasea

Fase honen helburua zuzeneko informazioa lortzea da, proiektuaren protagonistek proiektuaren inguruan egiten duten balioespenari buruz. Dokumentazioaren azterlanetik lortuko diren datuak osatzeko baliagarri izango da hori.

IV. urratsa: laburpen-fasea

Landa-lanetik lortutako informazioarekin eta proiektuaren dokumentaziotik egindako azterlana aintzat hartuta, azken txostena egingo da, honako helburu hauekin:

- Bildutako informaziotik eratorritako datu objektiboetatik ebidentziak aurkitzea.
- Ebidentzia horietatik ebidentziak ateratzea, eta aztertutako irizpide desberdinei dagokienez.
- Aztertu dugunetik eta ateratako ondorioetatik gomendioak iradokitzea, proiektuko alderdirik ahulenak hobetzeko etorkizuneko jardunei begira.

Txostenaren barnean, laburpen exekutibo bat hartu behar da, lortutako ondorio eta gomendio guztiak bilduko dituen. Hasiera batean, atariko txostena landuko da, proiektuan inplikatura egonik hautatuko diren agenteekin partekatuko dena, iruzkinak edo ekarpenak biltzeko. Behin ekarpen guztiak jaso ondoren, ebaluazio-txostenaren azken bertsioa landuko da.

Behin betiko txostena hedatu egingo da, ebaluazioa kudeatzen duten agenteek zehaztutako moduan hedatu ere. Hedapen-plana prozesuaren hasieran zehaztu behar da, lanerako plana diseinatzerakoan alegia, plan horren zati bat izango delako.

Ebaluazio-irizpideak

Prozesuan aztertu beharreko funtsezko faktoreak dira, proiektuko gai garrantzitsuenak aztertzen dituztelako proiektuaren ezaugarri espezifikoaren arabera.

Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen ebaluazioek zazpi irizpide hartzen dituzte aintzat:

- **Erakunde-erantzukizuna:** esku-hartzearen helburuak biztanleriaren itxaropen eta premiekin, garapen-agenteen lehentasunekin eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzapolitikekin bat etortzea.
- **Efektua:** aurreikusitako helburuak lortzea.
- **Erakunde-erantzukizuna:** jarduera desberdinek, eskuragarri zeuden baliabideetatik aurreikusitako emaitzak zenbateraino lortu dituzten, kantitateari, kalitateari eta puntualtasunari dagokienez.
- **Erakunde-erantzukizuna:** behin kanpo-finantziazioa amaitutakoan, emaitza positiboak eta etekinek mantentzeko dituzten aukerak.
- **Erakunde-erantzukizuna:** epe luzerako eraginak, positiboak edo negatiboak, lehen edo bigarren mailakoak, intentzionalak edo intentziorik gabekoak.
- **Erakunde-erantzukizuna:** jarduerak zenbateraino bultzatu duten emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- **Erakunde-erantzukizuna:** biztanleriak prozesuaren fase guztietan zenbaterainoko parte-hartzea izan duen.


Nolanahi ere, badira beste zenbait irizpide kontuan hartu behar ditugunak, oso informazio baliagarria ekar dezaketen neurrian. Esku-hartze motaren arabera, irizpide batzuk beste batzuk baino egokiagoak izango dira, baina betiere hobe da guzti-guztiak kontuan hartzea eta egokiak hautatzea ebaluazio bakoitza diseinatzerakoan. Hona hemen zenbait irizpide:

- **Koherentsia:** helburuen, emaitzen eta planifikatutako jardueren arteko harreman logikoa, testuinguruaren eta xede-biztanleriaren premiei eta errealitateari dagokienez.
- **Jabetza:** proiektuari esker, xede-biztanleriak eta herriko erakundeek lortutako lidertza-maila.
- **Erakunde-erantzukizuna:** proiektuaren xede izan diren kolektiboak, hasiera batean aurreikusitakoen aldean.

Behin ebaluazioa egiterakoan kontuan hartu behar ditugun irizpideak zehaztu ondoren, galdera zehatz batzuk egin behar ditugu, eta ebaluazioak galdera horiei erantzuna eman behar die irizpide baliotsi ahal izateko. Galdera bakoitzari adierazle batzuk esleituko zaizkio, modu objektiboan egiaztatzeko modu-

ko seinaleak izaki, egindako galdera bakoitza zenbateraino betetzen den neurtzeko aukera emango dutenak. Adierazle kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatu behar dira, hartara, datu objektiboak ez ezik, xede-biztanleria pertzepzio eta bizipenei buruzko informazioa ere lortzeko, azterketaren osagarri.

Landa-laneko prozesuan lortutako informazioarekin eta zehaztutako adierazleak oinarritzat hartuta dokumentazioa aztertzeak ateratakoarekin, ebidentzia jakin batzuk lortuko ditugu, ondorioak ateratzen, gomendioak egiten eta ikaskuntzak ondorioztatzen lagunduko digutenak.



18 Irudia.

Iturria: una gestión y comunicación.

Genero-inpaktuaren ebaluazioa

"Genero-ikuspegia" irizpidea espezifikotzat jotzen bada ere nahitaezko irizpideen zerrendan, ebaluazio-prozesu osoak genero-ikuspegia hartu behar du aintzat, hau da, gainerako irizpideek ebaluazio-galdera jakin batzuk bildu behar dituzte honako gai honi buruzko informazioa emateko: balioetsi beharreko alderdi bakoitzak, nola eragiten die modu berezian emakume eta gizonen? Estrategia horren arabera, genero-ikuspegiak zehar-lerro izan behar du prozesu osoan, eta, gainera, irizpide espezifiko bat formulatu behar da, esku-hartzeak emakumeen eta gizonen arteko harremanetan izan duen inpaktua azter dezan.

Genero-inpaktua ebaluatzeak hainbat alderdi aztertzea eskatzen du; honako hauek, esaterako:

- **Emakumeak ahalduntzea:** genero-ekitatean aurrera egiteko, funtsezkoa da emakumeek botere indibiduala eta kolektiboa irabaztea. Horren haritik, hainbat alorretan nola hobetu diren aztertu be-

har da: gaitasunetan, pairatzen dituzten desberdintasunen eta dagozkien eskubideen inguruko kontzientziazioan, eremu publikoetan duten parte-hartzearen mailan eta kalitatean, beste emakume batzuekin antolatzeko eta haien interes praktiko eta estrategikoak defendatzeko duten gaitasunean, eta erabakitze guneetarako sarbidean.

- **Emakumeen parte-hartzea. honako hauek aztertu behar dira:** emakumeek lehen itxita zeuzkatzen parte-hartze eremuetarako sarbidea duten, emakumeen parte-hartzerako eremu espezifikoak sortu diren, emakumeen parte-hartzea eragozten duten trebetasunak –komunikazio- eta lidertza-trebetasunak, eta abar– hobetu diren, lehenagotik parte hartzen zuten eremuetan parte-hartze horrek hobera egin duen –proposamenak egiteko eta eragiteko gaitasunei dagokionez–, parte hartzen duten eremuetan erabakiak hartzeko aukera duten, eta parte-hartzearen hobekuntza kualitatiboak emakume-kondizioa edo emakume gisa duten posizioa hobetzea ekarri ote duen berekin.
- **Emakumeen posizioan izandako aldaketak, gizonezkoen aldean:** eremu publikoan eta pribatuan boterea irabazi ote duten aztertu behar da, hau da, baliabideak eskuragarriago ote dituzten eta hobeto kontrolatzen ote dituzten.
- **Aldaketak gizonezkoen artean:** aztertu beharra dago gizonek emakumeenganako jarrera aldatu duten, hau da, askatasunak murrizten ez dizkieten, emakumeen autonomia kontrolatzen ez duten edo haien segurtasuna errespetatzen duten; eta aztertu behar dugu, halaber, identitate maskulinoari eta gizonezkoen eragiten dieten estereotipoen buruzko hausnarketa-prozesuak hasi ote dituzten, edo erantzukizunak eta boterea banatzeari dagokionez portaera-aldaketak gertatu ote diren.

III.7.2. Zehar-lerroak ekintzen ebaluazioan sartzea

Ebaluazioa egiterakoan, ezinezkoa da proiektura bildutako zehar-lerroei buruzko informazioa alde batera uztea. Horretarako, ziurtatu beharra dago diseinatuko diren ebaluazio-planetan neurri jakin batzuk bilduko direla, lerro bakoitzean egindako aurrerapausoei buruzko edukiak eransteko helburuarekin.

Honako jarraibide hauek baliagarri izan daitezke zehar-lerroak ebaluazio-fasera nola ekarri behar diren lantzeko:

Zehar-lerro bakoitzerako aurrerapauso-adierazleak

Eskuliburu honetan behin eta berriz adierazi dugunez, proiektua ondo diseinatzen bada eta zehar-lerroak plangintzako ideia nagusian eraginkortasunez integratzen baditu, emaitza- eta helburu-adierazle jakin batzuk edukiko ditugu eskura, lerro guztietan egindako aurrerapausoak neurtzeko lagungarri.

Formulazioan bildutako adierazleez gain, beste adierazle batzuk sortu beharko ditugu, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa lortzeko lerro bakoitzean egindako aurrerapausoen inguruan.

Proiektuaren zehar-lerro guztiei buruzko ezagutza eta/edo sentsibiltatea duten pertsonen osatutako taldea

Generoari, parte-hartzeari, iraunkortasun ekologikoari edo giza eskubideei buruzko prestakuntza espezifikoa eta/edo sentsibiltatea duen talde bat osatzea formula egokia da taldeak egindako lanak alderdi horiek guztiak kontuan har ditzan.

Proiektua egikaritu bitartean eremu horietan espezializatutako pertsonen parte hartu badute, fase honetan ere parte hartu beharko dute. Hala ez bada, tresna batzuk ezar litezke, zehar-lerroak alde batera uzten ez direla bermatzeko, beheko puntuetan aipatu ditugunak, esaterako:

- **Bilera, tailer edo elkarriketetarako gidoia, zehar-lerro bakoitzari buruzko galdera edo gaiak barne.**

Landa-lana planifikatzerakoan, funtsezkoa da zehar-lerroak aintzat hartzea. Batetik, ikuspegi horri jarraiki jardun behar dugu funtsezko berri-emaileak zehazterakoan, eta, bestetik, informazioa biltzeko tresnak diseinatzerakoan. Egiaztapen-zerrendak (*check list*) sortzea baliabide egokia izan daiteke zehar-lerroak aintzat hartzen ez dituzten jarraipen-planak, bilera-gidoiak, galdesortak eta abar identifikatzeko, eta horren arabera zuzentzeko.

- **Inplikaturako agenteen parte-hartzea**

Ebaluazio-fasean, proiektuan zuzenean inplikaturako agenteen parte-hartzea bilatu behar da, berraztertzerako garrantzizkotzat jotako alderdi guztiei buruzko informazioa ekar dezaketenean neurrian. Agente jakin batzuk hautatzen baditugu beste batzuk alde batera utzita, lortutako informazioa partziala izan daiteke, eta horregatik kontu handiz ibili behar dugu agenteak hautatzeko eta ebaluazioa biltzeko irizpideak zehazterakoan.

Berri-emaileen hautaketa ongi planifikatzeak ikuspegi plurala eta osoa bermatzen du proiektutik balioetsi beharreko alderdien inguruan. Arreta berezia jarri beharko da emakumeen, kolektibo kalteberenen, betidanik baztertuta egon direnen, eta, oro har, parte hartzeko zailtasunak dituztenen parte-hartze aktiboa errazten ari garela bermatzeko.

- **Txostena aldez aurretik ezarritako gidoi batean oinarritu behar da, lerro guztiak aintzat hartu behar direla bermatzeko**

Gidoi batzuk sortu eta aldez aurretik ezar ditzakegu ebaluazio-txostenak eduki behar duen egituraren inguruan, proiekturako garrantzitsuak diren gaiak berraztertzen ari garela ziurtatzeko. Zehar-lerroei dagokienez, komenigarria litzateke atal espezifiko batzuk edukitzea lerro bakoitzari buruzko informazioa aipatzeko, hartara, nahiz eta adierazleak edo galderak txostenean integratuta egon, eremu zehatz bat edukitzeko, eta, horri esker, zehar-lerroei buruzko informazioa (aurrerapausoak edo ez-aurrerapausoak) askoz ere argiago ikusteko.

Egitura-tipo horrek erakunde osoaren hausnarketa- eta plangintza-lanaren ondorioa izan beharko luke, eta, hala, zehar-lerroak lantzearen alde erakundeak ezarritako politikaren isla izan beharko luke, apustu hori erabaki partekatua den heinean.

Glosarioa

Baliabideetarako sarbidea: ondasun bat ondo erabiltzeko edo zerbitzu baten onurak partekatzeko aukerak.

Gaitasunak: pertsona, komunitate eta instituzioen eskura dauden aukerak zabaltzea ahalbidetzen duten baliabideak, trebetasunak, ezagutzak, eskubideak eta boterea edukitzea eta horietarako sarbidea izatea.

Komunitatea: lurralde berean elkarrekin bizi diren eta agintari eta ordezkariak partekatzen dituzten pertsonen multzoa.

Kontrola: Gauza bat menderatzea edo mendearen hartzea

Kondizioa: emakumeen esperientziarekin zerikusi zuzena duen kontzeptua: zer lan mota egiten duten, harentzat eta familiarentzat zer premia atzematen dituen eta abar.

IIE: Ingurumen-inpaktuko ebaluazioa.

Ahalduntzea: prazesua, pertsonak aurrera daramatena gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta gizarte-talde gisa duten protagonismoa indartzeko, bizi diren egoeretan aldaketa positiboak bultzatzeko asmoarekin. Ahalduntzea talde kaltebera edo baztertu guztiei aplikatu dakieke, baina emakumeen kolektiboari erantzuteko sortu zen, eta emakumeen arloan izan du garapen teoriko handiena

GG ikuspegia¹⁵: Garapen-ikuspegia, emakumeek gizonen aldean duten posizioa hobetu nahi duena gizarte osoaren mesederako eta gizarte osoa eraldatzeko

Etnozentrismoa: gainerako kulturak edo gizarteak norberaren kulturaren parametroetatik aztertzea, norberarena kultura nagusia dela aintzat hartuta.

GSLF: Eusko Jaurlaritzaren Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Funtsa

Talde kalteberak: pertsona kolektiboak, beren kondizioengatik (sozialak, ekonomikoak, etnikoak, psikologikoak, erlijiozkoak, politikoak, sexualak, linguistikoak edo bestelakoak) gizarte-bizitzan eskubide osoarekin parte hartzeko zailtasun espezifikoak pairatu behar dituztenak.

Interes estrategikoak: generoaren arteko nagusitasun- edo mendekotasun-harremanak aztertzeetik eratorzen dira, eta gizartearen antolamendu berdintasunezkoago batekin zerikusia duten hainbat jomugaren adierazgarri dira.

Gutxiengoa: pertsona taldea, bereizgarri jakin batzuk izaki gehiengoa duten taldetik bereizten direnak. Talde batek gutxiengoa duela ezartzen duten parametroek ez dute zertan zenbakizkoak izan, litekeelako kolektibo horiek kide kopuru handia edukitzea, baina, hala ere, gizarte-bizitzan oso eragin urria

¹⁵ De la Cruz, Carmen: *Guía metodológica para integrar la perspectiva de género en proyectos y programas de desarrollo*, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia (Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza), 1998.

izatea arrazoi politiko, sozial, etniko, ideologiko, erlijiozko edo sexualengatik edo beste edozein arrazoi dela medio (dalit kasta Indian edo indigenak Bolivian, esaterako).

Premia praktikoak¹⁶: testuingurujakin batean emakume eta gizonak dituzten premia nagusiak. Premia horiek betetzeak ez du zalantzan jartzen lanaren sexu-banaketa edo emakumeek gizartean duten mendeko eginkizuna.

Posizioa: emakumeek gizonen aldean duten maila soziala eta ekonomikoa da. **Pobreziaren** eta indarkeriarako kalteberatasunean, ordainpeko lana lortzeko aukeretan, soldata-desbaldintasunetan edo botereko instantzia eta mailetan parte hartzean neur daiteke.

Produktzio-lana: ondasunak eta zerbitzuak produzitzeko zereginak, ordainsari bat –ekonomikoa, norma-lean– lortzeko aukera ematen dutenak eta etxetik kanpo egiten direnak.

Lan erreproduktiboa¹⁷: etxearen eta familiako kideen zaintza eta mantenua, haurduntza; haurrak, zaharrak, gaixoak edo ezinduak zaintzea; janaria prestatzea; ura biltzea; etxea administratzea; eta osasuna zaintzea barne.

Kalteberatasuna¹⁸: egoera multzoa, pertsonen bizitzarako eta gaitasunetarako mehatxuak dakartzatzenak, gizarte- eta ekonomia-segurtasun eta giza duintasun minimo batzuekin erabat garatzea galarazten dieten neurrian.

Eraldaketa eremu subjektuak¹⁹: kolektibo batetik sortutako erakundeak dira. Euren burua ordezkatzuz, eta kolektibo horretako kide direla jakinda, zenbait eskubide defendatzen dituzte eta ekimen alternatiboak proposatzen dituzte, agenda propio baten arabera; agenda horren bitartez, kolektibo osoa biltzeko asmoa izan ohi dute pertsona horiek, baita beste subjektu batzuekin antolatzekoa ere.

Herri-hezkuntza²⁰: ikuspegi bat, hezkuntza prozesu parte-hartzaile eta eraldatzaile hartzen duena; prozesu horretan, ikaskuntza eta kontzeptualizazioa pertsona eta taldeen esperientzia praktikoan oinarritzen dira. Hasteko, parte-hartzaileak jabetu behar dira beren bizitzak baldintzatzen dituzten faktore eta egiturez, eta horiek ulertu behar dituzte. Hortik abiatuta, ikuspegi horrek estrategia, trebetasun eta teknika jakin batzuk garatzen lagundu nahi die, parte-hartzearen bidez errealitatea eraldatzeko gauza izan daitezkeen.

¹⁶ De la Cruz, Carmen. *Guía metodológica para integrar la perspectiva de género en proyectos y programas de desarrollo*, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia (Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza), 1998.

¹⁷ López Méndez, I eta Sierra Leguina Beatriz: *Integrando el Análisis de Género en el Desarrollo*, IUDC/UCM-AECI, Madril, 2000.

¹⁸ Gómez Galán, M.; Sainz Ollero, H.: *El ciclo del proyecto de cooperación al desarrollo: el marco lógico en programas y proyectos: de la identificación a la evaluación*, CIDEAL, Madril, 2006.

¹⁹ Guatemalan Garapen Lankidetzaren Sustatzeko Euskal Estrategia. Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza.

²⁰ Marlen Eizagirrek eman du definizio hori honako hiztegi honetan: *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Pérez de Armiño, Karlos (zuz.). Hegoa, Icaria, 2000.

Bibliografia

Alcalde González-Torres, Ana; López Méndez, Irene. *Guía práctica para la integración de la igualdad entre mujeres y hombres en los proyectos de la Cooperación Española*, Kanpo Arazoetako Ministerioa, Nazioarteko Lankidetzarako eta Iberoamerikarako Estatu Idazkaritza, 2004.

Cámara L eta Gómez Galán, *Orientaciones para la aplicación del enfoque del marco lógico. Errores frecuentes y sugerencias para evitarlos*, CIDEAL, Madril, 2003.

De la Cruz, Carmen. *Guía metodológica para integrar la perspectiva de género en proyectos y programas de desarrollo*, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundea eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia (Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza), 1998.

Garapenerako Lankidetzarako Plan Estrategikoa eta Zuzentzailea 2008-2011, Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Gómez Galán, M. eta Sainz Ollero, H. *El ciclo del proyecto de cooperación al desarrollo: el marco lógico en programas y proyectos: de la identificación a la evaluación*, CIDEAL, Madril, 2006

López Méndez, Irene eta Sierra Leguina Beatriz. *Integrando el Análisis de Género en el Desarrollo*, IUDC/UCM-AECI, Madril, 2000.

Manual Gestión del Ciclo de un Proyecto. Enfoque Integrado y Marco Lógico in "Métodos e instrumentos para la gestión del ciclo de un proyecto" saila, Europako Erkidegoen Batzordea.

Manual de Gestión de Evaluaciones de la Cooperación Española, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa 2007, Nazioarteko Lankidetzako Estatu Idazkaritza, Garapenerako Politiken Plangintzarako eta Ebaluaziorako Zuzendaritza Nagusia.

Manual para proyectos: Por qué y cómo utilizar indicadores de género, Emakumearen Zerbitzu Nazionala, Kanadako Nazioarteko Garapenerako Agentzia, Txileko Santiago, 1998.

Metodología de Evaluación de la Cooperación Española I, Garapenerako eta Lankidetzarako Unibertsitate Institutua, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, Plangintzarako eta Ebaluaziorako Bulegoa MAE-SECIPI, 1998.

Metodología de Evaluación de la Cooperación Española II, Kanpo Arazoetako Ministerioa, Nazioarteko Lankidetzarako eta Iberoamerikarako Estatu Idazkaritza, 2001.

Murguialday, Clara; Vázquez, Norma. *Un paso más: evaluación del impacto de género*. Cooperació, 2005.

Pérez de Armiño, Karlos (zuz.), *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*, Hegoa, Icaria, 2000.

Eranskinak

A.I. Proiektuaren adibide-enuntziatua

La Esperanza

La Esperanza hiru mila biztanleko udalerri bat da, hiru hirigunetan eta urrundutako auzo batzuetan banatzen dena. Igarobide garrantzitsua da, hain zuzen ere bi departamenduko hiriburuen arteko bidearen erdian dagoelako. Askotan ibilgailuak gelditzen dira, hirigunetik gertu erregai-hornigailu txiki bat baitago.

Nekazaritza izan da tradizioz La Esperanzako biztanleen lanbidea. Finka txikietan landatzen da, eta autokontsumorako elikagaiak eta soberakin batzuk ekoizten dira, eta soberakinak bitartekariari saltzen zaizkie merkatu nazionalerako. Produktuak eraldaketarik gabe merkaturatzen dira, eta, beraz, ez die balio erantsirik eragiten.

Bai emakumeek bai gizonek nekazaritza-lanak egiten dituzte, nahiz eta lur guztien jabeak gizonek diren.

Soberakinak erosten dituzten nekazaritza-bitartekariak oso prezio baxuak ezartzen dituzte, eta, beraz, produktu horien salmentak diru-sarrerara gutxi ekartzen dizkie nekazaritza-ekoizleei. Ez dituzte beste salmenta-aukera batzuk, salgaien garraio indibiduala hirietara oso garestia delako.

Ingurumena hondatuta dago, lurrak pobretu egin dira azken urte hauetan, iraunkorrak ez diren ne-

kazaritza-teknikak erabiltzeagatik, eta horren ondorioz, produktibitatea oso baxua da. Tradizioagatik eta tokiko labore egokiak ez ezagutzeagatik, oso mota gutxi ekoizten dira.

La Esperanzako biztanleria ia soilik ekoizten duenarekin elikatzen da eta soberakinaren salmentak ez du behar adina diru-sarrera ematen dieta osatzen duten produktuak erosteko, eta, beraz, elikadura ez da oso aberatsa. Horrek desnutrizio-indize altuak eragiten ditu.

La Esperanzako emakumeek beren gain hartzen dute etxearren, haurren, gaixoen edo zaharren zaintza eta elikagaien prestakuntza. La Esperanza egurrezko sukaldeak erabiltzen dira, etxebizitzaren barruan kokatuak. Sukaldeak sortzen duen keak familiako kide guztiak kaltetzen ditu, baina emakumeak bereziki, askoz gehiago egoten baitira kearen eraginpean. Horrek arnas gaixotasunen intzidentzia handia eragiten du biztanlerian.

Horretaz gain, egurrezko sukaldearekin lotutako erreduren eta bestelako etxeko istripuen kasu asko gertatzen dira. Hala eta guztiz ere, egurrezko sukaldeen kalteak ez dira lehentasunezko arazo gisa hauteman, eta biztanleriak ez ditu beste sistema batzuk ezagutzen.

Era berean, sukalde horiek erabiltzeko behar den egurra lortzeko zuhaitz gehiegi moztu behar

izateak ingurumenean dituen ondorioak ez dituzten ezagutzen: baso-soiltzea, biodibertsitatea galtzea, kutsadura, etab. Gainera, atzerriko egur-enpresa baten ekintzaren ondorioz ingurumen-narriadura larriagoa da, hain zuzen ere enpresa horrek urtero hainbat zuhaitz-mozketa egiten baititu inguruneetan.

La Esperanzako biztanleriaren prestakuntza-maila baxua da, oso pertsona gutxi bukatzen baitute oinarrizko ikasketa-zikloa. Eskola hirigunean dago, eta, beraz, urruneko inguruetako haurrek ordu asko ibili behar dute iristeko. Eskola uztea nesken artean askoz gehiago gertatzen dela kontuan hartuta, analfabetismoaren indizea emakumeen artean oso handia da. Prestakuntza-maila ertaina lortzen dutenek askotan La Esperanza uztea erabakitzen dute, beste aukera batzuen bila joateko.

Eskolan ematen den hezkuntzak gobernu zentralak markatutako curriculumari erantzuten dio, eta ez dago biztanleriaren kultura- eta hezkuntza-arloko errealitatera egokituta. Era berean, nekazaritza-produkzioaren hobekuntzarekin lotutako ezagutzak ez dira barnean hartzen, eta ez da nutrizio egoki baten garrantzia aztertzen.

Hortaz, La Esperanzako biztanleria ez dago kontzientziatua nutrizioaren garrantziari eta osasunarekin duen zuzeneko harremanari dagokionez, eta elikadura egoki bat planifikatzeko beharrezkoak diren ezagutzak ez ditu.

La Esperanza jasotako desnutrizio-indizeen ondorioz, eta etxeko ohitura ez oso osasungarrien ondoriozko arnas gaixotasunen intzidentzia handiaren ondorioz, bizi-itxaropena batez besteko nazionaletik hainbat puntu behera dago.

La Esperanza Osasun Zentro bat dago, baina oso langile gutxi daude eta prestakuntza baxua dute, eta, beraz, osasun-laguntza urria da. Udaleko agintariek ez dute osasuneko arretarako plan espezifiko bat, biztanleriaren eskaerak jasotzeko mekanismo egokiak ez baitituzte ezarri.

La Esperanzako gizonak eta emakumeek gizarte- eta politika-arloko antolakuntza-maila altua dute. Duela bost urte baino gehiago talde txikietan antolatzen hasi ziren, udalerriari Osasun Zentroan sanitario gehiago eta eskolan irakasle gehiago jartzea aldarrikatzeko. Alkatetzarekin harremana beti urruna eta tirabiratsua izan zen, eta biztanleriak egiten zituen eskaera garrantzitsuenak, osasunarekin eta hezkuntzarekin lotutakoak, ez ziren udalerriko plan operatiboetan barne hartzen. Azken bi urteetan, biztanleria antolatua antolamendu-prozesu luzeagoa duen gertuko inguru bateko beste gizarte-mugimendu batekin koordinatu da. Horrek aukera eman die aldarikapen komunitararako elkartzea, eta politika- eta antolamendu-arloko gaitasunak indartu ditu. Azken hauteskundeetan alkate berri bat hautatu dute; udalerriko bizilaguna, eta La Esperanzako biztanle guztien konfiantza dauka.

Talde antolatu horrek Pueblo izena du, eta gizonak nahiz emakumeek osatzen dute. Gehienak gizonak dira, baina emakumeen partaidetza geroz eta handiagoa da, eta emakume taldeak sortzen ari dira. Era berean, ingurumen-talde bat ere sortuko da, La Esperanzako arazoak aztertzeko eta beste erakunde batzuekin koordinatuta egur-enpresaren baso-mozketaren aurka mobilizatzeko.

A.II. Xede-biztanleriaren profila

Taldeak		Kop.	Baliabideak		Jarduerak	Premiak
			Baliatzea	Kontrola		
Biztanleria heldua	€		Baliabide ekonomikoak Garraiobideak. Gune komunitarioak Lurra		Lan erreproduktiboa: etxea garbitu eta zaintzea, janariak prestatzea, haurrak, zaharrak eta gaixoak zaintzea Lan komunitarioa: bilera komunalak, lokal komunitarioak garbitu eta zaintzea, jaialdiak antolatzea	Produkzio-lana: Lan erreproduktiboetan laguntzea Baliabide ekonomikoen kontrola Erabakiak hartzeko ahalmena Aisialdia Prestakuntza Arreta sanitario egokia
	G		Garraiobideak	Nekazaritza-produkzioarako erremintak Lurra Aisialdia Baliabide ekonomikoak Gune komunitarioak	Produkzio-lana: nekazaritza-produkzioa Lan komunitarioa: bilera komunalak	Prestakuntza Arreta sanitario egokia

Taldeak	Kop.	Baliabideak		Jarduerak	Premiak
		Baliatzea	Kontrola		
Haur-biztanleria	€	Aisialdia		Anai-arreba gazteak zaintzea Eskolara joatea	Eskolara joateko prest egotea Prestakuntza-maila handiagoa. Eskolan denbora gehiago egotea Arreta sanitario egokia
	G	Aisialdia		Nekazaritza-lanetan laguntzea Eskolara joatea	Eskolara joateko prest egotea Prestakuntza-maila handiagoa. Arreta sanitario egokia
Zaharrek	€	Aisialdia Gune komunitarioak		Lan erreproduktiboa: etxea garbitu eta zaintzea, janariak prestatzea Lan komunitarioa: lokal komunitarioak zaintzea, bilera komunalak	Arreta sanitario egokia
	G		Aisialdia Gune komunitarioak	Lan komunitarioa: bilera komunalak	Arreta sanitario egokia
Biztanleria antolatua	€	Erabakiak hartzea Lehentasunezko premiak definitzea			
	G	Erabakiak hartzea	Lehentasunezko premiak definitzea		

Taldeak		Kop.	Baliabideak		Jarduerak	Premiak
			Baliatzea	Kontrola		
Herriko agintariak	€					
	G			Erabakiak hartzea Baliabide publikoak	Produkzio-lana: udal- kudeaketa Lan komunitarioa: bilera komunalak	Arreta sanitario egokia
Nekazaritza-bitartekariak	M					
	G			Garraiobideak. Nekazaritza- produktuen prezioak	Produkzio-lana: produktuen salerosketa Lan komunitarioa: nekazaritzako bilera komunalak	Arreta sanitario egokia
Ezinduak	€					
	G					
Pertsonal sanitarioa	€					Lanerako gaikuntza egokia Ekipamendu profesionala Lguntzaileak:
	G					

A.III. Arazoen zuhaitza

Udalerriko biztanleriaren bizi-itzaropena bereziki laburra da					
Desnutrizio-maila altuak,					
Barne-produkzioak ez du oinarritzko dietarik bermatzen					
Nekazaritza-produkzioa dibertsifikazio txikikoa da	Lurraren produktibitate baxua				
Bertako laborantza alternatiboen berri ez jakitea	Eraginkotasun baxuko eta iraunkorrak ez diren laborantza-teknikak erabiltzea	Lur pobretua erabilera intentsiboagatik	Lurak, haziak eta obar zaintzeko emakumeek dituzten ezagutza tradizionalak eta iraunkorrak ez dira baloratzen	Atzerriko egur-enpresak zuhaitzen mozketa masiboa egin du	
Arnas gaixotasunen eragin handia,					
Etxeko ohitura gutxi osasungarriak					
Biztanleriaren kualifikazio-maila oso baxua da			Etxebizitzetan egur-sukaldeak erabiltzen dira		
Oinarritzko ikasketak amaitzeko indizea oso baxua da	Hezkuntza-curriculumak ez dago testuinguruaren kultura- eta hizkuntza-errealitatearen egokitatea	Emakumeen kolektiboak analfabetismo-indize handiena du	Elkagaien prestaketa emakumeei egokitzen zaien zeregina da	Zur-sukaldea erabiltzeak emakumeen osasunerako dituen kalteak ez dira ezagutzen	Zur-sukaldeentzako alternatibak ez dira ezagutzen
Mutikoek nekazaritza-zereginetan laguntzen dute eta neskek zeregin erreproduktiboetan	Escola urruti dago eta ez dago garraiorik	Hezkuntza-politikak oso zentralizatuta daude	Neskatik mutikoek baino urte gutxiago ematen dituzte eskolatuta	Emakumeak ez daude beren eskubide espezifikoak defendatzeko antolatuta	

herrialdekoaren batez bestekoarekin alderatuta							
batez ere emakumeen kasuan							
Diru-sarrera pertsonalak oso baxuak dira				Biztanleriak ez du nutrizioari buruzko oinarritzko ezagutzarik			
Nekazariak beren produktuengatik jasotzen dituzten prezioak oso baxuak dira	Diru-sarreraren iturri alternatibo guxxi daude			Biztanleriaren kualifikazio-maila oso baxua da		Biztanleria ez da kontzientziatua nutrizioaren eta osasunaren arteko harremanaren inguruan	
Bitartekariak produktuen prezioak finkatzen dituzte	Tradizioak biztanleria orientatzen du nekazaritzan aritzeko	Emakumeek nekazaritzan egiten dute lan eta ez dituzte diru-sarrerarik jasotzen	Nekazaritza-produktuak balio erantsirik gabe saltzen dira	Eskolatze-indizea oso baxua da, bereziki emakumeen indizea	Prestakuntza-maila handiagoa duten pertsonak la Esperanzatik joan egiten dira	Ez dira nutrizioari buruko edukiak sartzen hezkuntzan, ezta gaikuntza ez-formaletan ere.	

batez ere emakumeen artean		
Osasun-arreta eta -asistentzia eskasa		
Osasun-zentroa ez dago behar bezala ekipatuta	Osasun-zentroko langileak ez dira nahikoak eta ez dute kualifikazio egokia	Ezinduen eta beste talde kalteberen premia espezifikoak ez dira aintzat hartzen
	Tokiko agintariak ez dute plan espezifikorik ingurunean osasunerako arreta hobetzeko	
	Ez dago adostutako partaidetza-espaziorik biztanleria antolatua, hau da emakumeek eta gizonek tokiko agintariei beren eskaerak adierazteko	

A.IV. Helburuen zuhaitza

Biztanleriaren bizi-itzaropena herrialdekoaren						
Biztanleriaren desnutrizio-mailak murrizten dira,						
Barne-produkzioak oinarritzko dieta bat bermatzen du						
Nekazaritza-produkzioa dibertsifikatzen da		Lurraren produktibitateak hobera egin du				
Nekazariak bertako laborantza mota berriak ezagutzen dituzte		Laborantza-teknika eraginkorrak eta iraunkorrak gehitu dira	Lurraren kalitatea hobetzen duten teknikak erabiltzen dira	Lurak, haziak eta abar zaintzeko emakumeek dituzten ezagutza tradizionalak eta iraunkorrak balioesten dira	Atzerriko zur-enpresak zuhaitzen mozketa masiboa murriztu du	
Arras gaixotasunen eraginak behera egin du,						
Etxeko ohitura osasungarriagoak						
Biztanleriaren kualifikazio-mailak hobera egin du				Etxebizitzetan sukalde hobetuak sartzen dira		
Oinarritzko ikasketak amaitzeko indizea oso baxua da		Proposamenak egiten dira hezkuntza-curriculumak komunitatearen kultura- eta hizkuntza-errealitatara egokitzeko	Analfabetismo-indizeak behera egin du emakumeen artean	Elkagaien prestaketa familia osoaren ardura gisa hartzen da	Zur-sukaldea erabiltzeak emakumeen osasunerako dituen kalteak ezagutzen dira	Zur-sukaldeentzak o alternatibak ezagutzen dira
Gurasoak kontzientziatzen dira haurren hezkuntzaren garrantziaren inguruan	Eskola-garaiaren sistema bat antolatzen da	Hezkuntza-politikak oso zentralizatuta daude	Nesken batez besteko eskolatzaldia gora egin du	Emakumeak antolatuta daude eta beren eskubide espezifikoak defendatzen dituzte		

batez bestekoarekin parekatzen da								
batez ere emakumeen kasuan								
	Familiaren diru-sarrerak handiagotzen dira				Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan			
	Nekazarien diru-sarreak gora egin dute beren produktuak saltzeagatik	Komunitatean diru-sarreraren iturri alternatiboak sortu dira			Biztanleriaren prestakuntza-mailak hobera egin du		Biztanleria nutrizioaren eta osasunaren arteko harremanaren inguruan kontzientziatu da	
	Antolatutako produktoreek produktuen prezioak markatzen dituzte	Alternatiba produktiboak maitxan jartzen dira	Emakumeen diru-sarrerak eskuratzen dituzte beren nekazaritza-lanagatik	Nekazaritza-produkzioaren zati bati balio erantsia gehitzen zaio	Oinarrizko ikasketak amaitzeko indizeak gora egin du, batez ere emakumeen indizeak		Ikasketak izan eta udalerritik joaten diren pertsonen kopuruak behera egin du	Nutrizioaren arloko trebakuntzak ematen dira eta hezkuntza formalean nutrizioari buruzko edukiak gehitzeko proposamenak egiten dira
					Gurasoak kontzientziatzen dira haurren hezkuntzaren garrantziaren inguruan	Eskola-garraioren sistema bat antolatzen da		
batez ere emakumeen artean								
Osasun-arretak eta –asistentziak hobera egin du								
	Osasun-zentroak ekipamendu egokia du	Zentroko langileak gaitzen dira eta laguntzeko langileak sartzen dira		Ezinduen eta talde kalteberenen premiak Zentroaren jardun-protokoloan barne hartuta daude				
	Tokiko agintariek ekintzak planifikatzen dituzte ingurunean osasunerako arreta hobetzeko							
	Biztanleria antolatutak, gizonak eta emakumeak, udal-agintariekin adostutako espazioetan parte hartzen du							

A.V. Plangintzako ideia nagusia

Laburpen narratiboa	Adierazleak	Egiaztatze-iturriak	Hipotesia
Helburu orokorra	Ez dagokio		
Udalerriko biztanleriaren bizi-itxaropena herrialdekoaren batez bestekoarekin parekatzen da.			
Helburu espezifikoa	1.IH€: Proiektua amaitutakoan, Osasun Zentroan erregistratutako desnutrizio-kasuak % 50 jaisten dira mutikoetan eta % 75 neskatiletan. 2.IH€: Proiektua amaitutakoan, desnutrizioarekin erlazionatutako kontuak direla-eta Osasun Zentrora egiten diren bisitak % 50 murriztu dira gizonen kasuan eta % 75 emakumeen kasuan.	Osasun Zentroan arreta eman zaien kasuen erregistroa. Biztanleriaren Urteko Errolda Medikoa.	Uzten aldeko klima dago.
Emaitzak	1.1. IH€: Proiektuaren egikaritzapenaren leh.enengo urtean, 150 gizon nekazariri eta 75 emakume nekazariri gaitasuna eman zaie laborantza-teknika iraunkorretan, bertako kultibo alternatiboetan eta teknika tradizionaletan. 1.2. IH€: Proiektuaren egikaritzapenaren lehenengo urtean, gaitutako gizonak eta emakumeek gutxienez bertako 2 fruta mota berri eta 2 barazki mota berri sartu zituzten norberaren kontsumorako beren produkzioan. 1.3. IH€: Proiektua amaitutakoan, nekazaritzara bideratutako lurretako emakume titularren kopurua % 30 igo da. 1.4. IH€: Proiektua amaitutakoan zurenpresak mozketara murrizteko konpromiso bat sinatu du.	Produkzioen jarraipena.	Bertako barazki eta fruta berriei harrera ona egin die biztanleriak horiek kontsumitzeko. Nazioarteko merkatuek soberakin gisa saltzen diren produktuen prezioak mantentzen dituzte.

Laburpen narratiboa	Adierazleak	Egiaztatze-iturriak	Hipotesia
Emaitzak			
2. €. Diru-sarrera pertsonalak gehitzen dira.	2.1 IHE: Proiektuak urtebete egin ondoren, udalerrian nekazarien erakunde bat dago. Proiektua amaitutakoan, erakundea osatzen duten emakumeen kopurua % 40 da, 2.3 IHE: Emakume eta gizon nekazariak % 5 gehiago irabaztea lortzen dute beren produktu-salmentagatik proiektuaren egikaritzapenaren lehenengo urtearen ondoren eta % 30 gehiago amaitutakoan. 2.3 IHE: Proiektua amaitutakoan, pertsonen % 70ek diru-sarreraren iturri alternatiboak onurak ateratzen dizkiete.	Nekazarien erakundearen erregistroa eta kide-zerrenda. Inplikaturako biztanlerian sartzeari buruzko inkestak. Elkarriketak emakume nekazariak.	
3. €. Biztanleriak gaitasuna du nutrizioaren arloan.	3.1 IHE: Proiektuaren egikaritzapenaren lehenengo urtearen ondoren, gutxienez biztanleria helduaren % 75ek nutrizio-tailer batean parte hartu du. 3.2 IHE: Nutrizio-tailerretara bertaratu diren pertsonen % 50 gizonak dira. 3.3 IHE: Nutrizio-tailerrek emakumeen eta gizonen nutrizio-premia espezifikoak buruzko edukiak gehitzen dituzte. 3.4 IHE: Proiektua amaitutakoan, proiektuan inplikaturako pertsonak beren diru-sarreraren % 20 erabiltzen dute elikagai alternatiboak erosteko.	Nutrizioan gaitzeko tailerretara bertaratu izanaren erregistroa. Inplikaturako biztanlerian sartzeari buruzko inkestak.	

Laburpen narratiboa	Adierazleak	Egiaztatze-iturriak	Hipotesia
Actividades	Baliabideak	Kostuak	
1.1 J. Gizon eta emakume nekazariak honako gai hauen inguruan gaitzeko 3 tailer: - Bertako laborantza mota berriak. - Produkzioko teknika iraunkorrak. - Produktibitatea hobetzeko teknikak. - Produkzioko teknika tradizionalak. - Merkaturatzea. - Kudeaketa eta plangintza ekonomikoa.			
1.2 J. Nekazaritza-tresnak eta inputak erostea.			
1.3 J. Pertsonalizatutako produkzio-planak egitea.			
1.4 J. Produkzio-planen jarraipena.			
1.5 J. Salaketa- eta gorabehera-batzorde bat sortzea zur-enpresaren jardueretan.			
2.1 J. Udalerria osatzen duten komunitateetako emakume eta gizon produktoreak elkartuko dituen erakunde bat sortzea.			
2.2 J. Merkatu-azterketa bat egitea ekonomia- eta produkzio-jarduera alternatiboen inguruan.			
2.3 J. Bilaketa-zentro baten egokitzapena.			
2.4 J. Nekazaritza-produktuak saltzen dituzten erakundeekin hitzarmen bat ezartzea.			
2.5 J. Udalerrian janari- eta alojamendu-zerbitzu bat martxan jartzea.			

Laburpen narratiboa	Adierazleak	Egiaztatze-iturriak	Hipotesia
Jarduerak	Baliabideak	Kostuak	
2.6 J. Ontziratze-sistema bat sortzea produktuak baldintza hobekoetan mantentzeko.			
2.7 J. Labore organikoen produkzioaren % 30 hirian saltzeko erabiltzea.			
3.1 J. Haurrak eskolara eramateko sistema bat antolatzea.			
3.2 J. Gurasoak beren haurrentzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.			
3.3. J. Gurasoak neskatilentzako hezkuntzaren garrantziaren inguruan kontzientziatzeko 2 tailer.			
3.4 J. Lanbide-heziketako zentro bat abian jartzea, honako alor hauetan gaitasuna duten eta oinarritzko azterketak bukatu dituzten gazteentzat: - igeltserotza eta zurgintza. - ostalaritza. - nekazaritza-produktuak merkaturatzeko teknikak.			
3.5 J. Langileak eskatzen dituztenak eta lana bilatzen dutenak harremanetan jarriko dituen lan-poltsa bat egitea udalerrian.			
3.6 J. Gizonak eta emakumeak nutrizioaren eta osasunaren inguruan gaitzeko 3 tailer.			
3.7 J. Proposamen-dokumentu bat egitea hezkuntza formalean nutrizioari buruzko edukiak gehitzeko.			

